

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN ERABILERA PUBLIKOA DUTEN ERAIKINEN IRISGARRITASUNA





EUSKAL AUTONOMIA
ERKIDEGOAN ERABILERA
PUBLIKOA DUTEN ERAIKINEN
IRISGARRITASUNA

Arartekoak Legebiltzarrari egindako txosten berezia

SIIS - Centro de Documentación y Estudios

Arartekoaren aldetik:

Mercedes Agúndez, Faustino López de Foronda, Valentín Martínez-Acha, Fermín Barceló,
Iñaki Atxukarro, Iosune Etxeberria, Nieves Oca, Amaia Pagola.

© ARARTEKO

Fotokonposaketa eta inprimaketa: Gráficas Santamaría, S.A.

Azaleko irudia: *Niña en la ventana, hacia 1920*. Arteta Errasti, Aurelio.

Taula bati itsatsitako mihisea. 66,2 x 60,8 cm.

Irudiaren ©: Bilboko Arte Eder Museoa, S.A.

Itzulpena: Hori Hori, S.A.L.

Paper ekologikoa.

L.G: VI-316/03



EUSKAL AUTONOMIA
ERKIDEGOAN ERABILERA
PUBLIKOA DUTEN ERAIKINEN
IRISGARRITASUNA

AURKIBIDE OROKORRA

Taula eta koadroen aurkibidea	11
Txostenaren aurkezpena	17
I. KAPITULUA. Sarrera: txostenaren helburua, eremua, metodologia eta egitura	25
1. Helburua eta eremua	27
2. Txostenaren edukiak eta egitura	25
3. Metodologia	26
3.1. Eremu juridikoa ikertzeko erabilitako metodologia	26
3.2. Irisgarritasunaren eremuko esku-hartze publikoak ikertzeko erabilitako metodologia	27
3.3. Eraikin publikoen irisgarritasuna egiaztatzeko erabilitako metodologia ...	27

LEHENENGO ZATIA. AZTERKETA JURIDIKOA

II. KAPITULUA. Eremu juridiko-kontzeptuzkoa	31
III. KAPITULUA. Arauzko eremua	37
1. Nazioarteko arauzko eremua	39
1.1. Nazio Batuen ekimenak	39
1.2. Europako Batzordearen ekimenak	41
1.3. Europar Batasuna	42
1.4. Nazioarteko beste tresna batzuk	43
2. Estatuko araudia	44
3. EAEko araudia	46
3.1. Arauzko aurrekariak	46
3.2. Indarreko araudia	47
4. Eskumenak	48
5. Eraikinen irisgarritasunaren arloan EAEn indarrean dagoen araudiaren azterketa	50
5.1. Legearen helburua	50
5.2. Eraikinen inguruko irisgarritasunaren baldintzak	50

5.3. Erreserbak	53
5.4. Sustapen neurriak	55
5.5. Aurretiazko kontrol neurriak	56
5.6. Zehapen araubidea	57
6. Erabilera publikoa duen eraikinen inguruko irisgarritasunaren oinarriko elementuak. Konparazio azterketa	60

BIGARREN ZATIA. EAEko EGOERAREN AZTERKETA

IV. KAPITULUA. EAEko udalerrietako eraikin publikoen irisgarritasuna	83
1. Sarrera eta metodologia	85
2. Irisgarritasuna sustatzeko politika aktiboak	87
2.1. Irisgarritasuna sustatzeko lau urterako programak	88
2.2. Irisgarritasuna sustatzeko prestazioak eta diru-laguntzak	91
2.3. Irisgarritasuna sustatzeko beste neurri batzuk	93
3. Erabilera publikoko eraikinak berritzeko eta eraikitze obren jarraipena eta kontrola	95
3.1. Erabilera edo zerbitzu publikoa duten eraikinak eta lokalak berritzeko obrak	96
3.2. Erabilera edo zerbitzu publikoa duten eraikuntza berriko eraikinak eta lokalak	98
4. Udaleko zerbitzu publikoetako irisgarritasuna	101
4.1. Udaleko zerbitzu publikoetako irisgarritasuna mugikortasunaren ikuspegitik	101
4.2. Udal bakoitzak 20/97 Legea onetsi zenetik hartutako neurriak eta udal egoitzak hobetzeko aurreikusitako proiektuak	107
4.3. Irisgarritasunaren arloan udaletan egindako beste jarduera batzuk	109

V. KAPITULUA. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiek irisgarritasuna kontrolatzeko eta sustatzeko dituzten politikak	111
1. Sarrera eta metodologia	113
2. Foru aldundiek irisgarritasuna sustatzeko dituzten politika aktiboak	114
2.1. Irisgarritasunerako lau urteko planak	115
2.2. Finantza neurriak: banakako laguntzak, diru-laguntzak eta zerga-desgrabazioak	115
2.3. Aldundiek irisgarritasuna sustatzeko egindako ahalegin ekonomikoa	122
2.4. Irisgarritasuna ikuskatzeko eta kontrolatzeko arduerak	124
2.5. Irisgarritasuna hobetzeko beste jarduera batzuk	127
3. Foru egoitzetan irisgarritasuna kontrolatzeko eta hobetzeko mekanismoak	128
3.1. Irisgarritasunaren inguruko erantzukizunak	129

3.2. Irisgarritasunari lotutako arazoan diagnostikoa eta azterketa egiteko mekanismoak	129
3.3. Foru aldundiek irisgarritasuna hobetzeko egindako beste jarduera batzuk	130
4. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru aldundietako egoitzen irisgarritasuna	131
4.1. Sarrera eta metodologia	131
4.2. Aztertutako egoitzak	132
4.3. Hiru aldundietako egoitzen irisgarritasunaren balorazioa	134
4.4. Ondorioak	136
IV. KAPITULUA. Eusko Jaurlaritzako Sailen irisgarritasuna kontrolatzeko eta sustatzeko politikak	137
1. Sarrera eta metodologia	139
2. Eusko Jaurlaritzako sailen irisgarritasunaren sustapena eta kontrola	140
2.1. Sarrera eta metodologia	140
2.2. Egoeraren azterketa eta diagnostikorako nahiz planifikaziorako tresnak	142
2.3. Sail bakoitzak irisgarritasuna sustatzeko abiatu dituen politika aktiboak	149
2.4. Sail bakoitzeko egoitzetako irisgarritasunaren antolaketa, ikuskapena eta kontrola	157
3. EAEko Administrazio Autonomikoaren egoitzen irisgarritasuna	163
3.1. Sarrera eta metodologia	163
3.2. Azterturiko egoitzak	164
3.3. Egoitza autonomikoen irisgarritasunaren balorazioa	166
3.4. Ondorioak	168
Ondorioak	171
Gomendioak	175
1. Eranskina. Udal bulegoen irisgarritasun maila udalerriz udalerriz ... (ikus 197-501 orrialdeak beste aldean)	181
2. Eranskina. Irisgarritasuna sustatzeko politika aktiboak udalerriz udalerriz	183
3. Eranskina. Erreferentzia bibliografikoak eta arauzkoak	201

**TAULA ETA KOADROEN
AURKIBIDEA**

1. Koadroa.	Eraikinaren irisgarritasunaren arloan arauturiko elementuak	51
2. Koadroa.	Araudian eraikineko elementuen arabera ezarritako sargarritasun eta erabilgarritasun baldintzak	53
3. Koadroa.	Erreserben kupoak eta ezaugarriak eraikineko elementuen arabera	54
4. Koadroa.	Erabilera publikoa duen eraikitako inguruko irisgarritasunaren oinarrizko elementuak konparazio-koadroa	62
1. Taula.	Galdeketari erantzun dioten udalerriak, biztanle kopuruaren arabera	86
2. Taula.	Irisgarritasuna sustatzeko lau urterako programak	88
3. Taula.	Irisgarritasuna sustatzeko lau urterako programak, lurraldeen arabera	89
4. Taula.	Lau urterako planak, udalerrien biztanle kopuruaren arabera	89
5. Taula.	Irisgarritasuna sustatzeko lau urterako programak, eraginpeko biztanleriaren arabera	90
6. Taula.	Banakako laguntzen eskabidea, udalerrien neurriaren eta lurralde historikoaren arabera	92
7. Taula.	Udalek gizarte zerbitzuetan eta irisgarritasunean egindako gastua (%)	94
8. Taula.	Berrikuntza obretako irisgarritasunaren irizpideen betetze maila, udalerrri motaren arabera	97
9. Taula.	Berrikuntza-obrak betearazteko fase desberdinetarako giza baliabide erabilgarriak	97
10. Taula.	Udal-teknikariak ikuskapenak egiteko aldizkakotasuna	98
11. Taula.	Berrikuntza-obretako irisgarritasunaren irizpideak betetzeko maila, udalerrri motaren arabera	99
12. Taula.	Oinplano berriko eraikinen ikuskapenerako, kontrolerako eta segurtasunerako egindako lanak	100
13. Taula.	Langile gehiagoren beharrezana, udalerrri motaren arabera	100
14. Taula.	Irisgarritasun-politiken eraginkortasuna hobetzeko neurriak	101
15. Taula.	Irisgarritasun egokiko, ezegokiko eta mugatuko udal egoitzak, lurralde historikoen eta udalerrien neurrien arabera	104

16. Taula.	Irisgarritasun egokiko, ezegokiko eta mugatuko udal egoitzak, zerbitzu motaren arabera	104
17. Taula.	Hiriburuetako udal-eraikinen irisgarritasuna	105
18. Taula.	Irisgarritasun egokiko,ezegokiko eta mugatuko udal-egoitzak, zerbitzu motaren arabera (%)	106
19. Taula.	Balantze positiboa, negatiboa edo hala-holakoa egin duten udal-erriak, udal-egoitzetako irisgarritasunari dagokionez (%)	108
20. Taula.	Egoitza guztietan, gehienetan edo batzuetan seinaleztapen egoitua duten udal-erriak	110
5. Koadroa.	Irisgarritasun egokia sustatzeko banakako laguntza ekonomikoak ..	116
6. Koadroa.	Erakunde publikoei eta pribatuei irisgarritasun egokia sustatzeko emandako diru-laguntzak	117
7. Koadroa.	Irisgarritasuna sustatzeko zerga-laguntzak	119
21. Taula.	Irisgarritasuna sustatzeko finantza-neurriak, lurralde historikoen eta neurri motaren arabera	123
8. Koadroa.	Ikuskapeneko nahiz kontroleko jarduerak eta mekanismoak, irisgarritasunaren arloan	125
9. Koadroa.	Irisgarritasunari lotutako arazoan diagnostikoa eta azterketa egiteko mekanismoak	129
22. Taula.	Lurralde bakoitzean aztertutako egoitzak	133
23. Taula.	Aztertutako egoitzak, zerbitzu motaren arabera	133
24. Taula.	Irisgarritasunaren balorazioa lurraldeen arabera (%)	135
25. Taula.	Irisgarritasunaren balorazioa arloen arabera (%)	135
10. Koadroa.	Sail bakoitzari atxikitako egoitzen oraingo egoeraren balorazioa	142
26. Taula.	Irisgarritasunaren arloko beharizanen diagnostikorako eta azterketarako tresnak	148
11. Koadroa.	Sail bakoitzak irisgarritasunaren sustapenean egindako politika aktiboak: laguntzak eta araudia	150
12. Koadroa.	Irisgarritasuna sustatzeko beste jarduera batzuk	155
27. Taula.	Irisgarritasun egokia sustatzeko politika aktiboak, sailen arabera	156
13. Koadroa.	Lau urterako planak, ahalegin ekonomikoa eta ikuskapen-nahiz kontrol-neurriak	158
14. Koadroa.	Azken ikasturteetako ahalegin ekonomikoa	161
28. Taula.	Lau urterako planak, ahalegin ekonomikoa, ikuskapen-neurriak eta proiektuak, sailek aurreikusitakoak	162
29. Taula.	Lurralde bakoitzean azterturiko egoitzak	165
30. Taula.	Azterturiko egoitzak, zerbitzu motaren arabera	165
31. Taula.	Irisgarritasunaren egokitasunaren balorazioa, lurraldeka (%)	167
32. Taula.	Irisgarritasunaren egokitasunaren balorazioa, arloka (%)	167

TXOSTENAREN AURKEZPENA

Txosten honetan, Euskal Autonomia Erkidegoko erabilera publikoko eraikinen irisgarritasuna aztertzen da.

Elbarritasuna duten pertsonen eskubideek leku garrantzitsua dute Arartekoaren erakundearen jardueran, talde horren eskubideak murriztuta gera daitezkeelako, bizitzan aurkitzen dituzten era guztietako zailtasunen eraginez.

Jarduera desberdinen bitartez, Arartekoaren erakundeak elbarritasuna duten pertsonen bizi-baldintzak hobetu nahi ditu; gainera, diskriminaziorik ez jasateko eta gizarteratzeko duten eskubidea gauzatu egin nahi du..

Pertsona-talde horrek era askotako arazoak ditu: oztopo arkitektonikoak eta hirigintzakoak; garraibideen irisgarritasuna; etxebizitzarena; lanarena edo hezkuntzarena; teknologia berrien irisgarritasuna; zerga-neurria; sasoizko arreta; elbarritasun mailen balorazioa; laguntza teknikoak...

Hala eta guztiz ere, elbarritasuna duten pertsonekin nahiz horien familiakoekin egindako bileren eta izandako harremanen ostean, esan daiteke horien **kezka nagusiak** honako hauek direla:

- elbarritasuna duten pertsonen **lanerako irisgarritasuna**
- **hiri ingururako irisgarritasuna**, batez ere erabilera publikoa duten eraikinei dagokienez

Bi arazo nagusi horiek aztertu beharra egiaztatu ondoren, txosten bi hasi genituen, dagoeneko amaituta eta Eusko Legebiltzarrean aurkeztuta dauden txostenak, hain zuzen ere, “Elbarritasuna duten pertsonen Europako urtea” deritzonean; horren helburuetariko bat, izan ere, halako pertsonen aukera berdintasuna sustatzeko neurriei buruzko gogoeta eta eztabaida eragitea da.

2003ko ekainaren 4an, Elbarritasuna duten pertsonen laneratzea EAEn *izeneko txostena aurkeztu genuen Eusko Legebiltzarrean*.

Orain, Euskal Autonomia Erkidegoan erabilera publikoa duten eraikinen irisgarritasunari buruzko txosten hau aurkeztuko dugu.

Txostenaren helburua, bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoan irisgarritasunaren arloan egindako jarduera publikoak aztertzea da, Irisgarritasuna Sustatzeari buruzko 1997ko abenduaren 4ko Legean eta berori garatzeko araudian oinarrituz.

Horretarako, **udalek, foru aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak arlo honetan egindako jarduerak azaltzen dira. Emandako aurrerapausoak eta oraindik hartu behar diren neurri asko** adierazten dira.

Euskadiko Herri Administrazioek **irisgarritasuna kontrolatzeko eta sustatzeko gauzatu dituzten politiken ikerketa** zehatza egin da.

Elbarritasuna duten pertsonen zailtasunak, hala eta guztiz ere, ezin dira konpondu arauen bitartez eta herri administrazioen esku-hartzeen bidez soilik.

Oztoporik handienak, sarritan, pertsonen pentsaeran daude. Halaber, berezko oztopo fisikoak areagotzen dituzten ingurumen mailako eta gizarte diskriminazioari lotutako oztopo sakonak daude.

Zorionez, elbarritasuna duten pertsonen zailtasunen eta, hain zuzen ere, horien irisgarritasun-oztopoen tratamenduan bilakaera garrantzitsua egon da.

Gai hau euskarritzen duten gogoetek eta printzipioek, bestalde, integrazioaren aldeko eta diskriminazioaren aurkako ikuspegia dakarkigute.

Irisgarritasunari buruzko kontzeptualizazio aurreratuagoa, gainera, nahiko argi adierazita gelditu da txostenean.

Irisgarritasuna berdintasun-printzipioa zorrotz errespetatzearen ikuspegitik nola jorratu behar den adierazten duten bi kontzeptu nabarmendu nahi ditut.

- Diskriminazioaren aurkako lerro honen lorpenik handiena **“diseinu unibertsalaren”** kontzeptuaren teorizazioa da.

Irisgarritasuna komenigarria da pertsona guztientzat eta gizarte osoarentzat, eta ez elbarritasuna duten pertsonentzat bakarrik.

Gizarte osoa bertako kideen aniztasunera egokitu behar da, beharrezko aldaketa guztiak eginez, pertsona guztien erabateko partaidetza bermatzeko, euren bizitzaren arlo guztietan.

- Nabarmendu nahi dudana beste kontzeptu bat, txosten honen helburuan eragin zuzena duena, **“ibilbide irisgarriak”** deritzona da.

Ageri-agerikoa da eraikitako inguruaren irisgarritasuna estu lotuta dagoela hirigintzako irisgarritasunera, garraio bideen irisgarritasunera eta komunikazioko bideen irisgarritasunera.

Erabilera publikoko eraikin irisgarriak lortzeak ia ez du ezertarako balio, baldin eta elbarritasuna duten pertsonak etxetik irteteko, hiri-ingurutik ibiltzeko eta garraio bideetan sartzeko arazo larriak badituzte.

Elbarritasuna duten pertsonen errealitatearekiko edozein hurbiltze, nolana ere, **berdintasunaren aldeko eta diskriminazioaren aurkako eskubideen benetako aplikaziotik egin behar da.**

Hori dela eta, Madrilgo Adierazpenaren lema aipatu nahi dut, Europan elbarritasuna duten pertsonen buruz 2002ko martxoan egindako Biltzarrean erabakitakoa: Diskriminaziorik eza gehi ekintza positiboa berdin gizarteratzea.

Horri dagokionez, **herri administrazio guztiei dei egin behar zaie**, erabateko irisgarritasuna lortzeko behar diren neurriak har ditzaten.

Irisgarritasunaren arloan araudi nahiko bermatzailea dugula esan daiteke, lortu nahi diren helburuak kontuan hartuta.

Hala eta guztiz ere, oso etsigarria da herri administrazioek Irisgarritasuna Sustatzeari buruzko abenduaren 4ko **20/1997 Legean ezarritako tresnei dagokienez egiten duten erabilera oso urria.**

Politika horien euskarriak irisgarritasuna sustatzeko lau urterako planak dira.

Ez da onargarria Legea promulgatu eta bost urte igaro ondoren programa hauek zazpi udalek soilik edukitzea onetsita (Amurrio, Azpeitia, Eskoriatza, Getaria, Güeñes, Orío eta Urretxu), Irisgarritasuna Sustatzeari buruzko 4/1997 Legean berariaz ezarritako baldintza izan arren.

Hiru hiriburuek, udalerririk handiek, foru aldundiek eta Eusko Jaurlaritzako sailek lege hori beti egin behar dute.

Txostenean jasotako gomendio guztiak, bestalde, Euskadiko herri administrazioei zuzendutako gomendio bakarrean laburbiltzeko modukoak dira: bete legea, bete irisgarritasunaren araudia, lortu bertan jasotako tresnak, bete kontroleko eta sustapeneko eginkizunak, eta, beharrezkoa izanez gero, aplikatu zehapen-araubidea.

Aurkezpen hau amaitu baino lehen, **eskerrak** eman nahi dizkiet lan hau ahalbidetu duten pertsona guztiei. Batez ere:

- Elbarritasuna duten pertsonen eskubideen defentsan konpromisoa hartu duten pertsonen eta elkarteien, baita elbarriei euren ere, euren ereduarekin txosten hau egiteko berebiziko laguntza eskaini digutelako.
- SIIS Fundazioko taldeari, ikerketaren zati nagusia, datuen bilketa eta horien azterketa bere gain hartu baititu.

- Arartekoaren erakundeko taldeari, txosten hau egiten parte hartu duenari.
- Udalei, foru aldundiei eta Eusko Jaurlaritzako Sailei, bidalitako inkestak betetzeko lankidetzara eskaini dutelako, baita eskaturiko bilerak eta elkarrizketak egin dituztelako ere, tresna horiek guztiak beharrezkoak izan baitira, txosten hau egitea ahalbidetu duten datuak biltzeko.

Hau ez da elbarritasuna duten pertsonen Europako urtearen ondoriozko jardura koiunturala edo egituraren araberakoa, erakunde honek elbarritasuna duten pertsonak gizarteratzeko eta euren eskubideak bermatzeko egindako beste jardura bat baizik.

Vitoria-Gasteiz, 2003ko uztailaren 8a

JARDUNEKO ARARTEKOA
Mercedes Agúndez Basterra

I. KAPITULUA

SARRERA:
TXOSTENAREN HELBURUA, EREMUA,
METODOLOGIA ETA EGITURA

1. HELBURUA ETA EREMUA

Txosten honen eremua irisgarritasunaren arloan egin diren esku-hartze publikoen bilakaera aztertzea da, hain zuzen ere, Irisgarritasuna Sustatzeari buruzko 1997ko abenduaren 4ko Legea eta berori garatzeko araudia (2000ko apirilaren 11ko 68. Dekretuko III. eranskina, eraikinetako irisgarritasunaren baldintzei buruzko arau teknikoak azaltzen dituen) indarrean sartu direnetik egin diren esku-hartze publikoei dagokienez.

Eraikinetako irisgarritasunaren gaia, zalantzarik gabe, hirietako irisgarritasunaren, garraibide publikoen irisgarritasunaren eta komunikazioko irisgarritasunaren gaiari lotuta dago; izan ere, eraikin bat irisgarria izateak ez du ezertarako balio, baldin eta bertara iristeko modurik ez badago edo, eraikinaren barruan, orientatzeko baliabide egokirik egon ezean. Ikuspegi horretatik, “ibilbide egingarriak” aipatu behar dira, irisgarritasuna kasuan kasuko eremu fisikoaren arabera sailkatu beharrean. Arlo horren azterketak, hala eta guztiz ere, erraz gainditzen ditu txosten honen aukerak. Berorren ezaugarriak kontuan hartuta, izaera integrala duenez, eginkizun hori herri administrazioetako irisgarritasuna sustatzeko planen esku dago; horiek, “alde batetik, ibilbide egingarrien” nozio hori erabili beharko dute euren esku-hartzerako oinarritzat, eta bestetik, ebaluaziorako jarraibideak sartu beharko dituzte euren aurreikuspenetan, irisgarritasunaren baldintzak modu sistematikoan aztertu ahal izateko eta, horrela, ingurua apurka-apurka hobetzeko aukera handiagoak eskaintzeko.

2. TXOSTENAREN EDUKIAK ETA EGITURA

Azterketa honen bitartez, gaur egun eraikinen irisgarritasunaren arloan dagoen egoerara hurbildu nahi dugu. Ikuspegia, horrenbestez, orokorra da, eta gehienbat herri administrazioek (Eusko Jaurilaritza, foru aldundiak eta udalak) arlo horretan hartu duten konpromisoa baloratzean oinarritzen da, baita indarreko araudian adierazitako betebeharrak zein neurritan bete dituzten baloratzean ere.

Txostena honako eduki hauen inguruan egituratuta dago:

- Lehenengo zatian, irisgarritasunaren arloko eremu juridiko-kontzeptuzkoa aurkezten da, gaia eremu teorikoan kokatuta eta arauen bilakaeraren ulermena erraztuta.
- Bigarren kapituluak azalpen orokorra egiten du, nazioarteko eta Estatuko arauko eremuari buruz, eta EAeko indarreko araudia ere zehatz aztertzen du; halaber, UNEko

arauetan, Euskal Autonomia Erkidegoko araudian eta beste autonomia erkidego batzuetako arauetan eraikinetako irisgarritasunari buruz ezarritako elementu nagusien arteko konparazio koadroa ere eskaintzen du.

- Txostenaren erdiko zatian, Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioek arlo honetan egindako esku-hartzeen azterketa egiten da; gainera, udalen, aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren jarduerak bereizita aurkezten dira. Hiru kasu horietan, funtsean, honako eskema honi jarraitzen zaio:
 - Irisgarritasuna sustatzeko politiken eremuan hartutako ekimenak azaltzen dira; hain zuzen ere, erakundeek, euren jarduera eremuan, lau urteko plana lantzeko konpromisoa benetan berenganatu duten ala ez aztertzen da (irisgarritasunaren sustapenerako plana); era berean, sustapeneko helburu hori betetzeko, neurri egokiak hartu dituzten ala ez ere aztertzen da, batez ere, diru-laguntzei lotutako finantza neurriak. Irisgarritasunerako planetan aztertutako arloa oso zabala nahiz integrala dela kontuan hartuta, eta administrazioek sustapenerako hartutako neurrien aniztasuna aintzat hartuz, baita eraikinen irisgarritasunera zuzen-zuzen bideratutakoak eta gainerako esku-hartzeak modu sistematikoan bereizteko zailtasuna kontuan hartuz ere, atal honetan, azterketaren eremua handitu eta eraikinen irisgarritasunari zuzen lotuta ez dauden alderdiak ere jorratu dira.
 - Ondoren, administrazioek euren eskumenen barruan (legeak oinplano berriko eraikinetan eta berrikuntza, aldatze edo handitze obretan irisgarritasunari buruz ezarritako baldintzen aplikazioaren jarraipena eta kontrola egiteko eskumenen barruan) izan duten esku-hartze mailak aztertzen dira. Arlo hori oso garrantzitsua da udalen kasuan, lizentziak ematean eta betearazte egokia kontrolatzean dituzten eskumenak kontuan hartuta.
 - Azkenik, titularitate eta erabilera publikoa duten eraikin batzuen irisgarritasunaren balorazioari buruzko datuak aurkezten dira (biztanleek sarritan erabiltzen dituzten eraikinetan).
 - Informazio hori osatzen duten bi eranskinetan, jasotako informazioaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko udal kopuru handiak arlo horretan egindako jarduera zehazten da, baita horien egoitzen egoera ere, irisgarritasuna bermatzeari dagokionez.

3. METODOLOGIA

Txosteneko eduki desberdinen eraginez, lerro metodologiko desberdinak erabili behar izan dira, eta horiek, azalpenaren argitasunaren mesedetan, bereiz azaldu beharko ditugu.

3.1. Eremu juridikoa ikertzeko erabilitako metodologia

- Irisgarritasunaren arloko literatura espezializatuaren bilketa eta azterketa.
- Arauzko agirien bilketa eta ikerketa, eraikinen irisgarritasunari buruzko aurrekariak eta indarreko testuei arreta berezia jarri.

- Euskal Autonomia Erkidegoko indarreko araudiaren azterketa zehatza, hain zuzen ere, Irisgarritasuna Sustatzeari buruzko abenduaren 4ko 20/1997 Legea eta apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuko III. eranskina, eraikinetako irisgarritasunaren baldintzei buruzko arau teknikoak onetsi dituena.
- UNEko arauetan, Euskal Autonomia Erkidegoko araudian eta beste autonomia erkidego batzuetako indarreko araudian eraikinen irisgarritasunari buruz ezarritako oinarriko baldintzen konparazio ikerketa.

3.2. Irisgarritasunaren eremuko esku-hartze publikoak ikertzeko erabilitako metodologia

- Udaletara (indarreko araudian irisgarritasunari buruz ezarritako baldintzen betetzea eskatzeko eta bermatzeko arduradun nagusiak baitira) bideraturiko inkesta baten galdeketa lantzea, aplikatzea eta azaltzea, horiek hirigintza antolatzeke, kudeatzeko eta betearazteko dituzten eskumenak kontuan hartuta. Galdeketa horrek 95 galdera ditu, eta araudiak toki erakunde horiei ezarritako betebeharren inguruan egituratuta dago: sustapen politikak aplikatzea, oinplano berriko nahiz berrikuntzako obrak kontrolatzeko eskumenak gauzatzea eta udal titularitateko eraikin publikoetako irisgarritasuna bermatzea, legean ezarritakoaren arabera.
- Elkarrizketako gidoia prestatzea eta aplikatzea, eta hiru foru aldundietako eta Eusko Jaurlaritzako sail desberdinetako teknikariek gidoi horri erantzunez emandako informazioa aztertzea.
- Informazioko iturri osagarriak ikertzea, batez ere, arauzko testu sektorialak eta erakunde publiko batzuek emandako agiriak, kasu honetan, adibidez, Irisgarritasunerako Euskadiko Batzordeak urtero egindako txostenak.

3.3. Eraikin publikoen irisgarritasuna egiaztatzeko erabilitako metodologia

- Udaletako eraikinen irisgarritasuna egiaztatzeko, hiru hiriburuen kasuan izan ezik, arlo hau aurreko atalean aipatutako inkestaren galdeketan sartu dugu. Udalerrri eta eraikin kopurua oso handia denez, txosten honen eremuan ezinezkoa izan da lagin adierazgarria *in situ* egiaztatzea.
- Egiaztapeneko bisitaldiak, horrenbestez, honako hauek osaturiko titularitate eta erabilera publikoko eraikinen laginean oinarritu dira: hiru hiriburuetakoko 428 udal egoitza, hiru lurralde historikoetan banaturiko 143 foru lokal eta EAeko lurralde osoan banaturiko 273 egoitza autonomiko.

Helburua egoitza publiko horien irisgarritasunaren ikuspegi panoramikoa lortzea zenez, bisitaturiko eraikinak ondorengo irizpide orokorren arabera sailkatzeko aukera ematen zuen balorazio orokorreko tresna aukeratu zen:

- **Irisgarritasun egokikoak.** Irisgarritasun egokikoak izango dira gurpildun aulkian doan pertsona bati eraikinaren kanpoaldetik modu autonomoan sartzeko aukera ematen dioten eta jendeari arreta eskaintzeko edo zerbitzuak emateko diren lokalak.
- **Irisgarritasun mugatukoak.** Lokalak irisgarritasun mugatukoak izango dira, gurpildun aulkian doan pertsona batek besteren baten edo eraikineko langileren baten laguntzarekin sartu behar duenean, kasuan kasuko zerbitzua jasotzeko lekuraino. Pertsona horrek emandako laguntza gehienez jota elkarren atzeko bi eskailera-maila gainditzera, malda nahiko handiko arrapala igotzera, gurpildun aulkia altxatzeko aparatua martxan jartzera edo elbarriari ibilbide alternatibo “onargarritik” laguntzera mugatuko da.
- **Irisgarritasun ezegokikoak.** Katetoria honen barruan, aurreko bietan sailkatzeko moduko baldintzak betetzen ez dituzten egoitza guztiak sartzen dira.

Egoitzetan sartzeko bideak soilik aztertu dira, zerbitzuak erabiltzeko baldintzei lotutako alderdi zehatzagoak albo batera utzita: ateen pisu nahiz indar ezaugarriak, erakusmahaien altuera, informazio sistemetarako irisgarritasuna, etab. Guztiarekin ere, kontuan hartu da bisitaturiko eraikin askoren konplexutasuna; gainera, eraikin mota bakoitzeko leku zehatz jakinetarako irisgarritasuna aztertu da, eta kontuan hartu da ea eraikinak gurpildun aulkian edo muletekin doan pertsona bati honexetarako aukera ematen dion ala ez: tramitea egitea, arreta jasotzea edo kasuan kasuko egoitzako jarduerak garatzea.

Bisitaldi horiek egiteko, irabazi asmorik gabeko erakundeen lankidetzara eraginkorra eduki dugu: Eginaren Eginez, Araban; Gipuzkoako Ezindu Fisikoen Federazio Koordinatzailea, Gipuzkoan; eta Bideak eta Bizkaiko Ezindu Fisikoen Federazio Koordinatzailea, Bizkaian. Erakunde horietariko bakoitzak pertsona edo talde bat proposatu zuen, ikuskapena egiteko, eta horretarako, erakundeek euren gain hartzen dute egindako azterketen emaitza edo metodologia.

Azkenik, esan behar da, ikerturiko arloaren handitasuna eta zeharkako izaera kontuan hartuta, hau da, administrazio maila guztietan eta herri administrazioen esku-hartzea duten eremu guztietan aplikatzeko modukoa dela aintzat hartuz, oso zaila dela jasotako informazioaren zehaztasuna bermatzea. Horrenbestez, agian, neurriren bat, aurrekontuko erreserbaren bat edo laguntzaren bat ez da jasota egongo eskaintako azalpenean.

LEHENENGO ZATIA

AZTERKETA JURIDIKOA

II. KAPITULUA

EREMU JURIDIKO-KONTZEPTUZKOA

Kontzeptuaren aldetik, irisgarritasunaren eremuan, funtsezko hiru aldaketa edo bilakaera egon dira azken hamarkadotan.

- Lehenengoa, gertatu ere, elbarritasunaren banakako ikuspegian oinarrituriko teoretatik horien **izaera soziala** defendatzen duten teoretara igarotzean gertatu da. Irisgarritasunaren arloan, planteamendu honen arabera, pertsona arrunterako diseinaturiko ingurura ez da gizabanakoa bera egokitu behar, ingurua bera baita biztanleen beharrian guztietara egokitu beharrekoa, eta horrek erraztasunak eskaini behar dizkie pertsona guztiei.

Kontzeptu mailako aldaketa hori argi eta garbi adierazita dago antolamendu juridikorik gehienetan. Esate baterako, Iparraldeko herrietan, elbarritasunari buruzko arau guztien hitzaurrean jaso eta modu sistematikoan azaltzen dute, esku-hartze ereduaren azalpenerako sarreratzat. Orientazioari buruzko Frantziako 1975eko legeak ere (elbarrien aldeko legea, Eskandinaviako herrietan irisgarritasuna arautzeko egindako lehenengo testuak baino askoz ere geroagokoa) filosofia berri hori berriaz jasotzen du. Izan ere, horixe da gaur egun indarrean dauden araurik gehienetan jasotako espiritua.

Orientazio aldaketa horren eraginez, irisgarritasunari buruzko arauak gurrupildun aulkia hartu zuten erreferentziatzat, elbarritasunik mugatzaileen estaldurak gainerako guztiak ekarriko zituela kontuan hartuta. Kontzeptu mailako aldaketa horri esker, elbarritasunaren ikurra den gurrupildun aulkia irisgarritasunaren ikur bihurtu zen.

- **Diskriminazioaren aurkako legeak** eszena juridikoan sartzeko funtsezko bigarren aldaketa izan da, elbarritasunaren arauko tratamenduan. Tradizio anglosaxoiko herriek (Kanada, Australia eta Estatu Batuak) eredu hori aukeratu zuten orain dela urte batzuk. Europako eremuan, eredu horrek gero eta eragin handiagoa dauka: herri batzuek, esate baterako, Danimarkak, Irlandak edo Erresuma Batuak, diskriminazioaren aurkako arau orokorrak hartu dituzte; beste batzuek, adibidez, Frantziak edo Suediak, arauak bereziak egin dituzte.

Araudi horien elementu funtsezkoa eta bereizgarria, beste alde batetik, eskubide zibilen eta sozialen onarpenean nahiz defentsan euskarritzea da, hain zuzen ere, berdintasunerako eskubidean, diskriminazio ezaren eskubidean eta erabateko hiritartasun eskubidean, eta ez dira oinarritzen, ostera, elbarri batentzat inguru fisikoaren ezaugarri buruzko arauetatik sor daitezkeen eskubideetan. Horren eraginez, elbarriek auzitegietan arauak betetzea eskatzeko aukera gehiago dute, eta beraz, arauok betetzeko berme handiagoak daude.

Maila teorikoan, ikuspegi honek hiru desberdintasun mota bereizten ditu:

- Diskriminazio zuzena elbarriari tratamendu txarragoa ematen zaionean gertatzen da, elbarritasunean bertan edo gainontzekoek egoera horri buruz duten ikuspegiaren oinarrituz, elbarritasunak kasuan kasuko jardueran parte hartzeko trebetasunean inolako eraginik ez duenean.
 - Zeharkako diskriminazioa, bestalde, funtsezkoa ez den alderdi bati buruzko irizpide bat aplikatzearen ondorioz gertatzen da; alderdi horrek itxuraz eragin bera dauka pertsona guztiengan, baina elbarriei kalte handiagoa sortzen die. Horren adibiderik argiena eraikin batzuetan txakurrei sarrera debekatzea da, edo jarduera jakinen bat egiteko gida-baimena eskatzea, jarduera hori beste garraio bideren bat erabiliz egin daitekeenean.
 - Hirugarren diskriminazio mota, azkenik, elbarrien partaidetza gainontzeko pertsonetikiko berdintasunean ekiditen duen hesi fisikoa, ingurumenekoa, komunikaziorikoa edo antolaketakoa ezabatzen ez denean gertatzen da, elbarriak gainerako pertsona horien prestakuntza bera duenean kasuan kasuko jardueran parte hartzeko.
- Azken bilakaera handia gaur egun gertatzen ari da, aurreko bilakaerarekiko modu paraleloan, beste plano batean, baina diskriminazioaren aurkako arauetikiko modu bateragarrian; teoriarik behintzat, **diseinu unibertsalaren** filosofia finkatzean oinarritzen da.

Orain dela hogeita hamar urte ere, Dessertinek (1975eko Frantziako Legearen sortzaileetarikoa) ikuspegi horixe proposatu zuen. Irisgarritasuna biztanle guztien ardurakoa zela esan zuen lehenengoz: ez elbarrien kasuan bakarrik, baita zaharren, umeen, haurdun dauden emakumeen, haurraren orgatxoa daramaten pertsonen, pisuak garraiatzen dituzten pertsonen eta abarren kasuan ere. Dessertinaren iritziz, *“pertsona guztiak izan dira, dira edo izango dira elbarriak”*.

Horixe da diseinu unibertsalaren funtsezko oinarria, eta berorren elementu nagusiak honako hauek dira:

- Helburu nagusia eraikitako inguruek, produktuek eta komunikazioek irisgarritasuna izatea da, hau da, pertsona guztiek erabiltzeko modukoak izatea, horien adina, altuera, pisua edo gaitasuna edozein izan arren, eta bizitzan zehar gerta daitezkeen egoera berriak kontuan hartu barik.
- Berebiziko garrantzia ematen zaio autonomiaren kontzeptuari: diseinu unibertsalak pertsona guztiei eskaini behar die irisgarritasuna eta erabilera autonomoa.
- Diseinu unibertsala ez da oinarritzen ingurua talde jakinen beharrezan berezietara egokitzean, inguruaren ulermen berezian baizik, eta horretarako, hiritar guztien beharrezan hartzen dira aintzat; horrenbestez, ingurua “sortu” egin behar da, diseinuaren hasierako faseetatik, guztien beharrezanetara egokituriko ezaugarri batzuekin, eta ezaugarriok, beraz, mugikortasun urriko (iraunkorra edo iragankorra) edozein pertsonaren gorabeheretara egokitu behar dira.

Funtsean, diseinu unibertsalaren filosofia den arabera, biztanleen aniztasunera gizarte osoak egokitu behar du, eta ingurumeneko beharrezko aldaketa guztiak sartu behar

dira, pertsona guztien erabateko partaidetza bermatzeko, bizitzaren arlo guztietan, eta gizartea aniztasunera egokitzea da, izan ere, pertsona guztien berdintasunera eta horien eskubideen errespetura modu eraginkorrean daraman bide bakarra.

III. KAPITULUA

ARAUZKO EREMUA

Irisgarritasunari lotutako arloek protagonismo gero eta handiagoa izan dute azken hamarkadotan, funtsean elbarritasunari buruzko kontzeptu mailako ikuspegietan ikusitako bilakaerari jarraituz. Horrela, integrazioari buruzko teoriak, normalizazioari buruzkoak eta, oraintsuago, aukera berdintasunean, diskriminaziorik ezan nahiz eskubideen onarpenean oinarrituriko planteamenduek gero eta eragin handiagoa dute irisgarritasunaren arauzko tratamenduan, bai nazioarteko tresnei eta bai Estatuan zein autonomietan emandako xedapenei dagokienez.

1. NAZIOARTEKO ARAUZKO EREMUA

Nazioartean elbarritasunari buruz onetsitako testuak nahiko orokorrak dira; egin-eginean ere, irisgarritasunaren eta hesiak ezabatzearen gaia beste arlo batzuekin batera aztertzen da, azaletik garatuta. Guztiarekin ere, asmo handiagoko edukia duten ekimenak agertzen hasi dira, eta horiek, arauzko izaerarik eduki ez arren, nazioarteko erakundeen jarrera adierazi eta jarraitu beharreko bidea ezartzen dute.

1.1. Nazio Batuen ekimenak

Nazio Batuek arlo honetan dituzten bi tresna nagusiak honako hauek dira: Elbarritasuna duten Pertsonentzako Mundu Ekintzako Programa, 1982ko abenduaren 3ko 37/52 Ebazpenaren bidez onetsia eta Elbarritasuna duten Pertsonentzako Aukera Berdintasunari buruzko Arau Bateratuak, 1993ko abenduaren 20ko 48/96 Ebazpenean jasotakoak.

- **Mundu Ekintzako Programaren** barruan, irisgarritasunaren gaia aztertzen da, “*aukera berdintasunerako*”, atalean, eta azken hori, bertan ezartzen denez, hauxe da: “*gizarteko sistema orokorra (esate baterako, inguru fisikoa eta kulturala, etxebizitza eta garraioa, zerbitzu sozialak eta osasunekoak, hezkuntzako eta laneko aukerak, bizitza kulturala eta soziala, kirol nahiz jolas instalazioak ere barne) guztien esku jartzeko prozesua*”. Estatuei programa betearazteko proposaturiko neurrien artean, inguru fisikorako irisgarritasunari lotutako hiru jarraibide baino ez dira jasotzen:

- Alde batetik, “diseinu unibertuala” edo “denontzako diseinua” azaletik aipatzen da:
“Estatu kideek ahalegina egin behar dute inguru fisikoa guztien eskura egoteko, mota desberdinetako elbarritasuna duten pertsonak ere kontuan hartuta (...)”.
- Bestalde, irisgarritasunaren gaiak planifikazioan sartzeko eskabidea egiten da:
“Estatu kideek giza ezarkuntzen planifikazioan irisgarritasunari lotutako alderdiak kontuan hartzen dituen politika gauzatu behar dute...”.
- Azkenik, oinplano berriko eraikin guztien irisgarritasuna eta, ahal den neurrian, oraingo irisgarritasunaren egokitzapena defendatzen da:
“Estatu kideei, elbarriei eraikin nahiz instalazio publiko berrietara, etxebizitzetara eta garraio publikoetara sartzeari bermatzeko politika bat gauzatzeko eskabidea egiten zaie. Gainera, ahal izanez gero, neurri egokiak hartu behar dira, lehendik dauden eraikinetako, instalazioetako, etxebizitzetako eta garraio publikoetako irisgarritasuna egokitzeko, batez ere berrikuntzak aprobetxatuz”.
- Mundu Ekintzako Plana aplikatzeko aurreikusitako hamarkada igarotakoan NBEren iritiz, beharrezkoa izan zen epe luzerako estrategia formulatzea, elbarritasuna duten pertsonen gizarte partaidetzaren arloko aurrerakuntzak sustatzeko. Estrategia hori, berriz, **Elbarritasuna duten Pertsonen Aukera Berdintasunari buruzko Arau Bateratuetan** (1993) jasota dago. Mundu Ekintzako Programa baino zehatzago, “Sartzeko aukerak” deritzon 5. artikuluko hamaika xedapenak bi taldetan egituraturik daude: inguru fisikoan sartzeari buruzkoak eta informazioa nahiz komunikazioa eskuratzeari buruzkoak.

Txosten horren eremuan, lehenengoak dira aipagarrienak:

- Estatuei hiri inguruan eta eraikitako inguruan sartzeari buruzko arauak onesteko beharrezakoa jakinarazten diete:
“Estatuek neurriak hartu behar dituzte, inguru fisikoan parte hartzea ekiditen duten oztopoak ezabatzeko. Neurri horien artean, arauak nahiz jarraibideak landu ahal dira, edo gizarteko sektore desberdinei irisgarritasuna segurtatzen dieten legeak egiteko aukera iker daiteke, esate baterako etxebizitzei, eraikinei, garraio bide publikoen zerbitzuei, beste garraio bideei, kaleei eta aire zabaleko beste leku batzuei dagokienez”.
- Inguruaren diseinuan eta eraikuntzan esku hartzen duten profesionalen partaidetza lortu beharra berariaz jasotzen dute, irisgarritasunaren estandarrak proiektu guztietan hasierako fase guztietatik sartzen direla bermatzeko:
“Arkitektoek, eraikuntzaren teknikariek eta inguru fisikoaren diseinuan nahiz eraikuntzan parte hartzen duten beste profesional batzuek informazio egokia lortu beharko dute, elbarritasunaren arloko politikari eta irisgarritasuna segurtatzeko baliabideei buruz, eta Estatuek hori guztia bermatu beharko dute.

Irisgarritasuna segurtatzeko neurriak, hasiera-hasieratik, inguru fisikoaren diseinuan eta eraikuntzan sartuko dira”.

- Azkenik, elbarritasuna duten pertsona taldeek arauzko tresnen prestakuntzan izan beharreko partaidetzari buruzko xedapen bat jasotzen dute:

“Irisgarritasuna segurtatzeko arauak eta xedapenak prestatzean, elbarritasuna duten pertsonen erakundeei kontsultatu egin behar zaie. Erakunde horiek, halaber, herri mailan parte hartu beharko dute, hasierako planifikazioaren etapatik bertatik, herrilanen proiektuak diseinatzeko direnean, irisgarritasunaren aukerak ahalik eta gehien bermatzeko.”

1.2. Europako Batzordearen ekimenak

Azken bi hamarkadotan, Europako Batzordeak elbarritasuna duten pertsonen eskubideekiko jarrera zehaztu du, inguruko irisgarritasunari buruzko aipamenak jasotzen dituzten testu batzuetan:

- 1992an, Ministroen Batzordeak **Elbarritasuna duten pertsonen integrazioaren arloko politika koherente bati buruzko gomendioa** onetsi zuen.
- 1993an, **Irisgarritasunaren arloko printzipioen eta jarraibideen gida** egin zuen.
- 1996an, **Berrikusitako Europako Gutun Sozialak** autonomiarako, gizarte-ratzeko eta elkarteko bizitzan parte hartzeko ezintasuna duten pertsonen eskubidea jaso zuen, batez ere komunikazio eta mugikortasun oztopoak gainditzen zituzten neurrien bitartez; halaber, pertsona horiei garraiorako, etxebizitzarako eta kultur zein aisialdi jardueretarako irisgarritasuna erraztu zien.

Orainsuago, hala eta guztiz ere, Batzordeak irisgarritasunari zuzen-zuzen lotutako bi ebazpen onetsi ditu:

- ResAP(2001)3 deritzon Ebazpena, **“Elbarritasuna duten pertsonen erabateko hiritartasunerantz, integrazioko teknologia berriei esker”**.
- ResAP(2001)1 deritzon Ebazpena, **“Kontzepzio unibertsaleko printzipioak eraikitako inguruaren eremuan lan egiten duten lanbideen multzo osoaren heziketa programetan sartzea”** deritzonari buruz, eta horri Tomarren Ebazpena esaten zaio.

Azken hori zehaztu egingo dugu. Elbarritasuna duten pertsonen eskubideak ez sustatzeak eta aukera berdintasunerako bermerik ez egoteak gizakiaren duintasuna urratzen duela kontuan hartuta, Europako Batzordeak diseinu unibertsalaren filosofia bereganatu eta funtsezko printzipio batzuk ezarri ditu:

- Pertsona guztiek, elbarriek ere barne, gizarteko bizitzan parte hartzeko eskubidea dute, hau da, eraikitako inguruan sartzeko eta inguru hori erabiltzeko nahiz ulertzeko eskubidea.

- Elbarritasuna duten pertsona guztien politika koherentea eta orokorra egiteko, bermatu egin behar dira erabateko hiritartasuna, aukera berdintasuna, bizitza autonomia eta partaidetza aktiboa (gizarteko bizitzan); horretarako, inguruko irisgarritasuna bermatu behar da eta, horrenbestez, hirigintza, arkitektura eta komunikazio mailako oztupoak ezabatu beharra dago.
- Hiri barruko ingurua eta eraikitako ingurua denon esku egotea (baita elbarrien esku ere) gizartearen erantzukizuna eta betebeharra da, batez ere diseinuaren eta eraikuntzaren eremuetan lan egiten duten profesional guztiena. Horretarako, diseinu unibertsalaren filosofia sartu behar da inplikaturiko lanbide guztien heziketaren curriculumean, metodo nahiz material pedagogikoetan eta irakasleak birziklatzeko programetan.

1.3. Europar Batasuna

- 1975ean, Europako Ekonomi Elkarrekin irisgarritasunaren arloko pronuntziamentua egin zuen, Batzordeak Kontseiluari egindako Jakinarazpenaren bitartez: **Elbarrien berregokitzapena: horien mugikortasuna ekiditen duten oztopo arkitektonikoen ezabaketa**. Hori zuzen-zuzen lotuta dago aipatutako enplegu politikara eta, beraz, langileak lantokira sartzeko aukeretara.
- Apurka-apurka, inguru fisikorako irisgarritasunak eta oztopoen ezabaketak protagonismo gero eta handiagoa hartu zuten Europan, eta esku hartzeko arauen eremua zabaldu egin zen. Horrela, 1987an, Utrechten irisgarritasunari buruz egindako bilera batean, oinarritzko arau teknikoen multzoa sortzeko ideia azaleratu zen; arauok, irisgarritasun arkitektonikoan kontuan hartu eta oinarritzat erabiliko ziren, herri kideen estatu eta toki mailako araudiak garatzeko. Eskuliburu hori 1990ean argitaratu zen lehenengoz, **Sartzeko moduko Inguru Eraikirako Europako Eskuliburua** izenburuarekin.
- 1992an **Kontseiluko 89/392/EEE Zuzentarauak, Estatu kideek makinei buruz dituzten legeriak hurbiltzeari buruzkoak**, altxatzeko eta garraiatzeko elementu mekanikoen diseinua arautu zuen. Zuzentzarau hori Espainiako antolamendu juridikora egokitu zen, azaroaren 29ko 1435/1992 Errege Dekretuaren bitartez.
- 1995eko ekainaren 29an, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak **Estatu Kideek igogailuei buruz zituzten legeriak hurbiltzeari buruzko 95/16/EEE Zuzentzaraua** onetsi zuten. Horiek Espainian egokitzeko xedapenak, berriz, abuztuaren 1eko 1314/1997 Errege Dekretuaren bitartez ezarri ziren.
- 1996an, Nazio Batuen Arau Bateratuek irekitako bideari jarraituz, Batzordeak izenburu hauxe zeukan jakinarazpena egin zuen: **Pertsona Elbarrien Aukera Berdintasuna - Elbarritasunaren alboko estrategia komunitario berria**. Kontseiluak eta Estatu kideek hori onetsi egin zuten, urte horren amaieran emandako ebazpen baten bitartez. Xedapen horretan, elbarritasuna duten pertsonen erabateko hiritartasuna lortzeko oztupoak ezabatu beharra ezarri zen.
- Era berean, 1996an, Batzordeak **Irisgarritasunaren Europako Kontzeptua** argitaratu zuen, eraikinei, azpiegiturei eta eraikuntzako nahiz ekipamenduetako

produktuei aplikatzeko moduko diseinu unibertsalen printzipioetan oinarritua, eta turismo industriarako eskuliburua ere argitaratu zuen: **Irisgarritasuna duen Europaren alde**.

- Handik aurrera, Batasunak elbarritasuna duten pertsonen eskubideen arloan egindako esku-hartzeak enplegua lortzeari lotuta egon dira gehienbat. Hemen interesatzen denari dagokionez, aipagarria da 2000ko azaroan zuzentarau bat onestea, hain zuzen ere, **Enpleguan eta okupazioan aukera berdintasunerako eremu orokorra ezartzeko zuzentaraia**. Arau hori oso interesgarria da; izan ere, lantokirako irisgarritasun fisikoari lotutako arazoak ez ezik, diskriminazioaren aurkako araudi bat Europako zuzenbidean lehenengoz sartzea ere jorratu zuen.
- 2000ko abenduan, Batasunak elbarritasunaren gaia aztertu zuen berriro, baina ikuspegi zabalago batetik begiratuta, eta **Funtsezko Eskubideen Gutuna**, eta bertan, elbarritasunari lotutako diskriminazioa berariaz debekatu zuen. Gainera, hauxe ezarri zuen:

“Batasunak onartu eta errespetatu egiten du elbarriek euren independentzia, laneratzea eta gizarteratzea bermatzen duten neurriak edukitzeko eskubidea”.

- Halaber, 2000. urtean, Batzordeak Jakinarazpena landu zuen Kontseiluarentzat, Europako Parlamentuentzat, Komite Ekonomiko eta Sozialarentzat eta Eskualdeen komitearentzat, **“Elbarrientzako oztoporik gabeko Europarantz”**, eta bertan, bost helburu nagusi jaso ziren:
 - mugikortasuna bultzatzea, hiritarren osagaitzat;
 - sektoreen arteko politikak irisgarritasunaren arloan dituen akatsak zuzentzea;
 - elbarriei informazioaren gizarterako irisgarritasuna eskaintzea;
 - laguntzako teknologien merkatua hobetzea;
 - eta elbarritasuna duten kontsumitzaileek merkatuan dituzten eskubideak eta interesak babestea.

Eraikitako ingururako irisgarritasunaren eremuan, ekarpenik handiena irisgarritasunari eta segurtasunari buruzko eraikuntza arauen bateragarritasunaren sustapena da. Eremu horretan, honako konpromiso hauek hartu dira:

- eraikuntzaren sektorean irisgarritasunari buruzko derrigorrezko arauak Elkarrekin osoan zein arlotan aplikatu behar diren zehaztea;
- elkarrekin zenbait neurri sustatzeko aukera ikertzea, arkitektoek, injineruek eta inguru fisikoaren diseinuan nahiz eraikuntzan inplikaturiko gainerako profesionalen irisgarritasunaren arloko informazio egokia dutela bermatzeko;
- “diseinu unibertsalaren” filosofia sustatzeko modu berriak ikertzea, esate baterako, bizitzaren ziklo osoan sortzen diren era guztietako beharrezkoak erraz egokitze moduko etxebizitzaren eraikuntza sustatuz.

1.4. Nazioarteko beste tresna batzuk

Nazioartean, ingururako irisgarritasuna sustatzeko helburua duten beste tresna batzuk ere badira. Besteak beste, honako hauek aipa daitezke:

- Eskandinaviako herriek 1994an landutako gomendio teknikoen gidaliburua, **Iparaldeko ikuspegia**, eta bertan, euren jarrera bateratua eta **Irisgarritasunaren Europako Kontzeptua** deritzonari egindako ekarpena ere jasotzen da.
- **Beijingo adierazpena, pertsona elbarriek milurteko berrian dituzten eskubideei buruz**, Elbarritasunari buruzko GKEen Mundu Gailurrean 2000ko martxoaren 12an egindakoa; bertako xedapenen artean, honako hau lehentasunezkoa dela ezartzen da: *“Diskriminazioko jarrerak eta praktikak ezabatzea, baita legeek eta azpiegiturek dituzten oztupoak ere”*.
- **Bartzelonako adierazpena**, 1995eko martxoan promulgatua; adierazpen horrek tokiko agintariak elbarrien integrazioarekiko duten konpromisoa eta borondatea islatzen du. Ekimen horretan, Europako zenbait herritako udalerrik hartu zuten parte: Alemania, Belgika, Espainia, Frantzia, Grezia, Irlanda, Italia, Portugal, Erresuma Batua, Suedia eta Suitza. Sinatu zuten udalen artean, EAEko hiru daude: Barakaldo, Donostia eta Gasteiz.

2. ESTATUKO ARAUDIA

- Estatuan irisgarritasunaren arloan dagoen arauketaren **oinarrizko erreferentea** 1978ko konstituzioak ematen du; bertako 49. artikuluan ezarritakoaren arabera, botere publikoek hauxe egin behar dute: *“ezindu fisikoak, sentsorialak eta psikikoak aurreikusteko, tratatzeko, birgaitzeko eta integratzeko politika, eta horiei beharrezko arreta espezializatua eskainiko zaie, eta gainera, babes berezia izango dute, titulu honek hiritar guztiei emandako eskubideak izan ditzaten”*. Aipaturiko titulu hori, berriz Konstituzioaren testuko I. titulua da, funtsezko eskubideak eta betebeharrak arautzen dituena.
- 49. artikulua hori **Elbarriak Gizarteratzeari buruzko apirilaren 7ko 13/1982 Legetik** zuzen-zuzen sortutakoa da; hori, estatuaren eremuan, erreferentziako marko juridikoa da, azken hamarkadotan elbarritasunari buruz garaturiko araudi osoari dagokionez. Horren barruan, arlo desberdinak sartzen dira, hasi prebentziotik eta prestazio ekonomikoetara, hezkuntzatik eta laneratzetik igarota; arlo horiek, berriz, eskumen mailako beste zenbait eremutan dute eragina, eta eduki horiek guztiok elbarritasuna duten pertsonak osatutako multzoaren inguruan biltzen dituzte. Horri dagokionez, araututako arloak bere eremu subjektiboak zehazten ditu.
- Elbarriak Gizarteratzeari buruzko Legea garatzeko Estatuan landu den arau bakarra, autonomia erkidegoen jardura bateratzeko asmoz landutakoa, **maiatzaren 19ko 556/1989 Errege dekretua da, eraikin publikoetako irisgarritasunaren gutxieneko neurriak arautzen dituena**; bertan, modu orokorrean, dimentsioei lotutako gutxieneko eskakizunak ezartzen dira, oinplano berriko eraikinetako irisgarritasunari eta lekualdatzei dagokienez, baldin eta eraikin publikoak badira, baita pribatuak direnean ere, horietan igogailua nahitaez instalatu behar bada. Guztiarekin ere, arauak berak ordezkotako izaera ematen die xedapen horiei, autonomia erkidegoek euren eskumenen arabera eman ditzaketan xedapenei dagokienez.

- Irisgarritasunaren arloan zeharkako eragina duten oinarrizko arau batzuk albo batera utzita (esate baterako, **ekainaren 26ko 1/1992 Legegintzako Errege Dekretua, Lurzoruaren eta Hiri Antolaketaren Araubideari buruzko Legezko Testu Bategina onetsi duena**, edo **Hirigintza Diziplinaren Araudiari buruzko ekainaren 23ko 2.183/1978 Errege Dekretua**), eraikinetako irisgarritasunaren aipamen zuzena egiten duten **xedapen sektorial** batzuk daude:
 - Hezkuntzaren arloan indarrean dagoen araudia. Horrela, **Hezkuntza Sistemaren Antolaketa Orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoaren** 37. artikuluan ezartzen denez (Hezkuntza Bereziari buruzko artikuluan), “*ikastetxeek eskola antolaketa egokia eduki eta beharrezko egokitzapenak egin beharko dituzten curriculumetan, ikasleek adierazitako helburuak lortu ahal izateko*”; gainera “*ikastetxeetako baldintza fisikoak eta materialak ikasleen beharrianetara egokituko dira*”. Oraintsu, **Hezkuntzaren Kalitateari buruzko abenduaren 23ko 10/2002 Legeak**, beharrian bereziko ikasleei buruzko atalean, ikastetxeen baliabideei buruzko 47. artikulua dauka; bertan ezartzen denez, fondo publikoekin eutsitako ikastetxe berriek irisgarritasuna sustatzeari eta era guztietako oztopoak ezabatzeari buruzko indarreko arauak bete beharko dituzte; gainera, hezkuntzako administrazioek fondo publikoekin eutsitako ikastetxeetako oztopoak ezabatzeko programak sustatuko dituzte, baldin eta, ikastetxeok aspaldikoak direla edo beste zenbait arrazoi daudela kontuan hartuta, mugikortasun edo komunikazio arazoak dituzten ikasleek zailtasunak badituzte.
 - **Azaroaren 27ko 1435/1992 Errege Dekretua, otsailaren 8ko 56/1996 Errege Dekretuaren bidez aldatua; horren bitartez, Kontseiluaren 89/392/EEE Zuzentaraua aplikatzeko xedapenak eman dira; Zuzentarau hori Estatu kideek makinei buruz dituzten legeriak hurbiltzeari buruzkoa da. Gainera, abuztuaren 1eko 1314/1997 Errege Dekretua, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak igogailuei buruz emandako 85/16/EE Zuzentaraua aplikatzeari buruzko xedapenak eman dituena**, batez ere irisgarritasunari dagokienez.
 - Halaber, aipagarria da ekainaren 21eko 3/1990 Legea, Jabetza Horizontalari buruzko uztailaren 21eko 49/1960 Legea aldatu duena; horren bitartez, elbarriak euren etxebizitza duen eraikinean errazago bizitzeko akordioak erraztu nahi dira. Era beran, maiatzaren 30eko 15/1995 Legea, higiezinaren gaineko jabariaren mugei buruzkoa, elbarritasuna duten pertsonen oztopo arkitektonikoak ezabatzeko; eta apirilaren 6ko 8/1999 Legea, Jabetza Horizontalari buruzko uztailaren 21eko 49/1960 Legea aldatu duena.
 - Aipagarria da, azkenik, **Eraikina Antolatzeari buruzko 38/99 Legea**, horrek irisgarritasunaren garrantzia nabarmentzen baitu, eraikinaren oinarrizko baldintzatzat.
- Beste alde batetik, Estatuan, beste agiri interesgarri batzuk daude; horiek, arauzko izaerarik eduki ez arren, erabakigarriak dira arlo horretako jardueren orientazioan. Atal honetan, hiru ekimen daude:

- ***Irisgarritasunari buruzko Estatuko Plana***, 1999an egina, Sustapen Ministerioaren eta Elbarrien Ordezkarien Espainiako Komitearen (CERMI) arteko lankidetzan. Plan horretan, elbarrien taldeak irisgarritasunaren arloan dituen beharrianak eta Administrazioak (batez ere, Sustapen Ministerioak) beharrianok betetzeko hartu beharreko neurriak ezartzen dira. Horren edukia, interesatu askoren iritziz, ez zen batere eraginkorra izan, eta horren ondorioz, ondoren adierazitako bigarren agiria landu zen.
- ***ACCEPLAN deritzon Irisgarritasun Plana. Espainiako Irisgarritasunaren Liburu Berdea***. Lan eta Gizarte Arazoetarako Ministerioak eta Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Europako Ikerketen Unibertsitate Institutuak landu dute. Egoeraren diagnostikoa egin eta jarraibideak proposatzen dira, oztopoak ezabatzeko plan integrala lantzeko. Bigarren ekimen honek, dirudenez, lehenengoak baino adostasun handiagoa lortu du, eta bertan oinarrituz, ***Irisgarritasunari buruzko Liburu Zuria*** lantzen ari dira.
- ***Eraikinetako Irisgarritasunaren 2001eko Gida Teknikoa***, Sustapen Ministerioak eta Lan Gizarte Arazoetarako Ministerioak egina.

3. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ARAUDIA

3.1. Arauzko aurrekariak

- Elbarriak Gizarteratzeari buruzko Legea egin baino lehen ere Euskal Autonomia Erkidegoak hirigintzako irisgarritasunaren arloko pronuntziamentua egina zeukan, ***hiriko oztopoak ezabatzeari buruzko martxoaren 24ko 59/1981 Dekretuaren*** bitartez; hala eta guztiz ere, eraikinetako irisgarritasunaren arauketa 1983ko amaierara arte ez zen ezarri Erkidegoko Araudian, ***oztopo arkitektonikoak ezabatzeari buruzko abenduaren 19ko 291/1983 Dekretuaren*** bitartez. Xedapen hori oso aurrerakoia izan zen garai hartan; izan ere, bere helburua zehaztean, “*edozein motatako elbarritasuna duten pertsonak, umeak, haurdun dauden emakumeak, kargaturiko pertsonak eta abar*” aipatzen zituen, hau da, nolabait esateko, diseinu unibertsalaren oinarritzko postulatueteriko bat jasotzen zuen: ingurua pertsona guztien beharrianetara egokitzea. Horren ezaugarri nagusiak honako hauek ziren:
 - Helburu nagusia oinarritzko baldintzak ezartzea zen, eraikinaren osagai arkitektonikoen diseinuak halako pertsonen mugimenduak ez oztopatzeko, erabilerak eta jarduerak jakinetarako leku publikoetarako irisgarritasunean, eraikin horiek publikoak edo pribatuak izan arren.
 - Erabilerak eta jarduerak honako hauek ziren: ikastetxeen egoitzak, umezurztegiak, zahar-etxeak, trenbide-geltokiak, autobus-geltokiak, aireportuak, itsaso-terminalak, azalera handiko merkataritza, banketxeak, osasun-etxeak, laguntza-zentroak, Administrazio Publikoaren zerbitzuak, maila guztietako hezkuntza zerbitzuak, erlijio zerbitzuak, zerbitzu kulturalak, antzokiak, zineak eta kirol-estadioak.
 - Arauan, eraikinetako elementu arkitektonikoen eta erantsitako elementuen diseinuari buruzko xedapenak zeuden: aparkalekuak; sarbideak, korridorea eta barruko komunikazioak; eskailerak; arrapalak; barruko ateak; heldulekuak;

igogailuak; telefonoak; komunak; aldagelak eta dutxak; ikasgelak eta bileretarako nahiz ikuskizunetarako aretoak.

Arau hori gaur egun indarrean dagoen aurrekari zuzena da, baina funtsezko akatsa zuen: ez zeukan betetzea derrigortzeko zehapen sistematik.

- Xedapen tekniko horiekin batera, 80ko hamarkadaren hasieratik, Euskal Autonomia Erkidegoko antolamendu juridikoan irisgarritasunari buruzko aipamenak daude, era guztietako arauetan; besteak beste, eraikinak etxebizitza izateko birgaitzeko laguntzak emateko arauetan, hiriko nahiz eraikinetako ondarea babesteko jardueren arauketa, oztopo arkitektonikoak ezabatzeko laguntzen deialdiak eta hezkuntza beharrian bereziak dituzten ikasleak hitzarturiko ikastetxeetan ondo eskolatzeko egokitzapenak.

3.2. Indarreko araudia

Euskal Autonomia Erkidegoan irisgarritasunaren arloan indarrean dagoen araudia ondoren adierazitakoaren arabera egituraturik dago:

- Jarduera eremu orokorra, ***Irisgarritasuna Sustatzeari buruzko abenduaren 4ko 20/1997 Legeak*** zehaztua. Eremu horren barruan, hauxe sartzen da:
 - Legearen helburua eta aplikazio eremua.
 - Esku-hartzearen lau eremuetan irisgarritasuna bermatzeko neurrien zehaztapena (hiri inguruak nahiz eremu publikoak, eraikinak, informazio zein komunikazio sistemak, eta garraioak), eta zehazpen horren barruan, baldintza orokorrak eta erreserbak jasotzen dira.
 - Herri administrazioek (Eusko Jaurlaritza, foru aldundiak, udalak eta gainerako erakunde publikoak) irisgarritasuna sustatzeko eta bultzatzeko hartu behar dituzten neurriak.
 - Arauzko baldintzak betetzea kontrolatzeko neurriak.
 - Zehapen araubidea, hau da, urratzeen xedapenen eta urratzeetan aplikatu beharreko prozeduraren zehaztapena.
 - Irisgarritasuna Sustatzeko Euskadiko Kontseilua sortzea, arlo horretako kontsultarako eta partaidetzarako organotzat.
- Esku-hartzearen eremu desberdinetako baldintza tekniko aplikagarriak, Legea garatzen duten bi dekretuetan jasotakoak:
 - ***Apirilaren 11ko 68/2000 Dekretua, hiri inguruetan, eremu publikoetan, eraikinetan eta informazio nahiz komunikazio sistemetan sartzeko baldintzei buruzko arau teknikoak onetsi duena.*** Dekretu hau bost eranskinetan garatzen da:
 - I. eranskinean, irisgarritasunaren arloko oinarrizko kontzeptuak zehazteko eta irisgarritasunean arazoak dituzten pertsonen taldeak identifikatzeko parametro antropometrikoak ezartzen dira, baita mugimenduetarako nahiz transferentzietarako neurriak, gorputz-dimentsioak, kontrola eta leku beharrianak ezartzeko parametroak ere.

- II. eranskinean, hiri inguruko irisgarritasunari buruzko baldintza teknikoak ezartzen dira.
 - III. eranskinean, eraikinetako irisgarritasunari buruzko baldintza teknikoak arautzen dira.
 - IV. eranskinean, komunikazio mailako irisgarritasunari buruzko baldintza teknikoak ezartzen dira.
 - V. eranskinean, aurreko eranskinetan irisgarritasunari buruz aurreikusitako baldintza teknikoen aplikagarritasuna zehazten da, berrikuntza, handitze edo aldatze obretan, hirietan eta eraikinetan egin beharreko obretan. Halaber, horren aplikazioan salbuespenak egiteko aukera zehazten da, baita betetzea salbuesteko aukera ere, txosten honetako 5.2. eta 5.5. ataletan ezarritakoaren arabera.
- ***Uztailaren 10eko 126/2001 Dekretua, garraioko irisgarritasun baldintzei buruzko arau teknikoak onetsi dituena.***
- **Arau sektorial** batzuk ere aplikagarriak dira. Hain zuzen ere, irisgarritasunari buruzko araudiak Industria, Nekazaritza eta Arrantza Sailburuak 1996ko azaroaren 21ean emandako Agindura garamatza; horren bitartez, igogailuetarako sarbideetan solairu-adierazleak instalatzea arautu zen. Halaber, beste xedapen batzuen artean, aipagarriak dira Euskal Autonomia Erkidegoko aplikazioari buruzko martxoaren 15eko 132/1994 Dekretua, Lurzoruaren eta Hiri Antolamenduaren Araubideari buruzko Legeko Testu Bategina onetsi duen ekainaren 26ko 1/1992 Legegintzako Errege Dekretua, txakur-gidariei buruzko azaroaren 21eko 17/1997 Legea, babes ofizialeko etxebizitzaren diseinurako Ordenantzak onetsi dituen 2002ko abenduaren 30eko Agindua, zahar-etxeetarako zerbitzu sozialei buruzko martxoaren 10eko 41/1998 Dekretua, edo menpekotasuna duten adineko pertsonentzako eguneko zentroei buruzko urriaren 17ko 202/2000 Dekretua.

4. ESKUMENAK

- Estatuaren eta Autonomia Erkidegoaren arteko eskumen banaketari dagokionez, eraikitako ingururako irisgarritasunaren arloan, eraginpeko eremu nagusiak hirigintza eta etxebizitza dira, bi eremu horiek EAEn eskumen eskusibokoak baitira, Konstituzioko 148-1-3a artikuluan eta Autonomia Estatuko 10.31 artikuluan ezarritakoaren arabera. Irisgarritasuna Sustatzeari buruzko abenduaren 4ko 20/1997 Legeko Zioen Azalpenean ere horixe esaten da.
- Eusko Jaurilaritzaren, foru aldundien eta udalen arteko eskumen banaketari dagokionez, Irisgarritasuna Sustatzeari buruzko abenduaren 4ko 20/1997 Legeak ez du eskumen esleipen berezirik ezartzen; izan ere, herri administrazio guztiak inplikatzeko, horiei betebeharrak bereziak ezarrita, *“bakoitzaren eskumenak garatzean eta betearaztean”*. Zehaztapen orokor hori, berriz, lege hori zeharkakoa izateak azaltzen du, hau da, Legeak administrazio jardueraren eremu desberdinetan dauka eragina; halako kasuetan, arauak ezarritako betebeharrak herri administrazio desberdinei aplikatzen zaizkie, bakoitzak eremu horietan eratzikita dituen eskumenen arabera (horiek arautzen dituen legeriak finkatutako eskumenak).

Oro har, hauxe esan daiteke:

- Lege lerruneko arauak emateko ahalmena albo batera utzita, ahalmen hori Eusko Legebiltzarrarena soilik baita, eraikinerako irisgarritasunaren arloko arauak emateko eskumena Eusko Jaurlaritzak dauka gehienbat; bestalde, lurralde historikoetako foru erakundeek arauak garatzeko eskumena dute ondare historiko artistiko monumentala kontserbatzearen, hobetzearen eta berritzearen arloan, Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Komunuen eta bertako Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen arteko Harremani buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legeko 7 b) 5 artikuluan ezarritakoaren arabera. Udalek, beste alde batetik, Toki Araubidearen Oinarriari buruzko Legeko 22.2 d) artikuluan ezarritakoaren arabera, udal ordenantzak onesteko ahalmena dute, baina horiek ezin izango zaizkio inoiz ere kontrajarri goragoko lerruneko beste arau batzuetan ezarritakoari, Toki Korporazioen Zerbitzuei buruzko Araudiko 11. artikuluan ezarritakoaren arabera.
- Araudia betearazteko eskumenak, berriz, herri administrazio guztiek dituzte:
 - Alde batetik, guztiek dute arauak errespetatzeko betebeharra, euren titularitateko eraikinetan.
 - Beste alde batetik, irisgarritasuna sustatzearen arloan, lau urteko programak eduki behar dituzte, lehendik dauden eraikinak apurka-apurka egokitzen joateko, titularitate, erabilera edo zerbitzu publikoa duten eraikinak, Legeak eta berori garatzen duten arauetan irisgarritasunari buruz ezarritako baldintzetara.
 - Azkenik, beharrezko sustapen neurriak bultzatu behar dituzte, irisgarritasunaren egokitasuna bermatzeko; sustapen neurri horiek, berriz, diruz lagundutako programetan gauzatzen dira.
- Kontroleko eskumenak, batez ere, udalen esku daude; horiek, toki araubidearen eta hirigintza antolamenduaren arloko indarreko araudian ezarritakoaren arabera, lizentzia emateko eskumena dute, besteak beste, oinplano berriko obretan, eraikinen egitura edo kanpo itxura aldatzean eta eraikinak eraisten direnean. Hala eta guztiz ere, foru aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak ere aurretiazko kontroleko eskumenak dituzte, baimena, kalifikazioa edo antzeko gauzaren bat eman behar denean; eta zerbitzu batzuen ikuskapenean ere eskumenak dituzte, esate baterako, gizarte zerbitzuen arloan, martxoaren 10eko 40/1998 Dekretuan ezarritakoaren arabera (dekretu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen baimena, erregistroa, homologazioa eta ikuskapena arautzen da).
- Azkenik, zehapen ahalgoari dagokionez, Irisgarritasuna Sustatzeari buruzko Legeko 21. artikuluan ezarritakoaren arabera, Autonomia Erkidegoko Administrazioako sailtako sailburuek eta alkateek eskumena dute, zehapen araubideari buruzko txosten honetako 5.6.3 atalean ezarritakoaren arabera.

5. ERAIKINEN IRISGARRITASUNAREN ARLOAN EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN INDARREAN DAGOEN ARAUDIAREN AZTERKETA

5.1. Legearen helburua

Hitzaurreko tituluan ezarritakoaren arabera, Irisgarritasuna Sustatzeko Legearen helburua hauxe da:

“hiri ingururako, eremu publikoetarako, eraikinetarako, garraiobideetarako eta komunikazio sistemetarako irisgarritasuna bermatzea, pertsona guztiek horiek modu autonomoan erabili ahal izateko, batez ere mugikortasun urria, komunikazio arazoak edo beste edozein muga psikiko edo sentsorial iraunkorrak nahiz iragankorra duten pertsonak erabili ahal izateko ” (1.1 art.).

Modu osgarrian, hauxe esaten da:

“botere publikoek ekintza positiboko neurri guztiak sustatuko dituzte, Legearen benetako aplikaziorako; gainera, laguntza teknikoen erabilera sustatuko dute, pertsonen bizi-kalitatea hobetu ahal izateko” (1.2 artikulua).

Horren barruan, diseinu unibertsalaren filosofiaren barruko nozio batzuk jasotzen dira:

- Horrela, bertan ezarritakoaren arabera, irisgarritasuna bermatzea ez da inguru, eraikin, garraiobide edo komunikazio bide jakinerako irisgarritasuna bermatzea soilik, pertsona guztiei horien erabilera ahalbidetzea ere bada eta.
- Gainera, erabilera autonomoaren ideia bereganatzen du, hau da, pertsona guztiek (euren egoera edozein izan arren) edozein baliabide modu autonomoan erabili ahal izango dute, gainontzekoen laguntzarik gabe.

Kontzeptuen ikuspegitik, horrenbestez, arau nahiko aurrerakoia da; pertsona guztien berdintasun printzipioan eta aniztasunaren nahiz eskubideen defentsan oinarriturik dago.

5.2. Eraikinen inguruko irisgarritasunaren baldintzak

Eraikitako ingururako irisgarritasunari dagokionez, arauak oinplano berriko eraikinetan eta lehengo eraikinetan egindako berrikuntza obrak bereizten ditu:

- **Oinplano berriko eraikinei** dagokienez ezarritakoaren arabera, horiek guztiek (familia bakarreko etxebizitzetan kasuan izan ezik) araudian irisgarritasunerako ezarritako baldintzak errespetatu beharko dituzte. Baldintza horiek honako koadro honetan jasotako elementuetan dute eragina:

1. koadroa. ERAIKINAREN IRISGARRITASUNAREN ARLOAN ARAUTURIKO ELEMENTUAK

<ul style="list-style-type: none"> • Eraikinaren barrurako irisgarritasuna <i>Sarbideak</i> - Kanpoko ateak - Larrialdiko irteerak - Modu automatikoko irekitzeko ateak - Kristaldun ateak - Torniketateak, hesiak edo sarrera nahiz irteera kontrolatzeko beste elementu batzuk - Heldulekuak eta antzeko beste elementu batzuk <i>Atondoak</i>
<ul style="list-style-type: none"> • Barruko komunikazioak <i>Baldintza orokorrak</i> <i>Komunikazio horizontalak</i> - Korridoreak - Ateak - Leihoak <i>Komunikazio bertikalak</i> - Eskailerak - Arrapalak - Heldulekuak - Igogailuak - Sartzeko plataforma - Kabina - Igogailuko ateak - Elementu mekanikoak - Eskailera mekanikoak - Tapizak - Altxatzeko plataformak - Translazio bertikaleko altxatzeko plataformak - Translazio zeiharreko altxatzeko plataformak
<ul style="list-style-type: none"> • Egoitzak <i>Baldintza orokorrak</i> <i>Jendearen arretarako zonak</i> <i>Areto publikoak</i> - Estadioak eta harmailak - Jolasaldiko igerilekuak
<ul style="list-style-type: none"> • Zerbitzu higienikoak, aldagelak eta dutxak <i>Baldintza orokorrak</i> <i>Komunak</i> <i>Aldagelak, dutxak eta antzeko beste elementu batzuk</i>
<ul style="list-style-type: none"> • Altzariak <i>Baldintza orokorrak</i> <i>Erakusmahaiak eta leihatilak</i> <i>Makina saltzaileak</i> <i>Telefonoak</i> - Mugikortasun urriko pertsonen erabiltzeko moduko telefonoa - Komunikazio arazoak dituzten pertsonetara egokituriko telefonoa <i>Elektrizitate instalazioa egokitzeko eta horren funtzionamendurako mekanismoak, eta alarmak</i> <i>Kutxazainak eta beste elementu elkarrengaririk gabeko batzuk</i> <i>Informazioa eta seinaleztapena</i>
<ul style="list-style-type: none"> • Aparkalekuak
<ul style="list-style-type: none"> • Egoitzako eraikinak <i>Baldintza orokorrak</i> <i>Gurpildun aukian dabilzan edo mugikortasun urria duten pertsonentzako etxebizitzak</i> - Igarotze askeko ateak eta bitartekak - Atondoak eta korridoreak - Sukaldeak - Terrazak - Komunak - Egongelak - Mekanismo elektrikoak, txorrotak eta heldulekuak <i>Arao sentsorialak dituzten pertsonentzako etxebizitzak</i> <i>Etxebizitzaren erreserba</i> - Erreserburiko etxebizitzaren kokalekua <i>Turismoko ostatuak</i> <i>Etxebizitzak eta turismoko ostatuak ez diren egoitza erabilerako eraikinak</i>

Araudian, alde batetik, eraikin mota jakinari buruzko xedapen bereziak jasotzen dira:

- Esate baterako, **egoitza erabilera duten oinplano berriko eraikinei** dagokienez ezarritakoaren arabera, eraikinak bide publikoarekin, zerbitzuarekin edo erabilera komunitarioa duten erantsitako eraikinekin, garajeekin eta ondoko eraikinekin dituen sarbideek eta komunikazioek euren erabilera autonomia ahalbidetu behar diete pertsona guztiei. Etxebizitzek elementu komunekin, garajeekin, trastelekuekin eta erantsitako egoitzekin dituzten komunikazioei buruz ere gauza bera ezartzen da.
- **Ostalaritza erabilera duten oinplano berriko eraikinei eta instalazioei** dagokienez ezarritakoaren arabera, eraikinak bide publikoarekin, erabilera komunitarioa duten zerbitzuekin edo erantsitako eraikinekin eta aparkalekuekin duen irisgarritasunak aukera eman beharko du pertsona guztien erabilera autonomorako. Ostatuak elementu komunekin dituzten komunikazioei eta erreserbatutako ostatuaren irisgarritasunari nahiz erabilerari buruz ere gauza bera ezartzen da.
- **Lehendik dauden erabilera edo zerbitzu publikoko eraikinak eta lokalak berritzeko, handitzeko edo aldatzeko obrei**¹ dagokienez, legeak araudian ezarritako irizpideak errespetatu beharra ezartzen du. Beste eraikin motaren bat denean, eraikinen irisgarritasunari lotutako elementuek soilik bete beharko dute hori.

Etxe partikularretako ostalaritzari edo nekazaritza-turismoko ostatuari buruzko xedapen berezia dago; kasu honetan, gutxienez unitate bat egokitu beharko da araudian jasotako irisgarritasun-irizpideetara.

Berrikuntza obrei buruzko xedapen horiek, bestalde, salbuespenen arauketarekin osatu behar dira; izan ere, horiek sistemaren funtsezko arloa izan arren, oraindik ez daude Legean jasota, apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuko V. eranskinen ere; dekretu horren bitartez, irisgarritasunaren baldintzei buruzko arau teknikoak onetsi dira, berrikuntza, handitze edo aldatze obrei dagokienez, bai hirigintzaren eta bai arkitekturaren arloan:

- Alde batetik, arauketak salbuespen bi ezartzen ditu, irisgarritasunaren baldintzen aplikazioari dagokionez:
 - Lehenengo salbuespena orografiari, egiturari edo formari lotutako ezaugarriek irizpideak aplikatzeko ezintasuna eragiten dutenean gertatzen da.
 - Bigarren salbuespena, aurrekontu ekonomiko eskuragarria kontuan hartuta, egokitzapenak neurritz kanpoko gastua dakarrenean gertatzen da.

1 Adierazitako eraikinak, 68/2000 Dekretuko V. eranskinen 2.1 artikuluan ezartzen denez, honako hauek dira: Herri Administrazioako zerbitzuak, era guztietako osasun-etxeak, zahar-etxeak nahiz umezurtegiak, laguntza zein harrera zentroak, era guztietako hezkuntza zerbitzuak, ikastetxeetako egoitzak, horniduren merkatuak, merkataritzako nahiz aisialdiko zentroak zein lokalak, erlijio zerbitzuak, kultur zerbitzuak, zineak, antzokiak, kirol estadioak zein zentroak, ostalaritzako eraikinak nahiz lokalak, trenbide geltokiak, itsasokoak, autobus geltokiak nahiz aireportuak, bulegoen eraikinak, bankuak, aparkaleku publikoak eta komun publikoak.

Halako kasuetarako, arauak **erabilgarritasun irizpideen** aplikazioa ezartzen du. Irizpide horiek murriztu egiten dituzte irisgarritasunari lotutako baldintzetan ezarritako eskakizunak; horrenbestez, irisgarritasunari lotutako parametroak betetzen ez dituzten eraikinak, lokalak eta instalazioak ere onargarriak izango dira, baldin eta mugikortasun urrituko pertsonak horiek modu autonomoan erabil ditzaketenean.

Hurrengo koadroan, araudian ezarritako aurreikuspenak konparatzen dira, sargarritasunari eta erabilgarritasunari buruzkoak:

2. koadroa. ARAUDIAN ERAIKINEKO ELEMENTUEN ARABERA EZARRITAKO SARGARRITASUN ETA ERABILGARRITASUN BALDINTZAK

Eraikinetako elementuak	Sargarritasun baldintzak	Erabilgarritasun baldintzak
Igarotzeko bitartea ateetan	0,90 m 1,20 m automatikoki irekitzen diren ateetan	0,80 m
Korridoreen zabalerarik txikiena	1,80 m eraikin guztietan 1,50 m etxebizitzako eraikinetako elementu komunetan	1,10 m
Arrapalen zabalera	1,80 m. m 1, etxebizitzako eraikinetan	0,90 m
Arrapalen malda	% 10 3 m-tik gorakoak ez diren luzeretan % 8 gainerakoetan % 6: gomendaturiko malda	Ehuneko hamabi 3 m-tik beherako luzerako bitartean
Igogailuen kabinen sakonera	1,40 m	1,20 m
Igogailuen kabinen zabalera	1,10 m	0,90 m
Igarotzeko zabalera askea, igogailuen kabinetan	0,90 m	0,80 m

Sargarritasun baldintzetan ezarritako gainerako parametroei dagokienez, V. eranskinean ezarritako baldintza bakarra *“ahal den neurrian aplikatzeko ahalegina egitea”* da, eta horrela, aukera bitarte handia ematen da.

- Beste alde batetik, testuaren 3.3 artikuluan, benetako salbuespenak aurreikusten dira, erabilgarritasun parametroak bete ezin direnerako. Salbuespen horien emakida, berriz, txosten honetako 5.5. atalean zehazturiko aurretiazko kontrol prozedurari lotuta gelditzen da.

5.3. Erreserbak

Aurreko ataletan azaldutako xedapenak, osatu ere, Irisgarritasuna Sustatzeari buruzko Legeko II. kapituluaren eta berori garatzen duen araudian ezarritako **“erreserbekin”** osatzen dira. Eraikinen irisgarritasunari dagokionez, erreserbak honako hauek dira:

3. koadroa. ERRESERBEN KUPOAK ETA EZAUGARRIAK ERAIKINEKO ELEMENTUEN ARABERA

Eraikineko elementua	Erreserbaren kupoak	Erreserbaren ezaugarriak
• Areto publikoak	• 4 plaza, 100 edo zatiki bakoitzeko	
• Estadioak eta harmailak	• Plaza guztien % 2, edukiera 5.000 plazatik beherakoa denean • 100 + % 0,5, 5.001 eta 20.000 plaza bitarteko edukieretan • 175 + % 0,25, 20.000 plazatik gorako edukieretan	
• Erabilera publikoko garajeetarako eraikinak	• Plaza 1, 40 edo zatiki bakoitzeko	• Mugikortasun urriko pertsonentzat soilik
• Etxebizitza eraikinetara lotutako aparkalekuak	• Plaza 1, erreserbatutako etxebizitza bakoitzeko, edo gutxienez plaza 1, 40 edo zatiki bakoitzeko	
• Komunak, aldagelak, duxak eta antzeko beste elementu batzuk, erabilera publikoa duten edota jendearentzat irekita dauden eraikinetan kokaturikoak	• Elementu 1 sexu bakoitzeko, 10 edo zatiki bakoitzeko	• Mugikortasun urriko pertsonen erabiltzeko egokituriko elementuak • Eraikinetan, adierazitako proportzioa elementuen pilaketaz aplikatuko da
• Telefonoak, mintzalekuak eta kabinak, jendearentzat irekiak edota erabilera publikoak dutenak, eraikin publikoetan kokaturikoak	• Telefono 1, 10 edo zatiki bakoitzeko	• Mugikortasun urria edo komunikazio arazoak dituzten pertsonen erabiltzeko egokituriko elementuak • Eraikinetan, adierazitako proportzioa elementuen pilaketaz aplikatuko da
• Erabilera publikoa duten mintzalekuak	• Gutxienez testuko telefono 1	
• Hotelak eta pentsioak, sailkapen eta kategoria guztietan	• Ostatu 1, 50 edo zatiki bakoitzeko	• Mugikortasun urriko pertsonen lehentasunezko erabilera
• Turismoko kanpamentuak edo kanpina, sailkapen eta kategoria guztietan	• Plaza 1, 50 edo zatiki bakoitzeko	• Mugikortasun urriko pertsonen lehentasunezko erabilera
• Apartamentu turistikoak, kategoria guztietan eta oporrotako etxebizitza turistikoetan	• Plaza 1, 50 edo zatiki bakoitzeko	• Mugikortasun urriko pertsonen lehentasunezko erabilera
• Gazteen kanpamentuak, aterpetxeak, eskolako oporretako udalekuak eta antzeko beste batzuk	• Plaza 1, 50 edo zatiki bakoitzeko	• Mugikortasun urriko pertsonen lehentasunezko erabilera
• Turismoko ostatuak	• Plaza 1, 10 edo zatiki bakoitzeko	• Komunikazio arazoak dituzten pertsonen ostatua modu autonomoan okupatzeko beharrezko laguntza teknikoak
• Babes ofizialeko etxebizitzaren sustapenak	• Etxebizitza 1, 25 edo zatiki bakoitzeko	• Elbarrientzat edo irabazi asmorik gabeko erakunde publiko nahiz pribatuentzat erreserbatutako etxebizitzak eskuratzeko edo alokatzeko lehentasuna, talde horretarako etxebizitzatzat erabiltzeko
• Etxebizitza askeko sustapenak	• Etxebizitza 1, 50 edo zatiki bakoitzeko	• Berrogeita hamar etxebizitzatik aurrera aplikatzeko moduko erreserba • Elbarrientzat edo irabazi asmorik gabeko erakunde publiko nahiz pribatuentzat erreserbatutako etxebizitzak eskuratzeko edo alokatzeko lehentasuna, talde horretarako etxebizitzatzat erabiltzeko. • Etxebizitzaren sustatzaileek esleipendunaren ezaugarrietara egokitu beharko dituzte etxebizitzak. Gutxieneko egokitzapen horiek araz finkatuko dira.

5.4. Sustapen neurriak

Legeak, lehen esan dugunez, sustapen neurri batzuk ditu ezarrita, eta horiek herri administrazio desberdinen eskumenekoak dira:

- Eraikitako ingururako irisgarritasuna sustatzearen eremuan, Eusko Jaurlaritzari, foru aldundiei, udalei eta gainerako erakunde publikoei, lau urterako programen prestakuntza ezartzen die, lehendik dauden eraikinak (titularitate, erabilera edo zerbitzu publikoa dutenak) apurka-apurka legez ezarritako irisgarritasunaren baldintzetara egokituko direla bermatzeko. Halaber, aurrekontu partida egokiak zuzkitzeko betebeharra ere ezartzen die, partida horiek halako programen finantziatziora bideratzeko, aurrekontu bakoitzaren aukeren arabera.

Irisgarritasuna sustatzeko programak honako honetan oinarrituko dira:

- Egokitu beharreko elementuen inbentarioa duen katalogoa.
- Jarduketarako aurreikusitako lehentasunen ordena, eta hori eraginkortasunari eta pertsona kopuruari lotutako irizpideak aintzat hartuta zehaztuko da.
- Programa ekonomiko-finantzazkoa.
- Egokitzapenak betearazteko egutegia.

Lau urteko lehenengo plana egiteko ezarri den legezko epea bi urtekoa da, araua 1997ko abenduaren 24ko 246. zenbakidun Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik zenbatzen hasita, hau da, 1999ko abenduaren 24tik zenbatzen hasita.

- Sustapen neurriei dagokienez, legeak irisgarritasuna sustatzeko diru-laguntza-programak hartzea bultzatzeko betebeharra ezartzen die herri administrazioei, bai Eusko Jaurlaritzari eta bai foru aldundiei nahiz udalei; honako lehentasun hauek finkatzen dira:
 - Lehendik dauden eraikinak irisgarritasunaren baldintzetara egokitzeko helburua duten obrak.
 - Oinplano berriko, berrikuntzako edo birgaitzeko obrak, manuzkoa izan ez arren mugikortasun urriko pertsoneri erreserbatutako etxebizitzak dituztenean.
 - Etxebizitzan, zerbitzu komunitarioen edo irisgarritasunaren egokitzapen funtzionalak helburu dituzten berrikuntza obrak, mugikortasun urria edo irisgarritasunean arazoak dituzten pertsonentzat.
 - Turismoko ostatuen oinplano berriko, berrikuntzako edo birgaitzeko obrak, baldin eta, manuzkoa izan arren, mugikortasun urria, komunikazio arazoak edo, oro har, irisgarritasunean arazoak dituzten pertsonen lehentasunezko erabilerarako erreserbatutako ostatuak badituzte.
 - Laguntza teknikoan lorpena, eraikina kasuan kasuko irisgarritasun baldintzetara egokitu ezin denean.

Herri administrazioek legeak ezarritako betebeharrak horiek betetzeko maila handiagoaren edo txikiagoaren azterketa da txosten honen oinarria, eta hurrengo kapituluetan informazio zehatzagoa emango da.

5.5. Aurretiazko kontrol neurriak

Araudian kontroleko zenbait tresna daude ezarrita, horietariko bi Irisgarritasuna Sustatzeko Legeak arautzen ditu eta beste bi 68/2000 Dekretuko V. eranskinak:

- Lehenengoa, izan ere, herri administrazioek lizentzia, baimena, kalifikazioa edo beste egintza batzuk ematea irisgarritasunaren arloko arauak betetzeari lotuta egotea da, baita kasuan kasuko administrazioak betetze hori egiaztatzea ere (Irisgarritasuna Sustatzeko Legeko 15. eta 17. artikulua).
- Aurretiazko kontroleko bigarren tresna administrazio kontratuen baldintzen pleguetan irisgarritasunari buruzko araudiaren arabera klausulak jasotzea da, horien edukiek araudi horretan ezarritakoan eragina dutenean (Irisgarritasuna Sustatzeari buruzko Legeko 16. artikulua).
- Hirugarrena, izatez ere, V. eranskineko 3.1 artikuluan ezarritako salbuespenak arrazoen aurretiazko justifikaziora egokitzea da, hau da, irisgarritasunari buruzko baldintza teknikoak betetzeko egokitzapenak egin ezin izatearen arrazoen justifikaziora egokitzea.
- Laugarren tresna, bestalde, V. eranskineko 3.3 artikuluan araututako salbuespenak emateko ezarrita dagoen kontrol prozedurak eskaintzen du. Prozedura horretarako, salbuespena sortzen duen gorabehera agirien bitartez justifikatu behar da; gainera, manuzkoa da, lizentzia onetsi baino lehen, udal zerbitzuek alderdi horiei buruzko txostena bidaltzea. Txosten hori, hala eta guztiz ere, dirudenez ez da loteslea, Legeko 22.2 artikuluan ezarritakoaren arabera; egin-eginean ere, artikulua horretan, korporazioko kideen erantzukizuna ezartzen da, baldin eta horiek, aurretiazko txostenak aurkakoak direla jakin arren, lizentzia ematearen aldeko botoa eman badute. Arauak kontroleko elementu gehigarria sartzen du; izan ere, udalei salbuespeneko espedienteak Irisgarritasunerako Euskadiko Kontseilura bidaltzeko betebeharra ezartzen die, Kontseilua jakitun geratzeko.

Salbuespenak aplikatzeko prozeduren funtzionamenduari dagokionez, esku artean daukagun informazioa oso mugatua da. Irisgarritasunerako Euskadiko Kontseiluak, urteroko txostenean, udalek jakinarazitako salbuespen kopuruaren berri ematen du: 2000. urtean 3 egon dira, eta 2001ean 47. Udalen arteko desberdintasun handiak daude (21 kasu Barakaldon), baita lurralde historikoen artean ere (39 kasu Bizkaian). Kontseiluak, hala eta guztiz ere, ez daki seguru ea datu horiek errealitatea islatzen duten, hau da, ea udalerrri guztiek halako kasuetan jakinarazpen betebeharra behar bezala betetzen ote duten; esate baterako, ez dakigu Barakaldori emandako salbuespen kopuru handia salbuespena sarriago aplikatzearen ondoriozkoa edo, aldiz, Udalak salbuespenok Kontseiluari jakinarazteko betebeharrak legalarekiko konpromiso handiagoa izatearen ondoriozkoa ote den.

Beste alde batetik, Kontseilura bidaltzen diren jakinarazpenak ohartarazpen hutsak izaten dira, eta horietan, zein kasutan eta irisgarritasunari lotutako zein baldintzari dagokionez aplikatu den baino ez da adierazten. Itxuraz indarreko legerian ezarritako espedienteen jakinarazpenaren ordezkia den jarduera honek Kontseiluari ez dio aukerarik ematen salbuespenaren emakida behar bezala justifikaturik dagoen ala ez egiaztatzeko.

5.6. Zehapen araubidea

Zehapen araubidea Legeko IV. tituluan ezarrita dago eta honako elementu hauek jasotzen ditu: urratzeak, zehapenak, horiek ezartzeko organo eskudunak, erantzuleak eta preskripzio araubidea.

5.6.1. Urratzeak

Eraikitako ingururako irisgarritasunaren baldintzei dagokienez, urratzeak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke:

- Urratze arinak:
 - Irisgarritasunari lotutako baldintzak ez mantentzea.
 - Irisgarritasunerako elementuak narriatzea edo ez erabiltzea, erruz edo arduragabekeriak.
 - Legearen aurkako egiteak edo ez egiteak, larritzat edo oso larritzat kalifikaturik ez daudenak.
- Urratze larriak:
 - Irisgarritasunaren elementuak narriatzea edo ez erabiltzea, arduragabekeriak.
 - Irisgarritasunari lotutako baldintzak ez betetzea, era askotako obretan: eraikuntza berria, handitzea, berritzea, birgaitzea, hobetzea, egokitzea eta erabilera aldatzea, erabilera publikoa duten eraikinen kasuan.
 - Irisgarritasunari lotutako baldintzak ez betetzea, eraikuntza berriko obretan, obra horiek etxebizitzaren taldeko erabilera duten eraikinetan egiten direnean, baldin eta kanpoa eta barrua sarbide egokien bitartez komunikaturik ez badago, eta barrua etxebizitzekin, garajeekin nahiz trastelekuekin eta erantsitako egoitzekin ondo komunikaturik egon ezean.
 - Erreserben urratzea.
 - Hiru urte baino epe laburragoan urratze arina berriro egitea.
- Urratze oso larriak:
 - Legeak ezarritako betebeharren agiriak faltsutzea edo ez betetzea, iruzurra erabiliz.
 - Urratze larriak behin eta berriro egitea.

5.6.2. Zehapenak

Arauk zehapen mota bakarra ezartzen du, isuna, eta horrek zenbateko desberdinak izan ditzake, urratzearen kalifikazioaren arabera:

- Urratze arinetarako, zenbatekoa 50.000 pezeta (gutxi gorabehera 300 euro) eta 500.000 pezeta (gutxi gorabehera 3.005 euro) bitartekoa izan daiteke.
- Urratze larrietarako, 501.000 pezeta (gutxi gorabehera 3.006 euro) eta 10.000.000 pezeta (gutxi gorabehera 60.101 euro) bitartekoa izan daiteke.
- Urratze oso larrietarako, 10.000.001 pezeta (gutxi gorabehera 60.102 euro) eta 20.000.000 pezeta (gutxi gorabehera 120.202 euro) bitartekoa izan daiteke.

Isunaren zenbatekoa zehazteko, kontuan hartzen dira urratzailearen erantzukizun maila, irisgarritasunean egin beharreko obren kostu ekonomikoa, zuzen edo zeharka eragindako kaltea, erantzuleen berrerortzea eta urratze bakoitzaren partaidetza maila.

Legean ezarritakoaren arabera, isunaren ezarkuntzak ez du urratzailea salbuesten, proiektuaren berrikuntza edo beharrezko egokitzapen obrak egitetik, kasu bakoitzerako arauz ezarritako epean. Hau da, hirigintza diziplinaren arloan gertatzen den bezala, Administrazioak neurri egokiak hartu behar ditu, ondasunak legez aurkako egoera baino lehenago zeuden moduan gelditzeko.

5.6.3. **Organo eskudunak**

Irisgarritasuna Sustatzeari buruzko Legeko 21. artikuluan ezarritakoa kontuan hartuta, lege honen aurkako urratzeen eraginezko zehapenak ezartzeko agintari eskudunak honako hauek dira:

- Alkateak, urratze arinen eta 5.000.000 pezetarainoko (gutxi gorabehera 30.050 euro) urratze larrien ondoriozko zehapenak ezartzeko, euren eskumenen eremuan, honako eskala honetan ezarritakoaren arabera:
 - 10.000 biztanletik beherako udalerrietan, 1.000.000 pezetaraino (gutxi gorabehera, 6.010 euro);
 - 10.000 eta 50.000 biztanle bitarteko udalerrietan, 2.500.000 pezetaraino (gutxi gorabehera, 15.025 euro);
 - eta 50.000 biztanletik gorako udalerrietan, 5.000.000 pezetaraino (gutxi gorabehera 30.050 euro).
- Euskal Autonomia Erkideko Administrazioiko sailtako sailburuek, arloaren arabera, eskumena dute hauxe ezartzeko:
 - urratze arinen eta 5.000.000 pezetarainoko (gutxi gorabehera 30.050 euro) urratze larrien eraginezko zehapenak, euren eskumenen eremuan;
 - 5.000.001 pezeta (gutxi gorabehera 30.051 euro) eta 10.000.000 pezeta (gutxi gorabehera 60.101 euro) bitarteko zehapenak, urratze larrien eraginez;
 - Urratze oso larrien eraginezko zehapenak, kasu guztietan.

5.6.4. **Erantzuleak**

Arauk bi kasu desberdin ezartzen ditu, erantzukizunari dagokionez:

- Lehenengo kasua udal lizentzia egokia lortu barik edo emandako lizentziaren klausulak urratuta egindako obrei eta jarduketei buruzkoa da. Halako kasuetan, sustatzailea, proiektuaren egilea, obren enpresaburu eraikitzailea eta teknikari zuzentzaileak zehatu egingo dira.
- Bigarren kasua berriz, udal lizentziaren edukiak urratze larria edo oso larria egiten duenean aplikatzen da. Halako kasuetan, zehatu egingo dira proiektuaren aldeko txostena eman duen aditua eta lizentzia ematearen aldeko botoa eman duten

korporazioko kideak, boto hori manuzko txostenik gabe edo horiek aurkakoak izatean eman dutenean, aipaturako urratzeari dagokionez. Aldiz, doktrinak eta jurisprudentziak hirigintza arauari buruz egiten duten interpretazioaren arabera, sustatzailea, proiektuaren egilea, obren enpresaburu eraikitzailea eta teknikari zuzentzaileak zehatzeko, beharrezkoa izango da horiek erruz edo arduragabekeriak jardutea.

5.6.5. **Preskripzio araubideari lotutako zailtasunak**

Irisgarritasunari buruzko araudien arazo nagusienetariko bat, bai Euskal Autonomia Erkidegoan eta bai beste eremu geografiko batzutan, horiek betetzea eskatzeari lotutako zailtasuna da beti, arauketan ez baitago xedapen zehatzailerik. Horren ondorioz, irisgarritasunari buruzko araudiak asmo onen adierazpen hutsak izan dira orain arte, eta ez dute betetzea derrigortzeko ahalmenik izan.

Ikuspegi horretatik, horrenbestez, Irisgarritasuna Sustatzeari buruzko Legean zehapen araubidea sartzeari aurrerapauso handia da, lehengo egoerari dagokionez. Hala eta guztiz ere, interpretazio mailako zailtasun batzuk daude eta horiek, neurri batean, baldintzatu egin dezakete horren aplikazio eraginkorra.

Hain zuzen ere, 21. artikulua (Legean jasotako zehapenak ezartzeko organo eskudunak adierazten dituen artikulua) nahasgarria da eta horrek interpretazioa zailtzen du. Artikulu horretako b) atalean, eginkizun hori honako hauek dute: *“arloaren arabera, eta euren eskumenean eremuan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administraziooko Sailletako Sailburuek eskumena dute, urratze arinen eta 5.000.000 pezetarainoko urratze larrien eraginezko zehapenak ezartzeko”*. Hala eta guztiz ere, nekez zehatzeko modukoa da halako espediente bat Erkidegoko Administraziooko sail baten eskumenean eremuan noiz sartzan den jakitea, kontuan hartuta lizentziak udalek soilik eman ditzaketela. Ikuspegi horretatik begiraturik, administrazioetako teknikari batzuek zalantzak dituzte, arau horren edukiak indarreko eskumen eremuarekin duen bateragarritasunari buruz, horren idazketa kontuan hartuta. 5.000.000 pezetatik gorako (gutxi gorabehera 30.050 euro) urratze larrien eraginezko zehapenen kasuan ez legoke halako arazorik, ezta urratze oso larrien kasuan ere; izan ere, arauan esaten denez, zehatzeko eskumena arloaren arabera eskuduna den administrazio autonomoko sailaren sailburuak dauka “beti”.

Nahasterik ez egoteko, teknikariek eurek ere xedapena interpretatzeko orduan adierazitako zailtasunak aintzat hartuta, horren edukia argitu beharra dago, berori aplikatu behar dutenek horren interpretazio egokia eta homogenea egiteko, baita horren aplikazio eraginkorra bermatzeko ere.

Beste alde batetik, eta aurrekoari oso lotuta, zehapenaren praktika aipatu behar da. Orain arte, administrazioaren bidetik egindako erreklamazio formalak ez dira ugariak izan. Jakina, gatazkak adiskidetasunaren bidetik konpontzeko ahalegina egiten da, elbarri elkarteetan edo horien koordinatzaileen esku-hartzearen bitartez, edo Irisgarritasunaren Euskadiko Kontseiluaren bitartekotzaren bidez. Kasu batzuetan, Arartekoaren erakunde honek ere parte hartzen du, jasotako kexetan oinarrituz.

Jurisdikzioaren eremuan, aldiz, urte batzuetatik hona mugikortasun handiagoa ikusten da. Fenomeno berri hori Arabako eta Bizkaiko Lurralde Historikoetan gertatu da batez

ere; izan ere, lurraldeotan elbarritasuna duten pertsonen elkarteen koordinatzaileek jarrera irmoa hartu dute euren ustez indarreko araudiaren aurkakoak diren egintzak auzitegietara eramateko. Esate baterako, Araban, Legea onetsi zenetik lau auzi hasi dira, eta Bizkaian egun horretatik irekitako espediente kopurua berrogeita hamar ingurukoa da.

Horrenbestez, pentsa daiteke urte gutxi barru jurisprudenziako doktrinak arauaren interpretazioa erraztuko duela, eta horrek, gainera, herri administrazioen eta hiritar guztien konpromisoa indartuko du, indarreko araudia betetzeari dagokionez.

6. ERABILERA PUBLIKOA DUEN ERAIKIN INGURUKO IRISGAR- RRITASUNAREN OINARRIZKO ELEMENTUAK. KONPARAZIO AZTERKETA

Atal honetan konparazio koadroa aurkezten da, erabilera publikoa duten eraikinen irisgarritasunaren elementu nagusiei lotutako arauei buruz. Kontuan hartu behar da hautapena konparatu beharreko elementuaren garrantziak eragiten duela, neurri batean, eta aztertutako arauetan jasota egoteak edo ez egoteak ere eragiten du. Halaber, aintzat hartu behar da konparazioko elementuak komunikazioari lotutako irisgarritasunaren beste baldintza batzuekin osatu behar direla, hain zuzen ere, informazioko, seinaleztapeneko eta argiztapeneko elementuekin.

Erreferentziako arau nagusiak honako hauek dira:

- UNE arauak:
 - UNE 41500 txostena, “Eraikineko eta hiriko irisgarritasuna. Diseinuaren irizpide orokorrak” deritzonari buruz (2001eko apirila).
 - UNE 41522 araua, “Eraikineko irisgarritasuna. Eraikinetarako sarbideak” deritzonari buruz (2001eko apirila).
 - UNE 41523 araua, “Eraikineko irisgarritasuna. Ereku higieniko-sanitarioak” deritzonari buruz (2001eko apirila).
 - UNE 41520 araua, “Eraikineko irisgarritasuna. Komunikazio horizontaleko eremuak” deritzonari buruz (2002ko martxoa)

Txosten hau amaitzeko unean, oraindik ez dago argitaratuta UNE 41521 araua, “Eraikineko irisgarritasuna. Komunikazio bertikaleko elementuak” deritzonari buruz; horrenbestez, konparazioa ezin daiteke egin irisgarritasun bertikaleko alderdi batzuei dagokienez.

- EAEko araudia:
 - Apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuko 3. eranskina, Eraikinetako Irisgarritasunaren Baldintza Teknikoei buruzkoa; dekretu horren bitartez, hiri inguruetakoa, eremu publikoetako, eraikinetako eta informazio nahiz komunikazio sistemetakoa irisgarritasunaren baldintzei buruzko arau teknikoak onetsi dira.

- Beste autonomia erkidego batzuetako araudia. Konparaziorako, beharrezkoa izan da autonomia erkidego guztietako indarreko araudiak aztertzea; hala eta guztiz ere, ez da egokia hemen araudi horien edukia zehatz aztertzea, oso luzea eta aspergarria izango litzatekeelako; zalantzarik gabe, hobe da Euskal Autonomia Erkidegoan jasotakoak baino egokiagoak diren alderdiak soilik aipatzea. Kotsultaturiko araudien multzoa, berriz, txostenaren amaierako bibliografian jasota dago.

Konparazioak agerian jartzen duenez, Euskadiko araudian eraikineko irisgarritasunaren arloan jasotako xedapenak funtsean egokitu egiten dira UNE arauetan jasotakoetara, eta kasu batzuetan, gainera, azken horiek baino hobeak dira. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko indarreko antolamendua Estatu osoko antolamendurik konplexuenetariko eta aurrerakoienetariko da, eta beste autonomia erkidego batzuetan, irisgarritasunaren baldintza gutxiak dute halako araudi onik; horren eraginez, azken horiei buruzko zutabea hutsik dago, aztertutako alderdi askori dagokienez.

4. koadroa. ERABILERA PUBLIKOA DUEN ERAIKITAKO INGURUKO IRISGARRITASUNAREN OINARRIZKO ELEMENTUAK KONPARAZIO-KOADROA

Elementuak	UNE arauak	EAEko indarreko araudia	Beste AAEE batzuetako araudirik egokienak
Eraikinaren ataria eta sarbidea	<ul style="list-style-type: none"> Atearen ondoko eremua, bai kanpokoak eta bai barrukoak, horizontala izango da eta gehienez % 2ko malda izango du Eremu horretan, oinplanoan, oztoporik gabeko zirkulu askea egon daiteke, 1,50 m-ko diametrokoa eta atearen atariarekiko tangentea 	<ul style="list-style-type: none"> Atearen ondoko eremua horizontala eta oztoporik gabea izango da, bai barnaldean eta bai kanpoaldean Eremu horretan 1,80 m-ko diametroko zirkulua sar daiteke era guztiarako eraikinetan, eta 1,50 m-koa etxebizitzaren eraikinetan 	
Irekitzeko angelua	<ul style="list-style-type: none"> Angelurik txikiena: 90° 	<ul style="list-style-type: none"> Angelurik txikiena: 90° 	
Igarotzeko bitartearen zabalera/txikiena		<ul style="list-style-type: none"> 0,90 m 1,20 m ate automatikoetan Zati bikoitzeko atzetan, eta horietariko batek gutxienez 0,90 m-ko zabalera izango du 	
Itzultzeko mekanismoak	<ul style="list-style-type: none"> Halakorik egotekotan, itzultzeko mekanismo elektrikoak edo mekanikoak ondo erregulatuta egongo dira, irekitzeko edo ixteko esfortzuan edo denborari dagokionez 	<ul style="list-style-type: none"> Ixiera automatikorako malgukiak eta beste dispositibo batzuk eduki behar dituzten ateen kasuan, horiek gehieneko erresistentzia gehienez 30 Newtonkoa izateko moduan instalatuko dira 	
Lanpasa	<ul style="list-style-type: none"> Lanpasik badago, hori finkoa izango da eta zoladurarekin zarpeatuta egongo da 		
Diseinua	<ul style="list-style-type: none"> Atondoan erabilzaileen orientazioa errazteko moduan antolatuta egongo da; solairuko zona edo erabilera desberdinetarako nahiz komunikazio bertikaleko guneetako ibilbideak, sarrera eta iteera adieraziko dira 	<ul style="list-style-type: none"> Forma erregularrakin diseinatuko dira, alferreko zutoinak edo zutabeak sailhestuz Lurzoruaren eta hormen arteko kontraste kromatiko ona aintzat hartuta diseinatu eta egingo dira 	
Atondoak		<ul style="list-style-type: none"> Dimentsioek barruan 1,80 m-ko oztoporik gabeko zirkulu askea sartzeko aukera emango dute, eta 1,50 m-koa etxebizitzaren eraikinetan 	

4. koadroa. ERABILERA PUBLIKOA DUEN ERAIKITAKO INGURUKO IRISGARRITASUNAREN ONARRIZKO ELEMENTUAK KONPARAZIO-KOADROA (Jarraipena)

Elementuak	UNE arauak	EAEko indarreko araudia	Beste AEEE batzuetako araudirik egokienak
Atondoak			
Etengailuak, ohargailuak, postontziak	<ul style="list-style-type: none"> • Altuera: 0,70 m eta 1,20 m bitartean 	<ul style="list-style-type: none"> • Altuera: lurzortutik 0,90 m eta 1,20 m bitartekoa • Erraz aurkitzeko modukoak izango dira, paramentuekiko kontraste kromatikko egokiarekin; begien bidezko identifikaziorako pilotu argitsua edukiko dute eta euren diseinuak manipulazio arazoak dituzten pertsonetarako erabiltzeko aukerak eman behariko dizkie 	
Informazio guneak eta erakusmahaiak	<ul style="list-style-type: none"> • Ahal izanez gero, elementuen aurrean eremu askea egongo da, bertan 1,50 m-ko diametroko zirkulua sartzeko modukoa, gurpildun aulkia erabiltzaileak manio Bretarako askatasuna erabiltzeko • Hori ezinezkoa bada gutxienez 0,80 m x 1,20 m bitarteko gutxieneko eremua egongo da • Gutxienez metro bateko garapen-bitartea egongo da, aipatutako baldintzak betetzen dituen, gurpildun aulkia aurrez hurbildu ahal izateko; hau da, oinuen mailan 0,60 m-ko sakonera, belauen mailan 0,30 m-ko sakonera eta 0,68 m-ko gutxieneko altuera askea edukiko du • Laneko planoaren altuera 0,75 m eta 0,85 m bitartekoa izango da 	<ul style="list-style-type: none"> • Altzariak erraz aurkitzeko moduan kokatuta egongo dira; argiztapen egokia eta erraz detektatzeko modukoa edukiko dute, mugikortasun-makila erabiliz 	
Altzariak			
		<ul style="list-style-type: none"> • Gehieneko altuera: 1,10 m • 120 m-ko gutxieneko luzerako bitartea izango dute, 0,80 m-ko altueran, eta behealdean oztoporik gabeko hutsunea izango dute; 0,70 m-ko altuera eta 0,50 m-ko sakonera 	
		<ul style="list-style-type: none"> • Altzari guztiek ertz kamusak edukiko dituzte • Altzarien diseinuak gurpildun aulkiko erabiltzaileek erabiltzeko aukera emango du; altzariok mugikortasun bastoiak erabiltzen dituzten edo ikusmen-arazoak dituzten pertsonetarako zailtasunak edo arrikuak ez eragiteko moduan kokatuko dira 	

4. koadroa. ERABILERA PUBLIKOA DUEN ERAIKITAKO INGURUKO IRISGARRITASUNAREN OINARRIZKO ELEMENTUAK KONPARAZIO-KOADROA (Jarraipena)

Elementuak		UNE arauak	EAEko indarreko araudia	Beste AEEE batzuetako araudirik egokienak
Atondoak	Altzariak		<ul style="list-style-type: none"> Eserlekuak dituzten ibarrote-zonetan, horiek modu angeluzuzenean kokatuko dira, igarotzeko zonetatik kanpo, eta korridore askea utziko dute, eraikineko sarbideekin eta instalazioekin komunikazio egokia edukitzeko. Ilarretan jarri behar badira, horien arteko gutxieneko distantzia 0,90 m-koa izango da. Halako zonetan, gutxienez eserleku bat lurzorutik 45 cm-ra egongo da eta mugitzeko moduko beso-euskailua edukiko du, eserlekutik 20 cm-ko altueran 	
Komunikagailuak eta ohartarazpen-sistemak	Botoien eta sakagailuen altuera	<ul style="list-style-type: none"> 0,70 m eta 1,20 m bitartean 	<ul style="list-style-type: none"> 0,90 m eta 1,20 bitartean 	
	Kokalekua	<ul style="list-style-type: none"> 40 cm-ko gutxieneko distantzia, eurak jasotzen dituen planoko zeharkako edozein elementuri dagokionez 	<ul style="list-style-type: none"> Atearen ezkerretara 	
	Kontraste kromatikoa	<ul style="list-style-type: none"> Elementuak koloreko kontrasteik identifikatu eta ukimenez ezagutzeko aukera emango dute 	<ul style="list-style-type: none"> Ateak atezain automatikoaren bitartez irekitzeko sistemak, eta horiek sakagailuarekin, txartela sartuta edo antzeko beste edozein mekanismoarekin eragingo dira; 0,90 m eta 1,20 m bitarteko altueran egongo dira, eta beharrezko baliabide teknikoak edukiko dituzte, atearen segurtasun sistema askatzeko edo eteteko, harik eta irekitzeko edo ixteko maniobra gutziz egin arte 	
Ibilbide horizontalak	Ezaugarri orokorrak	<ul style="list-style-type: none"> 1,20 m era guztietako eraikinetan 		<ul style="list-style-type: none"> Oro har, hormetako ertzek ez dute punta bizirik edukiko, eta paramentuaren amaieraren adierazleak edukiko dituzte

**4. koadroa. ERABILERA PUBLIKOA DUEN ERAIKITAKO INGURUKO IRISGARRITASUNAREN ONARRIZKO ELEMENTUAK
KONPARAZIO-KOADROA (Jarraipena)**

Elementuak		UNE arauak	EAEko indarreko araudia	Beste AEEE batzuetako araudirik egokienak
Ibilbide horizontalak	Igarotzeko altuera askerik txikiena	<ul style="list-style-type: none"> • 1,20 m era guztiarako eraikinetan • 1,10 m etxebizitzaren eraikinetan 	<ul style="list-style-type: none"> • Korridore nagusiak: <ul style="list-style-type: none"> - 1,80 m era guztiarako eraikinetan - 1,50 m etxebizitzaren eraikinetan • Bigarren mailako korridoreak: 1,20 m • Eraikineraren barruko ibilbide nagusiak oztoporik gabeak izango dira 2,20 m-ko altueran eta 1,80 m-ko zabalera, ateen kasuak izan ezik; gainera, ez dute altzarnik, berogailurik, su-itzalgaillurik eta halako beste elementurik eduki behariko. 	
	Zabalera komenigarria	<ul style="list-style-type: none"> • 0,90 m-ko zabalera estuak ahalbidetzen dira, 0,50 m-tik beharoko luzeretan 		
		<ul style="list-style-type: none"> • 1,50 m bi pertsona gurutzatzeko aukera emateko, horietariko bat gurpildun aulkian • 1,80 m gurpildun aulki bi gurutza daitezkeen zonetan 		
Ateak	Topatzeko eta biratzeko azalerak	<ul style="list-style-type: none"> • 1,50 m-ko diametroa 	<ul style="list-style-type: none"> • 1,50 m-ko diametroa 	
	Topatzeko eta biratzeko azalaren maiztasuna	<ul style="list-style-type: none"> • Ibilbideko edozein tokitik, gutxienez azalera hau duen biraketa-gunea egongo da: <ul style="list-style-type: none"> - 5 m eraikin publikoetan - 2,5 m etxebizitzaren eraikinetan 	<ul style="list-style-type: none"> • Gehienez 18 m-ko distantzia, topatzeko eta biratzeko bi azalaren artean, betiere korridorearen hasieran eta amaieran 	
	Igarotze askeko bitartearen zabalera	<ul style="list-style-type: none"> • 0,80 m 	<ul style="list-style-type: none"> • Igarotzeko hutsunearen zabalera txikiena 0,90 m-koa izango da, eta 1,20 m-ra handituko da, modu automatikoan irekitzen diren ateen kasuan 	
	Igarotze askeko bitartearen altuera	<ul style="list-style-type: none"> • 2 m 		
	Zati bikoitzeko atatak	<ul style="list-style-type: none"> • Zati bikoitzeko atatak igarotzeko bitarte askeko zabalera eta altuera bete behariko ditu 	<ul style="list-style-type: none"> • Gehienez irekitzen den zatiak 0,90 m-ko zabalera igarobidea utziko du 	

4. koadroa. ERABILERA PUBLIKOA DUEN ERAIKITAKO INGURUKO IRISGARRITASUNAREN OINARRIZKO ELEMENTUAK KONPARAZIO-KOADROA (Jarraipena)

Elementuak	UNE arauak	EAEko indarreko araudia	Beste AAEE batzuetako araudirik egokienak
Ateak			
Leihoa edo behatxuloa	<ul style="list-style-type: none"> • Goiko altuerarik txikiena: 1,80 m • Beheko altuerarik txikiena: 0,90 m 	<ul style="list-style-type: none"> • Diseinuan kontuan hartuko da altuera txikiko edo gurpildun aukian eseritako pertsonen erabiliko dutela; bi behatxulo eduki ditzakete, bata 1,10 m-ko altueran, edo behatxulo bakarra, berori altuera horretaraino luzatuta 	
Kontraste kromatikoa	<ul style="list-style-type: none"> • Atea begiekin erraz ikusteko modulua izango da, horren markoaren eta hormaren arteko kontraste kromatikoaren bitartez 	<ul style="list-style-type: none"> • Ateen eta hormen arteko kontraste kromatikoa egongo da 	
Ate eraisgarriak	<ul style="list-style-type: none"> • 90°-ko irekierarik txikiena 		
Beira gardena duten ateak	<ul style="list-style-type: none"> • Kolore biziko bi zerrenda horizontal ipini behar dira atearen zabalera osoan: <ul style="list-style-type: none"> - Goiko zerrendaren altuera: 1,50 m eta 1,70 m bitartean - Beheko zerrendaren altuera: 0,85 m eta 1,10 m bitartean - Zerrendaren zabalera: 3 eta 5 cm bitartean 	<ul style="list-style-type: none"> • Kristalezko ateek segurtasuneko beira izango dute • Kontraste kromatiko nabariko bi seinaleztapen-zerrenda horizontal edukiko dituzte: <ul style="list-style-type: none"> - Goiko zerrendaren altuera: 1,50 m - Beheko zerrendaren altuera: 0,90 m - Zerrenden zabalera: 20 cm 	
		<ul style="list-style-type: none"> • Kristaldun paramentuan kokatzen badira, bertatik nabarmenduko dira, begiekin aurkitzeko arazorik ez egoteko 	
	<ul style="list-style-type: none"> • Gutxienez 35 cm-ko altuera duen babes zokaloa, edo beira segurtasuneko izango da 	<ul style="list-style-type: none"> • 40 cm-ko altuera duen babes-zokaloa 	
Irekiera automatikoa duten ateak		<ul style="list-style-type: none"> • Irekitzeko programaturiko programa: mugikortasun urriko pertsonen igarotzeko denbora egokia, eta horrek ez du inoiz ere 0,5 m/s-ko abiadura gaindituko 	

4. koadroa. ERABILERA PUBLIKOA DUEN ERAIKITAKO INGURUKO IRISGARRITASUNAREN ONARRIZKO ELEMENTUAK KONPARAZIO-KOADROA (Jarraipena)

Elementuak	UNE arauak	EAEko indarreko araudia	Beste AEEE batzuetako araudirik egokienak
Ateak			
Irekiera automatikoa duten atek	<ul style="list-style-type: none"> Atearen automatismoa itxierara mugatuz gero, horrek ateari gutxiak irekita egoteko aukera emango dio (gutxienez 90°, ate eraisgarrietan), eskuz eutsi beharrik gabe 	<ul style="list-style-type: none"> Atearen hutsunea barru hartzen duten elortze bertikaleko zelulak, atea modu automatikoa ez itxeko, bertan pertsona bat edota berorrek ibiltzeko behar dituen elementuak dauden bitartean Trabaturik gelditzean automatikoki irekitzen diren dispositiboak Irekitzeko eta itxeko sistema gelditzeko eskuzko mekanismoa 	
Ate haize-babesak	<ul style="list-style-type: none"> Horien arteko eremuan, 1,50 m-ko diametroko zirkulua sar daiteke, oztoporik gabea, eta atek irekitzean okupatzen duen areakoa 	<ul style="list-style-type: none"> Euren arteko bitartean, 1,80 m-ko diametroa duen zirkulua sar daiteke, eta 1,50 m-ko diametroa duen zirkulua etxebizitzaren eraikinetan, oztoporik gabea eta atek irekitzean okupatzen duen areakoa 	
Torniketeak, hesiak	<ul style="list-style-type: none"> Torniketeak, hesiak edo sarrera kontrolatzeko beste mekanismo batzuk daudenean, igarotzeko bitarte altermatiboak instalatuko dira eta horiek irisgarritasunaren baldintzak beteko dituzte 	<ul style="list-style-type: none"> Torniketeak, hesiak edo sarrera kontrolatzeko beste elementu batzuk daudenean, igarotzeko bitarte altermatiboak instalatuko dira eta horiek irisgarritasunaren baldintzak beteko dituzte (0,90 m) eta horien arteko distantzia 10 m-koa izango da 	
Larrialdiko atek		<ul style="list-style-type: none"> Larrialdiko irteeretan, atek barra bikoitza edukiko dute: <ul style="list-style-type: none"> - Goiko barraren altuera: 0,90 m - Beheko barraren altuera: 0,20 m Presioa eginez aktibatuko dira 	<ul style="list-style-type: none"> Larrialdiko atek gutxienez metro bateko igarotze askeko bitartea utzi behariko dute (Gaztela eta Leon, Madril)
Irekitzeko eta itxeko mekanism.	<ul style="list-style-type: none"> Irekitzeko eta itxeko mekanismoek diseinu ergonomikoa edukiko dute, forma biribilekoa eta erizik gabea 	<ul style="list-style-type: none"> Irekitzeko eta itxeko mekanismoek diseinu ergonomikoa edukiko dute, manipulazio eta mugikortasun arazoak dituzten pertsonen errazago aktibatuko dira 	

4. koadroa. ERABILERA PUBLIKOA DUEN ERAIKITAKO INGURUKO IRISGARRITASUNAREN ONARRIZKO ELEMENTUAK KONPARAZIO-KOADROA (Jarraipena)

Elementuak		UNE arauak	EAEko indarreko araudia	Beste AEEE batzuetako araudirik egokienak
Irekitzeko eta ixteko mekanism.	Diseinu ergonomikoa	<ul style="list-style-type: none"> Manipulaziorako eskumuturra biratzenik behar ez duten mekanismoen bitartez eragingo dira beti, esate baterako, presioko edo palankako mekanismoaren bitartez Atean instalaturiko mekanismo guzietik kontraste kromatikoa izango dute horren kolorearekin, errazago aurkitu ahal izateko 15 cm-ko luzerarik txikiena Altuerarik handiena: 0,85 m eta 1,05 m bitartekoa 	<ul style="list-style-type: none"> Ahal izanez gero, zirkularrak izango dira eta forma leunak nahiz biribilak edukiko dituzte, kolperik nahiz urratzen ez sortzeko, eta eskutokidunak debekatuta egongo dira 	
	Kontraste kromatikoa	<ul style="list-style-type: none"> Atean instalaturiko mekanismo guzietik kontraste kromatikoa izango dute horren kolorearekin, errazago aurkitu ahal izateko 		
	Heldulekuak	<ul style="list-style-type: none"> 15 cm-ko luzerarik txikiena Altuerarik handiena: 0,85 m eta 1,05 m bitartekoa 	<ul style="list-style-type: none"> Ahal izanez gero, horizontalak izango dira, eta 0,90 m eta 1,20 m bitarteko altueran egongo dira Gutxieneko distantzia: 4 cm 	
Atearen planoarekiko distantzia	Helduleku nagusia	<ul style="list-style-type: none"> Helduleku osagarria instalatzea komeni da, atea errazago ixteko Luzerarik txikiena: 0,30 m 		
	Barruko kisketak	<ul style="list-style-type: none"> Manipulatzeko eskumuturra biratzenik behar ez duten mekanismoen bitartez eragingo dira, esate baterako, presioko edo palankako mekanismoen bitartez Gehieneko altuera: 0,85 m eta 1,05 m bitartekoa Blokeoa kanpotik desaktibatzeko sistema 		
	Maldarik handiena	<ul style="list-style-type: none"> % 6tik gorako maldak duten oinezkoen ibilbideetan, arropalak edo beste balabide batzuk egongo dira maila-desberdintasunak gainditzeko. Arropalen maldarik handiena eremuaren eta ibilbideko luzeraren araberakoa izango da 	<ul style="list-style-type: none"> % 10 gehienez 3 m-ko luzeretan % 8 gainerako luzera guztietan % 6, gomentaturiko maldak 	<ul style="list-style-type: none"> Kanariak: <ul style="list-style-type: none"> - % 3, 15 m-tik gorako luzeretan - % 6, 10 m eta 15 m bitarteko luzeretan - % 8, 3 m eta 10 m bitarteko luzeretan - % 10, 3 m-tik beherako luzeretan Nafarroa: <ul style="list-style-type: none"> - % 6, 8m eta 15 m bitarteko luzeretan - % 8, 3 m eta 10 m bitarteko luzeretan - % 10, 3 m-tik beherako luzeretan
Arropalak				

4. koadroa. ERABILERA PUBLIKOA DUEN ERAIKITAKO INGURUKO IRISGARRITASUNAREN ONARRIZKO ELEMENTUAK KONPARAZIO-KOADROA (Jarraipena)

Elementuak	UNE arauak	EAEko indarreko araudia	Beste AEEE batzuetako araudirik egokienak
Arrapalak			
Eskailbururik gabeko zatiaren luzerarik handiena	<ul style="list-style-type: none"> • 9 m 	<ul style="list-style-type: none"> • 10 m 	<ul style="list-style-type: none"> • 9 m (Kantabria)
Biraketako eremu askea, bitarteko eskaillburuetan	<ul style="list-style-type: none"> • 1,50 m-ko luzera 	<ul style="list-style-type: none"> • 1,80 m-ko luzerarik laburrena, era guztiatako eraikinetan • 1,50 m-ko luzerarik txikiena, etxebizitzaren eraikinetan 	
Sarbideko eskaillburuen azalera	<ul style="list-style-type: none"> • 1,50 m-ko diametroa 	<ul style="list-style-type: none"> • 1,80 m-ko diametroa, era guztiatako eraikinetan • 1,50 m-ko diametroa, etxebizitzaren eraikinetan 	
Igarotzeko zabalera	<ul style="list-style-type: none"> • 1,10 m – makila darabilen pertsona bat ibiltzeko behar den zabalerririk txikiena • 1,80 m. – gurpildun aukilan dabilozan bi pertsona gurutzatzeko behar den zabalerririk txikiena 	<ul style="list-style-type: none"> • Metro bat etxebizitzaren eraikinetan • 1,80 m, erabilera publikoak duten eraikinetan 	
Babeseko ertzak edo zokaloak	<ul style="list-style-type: none"> • 0,10 m gurpilak eta makilak nahi barik ez irteteko 	<ul style="list-style-type: none"> • 0,5 m, gurpilak eta bastoiak nahi barik ez irteteko 	<ul style="list-style-type: none"> • 0,10 m (Asturias, Gaztela eta Leon, Gaztela-Mantxa, Katalunia, Extremadura, Nafarroa)
Heldulekuak	<ul style="list-style-type: none"> • Arrapalek heldulekuak edukiko dituzte beti 	<ul style="list-style-type: none"> • 2 m-tik gorako luzera duten arrapalek heldulekua edukiko dute 	
Beste batzuk		<ul style="list-style-type: none"> • Arrapalaren luzapenean ez da 3 m-ko distantziarik behar eskaillerririk egongo, beharantz doan eskaillerririk 	<ul style="list-style-type: none"> • Bereizitako zoladura hasieran, amaieran, atsedenelekuetan eta norabide-aldatzeetan (Asturias) • Kolore desberdineko zerrendarekin seinaleztatutako arrapala hasiera eta amaiera, arrapala-zabalerako metro bateko ehundurarekin (Gaztela eta Leon, Galizia) • Goiko hasieran bereizitako zoladura (Murtzia)

4. koadroa. ERABILERA PUBLIKOA DUEN ERAIKITAKO INGURUKO IRISGARITASUNAREN ONARRIZKO ELEMENTUAK KONPARAZIO-KOADROA (Jarraipena)

Elementuak		UNE arauak	EAEko indarreko araudia	Beste AAEE batzuetako araudirik egokienak
Eskailerak	Orokorra	<ul style="list-style-type: none"> Eskaileren irisgarritasunari aplikatzeko moduko irizpideak arauketa komuna dute, eraikineko eta hirigintzako irisgarritasunari buruzko araudian Etor-kizunean eraikinetako irisgarritasun bertikala arautzen duen xedepenak irizpideok jaso eta zehaztu behariko ditu Helduleku bikoitza gomendatzen da 	<ul style="list-style-type: none"> Eraikitako inguruan eskailerei aplikatzeko moduko irizpideak, 68/2000 Dekretuko III. eranskinen jasotakoak, hiriko inguruko irisgarritasunari aplikatu beharrekoetatik bereiztu dira, azken horiek zehatzagoak baitira (Dekretu horretako II. eranskinen jasota) Eskailera guztiak helduleku bikoitza izango dute bi aldeetan, 1,20 m-ko zabalera gainditzen badute, eta eskailbunuen nahiz bitarteko meseten ibilbide osoan Eskailera 2,40 m-tik gorako zabalera duenean, bitarteko heldulekuak ere edukiko ditu Eskailerek aztama-kontrakoa edukiko dute Eskailera-mailen gainjartzeak debekatuta daude Eskaileren azpitik igarotzeko gutxieneko altuera 2,20 m-koa izango da Eskailerek ez dute bozelik edukiko Ezin izango da eskailera-maila isolaturik eraiki Eskaileren sarbideetan ukimenezko seinaleztapena egongo da 	
	Heldulekuak			
	Aztarna	<ul style="list-style-type: none"> Aztamak ez du etenik edukiko, aztarna gainarekin lotzean 		
	Beste baldintza batzuk	<ul style="list-style-type: none"> Eskailera igituzeko luzerari eta esfortzuzaren optimizazioari lotutako irizpide ergonomikoen arabera dimentsionatu dira 		

4. koadroa. ERABILERA PUBLIKOA DUEN ERAIKITAKO INGURUKO IRISGARRITASUNAREN ONARRIZKO ELEMENTUAK KONPARAZIO-KOADROA (Jarraipena)

Elementuak	UNE arauak	EAEko indarreko araudia	Beste AEEE batzuetako araudirik egokienak
Heldulekuak	<p>Altuera</p> <p>Helduleku bikoitza gomendatzen da:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Goiko heldulekua: 0,90 m eta 1,05 m bitartean • Behoko heldulekua: 0,70 m eta 0,75 m bitartean (gomendatua) 	<p>Helduleku bikoitza:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Goiko heldulekua: 0,95 m eta 1,05 m bitartean • Behoko heldulekua: 0,65 m eta 0,75 m bitartean 	
	<p>Luzapena</p> <ul style="list-style-type: none"> • 0,30 m 	<ul style="list-style-type: none"> • 0,45 m 	
	<p>Diametroaren ebaketa zirkularra</p> <ul style="list-style-type: none"> • 3 cm eta 5 cm bitartean 	<ul style="list-style-type: none"> • Diseinua anatomikoa izango da, eskura egokitzeko aukera ematen duen formarekin. 4 cm eta 5 cm bitarteko diametroari dagokion ebaketa gomendatzen da 	
	<p>Beste batzuk</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Finkapena irmoa izango da behealdetik, 4 cm-ko gutxieneko distantziarekin, horizontalean dagoen beste elementuri dagokionez. Heldulekutik bertikalaren gaineko beste edozein oztoporekiko goiko azalerratik, distantziarik laburrena 100 cm-koa izango da • Atxikidurarik ez egoteko moduan azkenduta egongo dira 	<ul style="list-style-type: none"> • Ainguraketek eskua heldulekuan etengabe irratizteko aukera emango dute (Errioxa)
Igogailuak	<p>Orokorra</p> <ul style="list-style-type: none"> • Igogailuen sarbideei aplikatzeko moduko irizpideak, segurutik, etorkizunean eraikinetarako irisgarritasun bertikala arautuko duen arauan garatuko dira. Gaur egun, UNE 41500 txostenean ezarritako irizpideak dira aplikagarriak, baina horiek ez dira nahiko zehatzak, elementu horri dagokionez 		

4. koadroa. ERABILERA PUBLIKOA DUEN ERAIKITAKO INGURUKO IRISGARITASUNAREN ONARRIZKO ELEMENTUAK KONPARAZIO-KOADROA (Jarraitapena)

Elementuak	UNE arauak	EAEko indarreko araudia	Beste AEEE batzuetako araudirik egokienak
Igogailuak			
Kabinaren zabalera	<ul style="list-style-type: none"> • 1,10 m 	<ul style="list-style-type: none"> • 1,10 m • Eraikin berean piloturiko zenbait igogailu egonez gero (bata bestetik 50 m-tik gorako distantzian daudenak ez dira pilotutzat hartzen), gutxienez horietariko batek irisgarritasunaren baldintzak bete behariko ditu. Gaienerakoek metro bateko gutxieneko zabalera eta 1,25 m-ko gutxieneko sakonera eduki behariko dute 	
Kabinaren sakonera	<ul style="list-style-type: none"> • 1,40 m 	<ul style="list-style-type: none"> • 1,40 m 	
Igarotzeko zabalera	<ul style="list-style-type: none"> • 0,80 m 	<ul style="list-style-type: none"> • 0,90 m • 0,80 m, kabinak 1,10 m-tik beherako zabalera duenean 	
Ateen itxiera		<ul style="list-style-type: none"> • Automatikoa eta desplazamendu horizontalarekin; denbora nahikoa emango du, mugikortasun urriko pertsonak lasai lasai sartu edo irten ahal izateko 	
Heldulekuak		<ul style="list-style-type: none"> • Kabinaren barmaldea 0,85 m eta 0,95 m bitarteko altueran inguratzen duen helduleku jarraitua 	
Eseretekuak		<ul style="list-style-type: none"> • Halakoen edukiz gero, lurzontik 0,45 m-tara egon eta eraisgarriak nahiz itzultze automatikokoak izango dira 	
Detekzioko gailuak		<ul style="list-style-type: none"> • Ateek dispositibo sentikorrek edukiko dituzte, gutxienez ateak altueran duen bitartean 2/3ak kontuan hartzen dituen detekzio-sistemaren bitartez. Horrela, atea ez da automatikoki itxiko, mugikortasun urriko pertsona bat edota berorrek mugitzeko erabiltzen dituen elementuak bertan dauden bitartean 	

**4. koadroa. ERABILERA PUBLIKOA DUEN ERAIKITAKO INGURUKO IRISGARRITASUNAREN ONARRIZKO ELEMENTUAK
KONPARAZIO-KOADROA (Jarraipena)**

Elementuak		UNE arauak	EAEko indarreko araudia	Beste AEEE batzuetako araudirik egokienak
Igogailuak	Sartzeko plataformaren eta kabinaren arteko maila desberdintasuna	<ul style="list-style-type: none"> Ez da maila desberdintasunik egon behar 	<ul style="list-style-type: none"> 20 mm 	
	Sartzeko plataformaren eta kabinaren arteko distantzia		<ul style="list-style-type: none"> 35 mm 	
	Sartzeko plataformaren azalera		<ul style="list-style-type: none"> 1,80 m-ko diametroko biraketa ahalbidetzen duten dimentsioak, erabilera publikoa duten eraikinetan, eta 1,50 m-ko diametroko biraketa, etxebizitzan eraikinetan 	
	Deirako sakagailuak		<ul style="list-style-type: none"> Presioz eragingo dira eta barnuko argiztapena edukiko dute, sakatzeko unean martxan hasiko den argiztapena. 0,90 m eta 1,20 m bitarteko altueran egongo dira Botoiek ondo irakurtzeko moduko karakterrak edukiko dituzte (horien neurria kontuan hartuta), eta gainerako botoiekiko kontraste kromatikoa onduen Braille sistema ere edukiko dute 	
Soinudun eta argitun deigailuak			<ul style="list-style-type: none"> Gainerakoetatik ondo bereizitako (koloreak eta koloreak kontuan hartuta) alarmak eta geraldiko sakagailuak 	
			<ul style="list-style-type: none"> Deiaren erregistroaren berrespena seinale akustiko eta argitsu baten bitartez egingo da Solainurako inistea eta atearen irekiera seinale akustikoa baten bidez adieraziko da 	

4. koadroa. ERABILERA PUBLIKOA DUEN ERAIKITAKO INGURUKO IRISGARRITASUNAREN OINARRIZKO ELEMENTUAK KONPARAZIO-KOADROA (Jarraitapena)

Elementuak		UNE arauak	EAEko indarreko araudia	Beste AEEE batzuetako araudirik egokienak
Igogailuak	Seinaleztapena		<ul style="list-style-type: none"> Igogailura sartzeko eremua seinaleztatzea komeni da, sartzeko zona adierazten duen ehundura eta kolore jakineko seinaleztapen-zerrenda bat ipinita. Zerrenda horrek igogailuaren aurreko eremu askea bete eta 1,50 m x 1,50 m-ko azalera edukiko du Solairuaren adierazleak lurzorutik 1,50 m-ko altueran egongo dira, ahal delarik eskuineko aldean, kanpoko markoan ipinita, eta informazioa goi erliebean eta Braille sisteman emango da 	
Komunak	Komuneko kabinaren dimentsioak	<ul style="list-style-type: none"> Honako hau sartzeko aukera ematen duten dimentsioak: <ul style="list-style-type: none"> - 0,35 m-ko altuera eta 1,50 m-ko diametroa duen zilindroa, oztoporik gabea. - Zilindro horrekin batera, 1,20 m-ko diametroa eta 2,20 m-ko gutxieneko altuera duen bigarren zilindro osagarri bat egongo da, eta horri dagokionez, konputuan hartuko da ateez zabaliztean beteitzen duen area 	<ul style="list-style-type: none"> Lurzorutik 0,70 m-ko altuera eta 1,50 m-ko diametroa (1,80 m gomendatzen dira) duen oztoporik gabeko zirkulua sartzeko moduko dimentsioak edukiko dituzte 	
	Komuna	<ul style="list-style-type: none"> Altuera: 0,43 cm eta 0,47 cm bitartean 	<ul style="list-style-type: none"> Altuera: 0,45 m eta 0,50 m bitartean Kanpoko ertza eta hormaren arteko distantzianik laburrena: 0,70 m 	<ul style="list-style-type: none"> 0,90 m albo batean (Aragoi, Kanariak, Extremadura)
		<ul style="list-style-type: none"> Alboko eremu askea: 0,80 m, behintzat alboetaniko batean 	<ul style="list-style-type: none"> Alboko eremu askea: 0,80 m, behintzat alboetaniko batean Eremu hori bi alboetan egotea komeni da, gurpildun aukititik transferentzia erazteko 	

4. koadroa. ERABILERA PUBLIKOA DUEN ERAIKITAKO INGURUKO IRISGARRITASUNAREN ONARRIZKO ELEMENTUAK KONPARAZIO-KOADROA (Jarraipena)

Elementuak		UNE arauak	EAEko indarreko araudia	Beste AEEE batzuetako araudirik egokienak
Komunak	Komuna	<ul style="list-style-type: none"> • Komunak esekita edo hormara itsatsita egotea komeni da • Sistema deskargatzeko mekanismoa: presiokoa, neuri egokiko (25 cm²) sakagailuen bitartez, manipulazio arazoak dituzten pertsonak erabili ahal izateko 	<ul style="list-style-type: none"> • Deskargako sistemaren sakagailua manipulazio edota mugimendu arazoak dituzten pertsonak aktibatzeke modukoa izango da • Plano bertikalean palankadun sakagailuak eldingo dira, horiek babesteko euskarri dortsalik ez dagoenean, egonkortasun arazoak dituzten pertsonak istripurik ez izateko 	
	Komunketa	<ul style="list-style-type: none"> • Euskarritzeko barrak komunaren albo bietan; transferentzia egiteko alboko barra bertikalelara eraisgarria izango da, eta hormaren albokoa finkoa. Transferentzia komunaren bi alboetatik egin daitekeenean, bi alboetako barrak izango dira eraisgarriak - Altuera: 0,75 m - Barraren arteko distantzia: 0,65 eta 0,70 m bitartekoa - Finkapen-sistema egokia izango da 150 kg-ko pisua edozein norabidetan eusteko, baita barraren punturik txarrenean ere, ainguraketari dagokionez 	<ul style="list-style-type: none"> • Euskarritako barra gogorrak, komunaren albo bietan. Transferentzia egiteko alboko barra bertikalelara eraisgarria izango da - Altuera: 0,80 m - Luzera: 0,80 m eta 0,90 m bitartekoa - Barraren arteko distantzia: 0,60m eta 0,70 m bitartekoa 	<ul style="list-style-type: none"> • Behealdeko bitarteko hutsunea 68 cm-ko altuerakoa eta 30 cm-ko sakonerakoa (Gaztela eta Leon)
	Konketa	<ul style="list-style-type: none"> • Ez du idulkirik edukiko, gurpildun aukiak aurrez hurbildu ahal izateko. Behe aldeko hutsune askea: 0,68 m-ko altuera eta 0,25 m-ko gutxieneko sakonera • Altuera: 0,80 m eta 0,85 m bitartean • Altueran erregulatzeko moduko konketak ere instalatu daitezke 	<ul style="list-style-type: none"> • Idulkirik gabea, gurpildun aukiak aurrez hurbildu ahal izateko • Altuera: 0,80 m 	

4. koadroa. ERABILERA PUBLIKOA DUEN ERAIKITAKO INGURUKO IRISGARRITASUNAREN OINARRIZKO ELEMENTUAK KONPARAZIO-KOADROA (Jarraipena)

Elementuak		UNE arauak	EAEko indarreko araudia	Beste AAEE batzuetako araudirik egokienak
Komunak	Iturriak	<ul style="list-style-type: none"> • Aginte bakarrekoa , palankarekin edo zelula fotoelektrikoekin, errazago manipulatzeko • Laboboaren ertzetik egon beharreko gehieneko distantzia: 0,46 m • Ur beroaren temperatura erregulatzeko termostatoa instalatzea komeni da: gehieneko temperatura 40° 	<ul style="list-style-type: none"> • Aginte bakarrekoa edo automatikoa 	
	Ispilua	<ul style="list-style-type: none"> • Beheko ertzaren gehieneko altuera: 0,90 m 	<ul style="list-style-type: none"> • Beheko ertzaren gehieneko altuera: 0,90 m • Erortze apur batekin kokatuta, beheko planoen ikusmena ahalbidetzeko 	<ul style="list-style-type: none"> • Ispilu orientagarria, gurpildun aukititik erabiltzeko moduan (Aragoi)
	Mekanismo elektrikoak	<ul style="list-style-type: none"> • Gehieneko altuera: 0,90 m • Presioaren bidezkoa • Temporizadorerik gabeko etengailua 		
	Beste osagarri batzuk	<ul style="list-style-type: none"> • Gehieneko altuera: 0,70 m eta 1,20 m bitartean • Zerbitzua ematen dion aparatuko ardatzerako distantziarik luzeena: 1 m 	<ul style="list-style-type: none"> • Esekigailuen, toaila-euskarrien, apalen eta antzeko beste elementu batzuen gehieneko altuera: 0,90 m eta 1,20 bitartekoa 	
	Zoladura	<ul style="list-style-type: none"> • Ez irristagarria, ez lehorrean eta ez busfian. • Sare-mailatxoak eta hustubideak zoladurarekin zarpeatuta daude eta horien gehieneko diametroa 8 mm-koa da 	<ul style="list-style-type: none"> • Ez irristagarria, ez lehorrean eta ez busfian • Hustubiderik egonez gero, zoladurarekin zarpeatuta egongo dira, eta lehorrean nahiz busfian ez dira irristagarriak izango. Burdin sareko hustubideetan, bitartean gehieneko zabalera 1 cm-koa izango da 	
	Segurtasun neurriak	<ul style="list-style-type: none"> • Ere mu higieniko-sanitarioek barrutik akribatzeko alarma-sistema bat edukiko dute 	<ul style="list-style-type: none"> • Alarma-sistema egongo da, 0,40 cm-ko altueran, kordoi motakoa edo antzekoa • Ur beroko hodiak babestuek eta termikoki isolatuak izango dira 	

4. koadroa. ERABILERA PUBLIKOA DUEN ERAIKITAKO INGURUKO IRISGARRITASUNAREN ONARRIZKO ELEMENTUAK KONPARAZIO-KOADROA (Jarraipena)

Elementuak	UNE arauak	EAEko indarreko araudia	Beste AAEE batzuetako araudirik egokienak
Dutxa	<ul style="list-style-type: none"> Irtengunenik gabe, bainu gelako zoladuraren mailari dagokionez, gurpildun auklian hurbildu ahal izateko Plano inklinatuen malda, hustubidea errazteko, ez da % 2tik gorakoa izango 	<ul style="list-style-type: none"> Ez da irtengunerik egongo, komuneko zoladuraren mailari dagokionez, gurpildun aukliak hurbildu ahal izateko Ur-putzurik ez egoteko malda egokiak 	<ul style="list-style-type: none"> % 2ko hustubide-maldak
Dimentsioak	<ul style="list-style-type: none"> Dutxak gutxienez 0,80 m x 1,20 m-ko eremua beteko du, eta, eremua dutxarako soilik bada, 1,50 m x 1,50 m-koa izango da 	<ul style="list-style-type: none"> Aldagelatarako eta duxetarako eremuetan, oztoporik gabeko 1,80 m-ko diametroa duen zirkulu askea sartu ahal izango da Egokituriko banakako kabinetan, oztoporik gabeko 1,50 m-ko diametroko zirkulu askea sartu ahal izango da 	
Itinztagailua	<ul style="list-style-type: none"> Eskuz erabili ahal izango da (telefonoko dutxa) 	<ul style="list-style-type: none"> Eskuz (telefonoko dutxa) eta erregulatzeko moduan erabili ahal izango da, barra bertikalaren gaineko altueran 	
Iturriak	<ul style="list-style-type: none"> 0,70 m eta 1,20 m bitarteko altuera Eserleku eraisgarria duenarekiko perpendikularra den paramentuan kokatuko da 	<ul style="list-style-type: none"> Altuera: 0,90 m Ergonomikoa izango da, palanka luzeko aginte bakarrekoa, eta temperatura arautzeko aukera emango du Gainera, temperatura arautzeko balbula instalatuko da, sentikortasun termikorik gabeko pertsonak ez erretzeko 	
Eserlekua	<ul style="list-style-type: none"> Dutxak eserleku eraisgarria edukiko du, gutxienez 0,45 m-ko zabalera eta 0,40 m-ko sakonerakoa, 0,43 m eta 0,47 m bitarteko altueran kokatuta Eserlekuaren eta berori euskarritzen duen hormaren arteko distantzia 15 cm-koa izango da Hanakak eta uzta perimetrala inguruan dituzten eserlekuak gomendatzen dira, hori heldulekutzat erabili ahal izateko 	<ul style="list-style-type: none"> Dutxak gutxienez 0,60 m-ko sakonerako eserleku eraisgarria edukiko du, eta hori 0,45 m eta 0,50 m bitarteko altueran kokatuta egongo da 	

4. koadroa. ERABILERA PUBLIKOA DUEN ERAIKITAKO INGURUKO IRISGARRITASUNAREN OINARRIZKO ELEMENTUAK KONPARAZIO-KOADROA (Jarraipena)

Elementuak		UNE arauak	EAEko indarreko araudia	Beste AEEE batzuetako araudirik egokienak
Dutxa	Eserlekua	<ul style="list-style-type: none"> Finkapen-sistema egokia izango da 150 Kg-ko pisua eusteko, edozein norabidetan eta barren punturik txarrenean (ainguraketari dagokionez) Eserleku eraisgarriaren ondoan, 0,80 m x 1,20 m-ko eremua egongo da, oztoporik gabea, gurpildun aulkirako transferentzia egiteko Altermatibatzat, dutxarako gurpildun aulki berezia instalatu daiteke 		
	Euskarriko barrak	<ul style="list-style-type: none"> Kokalekua dutxak barutiaren barruan duen kokalekuaren araberakoa izango da Nolanahi ere: <ul style="list-style-type: none"> Euskarri bertikaleko barra, dutxako ihintzagailuaren altuera eusteko eta graduatzeko 0,75 m-ko altuera duten barra horizontalak 4,5 cm eta 6,5 cm bitarteko eremu askea, instalaturik dituen paramentuari dagokionez Material herdoilgaitza, ukimen atseginekoa eta esku bustietekin ondo heltzeko modukoa Finkapen-sistema egokia izango da 150 Kg-ko pisua eusteko, edozein norabidetan eta barrek ainguraketari dagokionez duten punturik txarrenean 	<ul style="list-style-type: none"> Transferentziak errazteko, alboetako batean, edo hobe dutxaren albo bietan, barra gogorrak egongo dira eta, gutxienez, hortiariko bat hormarantz eramateko modukoa izango da (sarbidearen albokoa). <ul style="list-style-type: none"> Altuera: 0,75 m eta 0,85 m bitartekoa Luzera: 0,80 m eta 0,90 m bitartekoa Barretatik eserlekuko ardatzerako distantzia: 0,30 m eta 0,35 m bitartekoa Heldulekua 0,85 m eta 0,95 m bitarteko altueran 	
	Segurtasun-neurriak	<ul style="list-style-type: none"> Eremu higieniko-sanitarioek barutik aktibatuzko alarma-sistema edukiko dute 	<ul style="list-style-type: none"> Ohartaraziko eta alarmako sistema edukiko dute, sakagailuaren bidezkoa, gutxienez bi hormatan, lurzorutik 20 cm-ko altueran, behintzat bat bertatik aktibatuz ahal izateko Babesturiko eta termikoki isolatutako ur beroko hodiak 	

4. koadroa. ERABILERA PUBLIKOA DUEN ERAIKITAKO INGURUKO IRISGARRITASUNAREN ONARRIZKO ELEMENTUAK KONPARAZIO-KOADROA (Jarraipena)

Elementuak	UNE arauak	EAEko indarreko araudia	Beste AAEE batzuetako araudirik egokienak
Aldatzeko kabina			
Orokorra		<ul style="list-style-type: none"> Egokituriko aldagejak eta dutozak erabilera publikoa duten eraikinetan, banakakoak izango dira eta ez dute baretzirik eratuko. Gainera, konumetako aparatu egokituekin osatuko dira (komuna eta konketa) 	
Eserleku finkoa	<ul style="list-style-type: none"> Altuera: 0,43 m eta 0,47 m bitartean Zabalera: 0,50 m Sakonera: 0,40 m eta 0,45 m bitartean 	<ul style="list-style-type: none"> Altuera: 0,45 m eta 0,40 m bitartean Sakonera: 0,60 m Luzera: 1,50 m 	<ul style="list-style-type: none"> 0,40 m x 0,40 m-ko esnelakua, 0,45 m-ko altueran, 0,70 m eta 0,75 m bitarteko altuerako barra finko eta eraisgarriekin (Galizia)
Euskarriko barra	<ul style="list-style-type: none"> 0,75 m-ko altueran, eta paramentu bertikaletik bananduta (4,5 cm eta 6,5 cm bitartean) Eremurik txikiena: 0,80 m x 1,20 m 		
Oztoporik gabeko eremua	<ul style="list-style-type: none"> Eremurik txikiena: 0,80 m x 1,20 m 		
Alarma-sistemak	<ul style="list-style-type: none"> Barrutik akribatzeko moduko alarma sistema edukiko dute 	<ul style="list-style-type: none"> Sakagailu eta guztiko ohartarazpenerako eta alarmarako sistema edukiko dute, gutxienez bi hormatan, lurzorutik 20 cm-ko altueran, behintzat bat konumetik bertatik akribatu ahal izateko 	
Dimentsioak		<ul style="list-style-type: none"> Barruan 1,50 m-ko diametroa duen oztoporik gabeko zirkular sartzeko moduko eremua. 	
Ateak	<ul style="list-style-type: none"> Ahal izanez gero, kanporantz eramateko modukoak izango dira, gutxienez 90°-ko irekizte-angelua edukiko dute eta tolesgarriak edo irristailu-erakoak izango dira Barrurantz irekitzen badira, irekizte horretan betetako eremua okupatutako eremutzat hartuko da, eta beraz, hori ezin izango da sartu 1,50 m-ko diametroko oztoporik gabeko zirkular askean, ezta osasun-aparatuarako transferentzia-eremuetan, nahiz eta atea lurzoruraino ez iritsi Ateen barruko liskietek atek kanpotik irekizteko aukera emango dute, lamiadetarako pentasaturiko blokearen aurkakako sistema baten bitartez 	<ul style="list-style-type: none"> Kanporantz irekiera 	

BIGARREN ZATIA

EAEko EGOERAREN AZTERKETA

IV. KAPITULUA

EAEko UDALERRIETAKO ERAIKIN
PUBLIKOEN IRISGARRITASUNA

1. SARRERA ETA METODOLOGIA

Erabilera publikoa duten eraikinen, instalazioen eta zerbitzuen irisgarritasunari dagokionez, EAEko toki administrazioek erantzukizun hirukoitza dute, indarreko legerian ezarritakoaren arabera:

- Irisgarritasuna sustatzeari buruzko 20/1997 Legean ezartzen denez, gainerako administrazioek hiriko inguruetan irisgarritasuna sustatzeko neurriak gauzatu behar dituzte, baita eremu publikoen, eraikinen, garraioen eta informazio nahiz komunikazio bideen irisgarritasuna ere (erabilera edo zerbitzu publikoa dutenak).
- Gainera, hirigintza planifikazioari eta kontrolari buruz esleitura dituzten eskumenak direla bide, erabilera publikoa duten zerbitzuen berrikuntzako obren jarraipena zein kontrola egitearen ardura dute, kasuan kasuko udal mugarteen barruan.
- Azkenik, erabilera eta zerbitzu publikoa duen egoitza kopuru oso handiaren titulartzat, hiritar guztiei egoitza horietara sartzea bermatu behar diete.

Kapitulu honen helburua udal eraikinen irisgarritasuna eta udalen euren jarduera (erabilera publikoa duten eraikinen irisgarritasuna sustatzeari eta kontrolatzeari dagokionez) aztertzea da. Sarrera hori ez ezik, kapitulu hau irisgarritasuna sustatzeko politika aktiboari buruzko lehenengo zati batek osatzen du (EAEko udalek gauzatutako politikak); gainera, erabilera publikoa duten eraikinen berrikuntza eta eraikuntza obrei buruz egindako jarraipenari eta kontrolari lotutako bigarren zati bat ere badauka (kasuan kasuko udal mugarteen barruan), eta hirugarren zati bat ere bai, jendeari irekitako udal egoitzen irisgarritasunari buruz.

Informazioa biltzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko 250 udali galdeketa bat bidali zaie, udal teknikariek eurek bete beharreko galdeketa. Udal guztien artean, 151k erantzun diote galdeketari: betetako galdeketen tasa, horrenbestez, % 60,4koa da; hori, Arartekoaren erakundeak sustaturiko ikerketa dela eta galdeketak jasoarazteko egindako kudeaketak konplexuak izan direla kontuan hartuta, ez da emaitza pozgarria izan.

Erantzun maila honen ondoriozko lehenengo arazoa jakina, inkestaren ordezkartza mugatzea da, ikerturiko udalerrien ia % 40 bertatik kanpo gelditzen baitira. Hala eta guztiz ere, erantzun duten udalerririk gehienak neurririk handienekoak direnez, esan daiteke EAEko hiru laurdenak inkestan ordezkaturik daudela. Izan ere, galdeketa bete duten udalerrietan, EAEko biztanleria osoaren % 77 bizi da. Esan daiteke, gainera, inkestan 5.000 biztanlerik gorako hamar udalerritatik zazpi ordezkaturik daudela. Datuak interpretatzeko orduan, nolnahi ere, aintzat hartu behar da horien unibertsoa ez dela

EAEko udalerrien multzo osoa, ezta biztanleria osoa ere, 151 udalerrri eta 1.617.071 biztanle baizik.

**1. taula. GALDEKETARI ERANTZUN DIOTEN UDALERRIAK,
BIZTANLE KOPURUAREN ARABERA**

Biztanle kopurua	Udalerrri guztiak	Erantzundako galdeketak	Erantzunen %
1.000 baino gutxiago	111	64	57,6
1.001-5.000	76	43	56,5
5.001-10.000	23	16	69,5
10.001-50.000	33	23	69,6
50.000 baino gehiago	7	5	71,4
GUZTIRA	250	151	59,5

Arartekoaren Legeko 23. artikuluan ezartzen denez, herri administrazioek erakunde horrekiko lankidetzan jarduteko betebeharra dute, eta erantzunik eza jarraituak eta oztopoek, Arartekoak egindako informazio eskabideei dagokienez, Zigor Kodeko 502.2 artikuluan ezarritako delitua egin dezakete.

Hala eta guztiz ere, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren zati handi bat inkestan ordezkaturik dagoela eta bidalitako galdeketa epearen barruan bete ez duten udalerririk gehienak 1.000 biztanletik beherakoak direla kontuan hartuta, komenigarria da ikerketa gehiagorik ez atzeratzea, udalerrri guztien erantzuna lortzeko, atzerapen horrek ez baitu ondorio desberdinik sortuko, txosten honetan ateratako ondorioei dagokienez.

Aditzera eman behar da, hala ere, lankidetzaren aurkako jarduera hori gaitzesgarria dela, batik bat 10.000 biztanletik gorako udalerrietan, horien jarrera guztiz onartezina baita.

Hori dela eta honako udalerrri hauen jarrera gaitzetsi nahi dut, ez baitute lankidetzarik eskaini: Getxo, Portugalete, Arrigorriaga, Azkoitia, Galdakao, Lasarte-Oria, Audio, Mungia, Ondarroa, Pasaia, Errearteria eta Zarautz. Gainera, txosten honen osagarritzat, horietariko bakoitzean ofiziozko jarduerak hasiko dira, irisgarritasunari dagokionez duten egoera egiaztatzeko.

Galdeketaren egitura (guztira 95 galdera), beste alde batetik, udalek irisgarritasunaren arloan dituzten erantzukizunen inguruan egituratzen da. Esate baterako, honako hau aztertzen da: irisgarritasuna sustatzeko politika aktiboak; erabilera publikoa duten eraikinak nahiz lokalak berritzeko eta eraikitzeko obren ikuskapen, kontrol zein jarraipen eskumenak; eta, azkenik, udal zerbitzu publikoetako irisgarritasuna. Planteaturiko galderak udal-sail bati baino gehiagori buruzkoak izan direnez, eta kontsultak zenbait sailetan egin beharra egon dela kontuan hartuta, udal guztietako alkateei Arkitektura edo Hirigintza arloan erantzukizuna duen udal teknikaria izendatzeko eskatu zaie, horrek galdeketa betetzearen ardura edukitzeko. Hala eta guztiz ere, dirudienez, eskaturiko informazioak kasu batzuetan gainditu egin du udalen erantzun-gaitasuna; horiek, zenbait kasutan informazio osagabea eta akastuna bidali dute. Erantzundako galdeketetan aurkitutako akatsak konpontzeko ahalegina egin da, horietariko batzuk zuzenduta eta

udal bakoitzera kasuan kasuko datuak bidalita, horien baliozkotasuna egiaztatzeko. Hala ere, alderdi batzuetan, esate baterako, udalek irisgarritasunean egindako inbertsioen zenbatekoetan, azkenean jasotako datuen arteko desadostasunak horien zehaztasunari buruzko zalantzak sortzen ditu. Halako kasuetan, horrenbestez, datuak gutxi gorabeherakotzat hartu behar dira.

Adierazitako akatsak eta zehaztugabetasunak, bestalde, galdeketaren beraren zorroztasunaren eta profesionalek hori behar bezala egiteko erakutsitako interes urriaren eraginezkoak izan daitezke. Hala ere, egokiagoa da zehaztugabetasun horiek aztertutako gaiet buruzko informaziorik ez egotearen edota sakabanatuta egotearen ondoriozkoak direla pentsatzea: egin-eginean ere, kasu askotan, udalek ez dute eskaturiko datuei buruzko informaziorik, edo informazio hori sail askotan sakabanatuta dago eta pilatzeko zaila da. Udalek irisgarritasunaren arloan egindakoari buruzko informazioa sakabanatuta egoteak, baita jasotako erantzun maila nahiko baxuak ere, berez ikerketaren lehenengo ondorioa dakarte: udalerrietan, irisgarritasunaren sustapena eta kontrola ez dira ekintza koordinatuaren eta integratuaren eraginezkoa (nahiz eta egokiena horixe izan), jarduera jakinen batuketaren eraginezkoa baizik (batzuetan batuketa barreiatua).

2. IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO POLITIKA AKTIBOAK

Irisgarritasuna Sustatzeari buruzko 20/1997 Legeko II. tituluan ezarritakoaren arabera, erakunde publikoaren eskumenekoa da irisgarritasuna sustatzeko neurriak gauzatzea hiri inguruetan, eremu publikoetan, eraikinetan, garraioetan eta informazio nahiz komunikazio sistemetan (titularitate, erabilera eta zerbitzu publikoa dutenak). Horri dagokionez, Legeak berariaz aipatzen ditu bi jarduera mota: a) irisgarritasuna sustatzeko lau urteko programak prestatzea; eta b) irisgarritasuna sustatzeko behar diren sustapeneko finantza-neurriak hartzea.

Lau urterako planei dagokienez, legean ezarritakoaren arabera, horien helburua hiri inguruak, inguru publikoak, eraikinak, garraioak eta informazio nahiz komunikazio sistemak (titularitate, erabilera edo zerbitzu publikoa dutenak) legean bertan eta berori garatzeko arauetan ezarritako baldintzetara egokitzea da. Halako programek honako agiri hauek eduki beharko dituzte: a) Egokitu beharreko kanpoko eremuen, eraikinen, garraioen eta komunikazioaren inbentarioa duen katalogoa; b) Jarduketan lehentasun-ordena; c) Programa ekonomikoa eta finantzakoa; eta d) Egokitzenak betearazteko egutegia. Legean ezarritakoaren arabera, gainera, aurrekontu-aukeren barruan, EAEko herri administrazioek irisgarritasuna sustatzeko programen finantziarako partida egokiak zuzkituko dituzte euren aurrekontuetan.

Finantza-neurriei dagokienez, legean ezarritakoaren arabera, Eusko Jaurlaritzak, foru aldundiek eta udalek, euren eskumenak garatuz eta betearaziz, beharrezko sustapen neurriak bultzatuko dituzte, irisgarritasunaren sustapenerako, eta lehentasun-irizpideak ezarriko dituzte, diruz lagundu beharreko programa jakinetarako.

Legeak udalei irisgarritasunaren arloan ezartzen dizkien bi baldintzak betetzeko maila ebaluatzeaz gain, horien ahalegin eta konpromiso maila beste adierazle batzuen bitartez azter daiteke: udal ordenantza bereziak egotea, mugikortasun edota komunikazio arazoak

dituzten pertsonen planteaturiko beharrianak biltzeko zein aztertzeko prozedura berezia lantzea, edo irabazi asmorik gabeko elkarteek irisgarritasun-politiken planifikazioan parte hartzeko bideak ezartzea. EAeko udalek alderdi zehatz hauetan egindako lanaren azterketa zehatzak, arlo horretako indarreko lege-xedapenak betetzeko maila ez ezik, Erkidegoko udalek egindako ahalegina baloratzeko aukera ere ematen du, hau da, udalerrietan irisgarritasuna bermatzeko egin duten ahalegina. Inkestari erantzun dion udalerrri bakoitzean arlo horri buruz dagoen egoera, bestalde, txosten honetako II. eranskinean adierazita dago.

2.1. Irisgarritasuna sustatzeko lau urterako programak

Irisgarritasuna Sustatzeko 1997ko Legeak erakundeei bi urteko epea eman zien, EHAAan argitaratu ondoren zenbatzen hasita, irisgarritasuna sustatzeko lau urterako lehenengo plana onesteko. Horrenbestez, 1999ko amaierarako, Euskal Autonomia Erkidegoko udal guztiek halako plan bat prestatuta eduki behar zuten. Hala eta guztiz ere, 2003ko otsailean, inkestari erantzun dioten 151 udaletatik zazpik baino ez zuten onetsita irisgarritasunari buruzko programa (Amurrio, Azpeitia, Eskoriatza, Getaria, Gueñes, Orío eta Urretxu) beste 23 udalerrik testua landu dute, baina hori onetsi barik dago, edo testua egiteko agindua eman dute, baina ez dute amaitu². Gainerako udalerriei dagokienez, 24 udalerrik halako programa bat egiteko aurreikuspena zuten, amaitu berri den agintaldian, eta 95 udalerrik ez dute halako planik egiteko asmorik.

2. taula. IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO LAU URTERAKO PROGRAMAK

	Absolutuak	%
Bai, indarrean	7	4,6
Bai, onetsi barik	8	5,3
Ez, baina aginduta	15	9,9
Ez, ekitaldi honetan aurreikusita	24	15,9
Ez, ez dago aurreikusita	95	62,9
Ed/Ee	2	1,3
GUZTIRA	151	100,0

Erantzun-aukera desberdinak hiru kategoria nagusitan bilduta ikusten denez, udalerrri guztien ia % 5ek plana eginda eta onetsita dute, % 31k horretarako tramiteak hasita dituzte edo legegintzaldi honetan hasiko dituzte, eta % 63k ez dute irisgarritasunari buruzko planik egiteko asmorik, legeak horri buruz egindako eskabideak baztertuz. Plana eginda edo onetsita duen udalerrri kopuru urria kontuan hartuta, zaila eta neurri batean, garrantzirik gabea da toki korporazioen jokabidea azaltzeko faktoreak identifikatzea.

2 Inkesta jaso duten udalerrrien % 20k, horrenbestez, aurrerapausoak eman ditu halako planetan, inkestaren tramitazioaren egunean zegoen egoera kontuan hartu barik. Proporzio hori, oro har, bat dator beste bide batzuen bitartez udalerrrien lau urterako planei buruz jaso den informazioarekin. Izan ere, Etxebizitza eta Gizartekintza Sailak emandako datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko 251 udalerrietako % 15ek Sailari diru-laguntzak eskatu edo bertatik jaso ditu, 2001ean eta 2002an halako planak egiteko.

Nolanahi ere, alderdi honi dagokionez, bi datu interesgarri daude:

- Oso nabaria da Gipuzkoaren eta beste bi lurralde historikoen arteko desberdintasuna, arlo honetan neurriren bat hartu duen udalerrri kopuruari dagokionez³. Izan ere, Gipuzkoako udalerrri guztien % 28k halako neurriak hartu dituzte; Arabakoaren artean, berriz, % 12 baino ez dira eta Bizkaian % 17 baino ez. Nolanahi ere, Gipuzkoako udalerrrien % 50ek baino gehiagok ez dute halako programarik prestatzeko aurreikuspenik, eta portzentaia hori % 70 ingurukoa da beste bi lurraldeetan.
- Udalerrriaren biztanle kopurua zenbat eta handiagoa izan, arlo horretako jarduerak gero eta ugariagoak dira. Izan ere, bost mila eta hamar mila biztanle bitarteko bi herenek neurriren bat abiatu dute irisgarritasunaren udal-programa prestatzeko, edo, behintzat, legegintzaldia amaitu baino lehen egiteko asmoa zuten. Inkestari erantzun dioten 50.000 biztanletik gorako bost udalerriek (Barakaldo, Bilbo, Donostia, Irun eta Gasteiz) behin-betiko programarik onetsi ez duten arren, horietako lauk dagoeneko horri buruzko neurriren bat hartu dute.

3. taula. IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO LAU URTERAKO PROGRAMAK, LURRALDEEN ARABERA

	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Bai, indarrean	1	3,1	1	1,5	5	9,4
Bai, onetsi barik	2	6,3	1	1,5	5	9,4
Ez, baina aginduta	1	3,1	9	13,6	5	9,4
Ez, ekitaldi honetan aurreikusita	6	18,8	9	13,6	9	17,0
Ez, ez dago aurreikusita	22	68,8	45	68,2	28	52,8
Ed/Ee	0	0,0	1	1,5	1	1,9
GUZTIRA	32	100,0	66	100,0	53	100,0

4. taula. LAU URTERAKO PLANAK, UDALERRIEN BIZTANLE KOPURUAREN ARABERA

	1.000 baino gutxiago		1.001-5.000		5.001-10.000		10.001-50.000		50.000 baino gehiago		Guztira	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Bai, indarrean	0	0,0	3	7,0	3	18,8	1	4,3	0	0,0	7	4,6
Bai, onetsi barik	0	0,0	2	4,7	1	6,3	4	17,4	1	20,0	8	5,3
Ez, baina aginduta	2	3,1	2	4,7	4	25,0	7	30,4	0	0,0	15	9,9
Ez, ekitaldi honetan aurreikusita	8	12,5	8	18,6	2	12,5	3	13,0	3	60,0	24	15,9
Ez, ez dago aurreikusita	53	82,8	28	65,1	6	37,5	7	30,4	1	20,0	95	62,9
Ed/Ee	1	1,6	0	0,0	0	0,0	1	4,3	0	0,0	2	1,3
GUZTIRA	64	100,0	43	100,0	16	100,0	23	100,0	5	100,0	151	100,0

3 Gipuzkoako udalek irisgarritasunaren arloan egindako ahalegin handiagoa zenbait bideren bitartez berresteko modukoa da: Etxebizitza eta Gizartekintza Sailak emandako datuek agerian jartzen dutenez, Sailak 2001ean eta 2002an irisgarritasuna hobetzeko lau urterako obretarako eta planetarako emandako 4,5 milioi euroetatik, % 51 Gipuzkoara joan dira, % 36 Bizkaia eta % 11 Arabara. 2002-03 aldian, Gipuzkoako udalerriek laguntza guztien % 46 iritsi zitzaizkien, Bizkaiko udalerriek % 42 eta Arabako udalerriek % 11. Aldi horretan emandako diru-laguntza guztietatik, halako planak idaztea finantzatzera % 6,5 baino ez da bideratu (198.902 euro), eta gainerako guztia obren finantziaiorako erabili da.

Hala eta guztiz ere, halako programen eraginpeko biztanleriaren ikuspegitik begiratuta, egoerak itxura positiboagoa hartzen du. Alde batetik, ehun biztanletik hiru baino ez dira bizi irisgarritasunari buruzko udal plana duten udalerrietan. Beste alde batetik, halako programak dituztenak edo horiek onesteko aurrerapausoak eman dituztenak udalerrri handiak direnez, aztertutako biztanleria osoaren hiru laurdenak halako programaren bat duten edo aurreikusi duten udalerrietan bizi dira. Ez da ahaztu behar, nolana ere, biztanleriaren estaldura-maila handi horiek, gehienbat, hiru hiriburuak (inkestari erantzun dioten udalerrietan bizi den biztanleria osoaren % 46) udal plana zuzkitzeko aurrerapausoak ematearen ondoriozkoak direla. Izan ere, hiru hiriburuak kontuan hartu ezean, halako programarik ez duten eta aurreikusita ez duten udalerrietan bizi diren biztanleen ehunekoa % 43koa izango litzateke.

5. taula. IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO LAU URTERAKO PROGRAMAK, ERAGINPEKO BIZTANLERIAREN ARABERA

	Eraginpeko biztanleria (abs.)	EAEko biztanleen %
Bai, indarrean	46.301	2,8
Bai, onetsi barik	333.145	20,6
Ez, baina aginduta	172.124	10,6
Ez, ekitaldi honetan aurreikusita	671.625	41,5
Ez, ez dago aurreikusita	374.602	23,3
Ed/Ee	19.274	1,2
GUZTIRA	1.633.195	100,0

Beste alde batetik, kasuan kasuko programa onetsi duten zazpi udaletatik, horren jarraipena egiteko arduraduna duen bakarra Azpeitia da. Guztira, arlo honetan tramiteren bat egin duten 54 udalerrietatik, horren jarraipenerako ardura duen pertsona edo erakunderen bat izendatu dutenen ehunekoa ez da % 7ra iristen. Pertsona edo erakunde hori, berriz, desberdina da udaletan: udal batzuetan Hirigintza edo Gizartekintza Sailetakoa arduradun teknikoa da, beste batzuetan Irisgarritasunaren Kontseilua eta beste zenbaitetan, azkenik, Obren eta Zerbitzuen Batzordea edo udal arkitektoa.

Aipagarria da udal arduradunek (baita programaren bat egin dutenen edo egiten ari direnen kasuan ere) halako ekimenen finantziario-aukerei dagokienez duten ezagupen maila txikia. Egin-eginean ere, foru aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak ez ezik, IMSERSOK eta ONCEk finantziario-lerroak sortu dituzte halako programetarako, hitzarmen bereziak sinatuz. Hala ere, programa egiten hasi diren 30 udalerrietatik 13 baino ez dira finantzatu, Estatu mailako bi erakunde horien bitartez. Halakorik jaso ez dutenen artean, gehienek ez zuten aukera horren berririk. Hiru udalerrik uko egin diote laguntzok jasotzeari, nahiz eta horien berri izan, eta bi kasutan ezin izan da finantziariorik lortu, eskatu arren.

Nolana ere, irisgarritasuna sustatzeko erakundeekin (IMSERSO, ONCE, foru aldundiak, Eusko Jaurlaritzak edo beste batzuk) hitzarmenen bat sinatu duten udalerriak guztira 33 dira (inkestari erantzun dioten % 21), arlo honi lotutako neurriak gauzatzeko. Aldiz, esku artean ditugun datuen arabera, irisgarritasunaren udal plana egiteko aurrerapausoren bat eman duten 54 udaletatik, erdiek ez dute beste erakunde batzuen laguntzarik eskatu.

2.2. **Irisgarritasuna sustatzeko prestazioak eta diru-laguntzak**

Kasuan kasuko lau urterako planak albo batera utzita, udalek irisgarritasuna sustatzeko aukera dute, bi diru-laguntza motaren bitartez: halako jarduerak egiten dituzten irabazi asmorik gabeko erakundeetarako diru-laguntzak eta irisgarritasunerako banakako laguntzak. Azken kasu horretan, beste erakunde batzuek (gehienetan, foru aldundiak) emandako diru-laguntzen eta udalak berak emandakoen kudeaketa bereiztu behar da.

a) Irabazi asmorik gabeko erakundeei emandako diru-laguntzak

Praktikan, udalek irabazi asmorik gabeko erakundeei ematen dizkieten diru-laguntzak deusezak dira irisgarritasunaren arloan: kontsultaturiko udalerrri guztietatik 9k (guztien % 6) baino ez diete diru-laguntzetarako deialdirik egin, azken bi urteotan, irisgarritasunaren gaia berariaz aipaturik duten erakunde pribatuei (Arrasate, Ermua, Fruiz, Karrantza, Labastida, Legazpi, Markina-Xemein, Zaldibia eta Zamudio). Hala eta guztiz ere, diru-laguntzen deialdia egin duen udalerrri kopurua oso txikia denez, datu horien azterketa ez da oso garrantzitsua, baina ohar batzuk egitea erabilgarria izan daiteke:

- Irabazi asmorik gabeko erakundeei emandako diru-laguntzen zenbatekoa aipatu duten sei udalerriek 30.015 euroko batez besteko partida dute, udalerrri bakoitzeko.
- Batez besteko per capita gastuaren arabera neurtuta, udal-diru-laguntzek orokorrean ez dute biztanleko sei euroko zenbatekoa gainditzen, urte bakoitzeko.
- Datu horien arabera, kontsultaturiko udalerriek zenbateko apala bideratu dute (180.000 euro inguru), irabazi asmorik gabeko erakundeek irisgarritasunaren arloan egindako jarduketan diru-laguntzetarako.

b) Banakako diru-laguntzak

Gehiago dira, baina ez askoz gehiago, irisgarritasunaren gaiari buruzko banakako diru-laguntzen programa edo deialdia duten udalerrriak: udalerrri guztien % 6k irisgarritasunari buruzko halako programaren bat sortu dute, eta % 8k prestazioak dituzte, eta horietan, gaia berariaz aipatu barik, mugikortasun edota komunikazio arazoak arintzeko laguntzak eskaintzen dira (Abanto-Zierbena, Alegria-Dulantzi, Alkiza, Azpeitia, Balmaseda, Bergara, Bilbo, Donostia, Ermua, Forua, Gueñes, Arana harana, Nabarniz, Oñati, Orío, Urtuella, Agurain, Sestao, Urnieta, Zaldibar eta Zestoa). Halako laguntzak dituzten udalerririk gehienak handienak direnez, banakako diru-laguntzak dituzten udalerrietan 600.089 pertsona bizi dira (aztertutako biztanleria osoaren herena baino gehiago).

Nolanahi ere, halako laguntza-programak abiatu dituen udalerrri kopurua ez da hogeitik gorakoa. Udalek irisgarritasunaren arloko banakako laguntzen arloan duten inplikazio urria, funtsean, halako prestazioak foru aldundien eskumenekoak izatearen eraginezkoa da; izan ere, foru aldundiek dute diru-laguntza teknikoak lortzeko, etxeetako oztopoak gainditzeko berrikuntzak egiteko edo egokituriko ibilgailuak eskuratzeko diru-laguntzen eskumena. Udaletako gizarte zerbitzuen eginkizuna, berriz, arlo honetan eskabideak jasotzera eta horiek erakunde eskudunetara bideratzera mugatzen da. Harrigarria da, hala eta guztiz ere, inkestari erantzun dieten udalerrien herenak soilik esatea, oinarriko gizarte zerbitzuetan banakako diru-laguntza-eskabideak jaso dituela, irisgarritasuna hobetzeko, horiek finantzatzeko erakundea edozein izan arren. Izan ere, hiritarren gizarte-

berrizantzen lehenengo jasotzaileak gizarte zerbitzuak direnez, halako eskabide kopuru handiagoa egongo zela uste izan da.

Galdeketa betetzean egon daitezkeen akatsak albo batera utzita, halako eskabideak jaso dituen udalerrri kopurua hain txikia izatea, bestalde, udalerrri ugariako biztanleek halako laguntzen berri ez edukitzearen eta beste zenbait faktoreren ondoriozkoa izan daiteke (gizarte-prestazioen norakoari eta estaldurari lotutako faktoreak, ikerketa berezia behar dutenak). Lurraldean eta udalerrrien neurriaren arabera azterketak, nolahi ere, aditza ematen du eskabide kopuru handiagoko udalerrrien ehunekoa handiagoa dela Gipuzkoan Araban baino, eta Araban Bizkaian baino handiagoa dela; horrek agerian jartzen du Gipuzkoan estaldura handiagoa edo informazio hobea dagoela. Era berean, oro har, udalerrrien neurria zenbat eta handiagoa izan, orduan eta ohikoagoa da halako eskabideak gotea.

Beste alde batetik, 10.000 biztanleko udalerrrien eskabide kopurua aztertuta ikusten

6. taula. BANAKAKO LAGUNTZEN ESKABIDEA, UDALERRIEN NEURRIAREN ETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA

	Tramitatu dituzten udalerrriak (abs.)	% taldearen guztizkoari dagokionez
Araba	9	28,1
Bizkaia	12	18,2
Gipuzkoa	29	54,7
1.000 bizt. baino gutxiago	7	10,9
1.000-5.000	15	34,9
5.000-10.000	9	56,3
10.000-50.000	15	65,2
50.000 bizt. baino gehiago	4	80,0
GUZTIRA	50	33,1

denez, udal batzuek (gutxi gorabehera % 25) 25 eskabide baino gehiago jaso dute, eta beste zenbaitek (% 39) 10 baino gutxiago. Batez bestekoa 15 eskabidekoa da, 10.000 biztanleko. Udalerrrietan elbarritasun tasak antzekoak direnez, eskabideetan dagoen desoreka lurraldeen barruko estaldura desberdinaren ondoriozkoa izan daiteke; eginean ere, eskabideak jasotzen dituzten eta ez dituzten udalerrriak aztertzean ikusi den bezala, jasotzen dituzten udalerrriak soilik aztertzean ere lurralde mailako desberdintasunak mantendu egiten dira, eta diru-laguntza-eskabiderik gutxien Bizkaiko udalerrriek egiten dituzte.

Biztanleek irisgarritasunari lotutako alderdietan egindako eskabideak jasotzeko eta biltzeko orduan arazoak detektatu dituztenak, bestalde, 35 udalerrri baino ez dira (ikertutako udalerrri guztien % 25 baino apur bat gutxiago). Neurri ertaineko udalerrriak dira, horri dagokionez, arazorik gehien onartzen dituztenak, mugikortasun arazoak dituzten biztanleen eskabideak aztertzeko orduan, erreserbatutako aparkalekuen kokalekuei, hirigintzako oztupoak ezabatzeari eta ekonomikoak ez diren beste eskabide batzuei dagokienez.

2.3. **Irisingarritasuna sustatzeko beste neurri batzuk**

a) *Udal-ordenantzak*

Irisingarritasunari buruzko udal-programa albo batera utzita, eta udalek halako neurriak sustatzeko dituzten aukeren barruan, toki korporazioek horri buruzko araudi berezia sortzeko aukera dute. Horri dagokionez, irisingarritasunaren gaia berariaz aztertzen duten udal-ordenantzak, edo behintzat gai hori aipatzen duten ordenantzak, udal bakoitzean gaiari ematen zaion lehentasunaren adierazleak izan daitezke. Irisingarritasunari buruzko ordenantzak promulgatu dituen udal kopurua, hala eta guztiz ere, oso txikia da: 151 udaletatik hamaikak baino ez, eta horrek % 7ko ehunekoa adierazten du (Alegria-Dulantzi, Alkiza, Bakio, Barakaldo, Beasain, Donostia, Forua, Lanparon, Tolosa, Gasteiz eta Zaldibar). Kopuru horren eraginez, eta halako ordenantzak dituzten udalen ezaugarri desberdinak kontuan hartuta (biztanle kopuruaren edo lurralde historikoaren arabera), ezinezkoa da udal-ordenantzak edukitzeko joera duen udalerrri mota identifikatzeko jarraibidea ezartzea.

b) *Udalek irisingarritasunaren sustapenean egindako inbertsioa*

Irisingarritasuna sustatzearen eremuan egindako udal inbertsioa adierazle argia da, udal bakoitzak mugikortasun edota komunikazio zailtasunak dituzten biztanleen arazoekiko duen konpromiso maila zehazteko. Arlo hori aztertzeko, egindako inkestak bi adierazle interesgarri eskaintzen ditu: 2002an irisingarritasuna sustatzeko aurrekontu-partida berezia egotea ala ez egotea eta udalek 2001ean irisingarritasunean egindako gastuaren zenbatekoa.

Lehenengo eta behin, 44 udalek (inkestari erantzun dioten guztien % 29,1) partida berezia dute, aurten irisingarritasuna hobetzeko edo sustatzeko. Gainerakoek ez dute halako partidarik; horrek, ekitaldian halako gasturik egingo ez dutela adierazten ez badu ere⁴, aditzera ematen du udal bakoitzak gastuaren kudeaketan arlo honi ematen dion garrantzia.

44 udal horietatik, 30ek 2002ko aurrekontuetan irisingarritasunaren arlora bideraturiko zenbateko zehatza adierazi dute. Zuzkituriko zenbatekoek, funtsean, beharizanari lotutako faktore objektiboei nekez egokitzeko moduko aniztasuna jartzen dute agerian. Eginginean ere, galdeketa zuzkitutako zenbatekoak Arteako 5.109 euroetatik Ermuko 1,8 milioietara doaz. Gastu per capita deritzonaren arabera, desberdintasunak oso handiak dira; izan ere, udalerrri batzuek batez bestekoa (5,59 euro) baino 44 aldiz handiagoa den gastua zuzkitu dute. Datu hori eman duten udalerrrien % 77k nolani ere, 10 euro baino gutxiago zuzkitzen dute biztanle eta urte bakoitzeko.

2001ean betearazitako partidei dagokienez, egoera antzekoa da. Kasu honetan, 45 udalek (inkestari erantzun dioten guztien % 29) zenbatekoren bat gastatu dute

4 Izan ere, sarritan, aurrekontu-partida orokorren konturako gastuak egiten dira irisingarritasunaren arloan, gizarte zerbitzuen, obren nahiz zerbitzuen edo hiriko mantenamenduaren ataletan.

irisgarritasunaren sustapenean, eta gastuaren desoreka dago hemen ere: galdeketa zuzkituriko zenbatekoak zenbait udalerriren 3.000 euroetatik (adibidez, Aduna, Amezketa edo Loiu, baita Aguraingo 786 euroak ere) Eibarren milioi eta erdi euroetara doaz. Gastu per capita deritzonaren arabera neurtuta, desberdintasunak murriztu egiten dira, baina oraindik ere oso garrantzitsuak dira: 22 udalerrik biztanle bakoitzeko bost eurotik beherako zenbatekoak zuzkitzen dituzte, eta 6 udalerrik, berriz, 50 eurotik gorakoak. Galdeketa erantzun dioten udalerriguztien batez bestekoa, nolahi ere, 5,59 eurokoa da, biztanle eta urte bakoitzeko⁵.

Ba ote dago gastuko desberdintasunak azaltzen dituen faktorerik? Udalerririk txikiak eta Arabakoak dira irisgarritasuna sustatzeko zenbatekoren bat nekezago gastatzen dutenak edo gastatzea aurreikusten dutenak. Bizkaiko udalerririk eta 10.000 biztanletik gorakoek, aldiz, gastu horiek sarriago zuzkitzeko joera dute. Desberdintasunak, nolahi ere, ez dira adierazgarriak, eta gainera, ez dago lotura argirik irisgarritasunari buruzko programa edukitzearen edo agintzearen eta arlo horretan gasturen bat egitearen artean. Kapitulu honetako gastuak, behintzat galdeketei emandako erantzunen arabera, banaketa desberdina dauka, eta ez da jarraibide argirik ikusten banaketa horretan.

Hala eta guztiz ere, desberdina eta irregularra izan arren, udalek irisgarritasunean egindako gastua, inkesta honek adierazitakoa, oso garrantzitsua da, behintzat gizarte ongizateko beste arlo batzuetan biztanle bakoitzeko udal-gastuarekin konparatuta⁶. Egin-eginean ere, halako inkestetan biztanle bakoitzeko adierazten den batez besteko gastuak gaituztu egiten ditu udalek gizarte ekintzako sektore ia guztietara -bideraturiko zenbatekoak, hirugarren adinari eta biztanleriaren multzo osoari bideraturikoak izan ezik⁷.

7. taula. UDALEK GIZARTE ZERBITZUETAN ETA IRISGARritASUNEAN EGINDAKO GASTUA (%)

Taldea	Biztanleko gastua
3. adina (1999)	20,9
Elbarritasunak (1999)	1,2
Familia (1999)	3,1
Emakumea (1999)	1,0
Pobrezia (1999)	3,5
Drogamenpekotasunak (1999)	1,3
Biztanleria osoa (1999)	5,6
Irisgarritasuna (2001)	5,5

5 Nolanahi ere, udalerririk irisgarritasunean egindako gastuak kontuz aztertu behar dira; izan ere, jarduketan sakabanatzeak eta udal-kontabilitatearen konplexutasunak berak zaildu egin dute galdera horien erantzuna.

6 Udalek gizarte-ongizatean egindako gastuaren gaineko datuak, lortu ere, EAEko 1999ko Gizarte Zerbitzuen Gastuari buruzko lkerketatik lortu dira.

7 Taulan datu horiek jaso arren, ez dirudi zentzuzkoa denik udalek denboran zehar irisgarritasunaren sustapenera adierazitako beste arloetara baino diru gehiago bideratuko dutela pentsatzea. Izan ere, horrek esan nahi du irisgarritasunaren arloan inbertsioa egiten duten udalek (halako inbertsioak ez dira urtero egiten) partida horretan diru gehiago gastatzen dutela beste batzuetan baino. Hala eta guztiz ere, gainerako gastuen kasuan ez bezala, inbertsio zehatzak dira eta ez dute jarraitasunik izaten denboran. Horrenbestez, konparazioa, interesgarria izan arren, orientagarria baino ez da.

c) Erakunde pribatuek irisgarritasunaren politikan duten partaidetza

Biztanleen partaidetza Gizarte Zerbitzuei buruzko 1996ko Legearen oinarriko printzipioetariko bat da, baita ezinbesteko baldintza ere, biztanleen beharriari buruzko iritzia eta beharriari kontuan hartzen dituzten politika publikoen garapenerako. Ikuspegi horretatik begiratuta, elbarritasun fisikoa duten pertsonen arazoetan espezializaturiko irabazi asmorik gabeko erakundeekiko lankidetzak, baita irisgarritasunari, mugikortasunari edo gizarte zerbitzuei buruzko udal-kontseiluak egotea eta ondo ibiltzea ere, funtsezko baldintzak dira arlo horretan udalek politika egokia egiteko.

Oso urriak dira, hala ere, irabazi asmorik gabeko erakundeak arlo honetan parte hartzeko bide formalak abiatu dituzten udalerririk: 123 udalerririk (inkestari erantzun dioten guztien % 80 baino apur bat gehiago) ez dute halakorik. Halakoak dituzten kasuan, gizarte erakundeen partaidetza, funtsean, Gizarte Ongizateko tokiko kontseiluen bidez gauzatzen da. Jakina, halako egitura motak ugariagoak dira udalerririk handietan: 10.000 biztanletik beherako udalerririk guztien % 86k ez dute halako egiturarik, eta 50.000 biztanletik gorako bost udalerririk artean, berriz, lauk dagoeneko sortuta dute egitura hori. Irisgarritasunari buruzko programa onetsita edukitzeak, hala eta guztiz ere, ez du esan nahi halako egiturak daudenik; izan ere, programaren bat indarrean duten udalerririk arteak batek ere ez dauka egitura egonkorrik, erakunde sozialen partaidetzarako. Funtzionamendua, beraz, ez da guztiz pozgarria: inkestari erantzun dioten guztien % 57k egokitzat jotzen du partaidetza-formula horien funtzionamendua; % 38ren ustez, funtzionamendua halaholakoa da, eta % 5en iritziak, berriz, txarra da.

Bide egonkorra edukitzea albo batera utzita, udalerririk kopuru handiagoak azken bi urteotan harremanak izan ditu elbarritasuna duten pertsonen elkarteekin edo taldeekin, irisgarritasunari loturiko arazoak aztertzeko: hamar udalerririk ia lauk egin dute hori, eta udalerririk elkartei udalerririk handienetan egiten zaizkie kontsultarik gehien. Kasu honetan, irisgarritasunari buruzko udal-programa onetsita edo tramitatuta edukitzea dirudenez lotuta dago elkarteekin harremanak edukitzearekin, planaren tramitazioa hasi duten guztien ia % 60k halako harremanak baititutze (% 25ek ez).

3. ERABILERA PUBLIKOKO ERAIKINAK BERRITZEKO ETA ERAIKITZEKO OBREN JARRAIPENA ETA KONTROLA

20/1997 Legeak, hirigintza antolamenduaren arloan eskumenak dituzten erakundeek, jarraipen eta kontrol eginkizuna esleitzen die, erabilera edo zerbitzu publikoa duten eraikinetako irisgarritasunari buruzko arauak betetzeari dagokionez. Bestalde, lege hori garatu duen 68/2000 Dekretuaren iritziak, erabilera edo zerbitzu publikoko eraikinak dira, horien titularitate edozein izan arren, Herri Administrazioaren zerbitzuak, era guztietako osasun-zentroak, zahar-etxeak zein umezurtz-tegiak, laguntza- nahiz harrera-zentroak, era guztietako hezkuntza-zerbitzuak, ikastetxeetako egoitzak, horniduren merkatuak, merkataritzako nahiz aisialdiko zentroak eta lokalak, erlijio-zerbitzuak, ostalaritza-erabilera duten eraikinak nahiz lokalak, trenbideko garraio-geltokiak, itsasokoak, autobus-geltokiak, aireportuak, bulego-eraikinak, banketxeak, aparkaleku publikoak eta komun publikoak.

Halako eraikinetako irisgarritasunaren kontrolari eta ikuskapenari dagokionez, 207/1997 Legean hirigintza planeamenduko tresnak aipatzen dira, eta horiek, kasu ia guztietan, udal eskumenekoak dira: zehetasun-ikerketek hirigintzako nahiz obra betearazteko proiektuek, lege horretan adierazitakoaren arabera, hirigintzako eta hiriko altzarietako elementuen irisgarritasuna bermatuko dute, eta kasuan kasuko lizentziak ez dira onetsiko edo emango, baldin eta lege horrek eta berori garatzeko arauak ezarritako oinarriko xedapenak eta irizpideak betetzen ez badira.

Udalerriek, horrenbestez, funtsezko eginkizuna dute, erabilera publikoko eraikinetako eta lokaletako berrikuntzako nahiz eraikuntza berriko obren ikuskapenean, kontrolean eta jarraipenean. Inkesta honi emandako erantzunetatik ateratzen denez, hala eta guztiz ere, irisgarritasuna bermatzearen arloan gaitasun mugatua dute.

3.1. Erabilera eta zerbitzu publikoa duten eraikinak eta lokalak berritzeko obrak

3.1.1. Berrikuntza obretan detektaturiko urratzeak

Udal bakoitzari 2001ean amaitutako erabilera publikoko eraikinetako eta lokaletako berrikuntza, handitze edo aldatze obren kopuruari buruz galdetu ondoren, 68k soilik (inkestari erantzun dioten % 45) esan dute urte horretan euren udal mugartean erabilera publikoko eraikinen bat berritu dela⁸. Beste bostek halakoak egin dituzte, baina ez dute informaziorik eman kopuruari eta hori lotutako gainerako alderdiei buruz. Gainerako udalerrietan ez da berrikuntzarik egin, eta egitekotan ere, ez da inkestan adierazi. Udallerri bakoitzaren egoera txosten honetako 1. eranskinean zehaztuta dago.

Bildutako datuen arabera, 78 udalerrri horietan erabilera publikoko eraikinetan 714 berrikuntza-obra egin dira: horietatik 150ek irisgarritasunari buruzko araudiko alderdiren bat urratzen zuten. Gainerako obren kasuan (hau da, egindako berrikuntza-obra guztien % 79) ez da urratzerik ikusi, arlo horretako araudiari dagokionez. % 79 horren barruan, obra “egingarriak” sartzen dira, hau da, euren ezaugarri orografikoak, egiturakoak edo formakoak kontuan hartuta, adierazitako irisgarritasunari buruzko irizpide guztiak aplikatzeko aukerarik eman ez dutenak edota, aurrekontu ekonomiko erabilgarria aintzat hartuta, egokitzapenen eraginez neurritz kanpoko gastu ekonomikoa dutenak.

Obren kopuru osoari dagokionez, araudia urratzen duten erreformen tasa modu nahiko orekatuan banatuta dago; izan ere, erabilera publikoko eraikinetan egindako berrikuntza-obretan, urratze mailarik handiena neurri handiko udalerrietan aurkituko dugu. Horixe gertatzen da 50.000 biztanletik gorako udalerrietan; horietan, jasotako datuen arabera, ia ez da araudiaren urratzerik detektatu. Hala eta guztiz ere, biztanle kopuru hori duten bost udalerrietako biri buruzko informazio osoa baino ez dugunez, arlo honi dagokionez, datu horrek nekez adierazten du benetako egoera.

8 Galdera horri emandako erantzunen indizea murriztu egiten da, udalerrriak zenbat eta handiagoak izan, segurutik udalerririk handienetan egindako berrikuntza-obren multzoa adierazteko zailtasunaren ondorioz. Horrenbestez, udalerririk handienetariko gehienei buruzko informaziorik ez dagoenez, datu horiek gutxi gorabeherakoak baino ez dira.

8. taula. BERRIKUNTZA OBRETA KO IRISGARRITASUNAREN IRIZPIDEEN BETETZE MAILA, UDALERRI MOTAREN ARABERA

Udalerrri mota	Berrikuntza-obren kopurua	Irisingarritasun irizpideak betetzen dituztenen kopurua	Irisingarritasun irizpideak betetzen dituztenen %
Araba	21	15	71,4
Bizkaia	250	215	86,0
Gipuzkoa	443	334	75,4
1.000 baino gutxiago	31	27	87,1
1.001-5.000	42	29	69,0
5.001-10.000	70	62	88,6
10.001-50.000	320	199	62,2
50.000 baino gehiago	251	247	98,4
GUZTIRA	714	564	79,0

Udalerrrien multzoan, beste alde batetik, elkartean edo norbanakoen 12 salaketa jaso ziren, erabilera edo zerbitzu publikoko eraikinetan egindako berrikuntza-obren irisingarritasun baldintzak urratzearen ondorioz, eta, urte osoan, ez da zigorrik ezarri.

3.1.2. Udalek berrikuntzak kontrolatzeko duten gaitasuna

Erabilera publikoko eraikinetako berrikuntza-obretan detektaturiko urratze kopurua ez ezik, interesgarria da udalek beharrezko giza baliabiderik ote duten jakitea, eraikin horietako berrikuntza-obren kontrolari, ikuskapenari eta jarraipenari lotutako funtzio teknikoak irisingarritasunaren ikuspegitik behar bezala egiteko. Udal-teknikariek hiru eginkizun mota dituzte esleituta eremu horretan: aurkeztutako obra-proiektuak baloratzea nahiz jakinaraztea, obren jarraipena egitea eta, horiek amaitu ondoren euren balorazioa egitea. Giza baliabideen urritasuna itxuraz ez da arlo horretako arazo nagusia: aukeraturiko eginkizunaren arabera, udal-teknikarien % 59-81en iritziz, beharrezko giza baliabideak dituzte euren betebeharra betetzeko. Berrikuntza obren jarraipena, nolana ere, arazorik gehien ematen dien eginkizuna da, giza baliabideei dagokienez, udal-teknikariek emandako informazioaren arabera.

9. taula. BERRIKUNTZA-OBRAK BETEARAZTEKO FASE DESBERDINETARAKO GIZA BALIABIDE ERABILGARRIAK

	Proiektuak baloratu eta informatu		Obren jarraipena egin, egiten diren bitartean		Obra-amaierako ziurtagiriak baloratu eta informatu		Amaitutako obrak baloratu	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Nahiko	123	81,5	89	58,9	109	72,2	104	68,9
Gutxi	14	9,3	46	30,5	25	16,6	30	19,9
Oso gutxi.	9	6,0	11	7,3	11	7,3	12	7,9
Ed/Ee	5	3,3	5	3,3	6	4,0	5	3,3
GUZTIRA	151	100,0	151	100,0	151	100,0	151	100,0

Udalen % 56k dioenez, beste alde batetik, euren teknikariak ez dira sistematikoki obretara joaten, berrikuntza-lanak egiten diren bitartean irisgarritasunaren baldintzak zein neurritan betetzen diren lekuan bertan ikuskatzera. Obra amaitzean, hala eta guztiz ere, ia % 66k lekuaren ikuskapen teknikoak egiten dute modu sistematikoan. % 8k salbuespenezko kasuetan baino ez dute egiten.

10. taula. UDAL-TEKNIKARIEK IKUSKAPENAK EGITEKO ALDIZKAKOTASUNA

	Berrikuntza-obrak egiten diren bitartean		Berrikuntza-obrak amaitu ondoren	
	Absolutos	%	Absolutos	%
Beti	59	39,1	99	65,6
Beharrezkoa denean	59	39,1	35	23,2
Salaketak edo erreklamazioak daudenean	12	7,9	5	3,3
Gehienetan ez	14	9,3	7	4,6
Ed/Ee	7	4,6	5	3,3
GUZTIRA	151	100,0	151	100,0

Udalen herenak, gutxi gorabehera, ez du berrikuntza-obren ikuskapen sistematikorik egiten, erabilera publikoa duten eraikinetan, obrak amaitu ondoren. Udal mota desberdinen artean ia desberdintasunik egon ez arren, arlo honetako arazo nagusiak udal txikietan aurkituko ditugu; udal handietan, aldiz, lau udaletik batek soilik ez du ikuskapen sistematikorik egiten berrikuntza-obretan, horiek amaitu ondoren.

Lehenago esan dugunez, bildutako informazioaren arabera, galdeketari erantzun dioten udalerrietan ez da zigorrik ezarri, berrikuntza- eta eraikuntza-obretan irisgarritasunaren baldintzak urratzeagatik. Horrenbestez, ez da harritzekoa udal-arduradunen % 13k soilik pentsatzea zigor-arabidea udalerrian zorrotz aplikatzen dela.

Profesionalen euren iritzian, ez dago argi teknikarien lanak, berrikuntzen kontrolari eta jarraipenari dagokionez, erabilera publikoko eraikinetako berrikuntza-obren sargarritasun teknikoaren mailarik handiena lortuz betetzen direnik. Profesionalen % 58k soilik uste dute hori eta % 38k alderantzizkoa uste dute. Neurri handiko udalerriak albo batera utzita, irisgarritasuna bermatu ez izateari lotutako iritzia, udalerrien neurria zenbat eta handiagoa izan, orduan eta urriagoa da. Zein ote dira berrikuntza-obren ondoren irisgarritasuna bermatzea ekiditen duten arrazoiak? Udal-kontrolak irisgarritasuna teknikoki bermatzen ez duela erantzun dutenen ia erdiaren ustez, hori araudia betetzearen eraginezko kostu handien ondoriozkoa da. Profesional horien ehuneko handi batek aipatutako beste arrazoi batzuk, berriz, zailtasun teknikoak, sustatzaileen sentikortasunik eza eta giza baliabideen urritasuna dira.

3.2. Erabilera edo zerbitzu publikoa duten eraikuntza berriko eraikinak eta lokalak

20/1997 Legeko 4. artikuluan ezarritakoaren arabera, oinplano berriko eraikinen eraikuntza-obrak euren irisgarritasuna bermatzeko moduan betearaziko dira, legeriak

ezarritakoa kontuan hartuta. Lehendik eraikitako eraikinen egokitzapenak zailtasun handiak eduki ditzake, irisgarritasuna bermatzeari dagokionez; hala eta guztiz ere, erabilera publikora bideraturiko oinplano berriko eraikinen eraikuntzan errazago sar daitezke, hasiera-hasieratik, araudiak irisgarritasunari buruz ezarritako baldintzak. Izan ere, berrikuntza-obren % 21i dagokionez, 2001ean amaitutako oinplano berriko erabilera publikoko eraikinen % 14k soilik (galdeketari erantzun dioten udalerrietan) urratu dute irisgarritasunaren arloko araudia.

Inkestako datuen arabera, 2001ean erabilera publikoko 84 eraikin berri altxatu dira 29 udalerritan. Berrikuntza-obrei buruzko galderen kasuan gertatu den bezala, galdera honi neurri txikiagoan erantzun dioten udalerriak neurririk handienekoak izan dira, eta beraz, datuak oraingoan ere gutxi gorabeherakoak izango dira. 2001ean oinplano berriko eraikinen bat altxatu duten udalerriek, bestalde, inkestari erantzun dioten udalerrien biztanleria osoaren % 16 baino ez dute biltzen. Udalerrri motaren arabera, ez dago desberdintasun handirik, oinplano berriko eraikinetako irisgarritasunaren baldintzak betetzeari dagokionez, baina betetze maila handiagoa da Bizkaian. Ezein udalerritan ez da zigorrik edo salaketarik egon, oinplano berriko eraikinen eraikuntzan irisgarritasunaren baldintzak urratzeari buruz.

11. taula. BERRIKUNTZA-OBRETAKO IRISGARRITASUNAREN IRIZPIDEAK BETETZEKO MAILA, UDALERRI MOTAREN ARABERA

Udalerrri mota	Oinplano berriko eraikin edo lokal kopurua	Irisgarritasunari buruzko irizpideak betetzen dituztenen kopurua	Irisgarritasunari buruzko irizpideak betetzen dituztenen %
Araba	13	11	84,6
Bizkaia	26	21	80,8
Gipuzkoa	45	41	91,1
1.000 baino gutxiago	5	4	80,0
1.001-5.000	20	19	95,0
5.001-10.000	38	31	81,6
10.001-50.000	21	19	90,5
GUZTIRA	84	73	86,9

Inkestetan jasotako datuak kontuan hartuta, 12. taulan adierazitako datuak, ezin daiteke esan udalek egindako ikuskapen- eta kontrol-lana oso aktiboa denik: amaitu ondoren obra sistematikoki bisitatzen duten teknikariak dituzten udalen ehunekoak % 64koa da. Berrikuntza-obren kasuan bezala, horrenbestez, udalerrri guztien herenak ez ditu sistematikoki ikuskatzen, obrak amaitu ondoren, erabilera publikoko eraikinen eraikuntza-obrak. Gainera, eginkizun batzuk, esate baterako, obren ikuskapena horiek egiten diren bitartean edo obra-ziurtagirien ikuskapena, kasu guztien % 35ean eta % 42an soilik egiten dira sistematikoki, hurrenez hurren.

12. taula. OINPLANO BERRIKO ERAIKINEN IKUSKAPENERAKO, KONTROLERAKO ETA SEGURTASUNERAKO EGINDAKO LANAK

	Proiektuak baloratu eta ikuskatu		Obrak egiten diren bitartean ikuskapenak egin		Amaitutako obraren ziurtagiriak ikuskatu		Amaitu ondoren obrak ikuskatu	
	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%	Abs.	%
Beti	101	66,9	53	35,1	64	42,4	97	64,2
Teknikoki beharrezkoa denean	17	11,3	50	33,1	31	20,5	19	12,6
Salaketak edo erreklamazioak daudenean	1	0,7	10	6,6	5	3,3	3	2,0
Gehienetan ez	4	2,6	11	7,3	22	14,6	5	3,3
Ed/Ee	28	18,5	27	17,9	29	19,2	27	17,9
GUZTIRA	151	100,0	151	100,0	151	100,0	151	100,0

Hala eta guztiz ere, inkestari erantzun dioten profesional guztien % 23k soilik uste du udalean teknikari berriak kontratatu behar direla edo oraingoan arduraldi-maila handiagoa izan behar dela, irisgarritasuna ikuskatzeko eta kontrolatzeko lanen eraginkortasuna bermatzeko. Langile gehiago kontratatzeke beharrezkoa, dirudienez, nahiko nabaria da Bizkaiko udalerrietan eta neurri ertaina nahiz handia dutenetan, baiezko erantzunek bikoiztu egiten baitute batez bestekoa. Nolanahi ere, harrigarria da amaitu ondoren eraikuntza-obrak sistematikoki ikuskatzen ez duten 27 udalerrietatik % 55ek ikuskapen-lan hori egiteko langile gehiagorik behar ez dutela esatea.

13. taula. LANGILE GEHIAGOREN BEHARRIZANA, UDALERRI MOTAREN ARABERA

Udalerrri mota	Baiezko erantzun kopurua	%
Araba	4	12,5
Bizkaia	18	27,3
Gipuzkoa	13	24,5
1.000 baino gutxiago	5	7,8
1.001-5.000	10	23,3
5.001-10.000	8	50,0
10.001-50.000	10	43,5
50.000 baino gehiago	2	40,0
GUZTIRA	35	23,2

Giza baliabide gehigarriak kontratatzea albo batera utzita, hamar udaletik lauk zenbait neurri proposatu dituzte, kasuan kasuko udalerriko irisgarritasun-politiken eraginkortasuna hobetzeko. Sarrien aipatutako neurria (udal guztien ia % 20k proposatua) administrazioen diru-laguntza handiagoak jasotzea da, eta horren ostean biztanleriaren sentsibilizazioa bera aipatzen dute.

14. taula. IRISGARRITASUN-POLITIKEN ERAGINKORTASUNA HOBETZEKO NEURRIAK

	Absolutuak	151ren gaineko %
Profesionalen heziketa	7	4,6
Udalei emandako dirulaguntzak	29	19,2
Norbanakoei emandako prestazio ekonomikoak	3	2,0
Politikarien sentsibilizazioa	3	2,0
Biztanleriaren sentsibilizazioa	16	10,6
Laguntza teknikoa	4	2,6
Legea aplikatzeko araubidearen malgutasuna	10	6,6
Legearen aplikazioaren zorrotasuna	7	4,6
Beste batzuk	10	6,6

4. UDALEKO ZERBITZU PUBLIKOETAKO IRISGARRITASUNA

Kasuan kasuko udal mugarteetako irisgarritasuna sustatzeko eta kontrolatzeko eginkizunekin batera, udalek (erabilera publikoko eraikin eta egoitza askoren titulartzat) Euskal Autonomia Erkidegoko indarreko araudiak irisgarritasunaren arloan ezarritako baldintzak bete behar dituzte euren instalazioetan, batez ere jendeari arreta eskaintzeko dituzten instalazioetan. Udal batek nekez gauzatuko du irisgarritasuna sustatzeko eta kontrolatzeko lan eraginkorrik, bertako egoitzek irisgarritasun ezegokiak dituztenean, biztanle batzuentzat. Azpimarratu beharra dago, gainera, udal-egoitzetako irisgarritasuna bermatzeak garrantzi handia duela, kontuan hartuta horien kopurua, bertan egindako jardueren aniztasuna (jarduera kulturalak, kirolekoak eta astialdikoak, baita tasen ordainketa eta lizentzia-eskabideak ere) eta biztanleen erabileraren maiztasuna.

Horrenbestez, herri bakoitzean udal-zerbitzu publikoen irisgarritasunaren egoera jakiteko ahalegina egin da. Horretarako, udalei alderdi jakinei buruzko informazioa eskatu zaie: a) udal-zerbitzu publikoen irisgarritasunaren egoera, biztanleen mugikortasunaren ikuspegitik; eta b) udal bakoitzak 20/97 Legearen onspenetik hartutako neurriak eta udal-egoitzak hobetzeko aurreikusitako proiektuak.

4.1. Udaleko zerbitzu publikoetako irisgarritasuna mugikortasunaren ikuspegitik

Udalerrri bakoitzaren egoera mugikortasunaren ikuspegitik baloratzeko, udal bakoitzari fitxa bat betetzeko eskabidea egin zitzaion, eta bertan, zerbitzuak emateko lokalen irisgarritasunaren egoera adierazi behar zen. Hain zuzen ere, udalaren titularitateko eraikinen balorazioa eskatu zen, nahiz eta batzuetan, adibidez, ikastetxeetan, zerbitzuaren kudeaketa beste administrazio batzuen ardurapekoa izan. Egoitza horien erabileren

heterogeneotasuna kontuan hartuta, hogeita hamar zerbitzu mota ingurutan bildu ziren⁹; horiek, hobeto aztertzeko bost kategorian nagusitan pilatuta utzi ziren: zerbitzu orokorrak, kulturakoak, kirolekoak, hezkuntzakoak eta sozialak.

Hala eta guztiz ere, udaleko eraikinen eta egoitzen kopuru handiaren eta horien sakabanatze maila nabariaren eraginez, zaila izan da (batez ere, hiriburuetan) fitxa hori zehatz betetzea. Hori dela eta, ikerketa hasi ondoren, hiru hiriburu kasuan, informazioa biltzeko jarraituriko metodologia aldatu eta irabazi asmorik gabeko hiru erakunderen laguntza eskatu zen (elbarritasun fisikoa duten pertsonekin lan egiten duten erakundeak¹⁰), Bilboko, Donostiako eta Gasteizko udal-egoitzen irisgarritasuna aztertzeko. Horrela, udalerrri ia guztiei buruzko informazioa udal-teknikarien baloraziotik atera den bitartean, hiriburu kasuan kanpoko ikuskapen baten bitartez lortu da. Hiriburu eta gainerako udalerrien emaitzak, beraz, bereiz adierazita daude.

Lortutako emaitzak jakinarazi baino lehen, udal-egoitzetako irisgarritasuna mugikortasunaren ikuspegitik baloratzeko orduan jarraitutako irizpideei buruzko kapituluari aipatutako gauza batzuk gogoratu behar dira. Lokal bakoitzaren balorazioa errazteko (kontuan hartuta helburua EAEko udal-egoitzen irisgarritasunaren ikuspegi panoramikoaren lortzea dela, eta ez lokal bakoitzeko oztopen azterketa zehatza egitea), hiru kategorian oso zabal dituen sailkapen arrunta aukeratu da: irisgarritasun egokia, mugatua eta ezegokia. Hori dela eta, egoitzetan sartzeko bideak soilik aztertu dira, zerbitzuen erabilerari lotutako beste arlo batzuk albo batera utzita (ateen pisu- eta indar-baldintzak, erakusmahaien altuera, informazio-sistemarako irisgarritasuna, etab.). Egoitzen baloraziorako jarraituriko irizpideak honako hauek dira¹¹:

- **Irisgarritasun egokia.** Gurpildun aulkian doan pertsona bat eraikinaren kanpoaldetik modu autonomoan sartzeko aukera ematen duten lokalak sartzen dira, jendeari zerbitzuak emateko edo arreta egiteko lokalak, hain zuzen ere.
- **Irisgarritasun mugatua.** Gurpildun aulkian doan pertsona bat sartzeko aukera ematen duten lokalak, baldin eta pertsona horrek beste norbaiten laguntza badauka,

9 Honako honetan diharduten egoitzak dira: informazio orokorra, kontsumitzaileentzako informazioa, oinarrizko gizarte zerbitzuak, jubilatuen etxeak, zahar-etxeak, eguneko zentroak, pasadizozkoen edo toxikomanoen zentroak, umezurtegiak eta haur-eskolak, udal-eskolak, gazteen egoitzak eta aterpetxeak, lantegi-eskolak, lanbide-etxeak eta okupazio-zentroak, enplegu-zerbitzuak, etxebizitza-zerbitzuak, kultura-zentroak eta liburutegiak, musika- eta dantza- eta antzerki-eskolak, biltzar-aretoak, museoak, azokak, bainu-etxeak eta komun publikoak, partaidetzako kirol-zentroak, ikuskizuneko kirol-zentroak, zineak nahiz antzokiak, udaltzaingoa, tasen zein zergen kobrantza, udalbatzarrak, idazkaritza, euskaltegiak eta beste batzuk.

10 Eginaren Eginez, Araban, Gipuzkoako Ezindu Fisikoen Federazio Koordinatzailea, Gipuzkoan, eta Bidaideak Bizkaian. Sarrean esan dugunez, hiru erakunde horietariko bakoitzak erreferentziako pertsona edo talde bat proposatu zuen, ikuskapena egiteko, horrek ez du nahitaez esan nahi erakundeok egin diren azterketen emaitzak edo metodologia onartzen dituztenik.

11 Balorazio-lana egin duen erakundeetariko batek, Gipuzkoako Ezindu Fisikoen Federazio Koordinatzaileak, berori egin ondoren, aditzera eman zuen irizpideekin ez zegoela ados; izan ere, beraren iritzian, horiek ez datoz bat 20/1997 Legearen eta berori garatzeko arauen ondoriozko eskakizunekin. Irisgarritasunaren baldintzak soilik hartzen dira kontuan eta kasu batzuetan irisgarritasun mugatutaz hartzen dena irisgarritasun ezegokitzat hartu behar da; horrenbestez, erakunde honen ustez, lortutako emaitzek itxuragabetu egin dezakete errealitatea.

kasuan kasuko zerbitzua emateko zonaraino iristeko. Beste pertsona horren laguntza, gehienez jota, elkarren jarraikiko bi eskailera maila gainditzera, malda handiko arrapala igotzera, gurpildun aulkia altxatzeko aparatua martxan jartzera edo ibilbide alternatibo onargarri batetik laguntzera mugatuko da.

- **Irisingarritasun ezegokia.** Kategoria honen barruan, aurreko beste bi kategorietan sartzeko moduko baldintzak betetzen ez dituzten egoitza guztiak sartzen dira.

4.1.1. **EAEko udalerrietako udal-egoitzen irisingarritasuna**

Hiru hiriburuak albo batera utzita, inkestari erantzun dioten beste 148 udalerriek esan dute 1.869 lokal, eraikin edo egoitza dituztela. Horietatik % 38,8 udal-zerbitzu orokorrak dira, % 15,5 gizarte zerbitzuen egoitzak, % 11,6 hezkuntza-egoitzak, % 18,5 kultura-egoitzak eta % 12,6 kirol-egoitzak. Lurraldeen ikuspegitik begiratuta, aztertutako lokal guztien % 14,3 Araban daude, % 46,8 Bizkaian eta % 38,9 Gipuzkoan.

Aztertutako egoitza guztietatik, % 41,6 irisingarritasun egokikoak dira; % 22,4 irisingarritasun mugatukoak, eta % 36 irisingarritasun ezegokikoak. Azterturiko hiru udal-eraikinetatik bat, beraz, ezegokia da mugikortasun-arazoak dituzten pertsonentzat. Udalerrri bakoitzaren egoera, berriz, 1. eranskineko grafikoetan laburbilduta dago.

Gainera, honako ohar hauek egin daitezke, udalerrri motari eta irisingarritasuna gehienetan mugatzen duten zerbitzu motei buruz:

- Bost udalerrri (guztira ez dira 10.000 biztanletara iristen) esan dute euren egoitza guztien irisingarritasuna egokia dela. Beste zazpik (2.000 biztanle baino apur bat gehiago) aditzera eman dute euren egoitza guztietako irisingarritasuna ezegokia dela.
- Inkestari erantzun dioten udalerrrien % 32k dioenez, bertako eraikinetako eta egoitzetako irisingarritasuna egokia dela. Guztira 47 udalerrri dira eta 385.000 biztanle dituzte (inkestari erantzun dioten udalerrri guztien biztanleria osoaren % 44).
- Aurkako ikuspegitik begiratuta, udalerrrien % 38k dioenez, egoitzen erdiko edo gehiagoko irisingarritasuna ezegokia da mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzat. 56 udalerrri dira, ia guztiak neurri txikikoak, eta horietan ehun mila pertsona baino apur bat gehiago bizi da, inkestari erantzun dioten udalerrri guztien biztanleria osoaren % 12.
- Irisingarritasun egokiaren, mugatuaren eta ezegokiaren mailak oso antzekoak dira hiru lurralde historikoetan. Arabako Lurralde Historikoak ere (udalerrri txikien kopuru handiagoa) beste bi lurraldeen antzeko ehunekoak ditu, irisingarritasun egokiari eta ezegokiari dagokienez.
- Arabaren kasuan, alderdi horretatik begiratuta, merezimendu handikoa da, izan ere, egoera udalerrrien neurriaren ikuspegitik aztertuz gero, desberdintasun handiak ikusten dira: udalerrri txikietan, irisingarritasun ezegokia duten eraikinen ehunekoak % 51 da, eta udalerrri handietan % 13 baino ez. Horrenbestez, irisingarritasun egokiko egoitzak, oro har, udalerrria zenbat eta handiagoa izan orduan eta ugariagoak dira.
- Egoitza irisingarririk gehienak dituztenak, jakina, gizarte zerbitzuak ematen dituztenak dira: % 57 irisingarritasun egokikoak dira, % 21 irisingarritasun mugatukoak eta % 21 irisingarritasun ezegokikoak. Aipagarria da, nolana ere, gizarte zerbitzuetarako 346 egoitzetatik 148 ez direla guztiz irisingarritasun egokikoak. Kirol-zentroek ere irisingarritasun maila handia dute (% 55 irisingarritasun egokikoak, % 20 irisingarritasun ezegokikoak eta % 26 irisingarritasun mugatukoak).

- Aldiz, zerbitzu orokorrek dute (esate baterako, udalbatzar-aretoa, alkatetza, tasak ordaintzeko bulegoa, informazio-zerbitzuak, enplegu- nahiz etxebizitza-zerbitzuak edo Udaltzaingoa) irisgarritasun kopururik txikiena: egoitza txikien herena irisgarritasun egokikoa eta ia erdia irisgarritasun ezegokikoa.

15. taula. IRISGARRITASUN EGOKIKO, EZEGOKIKO ETA MUGATUKO UDAL EGOITZAK, LURRALDE HISTORIKOEN ETA UDALERRIEN NEURRIEN ARABERA

	Irisgarritasun egokiko egoitzak (%)	Irisgarritasun mugatuko egoitzak (%)	Irisgarritasun ezegokiko egoitzak (%)	Guztira (%)
Araba	39,2	21,3	39,6	14,3
Bizkaia	42,9	21,3	35,8	46,8
Gipuzkoa	40,9	24,2	34,9	38,9
1.000 biz. baino gutxiago	31,5	17,2	51,3	24,3
1.000-5.000	45,9	19,2	34,9	29,6
5.000-10.000	50,4	20,5	29,1	18,8
10.000-50.000	37,2	32,6	30,2	24,5
50.000 baino gehiago	61,1	25,9	13,0	2,9
GUZTIRA	41,6	22,4	36,0	100,0

16. taula. IRISGARRITASUN EGOKIKO, EZEGOKIKO ETA MUGATUKO UDAL EGOITZAK, ZERBITZU MOTAREN ARABERA

		Abs.	%
Zerbitzu orokorrak	Irisgarritasun egokiko egoitza orokorrak	245	33,7
	Irisgarritasun mugatuko egoitza orokorrak	133	18,3
	Irisgarritasun ezegokiko egoitza orokorrak	348	47,9
Egoitza orokor guztiak		726	100,0
Gizarte zerbitzuak	Irisgarritasun egokiko gizarte zerbitzuen egoitzak	198	57,2
	Irisgarritasun mugatuko gizarte zerbitzuen egoitzak	74	21,4
	Irisgarritasun ezegokiko gizarte zerbitzuen egoitzak	74	21,4
Gizarte zerbitzuen egoitza guztiak		346	100,0
Hezkuntza	Irisgarritasun egokiko hezkuntza-egoitzak	69	31,8
	Irisgarritasun mugatuko hezkuntza-egoitzak	69	31,8
	Irisgarritasun ezegokiko hezkuntza-egoitzak	79	36,4
Hezkuntza-egoitza guztiak		217	100,0
Kultura	Irisgarritasun egokiko kultura-egoitzak	136	39,4
	Irisgarritasun mugatuko kultura-egoitzak	83	24,1
	Irisgarritasun ezegokiko kultura-egoitzak	126	36,5
Kultura-egoitza guztiak		345	100,0
Kirolak	Irisgarritasun egokiko kirol-egoitzak	129	54,9
	Irisgarritasun mugatuko kirol-egoitzak	60	25,5
	Irisgarritasun ezegokiko kirol-egoitzak	46	19,6
Kirol-egoitza guztiak		235	100,0
GUZTIRA		1.869	100,0

4.1.2. Hiriburuetakoa udal-egoitzen irisgarritasun egokia, mugikortasunaren ikuspegitik

Oro har, hiru hiriburuetakoa 428 udal-egoitzari buruzko informazioa bildu da; horiek, jakina, ez dira hiru hiri horietako erabilera publikoko udal-lokal guztiak, baina guztien lagin adierazgarria osatzen dute. Aztertutako egoitza guztietatik, % 38 Gasteizen daude, % 31 Donostian eta % 31 Bilbon. Gasteizen egindako ikuskapen kopuru handiagoa, izan ere, Udaletxeak duen udal-deszentralizazio maila handiagoaren eraginezkoa da; egin-eginean ere, hiri-zentro eta udal-zerbitzu asko ditu hiri osoan sakabanatuta, eta gainera, jendeari irekitako lokal kopuru handian islatutako udal-jarduera bizia dauka.

Orokorrean hartuta, hiru hiriburuetakoa irisgarritasun maila onargarria dute: egoitzen % 46,3 irisgarritasun egokikoak dira, % 29,0 irisgarritasun mugatukoak eta % 24,8k irisgarritasun ezegokikoak. Hiriburu bakoitzari buruzko datuak honako taula honetan laburbilduta daude.

17. taula. HIRIBURUETAKO UDAL-ERAIKINEN IRISGARRITASUNA

	Irisgarritasun egokiko egoitzak (%)	Irisgarritasun mugatuko egoitzak (%)	Irisgarritasun ezegokiko egoitzak (%)
Bilbo	36,2	27,6	36,2
Donostia	45,5	33,6	20,9
Gasteiz	54,9	26,7	18,9
GUZTIRA	46,3	29,0	24,8

Taulan ikusten denez, hiru hirietatik egoera egokiena Gasteizek dauka, irisgarritasun egokiko egoitza kopururik handiena (erdia baino gehiago) eta irisgarritasun ezegokiko egoitza kopururik txikiena baitauka. Nolanahi ere, aipagarria da hiri horretan (irisgarritasunaren arloan eredu garrantzirik hartutako hiria), udal-egoitza guztien ia % 20 irisgarritasun ezegokikoak direla, eta % 25 baino gehiago irisgarritasun mugatukoak. Donostiako egoera, konparazioa eginez, bien bitartekoa dela esan daiteke: egoitza guztien % 45 irisgarritasun egokikoak eta % 20 irisgarritasun ezegokikoak. Bizkaian, berriz, arazoak handiagoak dira; izan ere, bertan, irisgarritasun egokiko, ezegokiko eta mugatuko egoitzek banaketa berbera dute.

Eskura ditugun datuekin, zaila da hiru hiriburuetakoa egoera desberdina zergatik den azaltzea. Zenbait faktoreren garrantzia ahaztu barik (esate baterako, borondate politikoa edo tokiko elkarten ekintza), beste zenbait faktore ere kontuan hartu behar dira, erakundeek egindako irisgarritasunaren sustapenari estu lotuta ez dauden faktoreak: Gasteizeko udal-egoitzak nahiko berriak izatea (hiriaren garapen berantiarra) edo hiriaren neurria eta egitura (Bilborena baino egokiagoa), zalantzarik gabe, irisgarritasun hobean eragina izan duten faktoreak dira.

Hiru hiriburu horietan, halaber, egoera desberdina da, egoitza bakoitzak emandako zerbitzu motaren ikuspegitik ere. Hurrengo taulan ikusten denez, egoitzen erabilaren ikuspegitik begiratuta, gizarte-zerbitzuetarako egoitzak dira, kirol-zentroekin eta zerbitzu

orokorretarako egoitzekin batera, irisgarritasunik handiena dutenak. Aldiz, hezkuntza egoitzen % 24 soilik dira irisgarritasun egokikoak. Egoitza horiek (euren mantenamendua eta kudeaketa udalen eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren eskumenekoak dira), gainera, ezegokitasun mailarik handiena dute irisgarritasunean: aztertutako hamar ikastetxetik lau irisgarritasun ezegokikoak dira. Egoerarik txarrena Bilbon dago, hezkuntza-egoitza guztien % 70 irisgarritasun ezegokikoak baitira.

18. taula IRISGARRITASUN EGOKIKO, EZEGOKIKO ETA MUGATUKO UDAL-EGOITZAK, ZERBITZU MOTAREN ARABERA (%)

		Bilbo	Donostia	Gasteiz	GUZTIRA
Zerbitzu orokorrak	Irisgarritasun egokiko egoitza orokorrak	45,2	54,8	63,4	54,4
	Irisgarritasun mugatuko egoitza orokorrak	33,3	22,6	12,2	22,8
	Irisgarritasun ezegokiko egoitza orokorrak	21,4	22,6	24,4	22,8
Gizarte zerbitzuak	Irisgarritasun egokiko gizarte zerbitzuen egoitzak	43,8	67,7	62,8	61,1
	Irisgarritasun mugatuko gizarte zerbitzuen egoitzak	37,5	22,6	20,9	24,4
	Irisgarritasun ezegokiko gizarte zerbitzuen egoitzak	18,8	9,7	16,3	14,4
Hezkuntza	Irisgarritasun egokiko hezkuntza-egoitzak	29,7	10,7	30,0	24,8
	Irisgarritasun mugatuko hezkuntza-egoitzak	0,0	50,0	55,0	34,3
	Irisgarritasun ezegokiko hezkuntza-egoitzak	70,3	39,3	15,0	41,0
Kultura	Irisgarritasun egokiko kultura-egoitzak	25,0	45,8	56,5	41,3
	Irisgarritasun mugatuko kultura-egoitzak	53,6	37,5	17,4	37,3
	Irisgarritasun ezegokiko kultura-egoitzak	21,4	16,7	26,1	21,3
Kirolak	Irisgarritasun egokiko kirol-egoitzak	42,9	45,0	70,6	54,5
	Irisgarritasun mugatuko kirol-egoitzak	14,3	40,0	17,6	27,3
	Irisgarritasun ezegokiko kirol-egoitzak	42,9	15,0	11,8	18,2

4.1.3. Hiriburuetako udal-egoitzen irisgarritasuna, gainerako udalerriei dagokienez

Udal-egoitzen irisgarritasuna metodologia desberdinen arabera baloratu ondoren, zaila da udal mota batean eta bestean lortutako emaitzak konparatzea. Nolanahi ere, emaitzak orokorrean homogeenak izan arren, kasu batzuetan desberdintasun aipagarriak daude:

- Hiru hiriburuetan, irisgarritasun ezegokiko eraikin kopurua gainerako udalerrietan baino nahiko txikiagoa da, eta hori bat dator lehen neurri handiko udalerriei eraxkitako irisgarritasun maila txikiarekin.
- Hiriburuetan irisgarritasun egokiko eraikin kopurua ere handiagoa da, baina desberdintasuna ez da nabarmena (% 46 eta % 41).
- Irisgarritasun mugatuko eraikin kopurua ere handiagoa da hiru hiriburuetan, eta hori horietan egindako egokitzapen-ahalegin handiagoaren eraginezkoa izan daiteke; izan ere, aztertutako udal-egoitzetako askok hiru hiriburuetan berrikuntza partzialak izan dituzte, irisgarritasuna hobetzeko, eta berrikuntzok, irisgarritasuna guztiz bermatu ez arren, murriztu egin dute irisgarritasun guztiz ezegokiko egoitza kopurua.

4.2. **Udal bakoitzak 20/97 Legea onetsi zenetik hartutako neurriak eta udal egoitzak hobetzeko aurreikusitako proiektuak**

Udal-egoitzetako irisgarritasuna baloratu ondoren, udalek azken urteotan detektaturiko akatsak hobetzeko hartu dituzten neurriak ezartzeko ahalegina egin da.

Inkestari erantzun dioten 151 udalerrietatik 47k azken lau urteotan oinplano berriko udal-eraikinen bat egin dute. Datuek diotenez, egoitza berri guztiek bete egiten dituzte irisgarritasunaren arloan indarrean dauden baldintzak. Horrela, halako eraikinen bat altxatu duen udalerrri batek soilik (Legutio) esan du egoitza berriak guztiz edo neurri batean ezegokiak direla. Udalerrri guztien % 66k dioenez, egoitza berri guztiek indarreko araudia betetzen dute, eta, kasu guztien % 25ean, oinarrian irisgarritasun egokikoak dira, akats txikiak egon arren.

Beste 52 udalerririk diotenez, azken lau urteotan berrikuntza nabariak egin dituzte udal-lokaletan (60.000 eurotik gorako kostua). Berrikuntza horiek egon ondoren, irisgarritasunaren egokitasunari dagokionez, lortu ote da zerbitzuen hobekuntzarik? Berrikuntzak egin dituzten udalerrien % 54k uste dutenaren arabera, berrituriko eraikin guztietako irisgarritasuna egokia da orain; % 42ren ustez, ostera, erabateko egokitasuna lortu ez bada ere, hori hobetu egin da. Berrikuntzak egin dituen udalerrri batek, bestalde, birgaituriko eraikinak lehen ere irisgarritasun egokikoak zirela esan du. 55 udalerrietariko batek dioenez, berriz, egindako berrikuntza-obrek ez dute irisgarritasuna hobetu.

Beste alde batetik, 43 udalerririk diotenaren arabera (inkestari erantzun dioten udalerrri guztien % 28,5), azken urteotan zenbateko txikiagoko berrikuntzak egin edo laguntza teknikoak eskatu dira, udal-lokalen irisgarritasuna hobetzeko. Udalerrri guztien % 69,5ek ez du halakorik egin, eta % 2,0k ez dio galdera honi erantzunik eman. Gainera, beste 37 udalerririk diotenez (inkestari erantzun dioten udalerrri guztien % 24,5), azken lau urteotan udal-lokalen irisgarritasunari buruzko ikerketak egin dituzte, kasurik gehienetan irisgarritasunari buruzko kasuan kasuko udal-programak garatzeko.

Lehen esan dugunaren arabera, udal-egoitzetako irisgarritasunaren egokitasuna ez da erabatekoa, eta udal gutxik (hain zuzen ere % 21,9) dute partida bereziren bat, 2002ko aurrekontuetan, udal-egoitzetako irisgarritasuna hobetzeko. 31 udalerrri horien erdiak, gutxi gorabehera, jarduera zehatzak egiten ditu¹², eta gainerakoek irisgarritasuna hobetzeko obra orokorrak aipatu dituzte. Bideraturiko zenbatekoei dagokienez, udalerrri osoko irisgarritasuna hobetzeko udal-inbertsioaren aldetik, inbertsio horiek oso desberdinak dira, hain zuzen ere, biztanle bakoitzeko euro batetik 224 eurora, per capita gastuaren arabera. Halako jarduketetarako aipatutako batez besteko zenbatekoa, nolana ere, udalerrri bakoitzeko 114.560 eurokoa da, eta horrek 3,74 euroko batez bestekoa adierazten du. Oraingoan ere, aurrekontu partida hauek, per capita gastuaren arabera, udalean beste zenbait arlotan urtero egindako gastua gainditzen dute, esate baterako, emakumeari, familiei edo elbarritasunei eskainitako arretan egindakoa. Beste

12 Adibidetzat, aipagarriak dira igogailuak instalatzeko obrak, arrapalak, seinaleztapen lanak edo eraikinak berritzeko obrak.

49 udalerririk diotenez (aztertutako udalerririk guztien % 34), epe luzerako proiektuen bat dago, udal-erakinetak irisgarritasunaren egokitasunari buruz. Udaletxea birgaitzea edota berritzea da, irisgarritasunari buruzko uda-programak idaztearekin batera, atal honetan sarrien aipatzen den epe luzerako proiektua.

Azkenik, teknikariei udal-lokaletako irisgarritasunaren egoerari buruzko balantzea egiteko eskatu zitzaizkien, euren ikuspegi profesionaletik begiratuta. Galdera irekiak izatean, erantzunak oso anitzak ziren, baina gehienak hiru kategoriatan bildu genituen: egoera txarra, negatiboa edo akasdua; hala-holako egoera, jasangarria edo onargarria; eta egoera bikaina, ona edo nahikoa. Inkestari erantzun dioten profesional guztien % 25,8ren ustez, euren udalerrien egoera txarra, negatiboa edo akasdua da; % 43,7ren iritziz, hala-holako, jasangarria edo onargarria da; eta % 7,3ren ustez, bikaina, ona edo nahikoa da. Udalerririk guztien % 23k ez diote galderari erantzun, edo emandako erantzunetik ezin daiteke ondorioztatzea kasuan kasuko herriko egoera.

Biztanle kopuruaren arabera begiratuta, ikusten denez, biztanleriaren % 11 egoera txarreko udalerrietan bizi da; % 4,8 egoera oneko udalerrietan, eta % 78 hala-holako egoera duten udalerrietan; jakina, proportzioen aldaketa, izan ere, egoera txarreko udalerririk gehienak txikiak izatearen eraginezkoa da. Lurralde historikoen arabera, desberdintasun gutxi ikusten da, baina badirudi egoerarik egokiena Gipuzkoako udalerririk dutela. Arabako udalerririk dira (txikiak direlako edo funtsezko erreferentziatzat Gasteiz dutelako) egoera positiboa lortu dutela gutxien diotenak.

19. taula. BALANTZE POSITIBOA, NEGATIBOA EDO HALA-HOLAKOA EGIN DUTEN UDALERRIAK, UDAL-EGOITZETAKO IRISGARritasunari DAGOKIONEZ (%)

	Egoera negatiboa	Hala-holako egoera	Egoera positiboa	Ed/Ee
Araba	25,0	37,5	3,1	34,4
Bizkaia	27,3	50,0	6,1	16,7
Gipuzkoa	24,5	39,6	11,3	24,5
1.000 bizt. baino gutxiago	31,3	29,7	6,3	32,8
1.000-5.000	27,9	41,9	9,3	20,9
5.000-10.000	25,0	50,0	6,3	18,8
10.000-50.000	8,7	73,9	8,7	8,7
50.000 baino gehiago	20,0	80,0	0,0	0,0
GUZTIRA	25,8	43,7	7,3	23,2

Udal teknikariek esandakoak, gainera, egoera horren zergatietako batzuk zehazteko aukera ematen du. Eragozpen nagusia, zalantzarik gabe, kostu ekonomikoari lotuta dago; horren eraginez, batik bat udalerririk txikienen kasuan, udal egoitzak indarreko araudira egokitu behar izaren dira. Arazo hori konpontzeko, kasu guztietan kanpoko finantziario-iturriak egokitu beharra dago, diru-laguntza publikoen eta pribatuen bitartez. Horri dagokionez, diru-laguntzen kontzeptutan jasotako zenbatekoak nahiko balira ere, horren tramitazioak kudeaketa- eta planifikazio-lan handia behar du, udalerririk guztiek egin ezin duten lana. Nolanahi ere, gogoratu beharra dago (txosten honetako hurrengo kapituluetan adierazitakoaren arabera) halako obrak zenbait erakundek finantzatzeko

dituztela eta, halaber, ekitaldi batzuetan halako diru-laguntzetarako aurrekontuak ez direla agortu, eskabidea udalerrri gutxik egin dutelako.

Beste alde batetik, udalerrri batzuk agerian jarri dute zenbait eraikinek oztopo tekniko handiak dituztela, irisgarritasunari buruzko indarreko araudia egokitzeko orduan, egokitzapen hori ia-ia ezinezkoa baita. Arazo horiekin batera, arduradun politikoei horri buruz duten jabetze maila txikia ere aipatu da, baita arlo horretako planifikazio urria ere, nahiz eta irisgarritasunari buruzko udal-planak legez derrigorrezkoak izan.

4.3. Irisgarritasunaren arloan udaletan egindako beste jarduera batzuk

Azkenik, beste udal-jarduera batzuk aztertu dira; horiek, EAEko titularitate publikoko eraikinen irisgarritasunaren eremuan berariaz sartu ez arren, eragina dute halako eraikinen irisgarritasunaren bermean.

Inkestari erantzun dioten 151 udaletatik batek soilik dauka zeinuen hizkuntzako interpretea, entzumen-arazoak dituzten pertsonekin harremanak edukitzeko. Gasteizko udala da bakarra eta horrek hitzarmena dauka irabazi asmorik gabeko elkarte batekin, zerbitzu hori emateko. Galderei erantzun ez dioten bi udalerrri albo batera utzita, gainerakoek (inkesta bete duten udalerrri guztien % 98) ez dute halako lanetarako langilerik, eta halako erakundeekin ez dute hitzarmenik, zerbitzu hori emateko, ezta norbanakoekin horri buruz egindako akordiorik ere. Biztanle kopuruaren arabera, inkestari erantzun dioten udalerrietako biztanleen % 83k ez dute zeinuen hizkuntzaren interpretea lortzeko modurik.

Interpreteen arloko hutsune horrek etorkizun hurbilean ez dauka konpontzeko itxurarik: interprete lanetarako pertsona bat kontratatzeko asmoa udalerrri bakar batek dauka, hain zuzen ere, Gasteizko udalak.

Zeinuen hizkuntzaren interpreteak edukitzea kontrajarri egiten zaie arlo horretako araudi autonomikoak horri buruz ematen dituen gomendioei. Irisgarritasunari buruzko Legea garatzen duten arau teknikoak onetsi dituen 68/2000 Dekretuak emandako gomendioaren arabera, erakunde publikoetako eta pribatuetako zerbitzu zentralizatuak, informazio-sistemak eskuragarriak izan behar dira zeinuen hizkuntzaren erabileraren bitartez. Beste alde batetik, zeinuen hizkuntzaren interpreterik ez edukitzea eta, oro har, gainerako erakundeen kasuan bezala, udalek hizkuntza horrekiko duten atxikimendu urria kontrajarri egiten zaio gorren artean horren erabilerak duen garrantzi gero eta handiagoari. Horri dagokionez, zeinuen hizkuntzaren ofizialtasuna da gor-elkarteen errebindikazio nagusienetarikoa, horrek interpreteen presentzia orokortuko lukeelako.

Udal-egoitzetako adierazleei eta seinaleei dagokienez, egoera ez da askoz ere hobea. 23 udalerririk diotenez (inkestari erantzun dioten udalerrri guztien % 15), udal-egoitzarik gehienetan edo batzuetan badago halako adierazlerik eta horiek, gainera, egokitu egiten dira indarreko araudira. Talde horren barruan, zortzi udalerririk diotenez, araudia bete egiten dute egoitza guztietan edo gehienetan. Aldiz, beste 122 udalerrietan (inkestari erantzun dioten udalerrri guztien % 81) ez da halako neurririk hartu ezein egoitzatan.

Guztira, halako neurririk hartu ez duten udalerrietan inkestari erantzun dioten udalerrri guztien biztanleria osoaren % 63 bizi da.

Egokituriko seinaleztapena egoteari lotutako desberdintasun nagusiak, bestalde, udalerrien neurriari lotuta daude: izan ere, halako neurriren bat aplikatu duten 50.000 biztanletik gorako udalerrri guztien % 60 eta 1.000 biztanletik beherako guztien % 9,4. Nolanahi ere, inkestari erantzun dioten 50.000 biztanletik gorako udalerrri guztietatik bik diotenez, euren udal-egoitzetan ez dago araudira egokituriko adierazlerik eta seinalerik, edo ez diote galdera honi erantzunik eman.

Zeinuen hizkuntzaren kasuan bezala, inkestari erantzun dioten udalerriek, oro har, ez dute egoera hobetzeko asmorik, euren egoitzetako seinaleei dagokienez. Bederatzi udalerririk (egoitza guztietako seinaleak egokitu ez dituztela diotenen % 6,1) soilik dute egokituriko seinaleei lotutako proiektu zehatzik.

20. taula. EGOITZA GUZTIETAN, GEHIENETAN EDO BATZUETAN SEINALEZTAPEN EGOKITUA DUTEN UDALERRIAK

	Udalerrri kopurua	Talde osoari dagokion %
Araba	6	18,8
Bizkaia	9	13,6
Gipuzkoa	9	17,0
1.000 biz. baino gutxiago	6	9,4
1.000-5.000	7	16,3
5.000-10.000	2	12,5
10.000-50.000	5	21,7
50.000 baino gehiago	4	80,0
GUZTIRA	24	15,9

Beste alde batetik, kontsultaturiko udalerrietan ez dago jarraibide idatzirik, udal-egoitzetara itsu-txakurrak sartzeari buruz. Bi udalerritan (Lemoiz eta Santurtzi) halako jarraibideak daude, baina ez daude idatzita. Gainerako udalerrietan, korporazioak ez du horri buruzko jarraibiderik eman. Jarraibideak egon ez arren, udal-teknikariak ez daude ados horiek beharrezkoak izateari ala ez izateari buruz: horrela, inkestari erantzun dioten udalerrri guztien % 67k diotenez, ez dute halakorik, eta gainera, ez deritze beharrezko; % 29k diotenen arabera, halakorik ez dute, baina beharrezkotzat jotzen dituzte.

V. KAPITULUA

ARABAKO, BIZKAIKO ETA
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIEK
IRISGARRITASUNA KONTROLATZEKO
ETA SUSTATZEKO
DITUZTEN POLITIKAK

1. SARRERA ETA METODOLOGIA

Erabilera eta titularitate publikoa duten eraikinetako irisgarritasun egokia bermatzeko egindako jarduerak udalen ikuspegitik aztertu ondoren, kapitulu honetan Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiek irisgarritasun egokia kontrolatzeko eta sustatzeko garaturiko politikak aztertuko ditugu.

Txosten honen sarreran esan dugunez, horren helburu nagusia administrazio publikoek irisgarritasunaren arloan izandako konpromisoa baloratzen da (horien artean, foru administrazioak) baita indarreko araudian jasotako betebeharrak zein neurritan bete diren ikustea ere. Kapitulu honetan, horrenbestez, hiru aldundiek irisgarritasunaren arloan dituzten erantzukizunei emandako erantzuna aztertuko da, eta gainera, jasotako informazioaren arabera, jarduera horien eragina ebaluatuko da, biztanle guztiei irisgarritasun egokia bermatu ahal izateari dagokionez.

Aldundiek, kasu oso zehatz batzuetan izan ezik, ez dute eskumenik eraikinen kontrolari dagokionez, eta beraz, irisgarritasunaren arloan dituzten erantzukizun nagusiak honako hauek dira:

- Irisgarritasun egokia sustatzeko eta bultzatzeko politika aktiboak, kasuan kasuko lurralde- eta eskumen-eremuetan.
- Irisgarritasuna hobetzeko eta kontrolatzeko mekanismoak, biztanleei zerbitzuak emateko erabiltzen diren eraikinetan.

Ikerketa honen bitartez, gainera, foru-egoitzen irisgarritasunaren benetako egoera jakin nahi da. Horrenbestez, hiru hiriburu-udal egoitzen eta Eusko Jaurlaritzako egoitzen kasuan bezala, aldundi bakoitzak erantzukizun horiek betetzeko egindako jarduketan azterketa osatzeko, kanpoko balorazioa egin da, hiru lurraldeetan kokaturiko foru-egoitza kopuru handi baten irisgarritasunaren egokitasun mailari buruz.

Ikerketaren helburua bikoitza denez, informazio-bilketa bi bide osagarri erabiliz egin da:

- Irisgarritasuna sustatzeko politika aktiboak eta irisgarritasunaren egokitasuna kontrolatzeko mekanismoak deskribatzeko eta baloratzeko, hiru aldundietariko bakoitzean arlo horretako ardura duten teknikariak kontsultatu dira. Eredu desberdinak direnez, eta horien eskumenak ere foru-sail desberdinetan daudela kontuan hartuta, Arkitektura sailerako teknikariei eta Ekintza edo Gizarte Ongizate Saileran halako ardurak dituzten teknikariei egin zaie elkarrizketa. Gainera, beste sail batzuei ere informazioa eskatu zaie, esate baterako, Ogasun edo Garraio Sailei,

hori informazioa osatzeko beharrezkotzat jo denean. Praktikan, kasu guztietan elkarriketa pertsonalak egin dira, baina batzuetan kontaktuak telefonoaren eta postaren bidezkoak izan dira. Kasu guztietan, teknikariek emandako informazioa kanpoko informazio-iturriekin osatu da (batez ere, hiru aldundiek azken ekitaldiei buruz emandako memoriak eta foru-erakunde bakoitzaren araudia).

- Hiru hiriburuen eta Eusko jaurlaritzako egoitzen kasuan bezala, foru-egoitzetako irisgarritasunaren egokitasun-mailaren ebaluazioa kanpoko balorazioaren bitartez egin da, eta horretarako, laguntza eskatu zaie elbarritasun fisikoaren arloan lan egiten duten irabazi asmorik gabeko hiru erakunderi. Ikuskapenak egiteko erabilitako metodologia (sarrerako kapituluaren erakundeak), bestalde, horri buruzko atalean zehatzago jasota dago.

Kapitulu hau informazioa biltzeko erabilitako iturrien eta prozeduren arabera egituratuta dago. Lehenengo eta behin, irisgarritasun egokia sustatzeko politika aktiboak aztertzen dira, batez ere Ekintza edo Gizarte ekintza Sailek bultzatutakoak; gero, foru-egoitzetako irisgarritasunaren diagnostikoa, hobekuntza eta kontrola egiteko mekanismoak azaltzen dira; eta, azkenik, kanpoko ebaluazioaren arduradunek egindako ikuskapen-bisitaldien emaitzak eskaintzen dira.

2. FORU ALDUNDIEK IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO DITUZTEN POLITIKA AKTIBOAK

Lehen esan dugunez, erakundeek irisgarritasun egokia sustatzearen arloan dituzten betebeharrak ezartzean, 20/1997 Legeak bi jarduera mota baino ez ditu aipatzen: lau urterako planen idazketa eta irisgarritasun egokia sustatzeko finantza-neurriak. Bi xedapen horien betetze maila, horrenbestez, adierazlerik onena izango da, foru aldundiek irisgarritasun egokiaren arazoarekiko duten konpromiso maila jakiteko.

Legeak berariaz adierazitakoak ez ezik, gainera, irisgarritasuna sustatzeko politika aktibotzat katalogatzeko moduko beste neurri batzuk ere badaude, eta horiek ere agerian jartzen dute foru-administrazioek gai honekin duten konpromisoa; besteak beste, aipagarriak dira sensibilizazio-, heziketa- edo informazio-kanpainak, ikerketen prestakuntza, ikuskapeneko nahiz kontrolako mekanismoen ezarkuntza (eremu batzuetan) edo zerga-desgrabazioen aplikazioa (irisgarritasuna hobetzeari lotutako gastuetan). Halaber, aldundi bakoitzak gai honekiko duen konpromiso maila adierazteko, aipagarria da arlo horretan egindako gastua, zailtasun batzuk albo batera utzita hori guztiz zerbakarra baita.

Atal honetan, foru aldundiek egindako jarduera hauek aztertuko ditugu:

- Irisgarritasunari lotutako lau urterako planak egotea, lurralde guztietan.
- Banakako diru-laguntzak ematea.
- Zerga-desgrabazioak aplikatzea.
- Heziketako, sensibilizazioko, ikerketako edo informazioko jarduerak egitea.
- Irisgarritasun egokiak ikuskatzeko eta kontrolatzeko jarduera bereziak, gizarte-zerbitzuen arloan.
- Egindako ahalegin ekonomikoa.

2.1. **Irisgarritasunerako lau urteko planak**

Hiru foru aldundietariko ezeinek ez du orain arte egin irisgarritasunerako lau urteko planik, nahiz eta hori Irisgarritasuna Sustatzeari buruzko 4/1997 Legean berariaz ezarritako baldintza izan.

Gainera, hiru aldundietako bik (Arabakoa eta Gipuzkoakoa) euren egoitzen irisgarritasunaren baldintzen diagnostikoa eta egokitzapena egiteko jarduerak egin dituzte edo egiten ari dira. Halako jarduerak, praktikan, baliozkoak izan daitezke legean irisgarritasunari buruzko lau urterako plantzat ezarritakoari lehenengo hurbiltzea egiteko, baina agerikoa da ez direla halako planak¹³. Nolanahi ere, Arkitektura sailetatik bultzaturiko ekimenak direnez, halako planen edukia eta norainokoa kapitulu honetako beste atal batean aztertuko ditugu.

2.2. **Finantza neurriak: banakako laguntzak, diru-laguntzak eta zerga-desgrabazioak**

Irisgarritasunari buruzko lau urterako planak ezarri beharra ez ezik, 4/1997 Legeak aditzera ematen du Eusko Jaurlaritzak, foru aldundiek eta udalek kasuan kasuko eskumenak garatzean eta betearaztean, beharrezko sustapen neurriak bultzatuko dituztela, irisgarritasunaren egokitasuna eragiteko. Horri dagokionez, arauan ezarritakoaren arabera, arlo horretarako diru-laguntzak jaso ditzaketen programa berezietan, herri administrazioek honako jarduera hauek lehentasunezkotzat hartu ahal izango dituzte:

- Lehendik dauden hiri-inguruen, eremu publikoen, eraikinen, garraioen eta komunikazio sistemen irisgarritasunaren baldintzak egokitzeko obrak.
- Oinplano berriko, berrikuntzako edo birgaitzeko obrak, baldin eta manuzkoa izan arren, horien barruan mugikortasun urriko pertsonentzat erreserbatutako etxebizitzak sartzan badira.
- Etxebizitzan, zerbitzu komunitarioen edo irisgarritasunaren egokitzapen funtzionalak helburu dituzten berrikuntza obrak, mugikortasun urria edo irisgarritasunean arazoak dituzten pertsonentzat.
- Ibilgailu pribatuen edo taxien edo erabilera publikoko ibilgailu pribatuen lorpena eta egokitzapena, irisgarritasunaren egokitasunaren baldintzetara.
- Turismoko ostatuaren oinplano berrikuntzako edo birgaitzeko obrak, baldin eta, manuzkoa izan arren, mugikortasun urria, komunikazio arazoak edo, oro har, irisgarritasunean arazoak dituzten pertsonen lehentasunezko erabilerarako erreserbatutako ostatuak kontuan hartzen badituzte.
- Laguntza teknikoaren lorpena, hiri ingurua, eremu publikoak, eraikinak, garraioa eta komunikazioa irisgarritasunaren baldintzetara egokitu ezin direnean.
- Irisgarritasun egokiaren sustapena helburu duten beste jarduera batzuk.

13 Halako programek agiri hauek edukiko dituzte: a) Kanpoko eremuen, eraikuntzaren, garraioaren eta komunikazioaren inbentarioa duen katalogoa; b) Jarduketan lehentasun-ordena; c) Programa ekonomikoa eta finantzakoa; eta d) Egokitzapenak betearazteko egutegia.

Legeak adierazitako jarduera guztiak (diru-laguntza duten jarduerak) ez dira aldundien eremuan sartzen; hala eta guztiz ere, EAEko gizarte zerbitzuen arloan ezarritako eskumen-banaketaren arabera, horietariko asko erakunde horien eskumenekoak dira. Beste alde batetik, eraikinen, hirigintzaren, komunikazioaren edo garraioaren irisgarritasuna zedarritu ezin denez (irisgarritasuna sustatzeari dagokionez), atal honetan elbarritasuna edo mugikortasun arazoa dituzten pertsonak eremu publikoetara eta pribatuetara errazago sartzeko laguntza edo diru-laguntza guztiak aztertuko dira. Abiapuntu horretatik, kapitulu honetan hiru finantza-neurri mota aipatuko dira:

- autonomia pertsonalerako eta laguntza teknikoak lortzeko laguntza ekonomikoak;
- erakunde publikoei edo pribatuei emandako diru-laguntzak, garraioan, komunikazioan, hiri inguruan edo eraikinetan irisgarritasunaren baldintzak hobetzeko;
- zerga-desgrabazioen aplikazioa, irisgarritasuna hobetzeari lotutako gastuetarako.

Aldundi bakoitzak emandako banakako laguntza ekonomikoak hurrengo koadroan laburbilduta daude:

5. koadroa. IRISGARRITASUN EGOKIA SUSTATZEKO BANAKAKO LAGUNTZA EKONOMIKOAK

Araba	<p>– Urtero, Gizarte Ongizateko Foru Erakundeak laguntza-deialdia egiten du, elbarritasuna duten pertsonentzat, autonomia pertsonala bultzatzeko laguntzen eremuan. Laguntzen helburua pertsona horien bizi-kalitatea hobetzea, horien autonomia bultzatzea, garapen pertsonala eragitea eta gizarteratzea da, horiek egin beharreko gastuak konpentsatzeko dirulaguntza emanez, euren elbarritasuna kontuan hartuta; izan ere, halako gastuak egin behar izaten dituzte edozertarako, laguntza teknikoak eskatzeko edo beharrezko zerbitzuren bat jasotzeko. Eskatzailearen familia-unitatearen diru-sarreraren arabera dirulaguntza da, eta 2002an, familiaren diru-sarreraren muga (hiru kideko familien kasuan) 21.636 eurokoa zen. Laguntza horien barruan, besteak beste, honako hau sartzen da: irisgarritasunari lotutako arazoak, oztopo arkitektonikoak ezabatzea, ohiko etxebizitza eskuratzea, etxebizitzaren barrua egokitzeko laguntza teknikoak eta mugikortasun pertsonalerako laguntza teknikoak.</p> <p>2001ean 166 pertsonak 212 laguntza jaso zituzten, autonomia pertsonala errazteko; horietatik 48, beriz, 65 urtetik gorako pertsonen emantateak eman zitzaizkien, eta 164, ostera elbarritasun zuten pertsonen 2000n 298 laguntza eman ziren. 2002ko ekitaldirako, halako dirulaguntzei 357.602 euroko partida eman zitzaien. Dirulaguntzen guztizkoak aldagarria izan arren, esan daiteke 2001ean emandako dirulaguntzen batez bestekoa 2.000 eurokoa dela.</p> <p>– Gizarte Ongizateko Foru Erakundeak, beste alde batetik, bono-taxi deritzon programa garatu du, garraibide alternatiboa eskaintzeko, mugikortasun urria eduki eta taldeko garraio arruntak erabili ezin dituzten pertsonen garraibide alternatiboa eskaintzeko. Programa horretan, laguntza ekonomikoak ematen zaizkie, 30-70 euro bitarteko bonoen bidez, elbarritasuna duten pertsonen, eta horiek taxia erabiliko dute eguneroko joan-etorrietan. Programa Gizarte Ongizateko Foru Erakundearen eta Gasteizko, Amurrioko, Laudioko, Arrazua-Ubarrundiako eta Aguraingo udalerrien artean kudeatzen da, hitzarmen berezi baten bitartez.</p> <p>2002an, programak 160.000 euroko aurrekontua zeukan eta 450 pertsonari eman zion zerbitzua.</p>
Bizkaia	<p>– Gizarte Ekintza Sailak banakako laguntzak ematen dizkie elbarritasun fisikoak, psikikoak edo sentzoriala duten pertsonen, baldin eta zerbitzu jakina behar badute, eta laguntza zerbitzu horretarako da. Laguntza horiek aldi behingoak izan daitezke, eta, besteak beste, mugikortasunari, komunikazioari eta etxearen egokitzapen funtzionalari lotutako gastuetarako ematen dira. Oztopo arkitektonikoak ezabatzeko laguntzen zenbatekoa, eskatzailearen diru-sarreraren arabera, 1.502 eurotik 3.305 eurora bitartekoa izan daiteke. Arabako kasuan bezala, eskatzailearen errentaren arabera dira. Laguntzak lortzeko, gutxienezko puntuazioa lortu behar da, eskatzailearen egoera ekonomikoa, pertsonala, familiara eta gizartekoa kontuan hartzen duen baremo batean. 2002an, familien diru-sarreraren muga (hiru kideko familien kasuan) 21.636 eurokoa izan da.</p>

5. koadroa. IRISGARRITASUN EGOKIA SUSTATZEKO BANAKAKO LAGUNTZA EKONOMIKOAK (Jarraipena)

Bizkaia	<ul style="list-style-type: none"> – 2001ean, halako 228 laguntza ema dira (138 aldian behingoak eta 190 unean unekoak), eta horien zenbatekoa 265.000 eurokoa da. Horietatik guztietatik, 48 (82.000 euro) elbarritasuna duten pertsonen etxebizitzetako oztopo arkitektonikoa ezabatzeko erabili dira. 2002ko ekitaldirako, 360.000 euroko partida bideratu da halako dirulaguntzetarako.
Gipuzkoa	<ul style="list-style-type: none"> – Gizartekintzak urtero banakako laguntzen multzoa ematen die elbarritasuna duten pertsoneri; horien barruan, besteak beste, irisgarritasunerako eta oztopo arkitektonikoa ezabatzeko laguntza teknikoak sartzen dira. Laguntzen araudiak, bestalde, berreskuratzekoak diren eta ez diren laguntzak bereizten ditu, eta horietarako, gehienez 3.607 euroko zenbatekoa finkatzen du, eskatzailearen egoera soziala, ekonomikoa eta familiarikoa kontuan hartuta. Gainerako aldundien kasuan bezala, 25.000 eurotik gorako diru-sarrerak dituzten familiak (hiru kideko familiak) dirulaguntza hauen estalduratik kanpo gelditzen dira. 2001ean, 475 laguntza tekniko eman ziren (834.000 euro); horietatik 346 (518.000 euro) etxebizitzaren irisgarritasuna hobetzera bideratu ziren, eta 370 (310.000 euro), berriz, mugikortasuna hobetzera. Laguntza bakoitzaren batez besteko balioa 1.497 eurokoa izan zen, eta horri, gainera, berreskuratzeko moduko 201 laguntza tekniko egotea gehitu behar zaio. Programaren aurrekontu-mugen eraginez, ekitaldia amaitzean, 300 eskabide inguru erantzun gabe gelditu ziren. – Beste alde batetik, 2002ko amaieratik, Gizartekintzak dirulaguntza ekonomikoa ematen die elbarritasuna duten pertsoneri, joan-etorri pertsonaletarako, ohikoak ez diren jarduerak egiteko, taxien zerbitzua erabiliz, eta horren gehieneko zenbatekoa hilero 60 eurokoa da. 2001ean, 29.335 euroko gastua egin zen kapitulu honetan, eta horrek gastu osoaren % 50 adierazten du; gainerako % 50 udalen esku egon da. 2002rako, 24.000 euroko aurrekontua aurreikusi da. 2002ko urritik aurrera, arlo horretako eskumena Gizartekintzak bereganatu du oso-osorik.

Irisgarritasun egokia sustatzeko, erakunde publikoei eta pribatuei emandako diru-laguntzei dagokienez, aldundi bakoitzaren jarduerak hurrengo koadroan laburbilduta daude:

6. koadroa. ERAKUNDE PUBLIKOEI ETA PRIBATUEI IRISGARRITASUN EGOKIA SUSTATZEKO EMANDAKO DIRU-LAGUNTZAK

Araba	<ul style="list-style-type: none"> – Urtero, Herrilan eta Hirigintza Sailak lurraldeko udalerriei diru-laguntza bat ematen die, Arabako Lurralde Historikoko eremu publikoetarako irisgarritasunaren baldintzak hobetzeko, halako laguntzen azken deialdia 2003ko otsailaren 14an promulgatu da eta 450.759 euroko aurrekontua dauka; horrek % 100etik gorako hazkundea adierazten du, aurreko deialdiko aurrekontuan jasotako zenbatekoari dagokionez (210.000 euro). – Gasteizko Udalarekin sinaturiko hitzarmen baten bitartez, oinezkoen pasabideetan zintarriak ezabatzeko lanak egin dira; halaber, semaforo akustikoak instalatu, erreseraturiko aparkalekuak seinalezatu, arrapalak egin eta eraikinetan sartzeko oztopoak ezabatu dira. Hitzarmena hamar urte ingurutik honako da, eta 2001ean hitzarmen honen kontura, 400.000 euroren balioko obrak finantzatu ziren, eta horietatik 180.000 Foru Aldundiak eman zituen. – Gainera, ONCEREkin eta IMSERSOREkin sinaturiko beste hitzarmen bat dago, irisgarritasunari buruzko lau urterako lanen idazketa finantzatzeko, Arabako udalerrietan. Hitzarmen horren bitartez (berorren onuradunak dira, Amurrio, Agurain, Langraiz Oka, Legutio, Oion eta Kanpezu), ONCE Fundazioak planaren kostu osoaren bi heren ematen ditu, eta Aldundiak gainerako herena. Ez dago deialdi publikorik eta, urtero, Foru Aldundiak berak erabakitzen du diru-laguntzak zein udalerriri har ditzakeen. Guztira, Gizarte Ongizateko Fondoak 32.189 euro eman ditu hitzarmen honetarako. – Hitzarmen bat dago, Arabako Gurutze Gorriarekin eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin batera, egokituriko garraio-zerbitzuak emateko, ohiko garraio bideak erabili ezin dituzten pertsoneri. 2001ean, hitzarmen honen barruan, 160 pertsonari eman zitzaizkien laguntza.
--------------	---

6. koadroa. ERAKUNDE PUBLIKOEI ETA PRIBATUEI IRISGARRITASUN EGOKIA SUSTATZEKO EMANDAKO DIRU-LAGUNTZAK (Jarraipena)

Araba	<ul style="list-style-type: none"> - Aldundiak, gainera, diru-laguntzen deialdi publikoa egiten du, bidaiarien garraio publikoen irisgarritasuna hobetzeko, eta diru-laguntza horren jasotzaileak sektoreko enpresak dira, baita taxista autonomoak ere 2001ean, laguntzak hiru konpainiari eman zitzaizkien, eta horrela, lau autobus eta taxi bat egokitu ziren. Gasteizko udalarekin ere hitzarmena dago eta, horren bitartez, hiriko autobusen irisgarritasuna hobetzeko ekintzak egiten dira. - 2002an, 10.000 euro baino gehiago bideratu ziren, entzumen arazoak dituzten pertsonen elkaratek abiatutako programetara; 2003an, berriz, hitzarmena sinatuko da Gasteizko Udalarekin eta Gorraren Zentroarekin, zeinuen hizkuntzaren interpreteak edukitzeko. Hitzarmen horren eremuan, erakunde horietariko bakoitzak 10.000 euro emango ditu. - 2001ean, Gizarte Ongizateko Fondoak 43 diru-laguntza eman zizkien irabazi asmorik gabeko elkarteei, euren zentroak birgaitzeko, berritzeko, kontserbatzeko edo hornitzeko. Fondo horietariko batzuk, agian, oztupoak ezabatzeko edo irisgarritasun hobea sustatzeko erabiliko ziren; hala ere, ez da horretarako diru-laguntzen eskari berariazkorik egin, besteak beste, lurraldeko erakunde pribatuetako instalazioak egoera onean baitaude irisgarritasunaren aldetik.
Bizkaia	<ul style="list-style-type: none"> - Bizkaiko Foru Aldundiko Gizartekintza Sailak diru-laguntza bereziak ematen ditu, zentro edo eremu publikoetako irisgarritasuna hobetzeko. Hala eta guztiz ere, elbarritasuna duten pertsonak gizarteratzeko eta laguntzeko zentroetarako diru-laguntzak emateko orduan, irizpide berezitat, 12 puntuko gehieneko puntuazioa eta indarreko legeriarako egokitzapena ezartzen dira, besteak beste, oztupo arkitektonikoak ezabatzearen arloan. Ezinezkoa da, nolana ere, zenbat diru-laguntza eman diren jakitea, zentroetan halako inbertsioak egiteko. - Gizartekintza eta Garraio Sailek, bestalde, Gurutze Gorriaren eta Bidaideak elkaratearen programetarako diru-laguntzak ematen dituzte, egokituriko garraioari dagokionez. Garraio Sailak ibilgailuak lortzeko emandako diru-laguntza, 2001ean, 8.134 eurokoa izan zen Bidaideak elkarterako, eta 40.017 eurokoa Gurutze Gorrirako. - 2001ean, Garraio Sailak 300.000 euro eman zituen, garraio publikoko ibilgailuen egokitzapenerako, hain zuzen ere, ibilgailu horiek Irisgarritasunari buruzko Legeak garraio publiko erregulartarako ezartzen dituen baldintza teknikoetara egokitzeko. Urte horretan, lau ibilgailurako eskabide bat egon zen, autobusez La Unión S.A. enpresak sinatua.
Gipuzkoa	<ul style="list-style-type: none"> - Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen Sailak, 1997tik, lau hitzarmen sinatu ditu ONCE Fundazioarekin eta IMSERSOrekin, oztupo arkitektonikoak ezabatzeko eta irisgarritasuna hobetzeko obretarako diru-laguntzak emateko, Gipuzkoako udalerriei; guztira, lau hitzarmen horien bitartez, irisgarritasunari buruzko 20 plan finantzatu dira (Getaria Hondarribia, Mutriku, Ordizia, Pasaia, Soraluze, Urretxu, Zizurkil eta Zumaia, 1997an; Eibar, Eskoriatza eta Zumarraga, 1998an; Beasain, Elgoibar, Oiartzun, Erreterria eta Zestoa 2000n; eta Azkoitia, Bergara eta Lezo, 2001ean). 1999an, hitzarmen hau sinatu ez arren, eta laguntza lerro hori ez eteteko, Gizartekintzak bere kontura eskaini zuen Debako, Orioko, Billabonako eta Andoaingo planen idazketa. Orain arte, 24 udalerrri horien ikerketen kostua 715.000 eurokoa izan da, eta horietatik, 330.000 euro Gizartekintzak berak finantzatu ditu. - 2001ean, Gizartekintzak diru-laguntzak eman zituen oztupo arkitektonikoak ezabatzeko eta gizarte zerbitzuen kudeaketarako bulegoak gaitzeko, Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerrietan. 18 laguntza eman ziren (360.607 euro), 18 udalerritako oztupo arkitektonikoak ezabatzeko. Diru-laguntzaren barruan oztupoak ezabatzeko obra guztien % 30 sartzen zen, eta irisgarritasunari buruzko plana edo oztupo arkitektonikoak ezabatzeko plan orokorra onetsita eta indarrean zuten udalerriei bideraturiko diru-laguntza zen. Deialdia 2001ean soilik egin zen. Diru-laguntza jaso zuten obren zenbateko osoa (Aldundiaren eta udalerrien ekarpena kontuan hartuta) 1.202.024 eurokoa izan zen. - Gizartekintzak gizarte zerbitzuen arloko inbertsiorako diru-laguntza multzorako deialdia egiten du urtero, Gipuzkoako Lurralde Historikoan, Gizarte Lankidetzako Planaren barruan; horren bitartez, diru-laguntza ematen zaie gizarte ongizatearen barruan lan egiten duten erakunde publikoei eta pribatuei. <ul style="list-style-type: none"> • Plan honen barruan, boluntario-erakundeen programak finantzatzeari dagokionez (Gizalde programaren bidez), 2002an 42.000 euro banatu ziren; horietatik, gutxi gorabehera 4.000 euro irisgarritasuna hobetzera bideratu ziren. Era berean, bi hitzarmen sinatu ziren, elbarritasun fisikoa eta sentzoriala duten pertsonen bi elkarterekin; guztira 11.000 euro izan ziren, eta horiek, neurri batean irisgarritasunaren egokitasuna sustatzera bideratu ziren.

6. koadroa. ERAKUNDE PUBLIKOEI ETA PRIBATUEI IRISGARRITASUN EGOKIA SUSTATZEKO EMANDAKO DIRU-LAGUNTZAK (Jarraipena)

Gipuzkoa

- Beste alde batetik, zerbitzuetarako eta zentroetarako laguntzen Planaren barruan, Gizartekintzak 19 milioi euro bideratu ditu, 1999tik 2002ra bitartean, zahar-etxeetarako, adinekoen zentroetarako, gizarte bazterkerian dauden pertsonen zentroetarako eta elbarritasuna duten pertsonen zentroetarako. Ez dago daturik, bestalde, irisgarritasuna hobetzera bideratu den kopuruari buruz. Nolanahi ere, kontuan hartu behar da lehenengo bi urteetan % 40 egokitzapen eta berrikuntza obretara bideratu zela, eta neurri batean, laguntza horien zati handia oztupoak ezabatzea bideratzen dela. Horrenbestez, esan daiteke, irisgarritasuna hobetzera 600.000 eta 900.000 euro inguru bideratu direla urtero.
- 1993tik, Aldundiko Garraio Sailak fondo galdurako diru-laguntza multzoa eman du bidaiariaren garraio irregularra mugikortasun urriko pertsonen beharrianetara egokitzeko. 2001ean, 811.000 euroko diru-laguntza eman zen zortzi autobus eskuratzeko; horietatik, lauk plataforma baxua zuten, mugikortasun urriko pertsonak errazago sartzeko. 2002an dekretu berri baten bitartez, gaiari buruzko araudia gaurkotu eta aurrekontua nahiz laguntzen baldintzak handitu zituen.

Foru aldundiek irisgarritasuna sustatzeko abiatutako finantza-neurriak dagokienez, azkenik, aipagarriak dira elbarritasunari lotutako gastuei aplikaturiko zerga-salbuespenak eta desgrabazioak. Aldundi bakoitzak abiatutako zerga-politikak hurrengo koadroan jasota daude:

7. koadroa. IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO ZERGA-LAGUNTZAK

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga

Hiru lurralde historikoetako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga arautzen duten Foru Arauetan ezarritakoaren arabera, ohiko etxebizitzarako murrizketaren arauketaren barruan, zerga-hobaria dago, elbarritasuna duten pertsonak bizi diren etxebizitzetako irisgarritasuna hobetzeko. Zerga-hobari hori, bestalde, elbarritasuna duten pertsonak ohiko etxebizitzaren barruan errazago ibiltzeko egindako obretara edo instalazioetara bideratzen da, etxebizitzan egindako inbertsioetat. Halaber, eraikineko elementu komunetan egindako aldaketak (hiri-finkaren eta bide publikoaren arteko denrigorrezko igarobideak) ere halakotzat hartzen dira, baita elbarritasuna duten pertsonen komunikazio sentsorialeko edo segurtasun mailako oztupoak gainditzeko balio duten dispositibo elektronikoak aplikatzeko behar direnak ere. Murriztapenaren zenbatekoa % 15ekoa da, halako kontzeptuetan inbertituriko zenbatekoei dagokienez, eta horren aplikazioa, gainera, errentamenduko, azpierreantamenduko eta usufuktuko kasuetara ere hedatzen da.

Araba

- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 16ko 35/1998 Foru Arauko 77. artikuluan ezarritakoaren arabera, kasu batzuetan % 15eko murriztapena aplikatu ahal zaie ohiko etxebizitzan egindako inbertsio-gastuei. 86/1999 Foru Dekretuko 34. artikuluan ezartzen denez, elbarritasuna duten pertsonen komunikazio-eta segurtasun-oztupoak gainditzeko egokitzapen- eta aldaketa-obretarako zenbatekoak (pertsona horiek okupaturiko etxebizitzari edo euren ohiko bizitzako elementu komunei dagokienez), berriz, ohiko etxebizitzan egindako inbertsioaren eraginezko murriztapentzat hartuko dira. Halaber, kontzeptu honen barruan sartuko dira, elbarriak errentarizat, azpierreantarizat edo usufuktuduntzat okupaturiko etxebizitzetan egindako egokitzapeneko obrak eta instalazioak (111/2001 Foru Arauko 62.I.d) artikuluko araudi gehigarria).

7. koadroa. IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO ZERGA-LAGUNTZAK (Jarraipena)

<p>Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga</p>	<p>Bizkaia</p> <ul style="list-style-type: none"> - Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 21eko 10/1998 Foru Arauak, ohiko etxebizitzan egindako murriztapenaren arauketaren barruan, zergahobari jakina ezartzen du, irisgarritasuna hobetzeko, elbarritasuna duten pertsonentzako etxebizitza egokituta. Murriztapena, bestalde, inbertsioaren kontzeptuan 100eko 15 ekitaldian inbertituriko zenbatekoari aplikatzearen eraginezkoa izango da, horren konturako gastuak aintzat hartuta. Horri dagokionez, 132/2002 Foru Dekretuko 57 1-d) artikuluan, ohiko etxebizitzan egindako obren edo instalazioen ondoriozko murriztapena jasotzen da, horiek etxebizitza hobetzeko, eta horrela, elbarritasuna duten pertsonak bertan errazago ibiltzeko egiten direnean; era beran, eraikineko elementu komunuen aldaketa ere jasotzen da, baldin eta horiek, ezinbesteko igarobideak badira hiri-finkaren eta bide publikoaren artean; azkenik, elbarritasuna duten pertsonen komunikazio sensorialeko edo segurtasun mailako oztipoak gaintzeko balio duten dispositibo elektronikoen aplikaziorako behar diren aldaketak ere jasota daude. Kontzeptu honen barruan, bestalde, elbarriak errentarizat, azpierrezarizat edo usufruktuduntzat okupaturiko etxebizitzaren egokitzapeneko obrak eta instalazioak ere sartzen dira. - Ez dago daturik, beste alde batetik, etxebizitzan egindako murriztapen honek kuota likidoan duen kostuari buruz. Elbarritasuna duten pertsonen etxebizitza lortzeari buruzko tratamendu berezia, berriz, zergadunen multzo osoari aplikaturiko murriztapenaren gutzitza jasota dago. <p>Gipuzkoa</p> <ul style="list-style-type: none"> - Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudia onetsi duen abenduaren 18ko 68/2001 Foru Dekretuko 62. artikuluan adierazitakoaren arabera (8/1998 Foru Araua), ohiko etxebizitza lortzeari asimilatuko zaizkio, ohiko etxebizitzan egiten diren egokitzapeneko obrak eta instalazioak, baita eraikinetako elementu komunetan egindako aldaketak ere, baldin eta horiek beharrezkoak badira, hiri-finkatik bide publikora igarotzeko (esate baterako, eskailerak, igogailuak, korridoreak, atariak edo gainerako elementu arkitektoniko guztiak), eta elbarritasuna duten pertsonen komunikazio sensorialeko edo segurtasun mailako oztipoak gaintzeko balio duten dispositibo elektronikoen aplikaziorako behar direnak ere bai. Kontzeptu honen barruan, gainera, elbarriak errentarizat, azpierrezarizat edo usufruktuduntzat okupaturiko etxebizitzak egokitzeko obrak eta instalazioak ere sartzen dira. Arau horretan ezarritakoaren arabera, inbertsio-kontzeptuko murriztapena ohiko etxebizitzan egindako inbertsiorako zenbatekoei 100eko 15 aplikatzearen ondoriozkoa izango da. - Ez dago daturik, beste alde batetik, etxebizitzan egindako murriztapen honek kuota likidoan duen kostuari buruz. Elbarritasuna duten pertsonen etxebizitza lortzeari buruzko tratamendu berezia, berriz, zergadunen multzo osoari aplikaturiko murriztapenaren gutzitza jasota dago.
<p>Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ)</p>	<p>Zerga honetan, mota murriztuan ordainduko du (% 4) elbarrien aulkien erosketak, martxoaren 2ko 339 /1990 Legegintzako Errege dekretuko eranskineko 20. zenbakian aipatutakoak. Dekretu horren bitartez, Trafikoari, Motorreko Ibilgailuen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legeko eta elbarritasuna duten pertsonentzako gurgildun aulkiei buruzko testu artikulatua onetsi da. Halaber, mota murriztuan ordainduko dute autotaxi edo autoturismo bereziztat erabili beharreko ibilgailuek, elbarritasuna duten pertsonak gurgildun aulkian garraiatzeko, bai zuzen-zuzen edo bai egokitzapen egokia egin ondoren.</p> <p>Araba</p> <ul style="list-style-type: none"> - 12/1993 Arauzko Foru Dekretuko 91. artikuluan, desgrabazioa arautzen da. Otsailaren 20ko 21/1996 Foru Dekretuak, berriz, zenbait aldaketa sartu ditu Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Araudian; besteak beste, aipagarriak dira elbarritasuna duten pertsonentzako automobilerik, gurgildun aulkiei eta ondasunok konpontzeko zerbitzuei buruzkoak. <p>Bizkaia</p> <ul style="list-style-type: none"> - Balio Erantsiaren gaineko Zergari (BEZ) buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Arauko 91. artikuluan, mota murriztuan edo oso murriztuan ordaindu duten ondasunen prestazio edo emate batzuk ezartzen dira. Horrela, 91. artikuluan ezarritakoaren arabera, % 4ko tasa aplikatuko zaio elbarritasuna duten pertsonen egindako ibilgailuen erosketari, baita elbarriak gurgildun aulkian garraiatzeko autotaxiei eta autoturismoei ere.

7. koadroa. IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO ZERGA-LAGUNTZAK (Jarraipena)

Balio Erantsiaren gainerako Zerga (BEZ)	<p>Gipuzkoa</p> <ul style="list-style-type: none"> – Elbarritasunari lotutako arloan egindako beste salbuespen eta murriztapen batzuekin batera, horiek irisgarritasun egokiaren sustapenari zuzen-zuzen lotua egon ez arren, abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuko 91. artikulua ezarritakoaren arabera (Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga-araudia Balio Erantsiaren gainerako Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legea egokitzen duena), 100eko 4ko tasa aplikatuko zaie martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuko eranskineko 20. zenbakian aipatutako lorpenei (elbarrien automobilen lorpeneak, elkarte barrukoak edo inportatuak). Dekretu horren bidez, Trafikoari, Motorreko Ibilgailuen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legeko eta elbarritasuna duten pertsonentzako gorpildun aukiei buruzko testu artikulatua onetsi da. Halaber, mota murriztuan ordainduko dute autotaxi edo autoturismo berezitat erabili beharreko ibilgailuek, elbarritasuna duten pertsonak gorpildun aukian garraiatzeko, bai zuzen-zuzen edo bai egokitzapen egokia egin ondoren; gainera, elbarritasuna duten pertsonentzako protesi, ortesi eta inplantei ere tasa horixe aplikatuko zaie.
Garraibide jakinen gainerako Zerga	<p>Ez dira zerga honi lotuta egongo martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuaren eranskineko 20. zenbakian aipaturiko elbarrien automobilak; dekretu horren bitartez, Trafikoari, Motorreko ibilgailuen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legeko testu artikulatua onetsi da. Halaber, salbuespen egongo dira elbarritasuna duten pertsonen izenean matrikulaturiko automobilak, erabilera eskusibokoak direnean, baldin eta baldintza jakinak betetzen badituzte.</p> <p>Araba</p> <ul style="list-style-type: none"> – Urtarrilaren 19ko 137/1993 Foru Dekretuak eta otsailaren 23ko 99 /1993 Foru Dekretuak arautu egiten dituzte elbarritasuna duten pertsonen erabilitako ibilgailuen matrikulazioan aplikatu beharreko salbuespenak. Araudi gehigarria: 1/1999 Zerga Larritasuneko Arauzko Dekretuko 71. artikulua eta 94/1995 Foru Dekretua. <p>Bizkaia</p> <ul style="list-style-type: none"> – Bizkaian Garraibide Jakinen gainerako Zerga Berazia aplikatzeari buruzko urtarrilaren 12ko 17/1993 Arauzko Foru Dekretuan, zergaren salbuespena ezartzen da lehenengo matrikulaziorako, elbarritasuna duten pertsonen izenean matrikulaturiko automobilen kasuan, horien erabilera eskusiboa denean, baldin eta baldintza jakinak betetzen badira. Araudi gehigarria: 1/1993 Arauzko Foru Dekretua.. – Horri dagokionez, Bizkaian, 2001ean, 1.380 espediente kudeatu ziren, elbarritasuna zuten pertsonen izenean matrikulaturiko ibilgailuei buruz, eta salbuespen zerga-oinarria 20,36 milioi eurokoa da. Aplikatu beharreko tasa % 7 edo % 12 izango zela kontuan hartua, bildu barik utzitako 1,4 eta 2,4 milioi euro bitartekoa da. <p>Gipuzkoa</p> <ul style="list-style-type: none"> – Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga-araudia Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legean ezarritakora egokitzen duen martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretuko 70. artikuluan ezarritakoaren arabera, zergari lotua egongo dira, besteak beste, Espainiako estatuaren automobil berriak edo erabiliak behin betiko matrikulatzea (lehenengo matrikulazioa), hau da, motorrekin dabilen automobilak, bide edo lur publikoetatik zirkulatzeko; bertatik salbuespen egongo dira, besteak beste, Trafikoari, Motorreko Ibilgailuen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legeko testu artikulatua onetsi duen martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuko eranskineko 20. zenbakian aipatutako elbarrien ibilgailuak. Era beran, salbuespenei, itzulketei eta murriztapenei buruzko 71. artikuluan ezartzen denez, Zergatik salbuespen egongo dira elbarrien izenean matrikulaturiko ibilgailuen behin betiko lehenengo matrikulazioa (baita horri lotutako beste garraibide batzuen matrikulazioa ere), horiek erabilera eskusibokoak direnean, baldin eta baldintza jakinak betetzen badira. Araudi gehigarria: 1/1993 Foru Dekretua. – Zerga honen zerga-oinarriari aplikatzeko moduko zerga-tasa % 7 edo % 12 izan daiteke, ibilgailuaren ezaugarri fisikoaren arabera. % 9,5eko batez bestekoa kontuan hartuta, salbuespen kuota, Gipuzkoan, 1,42 milioi eurokoa izan da 2000n (1.142 onuradun); 1,46koa 2001ean (1.085 onuradun), eta 1,48koa 2002an (995 onuradun).

7. koadroa. IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO ZERGA-LAGUNTZAK (Jarraipena)

Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga

Zerga honen kudeaketa eta bilketa udalerrien eremuan egiten da, eta berori arautzen duten foru arauak honako salbuespen hauek eskaintzen dituzte, elbarritasuna duten pertsonen irisgarritasunari dagokionez:

- Martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako errege Dekretuko eranskineko 20. zenbakian aipatutako elbarrien automobilak; dekretu horren bitartez, Trafikoari, Motorreko Ibilgailuen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legeko testu artikulatua onetsi da.
- Elbarritasun fisikoa duten pertsonen gidatzeko egokituta dauden ibilgailuak, baldin eta 14 edo 17 zaldi fiskaletik beherako potentzia badute eta elbarritasun edo ezgaitasun fisikoa duen pertsonenak badira, elbarritasun hori % 65etik beherakoa edo % 65ekoa nahiz hortik gorakoa denean, hurrenez hurren..
- 17 zaldi fiskaletik beherako potentzia kontuan hartuta, auto turismo bereziek erabili behar dituzten ibilgailuak, elbarriak gurpildun aulkian garraiatzeko, bai zuzen-zuzen edo bai aurretiazko egokitzapenaren bidez.

Araba

- Desgrabazioa Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergari buruzko uztailaren 19ko 14/1989 Foru Arauko 2. artikularen bitartez arautzen da.

Bizkaia

- Gainerako lurraldeen kasuan ez bezala, Bizkaiko Lurralde Historikoan zerga hau arautzen duen 7/1989 Foru Arauak atal honen salbuespena luzatu egiten du, halako ibilgailuakitsuak garraiatzeko erabiltzeko kasuetan.

Gipuzkoa

- Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 14/1989 Foru Arauko 2. artikuluan ezartzen denez, zergatik salbuetsita egongo dira, besteak beste, martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuko eranskineko 20. zenbakian aipaturiko elbarrien automobilak (Trafikoari, Motorreko Ibilgailuen zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legeko testu artikulatua onetsi duen dekretua), baita elbarritasun fisikoa duten pertsonen gidatzeko egokiturik daudenak ere, baldin eta 14 edo 17 zaldi fiskaletik beherako potentzia badute eta elbarritasun edo ezgaitasun fisikoa duten pertsonenak badira, elbarritasun hori 100eko 65etik beherakoa edo 100eko 65ekoa nahiz hortik gorakoa denean, hurrenez hurren. Halaber, 17 zaldi fiskaleko potentzia gainditu ez arren, elbarritasuna duten pertsonak gurpildun aulkian garraiatzeko erabiltzen diren ibilgailuak ere bai, bai zuzen-zuzen edo bai aurretiazko egokitzapenaren bidez. Horri dagokionez elbarritat hartuko dira 100eko 33ko edo hortik gorako elbarritasuna dutenak, Gizarte Segurantzari buruzko Legeko Testu Bategina onetsi duen ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuko 148.1 artikuluan ezarritako baremoaren arabera.

2.3. Aldundiek irisgarritasuna sustatzeko egindako ahalegin ekonomikoa

Txosten honen helburua ez da foru aldundiek irisgarritasunaren sustapenari lotuta egindako gastu guztiak zehatz azaltzea. Hala eta guztiz ere, egindako jarduketari buruzko txostena egin den informazio-bilketak (batzuk, eta ez guztiak, zenbakigarriak izan diren neurrian) adierazle interesgarri batzuk eskaintzen ditu, arlo honetan egindako ahalegin ekonomikoari buruz. Orientazio modura, aldundi bakoitzak irisgarritasuna sustatzeko

finantza-neurrien arloan egindako jarduerak honako koadro honetan laburbilduta daude¹⁴:

21. taula. IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO FINANTZA-NEURRIAK, LURRALDE HISTORIKOEN ETA NEURRI MOTAREN ARABERA

Laguntza	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Autonomia pertsonalerako laguntzak	357.602	360.000	834.032
Taxi-bonoa	160.000	A	24.000
Irisingarritasuna hobetzen diharduten erakundeei emandako dirulaguntzak	B	B	B
Udalei oztipoak ezabatzeko eta planak idazteko emandako dirulaguntzak	662.000	A	690.000
Garraioak egokitzeko eta egokituriko garraioko zerbitzuetarako laguntzak	B	420.000	810.000**
PFEZren desgrabazioa	B	B	B
BEZren desgrabazioa	B	B	B
Matrikulazioaren gaineko zergaren salbuespena	B	1.9000.000*	1.466.809

A. Ez da neurri horren berririk eman.

B. Neurria egon badago, baina ez dago konparatzeko moduko datu ekonomikorik.

* Emandako informazioan oinarrituz kalkulaturiko neurria.

** hori neurri batean soilik bideratu da bidaiarien garraio erregularraren egokitzapenera.

Taulak agerian jartzen ditu foru aldundiek irisingarritasuna sustatzearen arloan egindako ahalegin ekonomikoari lotutako gai interesgarri batzuk. Gastuaren bolumenari zuzen-zuzen lotutako arloak ez ezik, foru aldundiek irisingarritasuna sustatzeko bultzaturiko finantza-neurria ere aipa daitezke.

- Hiru aldundiek gastu handia egiten dute arlo honetan, eta azken urteotan gutxienez 7,5 milioi euro bideratu dituzte bertara. Aztertutako aldian, aldundiek, gutxienez, biztanle bakoitzeko 3,5 euroko gastua egin dute irisingarritasunean¹⁵.
- Hala eta guztiz ere, lurraldeen arabeko desberdintasun oso handiak daude: zerga salbuespenei lotutako gastuak albo batera utzita (EAE osoko gastu bateratuak), biztanle bakoitzeko gastua 0,75 eurokoa da Bizkaian, 3,3 eurokoa Gipuzkoan eta 4,1ekoa Araban¹⁶.
- Laguntza guztien artean, aipagarria da zerga-desgrabazioen garrantzia. Izan ere, informazio ekonomikoa eman diguten laguntzen multzo osoaren barruan, itxuraz garrantzi txikikoa den neurri bat (elbarritasunen bat duten gidariei matrikulazio-zergaren salbuespena egitea) garestiena izan daiteke: Bizkaian eta Gipuzkoan, 2001eko ekitaldian, 3,3 milioi euro inbertitu dira horretan. Hala eta guztiz ere,

14 Izan ere, taulako emaitzak gutxi gorabehera interpretatu behar dira, era askotako iturriak erabili direla kontuan hartuta. Aipagarria da, gainera, ekitaldi desberdinetako informazioa jaso dela; kasu batzuetan, aldian behingo gastuak izan dira, eta beste zenbait kasutan, anean uneko gastuak, eta gainera, lurralde batzuen eta besteen laguntzak ez dira beti kontzeptu berberen arabekoak, eta batzuetan, irisingarritasunari zuzen-zuzen lotuta egon ez baina partida berberetan sartuta dauden gastuak jaso dira. Hala eta guztiz ere, datuak oso interesgarriak dira arlo horretan egindako ahalegin ekonomikoa jakiteko.

15 Gogoratu beharra dago, nolahi ere, zenbateko horiek ez dagozkiola aipatutako jarduera guztien multzoari, informazio ekonomikoa eman diguten jardueri baizik.

16 Ídem.

zoritzarrez, ezin izan da kalkulatu foru ogasunek aplikaturiko salbuespenen eta desgrabazioen multzoaren eraginezko batuketa; dena dela, bistan da kantitate handia dela, irisgarritasunari lotutako gainerako gastuekin konparatuta. Nolanahi ere, aditzera eman behar da zerga-laguntzarik gehienak (PFEZi buruzkoa izan ezik) motorreko ibilgailuetara bideratzen direla.

- Bestalde, aipagarria da banakako laguntzetara bideraturiko aurrekontuetan dagoen desberdintasuna; hiru lurralde historikoetan per capita zenbateko oso desberdinak eskaintzen dituzte, eta pentsa daiteke hirurak direla txikiak. Egin-eginean ere, laguntza horietara zenbatekorik handiena bideratzen duen lurraldean bertan ere, 2001ean erantzunik gabeko laguntza-eskabideak egon ziren, hurrengo urterako utzitakoak, aurrekonturik ez egotearen eraginez. Gainera, laguntzak diru-sarrereren maila jakina duten familietara bideratuta egotean, elbarritasuna duten gainerako pertsonak salbuetsita gelditzen dira.
- Halaber, aipagarriak dira Arabak eta, batez ere, Gipuzkoak obrak egiteko eta udal-planak idazteko diru-laguntzetara bideraturiko zenbateko garrantzitsuak. Gipuzkoaren kasuan, 1997tik egindako ahalegin jarraikiaren ondorioz (ia 700.000 euro, arlo horretan, txosten honetako lehenengo kapituluaren esanenez, Lurralde Historikoan Irisgarritasuna Sustatzeko Lau Urterako Plana duen udalerrri kopuru handiagoa dago, baita irisgarritasun egokiaren maila handiagoa ere. Arabaren kasuan, inbertituriko zenbatekoaren zatirik handiena (450.000 euro) 2003an udalerrietan obretarako diru-laguntzen aurrekontuari dagokiona da, eta beraz, esan behar da politika horrek oraindik ez duela emaitzarik sortu.
- Halako diru-laguntzak ez ezik (gutxienez, 1,4 milioi euro, udalerrietan helburu berbererako beste laguntza batzuk ere badaude, Eusko Jaurlaritzako etxebizitza Sailak emanak; horrenbestez, pentsa daiteke laguntza horiek apur bat ezkutatu egiten direla (hori kezkarria da, kontuan hartuta, aurrerago adieraziko dugunez, ekitaldi batzuetan udalerrietarako diru-laguntza horiek ez direla guztiz banatu, eskatzaileak ez egotearen ondorioz. Horrenbestez, dirudienek, baliabide ekonomiko mugatuko testuinguru batean, komenigarria da eginkizunak garbiago banatzea administrazioen artean, neurri interesgarri batzuk diru-laguntza barik ez uzteko, beste zenbaitek bide desberdineko laguntzak pilatzen dituzten bitartean.

2.4. **Irisgarritasuna ikuskatzeko eta kontrolatzeko jarduerak**

Lehen esan dugunaren arabera, erabilera publikoko egoitzen irisgarritasuna kontrolatzeko eskumen nagusiak udalek dituzte, horiexek baitira arduradunak, eraikin edota establezimendu publiko guztietan obrak egiteko lizentziak emateari eta horiek irekitzeari dagokionez. Foru aldundiek, hala eta guztiz ere, zerbitzu batzuk kontrolatzeko eta ikuskatzeko eskumenak dituzte, esate baterako, gizarte zerbitzuak emateko zentron kasuan, eta horiek txosten honen eremuan aztertu behar dira, eragin handia baitute irisgarritasun egokia bermatzeko orduan.

Egin-eginean ere, foru aldundiek beste arlo batzuetan ere eskumenak dituzte, irisgarritasunaren kontrolean (esate baterako, garraioaren eta hirigintzaren arloetan); hala eta guztiz ere, honako bi arrazoi hauengatik sartu ditugu kapitulu honetan:

- alde batetik, jarduera-eremu honetan, zerbitzuen oraingo mapa kontuan hartuta, aldundiek funtsezko eginkizuna dute, eta bertan (Garraio Sailean ez bezala),

ekipamendu arkitektonikoen sare zabala sortu da, eta txosten hau arlo horretan oinarritu da;

- Beste alde batetik mugikortasun arazoak dituzten pertsonak erabilitako zerbitzuak dira, eta, horrenbestez, lehentasunezko arreta justifikaturik dute txosten honen barruan.

Horrenbestez, foru aldundien jarduketek (gizarte zerbitzuak emateko zentroyen baimenari, ikuskapenari eta homologazioari lotutako jarduerak) irisgarritasuna zein neurritan kontuan hartzen duten eta hori hobetzeko zer ahalegin egiten duten aztertzeko saiakuntza egin dugu. Informazioa, bestalde, elkarrizketa pertsonalen eta telefonoaren bidezko kontsulten bitartez jaso dugu; elkarrizketa horiek, berriz, hiru aldundietako Gizarte Ongizateko sailen Ikuskapeneko eta Kontroleko Zerbitzuen arduradunekin egin ditugu.

Horiatariko bakoitzak gauzaturiko mekanismoak eta prozedurak, bestalde, hurrengo taulan laburbilduta daude. Horiek azaltzen hasi baino lehen, hala ere, ohar batzuk egin behar ditugu, arloari buruzko araei buruz, horrek eragin zuzena baitauka azaldu beharreko ikuskapen-gaitasunean. Gizarte Zerbitzuei buruzko urriaren 18ko 5/1996 Legeak foru aldundiei eman zien ikuskapeneko eta kontroleko lanak egitearen ardura, euren eta foru-ekarpen ekonomikoak jasotzen dituzten udalerrien titularitateko programetan, zentroetan eta zerbitzuetan, baita euren lurraldean finkaturiko pribatuen kasuan ere. Era berean, legeak foru aldundiei esleitu die euren lurraldean finkaturiko zerbitzu eta zentro pribatuen baimenari eta homologazioari buruzko eskumena. Orain arte, hala eta guztiz ere, bi zentro motak bete beharreko ezaugarriak soilik arautu dira (egoitza-zerbitzuak eta adinekoentzako eguneko zentroak); arauketa horren barruan, gainera, nahitaez bete beharreko xedapenak sartu dira, irisgarritasunaren egokitasunari buruzkoak. Gainerako zentroyei dagokienez lege-araudirik ez egotearen ondorioz, aldundien ikuskapen- eta kontrol-lanak hirugarren adinekoen arloan oinarritu dira. Hutsune horrek, gero ikusiko dugunez, eragin handia dauka, gainerako zentroetan irisgarritasun egokia bermatzeari dagokionez.

8. koadroa. IKUSKAPENEN NAHIZ KONTROLEKO JARDUERAK ETA MEKANISMOAK, IRISGARRITASUNAREN ARLOAN

Araba	
	<ul style="list-style-type: none"> - Arabako Foru Aldundiko Araubide Juridikoaren eta Ikuskapenaren Zerbitzuak honako mekanismoa hauek erabili ditu eta oraindik ere erabiltzen ditu ikuskapen-prozeduretan: <ul style="list-style-type: none"> • Araudia indarrean sartu baino lehen martxan zeuden hirugarren adinerako egoitzetan, ikuskapen-bisitaldiak egin zituen, irekitzeko lizentzia zuten egoitza guztietara, eta gainera, ahal zen neurrian, horiek irisgarritasunari buruzko araudira egokitzeko betebeharra ezarri zuen. • Araudia indarrean sartu ondoren sortutako hirugarren adineko egoitzetan, irisgarritasunaren arloan indarrean dagoen araudiaren egokitasuna ebaluatzen da, honako honen bitartez: <ol style="list-style-type: none"> 1. Zentroa instalatzeko aurretiazko baimena eskatu duten pertsona fisikoek edo juridikoek aurkeztutako betearazte-proiektuen azterketa. 2. Zentroetara obrak egin ondoren eta funtzionamendu-baimena eman baino lehen egindako ikuskapen bisitaldiak. - Ikuskapenetan, instalazioak irisgarritasunari buruzko araudira egokitzeko maila baloratzeko, instalazioak arau aplikagarrietan ezarritako baldintzekin konparatzen dira, baina baloraziorako ez dago prozedura edo tresna berezirik. - Beste zentro mota baterako araudirik ez dagoenez, ez da ikuskapenik egiten; horrenbestez, Ikuskapen eta Kontrol Zerbitzuak ez du berrikusten halako instalazioek irisgarritasunari buruzko araudira egokituta dauden ala ez.

8. koadroa. IKUSKAPENENKO NAHIZ KONTROLEKO JARDUERAK ETA MEKANISMOAK, IRISGARRITASUNAREN ARLOAN (Jarraipena)

Araba	<ul style="list-style-type: none"> - 40/1998 Dekretua indarrean sartu zenetik ez da plazarik hitzartu edo homologatu erakunde pribatuekin. Hitzarturiko plazaren bat duten zentro pribatuak ((dekretu hori indarrean sartu orduko dutenak) ez daude homologatuta; egin-eginean ere, Arabako Lurralde Historikoan ez dago arlo horri buruzko arau berezirik, dekretu honetan ezarritakoa izan ezik. Araudi gehigarri berezia promulgatuta ez badago (arlo honi buruzko araudia), izan ere, orain arte erakunde pribatuekin plaza gehiago hitzartzea bidezkoa jo ez delako da; beraz, horiek homologatzeko beharrianik ere ez da egon. - Hirugarren adinerako egoitzako gizarte zerbitzuen araudia indarrean sartu denetik ez da zehapen-espeditierik hasi, irisgarritasunari buruzko araudia urratzeagatik, eta informazio espeditierik ere ez da ireki lurralde horretan.
Bizkaia	<ul style="list-style-type: none"> - Gainerako aldundietan bezala, Bizkaiko Foru Aldundiko Ikuskapen eta Kontrol Zerbitzuak egoitza-zerbitzuetan eta eguneko zentroetan oinarritzen dira (hirugarren adinerakoak), eta beste zentro batzuetan ez da ikuskapenik egiten, horri buruzko araudirik ez egotearen ondorioz. - Zerbitzuko teknikarien ustez, oinplano berriko titularitate pribatuko zentroetan, euren egoitzen irisgarritasunaren egoera ikuskatzeko eta bermatzeko eskumena udalek dute, eurok baitute obra-eta irekitze-lizentziak emateko ardura, eta beraz, eraikinen kontrola egiteko ardura ere bai, kasuan kasuko udal mugartetan. Hori dela eta, horiek irisgarritasunari buruzko araudira duten egokitzapena ebaluatzeko tresna nagusia (41/1998 eta 202/2000 Dekretuetan ezarritakoa betetzeko), izatez ere, kasuan kasuko udal-bulego teknikoaren ziurtagiria da, baina Ikuskapen eta Kontrol Zerbitzuak obra-proiektuak ebaluatu behar ditu, manuzko baimena eman baino lehen. - Arloari buruzko araudia indarrean sartu baino lehen eraikitako eta irekitzeko unean indarreko araudiari egokituriko hirugarren adineko zentroen kasuan, horien instalazioak ez dira ikuskatu, irisgarritasunaren egokitasunaren aldetik, handitu edo berritu diren instalazioen kasuan izan ezik; egin-eginean ere, irisgarritasunari buruzko araudian ezartzen denez, berrikuspenak berrikuntza, handitzeak edo eraikuntza berriak daudenean soilik egingo dira. - Gizartekintzako Foru Erakundeak zentro berriak eraiki dituenean, obren eskaintzetan, irisgarritasuna bermatzeari buruzko xedapenak jasotzen dituzte beti. - Zerbitzuak Aldunditik kanpoko erakundeekin homologatzeko edota hitzartzeko orduan, salbuespenak salbuespen, ez daude ezarrita irisgarritasunaren arloan nahitaez bete beharreko gutxieneko arauak. - Hirugarren adinerako egoitzako gizarte-zerbitzuen araudia indarrean sartu denetik ez da zehapen-espeditierik hasi, irisgarritasunari buruzko araudia urratzeagatik, eta informazio-espeditierik ere ez da ireki, lurralde historiko honetan.
Gipuzkoa	<ul style="list-style-type: none"> - Gainerako aldundien kasuan bezala, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ikuskapen eta Kontrol Zerbitzuak hirugarren adinerako egoitza-zerbitzuetan eta eguneko zentroetan oinarritzen dira, eta beste zentro batzuetan ez da ikuskapenik egiten, lehen ere esan dugunez ez baitago arlo horri buruzko araudirik. - Bizkaiko eta Arabako Aldundietan bezala, Gipuzkoako Aldundiko Ikuskapen eta Kontrol Zerbitzuak irisgarritasunari buruzko araudiarekiko egokitzapena ebaluatzen du, hirugarren adineko zentro berriak irekitzeko baimena eman baino lehen. - Gainera, irisgarritasunari buruzko araudia eta hirugarren adineko zentroei buruzko araudian jasotako gaienerako baldintza teknikoak betetzen direla bermatzeko, Ikuskapen eta Kontrol Zerbitzuak irisgarritasunari buruzko araudia betetzeko maila ebaluatu du lurraldeko egoitza guztietan. Ikuskapena egiteko, zentro bakoitzean txosten tekniko berezia bete da, eta bertan, honako honi buruzko informazioa biltzen da: mugikortasun urriko pertsonentzako aparkalekuak, komunikazio bertikalak, atearak, barruko zirkulazioak, zerbitzu higienikoak, altzariak eta, halakorik egonez gero, irisgarritasunarekiko salbuespenak nahiz irizpideak. Txosten horretatik, banakako fitxa bat atera da zentro bakoitzerako, eta bertan irisgarritasunari buruzko araudiaren urratzeak eta horiek zuzentzeko epeak adierazten dira. - Aldunditik kanpoko erakundeekin zerbitzuak homologatzeko edota hitzartzeko orduan, salbuespenak salbuespen, ez dira berariaz jasotzen irisgarritasunaren arloan nahitaez bete beharreko gutxieneko arauak. - Hirugarren adinerako egoitzako gizarte-zerbitzuen araudia indarrean sartu denetik ez da zehapen-espeditierik hasi, irisgarritasunari buruzko araudia urratzeagatik, eta informazio-espeditierik ere ez da ireki, lurralde historiko honetan.

Aldundi bakoitzak arlo honetan egindako jarduerak azaldu ondoren, honako ohar hauek egin daitezke:

- Irisgarritasuna Sustatzeari buruzko Legeari leporatzeko moduko gabeziatariko bat (segurutik, nahitaezkoa), izan ere, legea promulgatu baino lehen eraikitako erabilera publikoko eraikinetan eragin ez izatea da, baldin eta horien instalazioak berritzen edo handitzen ez badira. Hasieran erredundantea dela dirudien arren, hirugarren adineko zentroak arautzeko dekretuetan irisgarritasunaren arloan nahitaez bete beharreko baldintza teknikoak sartzeko hutsune hori bete eta, zalantzarik gabe, indartu egiten du Irisgarritasunari buruzko Legean ezarritakoa.
- Horri esker, Gipuzkoaren eta Arabaren kasuetan, lurralde horietako egoitza guztiak ofizioz ikuskatu eta, ikuskapen horien eremuan, irisgarritasunari buruzko araudiarekiko duten egokitzapena ebaluatu da. Bizkaiaren kasuan, legearen interpretazio desberdinaren ondorioz, ez da ikuskapen sistematikorik egin. Guztiarekin ere, araudia betez, Bizkaiko Foru Aldundiak udal-ziurtagiria eskatzen du, irisgarritasunari buruzko araudira egokitzeari buruz, instalazio berriak irekitzeko baimenik eman baino lehen.
- Orain arte ez da dekreturik promulgatu, beste zerbitzu batzuen ezaugarriak arautzeko; horrenbestez, aldundiek ez dute arauzko tresnarik, funtzionamenduan dabiltzan zentroei irisgarritasunari buruzko araudira egokitzeko eskabidea egiteko. Arauen arloko hutsune hori oso larria da elbarritasuna duten pertsonentzako zentroen kasuan, hau da, indarreko araudia promulgatu baino lehen irekita zeuden zentroen kasuan, horietako batzuk arazo larriak baitituzte irisgarritasunean. Pentsa daiteke halako arauen promulgazioan egon den atzerapena, izan ere, irisgarritasunari buruzko araudiaren egokitzapenarekiko kostu handiaren ondoriozkoa dela, eta dirudienez, zentroetako kudeatzaileek ez dute kostu horiek euren gain hartu nahi.
- Bestalde, bai ikuskapeneko nahiz homologazioko foru-zerbitzu batzuetan dagoen baliabide-ezaren ondorioz, bai araurik ez egotearen eraginez, orokorrean, ez zaie arreta handirik jarri, zerbitzuak erakunde pribatuekin hitzartzeak irisgarritasuna bermatzeko dakartzan aukerei. Egin-eginean ere, zerbitzuen hitzarmena ugariagoa denean, nekez ezartzen dira irisgarritasunari lotutako baldintzak, erakunde pribatuekin zerbitzu-ematea hitzartzeko orduan.
- Ondoriotzat, esan daiteke gizarte-zerbitzuen zentroen arloan egoera ez dela erabilera publikoko beste eraikin batzuetan dagoenarekiko desberdina, hirugarren adinerako zentroen kasuan izan ezik; izan ere, azken horietan, irisgarritasunaren bermea berritutako eta oinplano berriko eraikinetan nahiko ondo bete arren, 20/1997 Legea promulgatu baino lehen jendeari irekitako eraikin askotan ez da errespetatzen.

2.5. **Irisgarritasuna hobetzeko beste jarduera batzuk**

Hiru aldundietako Gizartekintza sailtako arduradunekin egindako elkarrizketak eta kontsultaturiko agirietatik ateratako informazioa kontuan hartua, esan behar da azken urteotan ez dela irisgarritasunari lotutako jarduerarik egin ikerketaren, heziketaren, sentsibilizazioaren edo praktika egokiei buruzko eskuliburuak egitearen arloan.

Hala eta guztiz ere, salbuespentzat, aipagarriak dira balorazioko eta orientazioko ataletan profesionalekin eta norbanakoekin egiten ari diren aholkularitza-jarduerak.

- Bizkaiaren kasuan, oztopo arkitektonikoei buruzko txostenak egin dira, eskatzaileen etxebizitzaren irisgarritasunean egon daitezkeen arazoak egiaztatzeko eta egin beharreko berrikuntza motari buruzko aholkuak emateko, eta horrela, kasu bakoitzeko irisgarritasun-baldintzak hobetu ahal izateko. Hobekuntza-obrari diru-laguntza ekonomikoa eman ahal bazaio, horren jarraipena egiten da, eta aurrekontuko beste txosten bat prestatzen da; bertan, detektaturiko beharriaz arazoak aurrekontu eta jardura egokiena aztertzeko ahalegina egiten da. Azkenik, obra eginez gero, azken txosten bat egiten da jardura zuzena izan ote den egiaztatzeko, 2001ean, oztopo arkitektonikoei buruzko 223 txosten egin ziren, eta horietatik 90, berriz, etxebizitzetako egokitzapen-proiektuei buruzkoak izan ziren.
- Arabako Gizarte Ongizateko Foru Erakundeko Autonomia Pertsonalaren Zerbitzuak, 2001ean, 84 aholku-eskariri eman zien erantzuna, oztopoak ezabatzeari eta etxebizitzak egokitzeari dagokionez, eta 63 etxebizitza bisitatu ziren.

3. FORU EGOITZETAN IRISGARRITASUNA KONTROLATZEKO ETA HOBETZEKO MEKANISMOAK

Euren lurralde- eta eskumen-eremuetan irisgarritasuna sustatzeari buruz dituzten erantzukizunak ez ezik, foru aldundiek euren egoitzak eta eraikinak irisgarritasunari buruzko araudira egokitzeko ardura ere badute. Foru-ondare arkitektonikoa sarritan antzinakoa izaten denez, eta, horren ondorioz, mugikortasun arazoak dituzten pertsonak barrura sartu ezin dutela kontuan hartuta, egokitzapenerako ahalegin tekniko eta ekonomiko handia egin behar da, eta hori, jasotako informazioaren arabera, apurka-apurka egiten ari da.

Kapitulu honen sarreran esan dugunez, foru aldundi bakoitzak irisgarritasuna hobetzeko erabilitako prozedurak azaltzeko, elkarrizketak egin zaizkie Arkitekturako foru sail bakoitzeko arduradunei. Bizkaiaren kasuan, eraikitako foru-eraikin osoaren gaineko eskumenak dituen Arkitektura Sail bat ez dagoenez, elkarrizketa Lehendakaritza Saileko Zerbitzuen Zuzendaritza Nagusiko Arkitektura arloko arduradun bati, foru-jauregiaren mantenamenduaren arduradunei eta Aldundiaren sailetakoa gainerako eraikinen arduradunei egin zitzaion. Horrenbestez, Bizkaiko Lurralde Historikoari dagokionez, atal honetan jasotako informazioa egoitza komun horiei buruzkoa izango da, bestelakorik adierazi ezean.

Horiei guztiei galdeketa bat bidali zitzaion aurretiaz, eta bertan, honako gai hauei buruzko informazioa eskatu zitzaion:

- Aldundiko egoitzen multzorako irisgarritasuna zaintzeko ardura duen pertsona edo bulego teknikoa egotea.
- Foru-egoitzen irisgarritasunaren egokitasuna ebaluatzeko ikerketak edo azterketak egitea.
- Administrazio-erregistroak, memoriak, artxiboak, estatistikak edo ikuskapenak egotea, informazio hori biltzeko.
- Irisgarritasuna sustatzeko lau urterako programa edo horren antzeko beste planen bat egotea; horren helburuetariko bat foru-egoitzetako irisgarritasuna hobetzea izan behar da.

- Azken ekitaldian Foru Aldundiari lotutako egoitzetako irisgarritasuna hobetzeko egin diren jarduera nagusiak.
- Azken hiru ekitaldian, zentroetako irisgarritasuna hobetzeko egin den ahalegin ekonomikoa.

3.1. **Irisgarritasunaren inguruko erantzukizunak**

Gipuzkoako eta Arabako foru aldundiek sailen arteko Arkitektura Sailak dituzte, hau da, eskabidea eginez gero foru-sail guztietan arlo horretako zerbitzuak ematen dituzten sailak. Bi kasuotan, Arkitektura Sailek eskumenak dituzte foru-egoitza guztietarako irisgarritasuna bermatzeko, arkitekturaren aldetik, eta gainera, jakina, sail bakoitzak jarduera osagarriak egin ditzake. Bizkaiko Aldundiaren kasuan, aldiz, sail bakoitzak bere arkitekturaren erantzukizuna dauka; gainera, Lehendakaritza Saileko Zerbitzuen Zuzendaritza Nagusiak foru-jauregiaren eta sailen arteko eraikinen gaineko erantzukizuna dauka. Ikuspegi horretatik begiratuta, beharizanen diagnostikoa eta jarduketan planifikazioa homogeneoagoa eta integralagoa da Arabako eta Gipuzkoako aldundietan.

Aipatutako Arkitektura Sailek, nolahi ere, eraikitako ingururako irisgarritasun fisikoen erantzukizuna dute, eta beste arlo batzuetan nekez hartzen dute parte (esate baterako, seinaleen egokitzapenean, legeak ezarritako erreserbak betetzean edo interpreteen zuzkiduran), eta hori guztia, zalantzarik gabe, irisgarritasunaren arloan sartzen da. Horrenbestez, Irisgarritasunari buruzko Lau Urterako Planik egon ezean, aldundiek ez dute diziplina anitzeko talde teknikorik edota sailen arteko batzorderik, euren egoitzetako irisgarritasuna bermatzeko, ikuspegi integraletik begiratuta.

3.2. **Irisgarritasunari lotutako arazoan diagnostikoa eta azterketa egiteko mekanismoak**

Lehen esan dugunez, foru aldundiek ez dute, Irisgarritasuna Sustatzeari buruzko 20/1997 Legean ezarrita egon arren, Irisgarritasunari buruzko Lau Urterako Plana. Hiru aldundiek, hala eta guztiz ere, euren egoitzetako irisgarritasunari lotutako gaien diagnostikoa eta azterketa egiteko neurriak hartu dituzte, hurrengo koadroan laburbildutakoak.

9. koadroa. IRISGARRITASUNARI LOTUTAKO ARAZOEN DIAGNOSTIKOA ETA AZTERKETA EGITEKO MEKANISMOAK

Araba

- Arabako Foru Aldundiak, 1999an, foru-eraikin guztietarako irisgarritasuna hiru urteko epean guztiz bermatzeko planaren idazketa hasi zuen. Plan horren eremuan (horren barruan, aldi berean, segurtasunari eta ebaluazioari buruzko araudirako egokitzapena jasotzen zen), 24 eraikinen egoera ebaluatu eta horietan guztietan berrikuntza-obra egin ziren. Egindako aldaketak, kasu guztietan, irisgarritasuna hobetzera bideratu ziren, indarreko araudia beteta; hala eta guztiz ere, kasu batzuetan, gainditu ezinako arazo teknikoak egon zirenez, berrikuntzek (betetze hori guztiz bermatu ez arren) hobari handia ekarri zioten irisgarritasunaren egoerari. Guztira, plan honetan 3,6 milioi euro erabili dira azken hiru ekitaldian, eta, 2003rako, 1,3 milioi euroko partida gehigarria dago aurreikusita
- Aldi berean, foru-egoitza nagusietako seinaleen egokitzapena egiten ari dira, eta gainera, kartelak braille-sisteman jartzen ari dira igogailuetan eta informazio-errotuluetan.

9. koadroa. IRISGARRITASUNARI LOTUTAKO ARAZOEN DIAGNOSTIKOA ETA AZTERKETA EGITEKO MEKANISMOAK

Araba	<ul style="list-style-type: none"> - Irisgarritasunari lotutako premiazko obrak egiteari dagokionez, Arkitektura Sailak lehenetsuna eman die arlo horri lotuta jaso diren erreklamazioei. - Jarduera zehatz horiek ez ezik, Sailaren partaidetza duten eraikuntza- eta berrikuntza-obra guztiak bete egiten dituzte irisgarritasunari buruzko araudian ezarritako baldintzak.
Bizkaia	<ul style="list-style-type: none"> - Lehendakaritza Sailak, 1993 eta 1996 bitartean, egokitzapen-plana egin zuen, sailen arteko eraikin guztietarako (batez ere, foru jauregia eta Rekalde Etorbidea 30 kaleko egoitzak), gara hartan indarrean zegoen irisgarritasunari buruzko araudiari dagokionez. Gainerako eraikinetan, irisgarritasunaren arloko legeriak adierazitako baldintzak aplikatu dira, egoitzen berrikuntza edota eraikuntza guztietan, Foru Aldundiak arlo honetan duen aktibitate eza nabaria, arkitekturaren arloko eskumenak sail desberdinetan sakabanatuta egoteak ez ezik, Bizkaiko Foru Aldundiko egoitzarik gehienak instalazio berrietara eraman izanak azaltzen du (Abandoibarrako zonako instalazioetara); horrenbestez, ez da komenigarria izan laster erabilera barik utzi beharreko eraikinetan inbertsioak egiterik. - Jarduera zehatz horiek ez ezik, Sailaren partaidetza duten eraikuntza- eta berrikuntza-obra guztiak bete egiten dituzten irisgarritasunari buruzko araudian ezarritako baldintzak.
Gipuzkoa	<ul style="list-style-type: none"> - Gipuzkoako Foru Aldundiko Arkitektura Sailak, Aldundiaren Ondareko higiezinaren kontserbazioaren eta mantenamenduaren arduradunak, 2001ean, Aldundiaren ondareko erabilera publikoko eraikinen irisgarritasunaren baldintzei buruzko ikerketa eta diagnostikoa agindu zuen. Txostena 2003ko lehenengo hilabeteetan egitea dago aurreikusita. Diagnostikoa zehaztearekin batera, lehenengo berrikuntza-obra egin dira, eta horietarako, 2002an 300.000 euroko aurrekontua onetsi zen. 2003ko aurrekontuen proiektuak ere zenbateko bera dauka aurreikusita, irisgarritasunari lotutako jarduketekin. - Ikerketa hori ez ezik, Sailak beste bi ikerketa ere egin ditu oraintsu, foru-jauregiko irisgarritasunaren eta Loiolako Baselizako irisgarritasunaren baldintzei buruz, eta horiek aplikatu egiten dira bertako irisgarritasuna hobetzeko berrikuntza obretan. - Jarduera zehatz horiek ez ezik, Sailaren partaidetza duten eraikuntza- eta berrikuntza-obra guztiak bete egiten dituzte irisgarritasunari buruzko araudian ezarritako baldintzak.

3.3. Foru aldundiak irisgarritasuna hobetzeko egindako beste jarduera batzuk

Arkitektura sailek sustaturiko jarduera horiek ez ezik, beste sail batzuek ere neurriak hartu dituzte foru aldundien eskumeneko egoitza edota zerbitzu batzuetako irisgarritasuna hobetzeko. Ondoren, 2001ean egindako jarduerak laburbiltzen dira, kontsultaturiko dokumentazioan jasotakoak:

- Gipuzkoako Aldundiak, 2001eko uztailan, egipuzkoa.net lekua abiatu zuen, informazio interesgarria bilatzeko, Gipuzkoako informazio-gizarteari lotutako datuei, estatistikei eta txostenei buruz. Sustatzaileek diotenez, elbarritasun psikikoa, fisikoa edo sensoriala duten pertsonak erabiltzeko moduko lehenengo orrialdea da lurralde historikoan, eta TAW deritzonak ere (Sarerako Irisgarritasunari buruzko Testa) berretsi egin du hori.
- Gipuzkoako Aldundiak, Gazteria Sailaren bitartez, oztopo arkitektonikoak ezabatzeko obrak sustatu ditu Zarautz, Orrio eta Hondarribiko aterpetxeetan.
- Kirol Instalazioen Foru Planaren Barruan, eta Gipuzkoako Ezindu Fisikoen Federazioarekin lankidetzan, Kirol Sailak ikerketa bat egin du 2001ean, lurralde

horretako kirol-instalazioetako irisgarritasunari buruz, gero lurralde horretako kirol-instalazioetako irisgarritasunari buruzko ekintza plana egiteko.

- Bizkaiko Aldundiak foru liburutegia berritzeko obrak hasiko ditu laster, horrek gaur egun irisgarritasun txarra baitu; obren ostean, mugikortasun urriko pertsonek bertarako irisgarritasuna bermatuta edukiko dute.
- Obren eta Zerbitzuen Foru Planak eta Inbertsioen Plan Bereziak (Arabako Aldundiak horixe erabiltzen baitu lurraldeko udalerrietan azpiegitura-obrak egiteko), laguntzak emateko baldintzatzat, hirigintzan, zoladuran, horniduretan eta zerbitzuetan irisgarritasunari buruzko araudia bete beharra ezartzen du.

4. ARABAKO, BIZKAIKO ETA GIPUZKOAKO ALDUNDIETAKO EGOITZEN IRISGARRITASUNA

4.1. Sarrera eta metodologia

Foru aldundiek funtsezko eginkizuna dute Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeen mapan, ez bakarrik oinarrizko zenbait arlotan eskumenak dituztelako (adibidez, zergen kudeaketan edo azpiegitura publikoetan), baita bizi-kalitateari eta gizarte-partaidetzari estu lotutako jarduera-eremuetan eskumenak dituztelako ere (esate baterako, gizarte-zerbitzuak, kirola edo kultura). Ikuspegi horretatik begiratuta, eta foru-titularitateko baliabideren bat sarritan erabiltzen duen pertsona kopuru oso handia kontuan hartuz, diputazioek jendeari zerbitzuak emateko dituzten egoitzen irisgarritasuna erabateko eskubidea da eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako mugikortasun urriko pertsonek bermatuta eduki behar dute eskumen hori.

Egoitza autonomikoen irisgarritasun maila aztertzean esan dugunez, oraingo araudiak ezarritako baldintza guztien betetze mailaren azterketa zehatza egitea (aldundien menpeko egoitza guztietan), arlo honen diagnostiko orokorra eskaintzen duen azterketa, edozein ikerketaren aukeretatik kanpo gelditzen da. Hori dela eta, hurrengo kapituluan bezala, hiru foru aldundietako sailek jendeari zerbitzua emateko dituzten egoitzen eta eraikinen lagin zehatza aztertzea aukeratu dugu.

Azterturiko eraikinak aukeratzeko orduan, honako hau hartu da kontuan:

- Administrazio-lanak egiten dituzten eraikinei dagokienez, hiritarrak ez baitira sarritan joaten halakoetara, azterketan lehenetasuna eman zaie jendeari zerbitzua emateko eta biztanleen oinarrizko betebeharrak betetzeko dauden eraikinei. Ikuspegi horretatik begiratuta, museoak, artxibategiak, liburutegiak, aterpetxeak, gazteen zentroak, kirol-zentroak, zergak ordaintzeko bulegoak, zergadunei arreta eskaintzeko bulegoak eta gizarte zerbitzuen zentroak aztertu dira batez ere.
- Hala eta guztiz ere, hiru aldundietako administrazio-egoitzen egoera ere aztertu da, mugikortasun arazoak dituzten erabiltzaileek eta langileek erabilitakoen egoera. Horrela, foru-sail nagusiek jendeari arreta eskaintzeko dituzten bulegoen egoera aztertu da (besteak beste Kultura, Ogasuna eta Gizartekintza), baita hiru foru-jauregien egoera ere.
- EAEn gizarte-zerbitzuen arloan erabakitako eskumen-banaketa eta, oro har, hiru foru aldundiek arlo horretan duten oinarrizko eginkizuna kontuan hartua, arreta

- berezia jarri zaie zenbait taldeetarako gizarte-zerbitzu espezializatuak ematen dituzten zentroei (hirugarren adina, haurrak eta elbarriak). Zentro horietariko batzuek, titularitate pribatukoak izan arren, kasuan kasuko aldundiarekiko hitzarmenaren bitartez ematen dituzte era guztietako zerbitzuak, adibidez, egoitzakoak, gizartekoak nahiz hezkuntzakoak, eguneko arretakoak edo gizarteratzekoak zein laneratzekoak; horrenbestez, foru-eskumeneko egoitzatzat hartu dira ondore guztietarako.
- Ikuspegi geografikotik begiratuta, informazio bilketa errazagoa izateko, eta foru-egoitza guztien lagin adierazgarria bilatu nahi izan ez dela kontuan hartuta, lehentasuna eman zaie hiru hiriburuetan eta horien eragin-aldeetan kokaturiko egoitzei.

Azterketa egitean, egoitza autonomikoen eta hiru hiriburuetakoko udalen egoera ikuskatzen egin den bezala, hiru lurralde historikoetariko bakoitzean irisgarritasunaren arloan lan egiten duten irabazi asmorik gabeko elkarten laguntza eskatu da¹⁷.

Beste kasuetan bezala, eraikin bakoitzaren balorazioa errazteko, eta kontuan hartuta helburua foru-erakundetakoko egoitzen irisgarritasunaren egokitasunaren ikuspegi orokorra edukitzea dela (eta ez lokal bakoitzeko oztopo guztien azterketa zorrotza egitea), hiru kategoria oso zabal dituen oinarriko sailkapena aukeratu da: irisgarritasun egokia, irisgarritasun mugatua eta irisgarritasun ezegokia. Egoitzen baloraziorako jarraituriko irizpideak, gainera, ikuskapen-bisitaldietan erabilitakoak dira, eta sarrerako kapituluan ere azalduta daude.

Foru-egoitzetan ere, irisgarritasuna soilik aztertu da, zerbitzuen erabilerari berari lotutako beste arlo batzuk albo batera utzita (ateen pisua eta indarra, erakusmahaien altuera, informazio-sistemetakoko irisgarritasuna, etab. Nolanahi ere, kasuan kasuko ikuskapenak egiteko orduan, oso kontuan hartu zen aztertutako eraikin askoren konplexutasuna, horiek batzuetan solairu asko eta milaka metro karratu baitituzte. Horrela, eraikin mota bakoitzeko leku zehatzetarako irisgarritasuna aztertu da¹⁸, eta, oro har, aintzat hartu da ea eraikinak mugikortasun urriko pertsona bati aukerarik eskaintzen ote dion (aukera osoa, mugatua edo deuseza), lokal horretako ohiko arreta jasotzeko edo tramitea egiteko.

4.2. Aztertutako egoitzak

Guztira, EAEko hiru lurralde historikoetan, hiru aldundien menpeko 143 lokal aztertu dira: 62 Araban, 37 Gipuzkoan eta 44 Bizkaian; biztanle kopururik txikiena duena Arabako Lurralde Historikoa da, eta eraikin kopururik handiena ere bertan aztertu da. Egin-eginean ere, aztertutako egoitza guztien % 43 dira Arabakoak; Bizkaikoak % 31 dira, eta Gipuzkoakoak % 26.

17 Kasu honetan, Eginaren Eginez (Araba), Gipuzkoako Ezindu Fisikoen Federazio Koordinatzailea (Gipuzkoa) eta Bizkaiko Ezindu Fisikoen Federazio Koordinatzailea Elkarten lankidetzat eskatu da. Lehen esan dugunez, hiru erakunde horietariko bakoitzak erreferentziako pertsona edo talde bat proposatu du, ikuskapenaren ardura edukitzeko, eta beraz, elkarteek berenganatu egingo dute egindako azterketa emaitza edo metodologia.

18 Museoen kasuan, esate baterako, erakusketa iraunkorrerako eta aldi baterako erakusketarako irisgarritasuna (halakorik egonez gero); liburutegietan, liburu zainen erakusmahaiaren altuera, eta, gutxienez, irakurketa-gela bat; egoitza-zentroetan, onarpen-erakusmahaiaren altuera eta gutxienez, gelen solairu baterako, jantokirako eta aisialdiko gela komun baterako irisgarritasuna, eta eguneko nahiz hirugarren adineko zentroetan, harrerako atondorako eta aisialdi-gela komun baterako irisgarritasuna.

Ezegokitzapen hori azaltzeko, hala eta guztiz ere, esan daiteke Arabako Aldundiak lurralde historiko horretan presentzia oso handia duela, Gipuzkoako eta Bizkaiko aldundiek euren lurraldean dutena baino handiagoa. Presentzia hori, gainera, itzela da kulturaren eta gizarte-zerbitzuen arloetan, eta ikerketa honetan arlo horiei eman zaie lehentasuna. Izan ere, desoreka horren zergati nagusia Gasteizko eskualdean aztertutako gizarte-zerbitzuen zentro kopuru handiaren eraginezkoa da (36 zentro, hiru lurraldeetan aztertutako foru-egoitza guztien laurdena); horiek, gainera, gizarte-zerbitzuek lurralde horretan duten garapena eta Arabako Gizartekintza Foru Erakundeak horietan egindako kudeaketa zuzena adierazten dute. Jakina, Gipuzkoako eta Bizkaiko Foru Aldundiek ere lan handia egiten dute gizarte-zerbitzu espezializatuaren arloan. Guztiarekin ere, Araban (beste bi lurraldeetan ez bezala) okupazio-zentroen eta enpleguko zentro berezien kudeaketa zuzena egiten da, eta gainera, egoitza-zentroen proportzio handiagoa dago; horren eraginez, ikerturiko laginean Arabako gizarte-zentroek horrexegatik dute halako ordezkartza handia.

22. taula. LURRALDE BAKOITZEAN AZTERTUTAKO EGOITZAK

Lurraldea	Egoitza kopurua	%
Araba	62	43
Bizkaia	44	31
Gipuzkoa	37	26
GUZTIRA	143	100

Eskumen autonomikoa duten egoitzak aztertzean egin den bezala, emaitzak aztertzeko eta aurkezteko orduan, ebaluaturiko eraikinak euren erabileraren edota horien administrazioa duen foru-sailaren arabera bildu dira. Eraikinen multzoa, horrela, bost kategoriatan banatu da, eta horietan honako egoitza hauek sartzen dira:

- **Kultura.** Museoa, artxiboak eta liburutegiak.
- **Gazteria eta kirola.** Aterpetxeak, gazte-zentroak eta kirol-zentroak.
- **Gizarte-zerbitzuak.** Egoitza-zentroak, eguneko zentroak eta zaharrentzako, haurrentzako eta elbarrientzako zentroak.
- **Ogasuna.** Zergak ordaintzeko edota zergadunei arreta eskaintzeko bulego deszentralizatuak.
- **Administrazio-egoitzak.** Bilboko, Donostiako eta Gasteizko foru-jauregiak, eta hiru aldundietako Kultura-Gizarte Zerbitzu, Ogasun eta Herrilan sailak.

Arloka, aztertutako eraikinak honelaxe banatzen dira:

23. taula. AZTERTUTAKO EGOITZAK, ZERBITZU MOTAREN ARABERA

Zerbitzua	Egoitza kopurua	%
Kultura	22	15,4
Gazteria eta kirolak	15	10,5
Gizarte zerbitzuak	68	47,6
Ogasuna	14	9,8
Administrazio-egoitzak	24	16,8
GUZTIRA	143	100,0

Arabako Lurralde Historikoari dagokionez esandakoaren arabera, gizarte-zerbitzuak emateko lokalen presentzia oso handia da, eta hiru lurraldeen multzoan ikerturiko eraikin guztien erdira iristen da. Gainerako kategoriek antzeko garrantzia dute, aztertutako eraikinen banaketan.

4.3. Hiru aldundietako egoitzen irisgarritasunaren balorazioa

Ikuspegi orokorretik begiratuta, esan daiteke aztertutako egoitzen irisgarritasunaren egokitasun-maila handia dela: aztertutako 143 eraikinetatik 90 (% 62,9) irisgarritasun egokikoak dira, lehen azaldutako irizpideak kontuan hartuta. Mugikortasun arazoak dituen pertsona bat, horrenbestez, modu autonomoan sar daiteke, eraikinaren kanpoaldetik, aztertutako foru-egoitza guztien bi herenera.

Beste 32 egoitzak (guztien % 22,4), gainera, irisgarritasun mugatua dute, eta horrela, beste norbaiten edo zentzoko langileren baten laguntzarekin, gurpildun aulkian doan pertsona bat eraikinean sar daiteke. Azkenik, 21 eraikin (ia % 15) irisgarritasun ezegokikoak dira, horien egituraren ondorioz gurpildun aulkian doan pertsona batek laguntzarekin ere ezin baitu eraikinean sartu.

Aztertutako egoitzen hautapena azaltzean, gizarte-zerbitzuak ematen dituzten lokalen ordezkartza handia aipatu da; izan ere, erabiltzaileek arlo horretan dituzten beharrianak aintzat hartuta, halako lokalek batez bestekotik gorako egokitasuna edukitzen dute irisgarritasunean. Horren ondorioz, egoeraren irudia benetakoa baino apur bat positiboagoa izan daiteke. Horrenbestez, halako zentroen gehiegizko ordezkartza arlo horrek aldundien jarduketan multzoan duen garrantziaren eraginezkoa izan arren, gizarte-zerbitzuak albo batera utziz gero foru-egoitzen irisgarritasunak izango lukeen egokitasun-maila kalkulatu beharko litzateke. Hori eginez gero, irisgarritasunaren egokitasuna nahiko txikiagoa da: zerbitzu horietakoak ez diren 75 egoitzetatik, % 49 irisgarritasun egokikoak dira, % 33 irisgarritasun mugatukoak eta % 17 irisgarritasun ezegokikoak.

4.3.1. Irisgarritasunaren egokitasuna lurraldeen arabera

Irisgarritasunaren egokitasun maila desberdina da hiru lurraldeetan; hori, izan ere, ikuskapenaren arduradunek balorazio-irizpide desberdinak erabiltzearen ondoriozkoa izan daiteke, baita lurralde bakoitzeko egoeran benetako desberdintasunak egotearen eraginezkoa ere.

Laburbilduta, lurralde bakoitzeko egoeraren ezaugarriak honako hauek dira:

- Araban irisgarritasun egokiko eraikinen proportziorik handiena dauka: Arabako lau foru-eraikinetik ia hiruk irisgarritasun egokia dute mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzat.
- Irisgarritasun egokiko egoitza kopururik txikiena duen lurralde Gipuzkoa da. Hala eta guztiz ere, irisgarritasun oso txarreko egoitzen kopurua ere nahiko txikia da, edozein kasutan ere Araban eta Bizkaian baino txikiagoa. Zalantzarik gabe, Gipuzkoan aipagarria da irisgarritasun mugatuko egoitzen kopuru handia: Administrazio, Ogasuneko eta Gazteria eta Kiroleko egoitzetan % 50, eta Kulturakoetan % 100.

- Bizkaian, egoera EAE osoan lortutako batez bestekoaren arabera da, eta, oro har, egoera positiboa da; hala eta guztiz ere eraikinen heren batek baino gehiagok irisgarritasunari lotutako arazo nahiko larriak dituzte.

24. taula. IRISGARRITASUNAREN BALORAZIOA LURRALDEEN ARABERA (%)

Lurraldea	Irisgarritasun egokia	Irisgarritasun mugatua	Irisgarritasun ezegokia
Araba	74,2	9,7	16,1
Bizkaia	61,4	22,7	15,9
Gipuzkoa	45,9	43,2	10,8
GUZTIRA	62,9	22,4	14,7

4.3.2. Irisgarritasuna arloen arabera

Azterketa emandako zerbitzu motaren ikuspegitik eginez gero, desberdintasunak oraindik ere handiagoak dira: egoerarik onena, jakina, gizarte-zerbitzuen arlokoa da. Beste muturrean, taulan ikusten denez, irisgarritasun ezegokiko egoitzen ehunekorik handiena Kulturaren arloan dago.

25. taula. IRISGARRITASUNAREN BALORAZIOA ARLOEN ARABERA (%)

Zerbitzua	Irisgarritasun egokia	Irisgarritasun mugatua	Irisgarritasun ezegokia
Kultura	50,0	22,7	27,3
Gazteria eta Kirolak	40,0	40,0	20,0
Gizarte-zerbitzuak	77,9	10,3	11,8
Ogasuna	42,9	50,0	7,1
Administrazio-egoitzak	58,3	29,2	12,5
GUZTIRA	62,9	22,4	14,7

Arlo bakoitzari buruzko ohar hauek egin daitezke:

- Gizarte-zerbitzu espezializatuak ematen dituzten hamar zentrotatik zortzik irisgarritasun egokia dute. Halako hamar zentrotatik batek irisgarritasun ezegokia dauka, eta irisgarritasun ezegoki gutxieneko lurraldea Gipuzkoa da. Araban eta Bizkaian, gizarte-zerbitzuen zentroen ehunekoa, irisgarritasun ezegokiari dagokionez, % 13 da.
- Lurralde guztietan, egoerarik txarrena Gazteriaren eta Kirolaren arloan dago; bertan, aztertutako hamabost egoitzetako % 40k soilik dauka irisgarritasun egokia, eta beste % 40 batek irisgarritasun mugatua dauka.
- Nolanahi ere, irisgarritasun ezegokiko mailarik handiena kultura-zerbitzuak ematen dituzten egoitzetan dago (museoak, artxiboak eta liburutegiak), eta horietako % 27k irisgarritasun ezegokia dute.
- Zergak ordaintzeko egoitzetan ere egoera ez da pozgarria: aztertutako 14 bulegoen erdiek irisgarritasun mugatua dute, eta % 42k soilik dauka irisgarritasun egokia. Irisgarritasun ezegokiaren ehunekorik txikiena Ogasun arloak dauka (% 7,1), hain zuzen ere, irisgarritasun ezegokiko egoitza bakarrarekin, Gipuzkoan.

- Hiru lurraldeetan, administrazio-egoitzen irisgarritasuna nahiko egokia da; lokal guztien % 58k irisgarritasun egokia dute, eta horiek modu orekatuan banaturik daude hiru lurraldeetan.

4.4. Ondorioak

EAEko hiru foru aldundietako egoitzen irisgarritasunari buruzko balorazioa ondoren adierazitakoaren arabera laburbiltzeko modukoa da:

- aztertutako egoitzen % 63k irisgarritasun egokia dute. Aztertutako ehun lokaleko multzotik hamabostek irisgarritasun ezegokia dute mugikortasun urriko pertsonentzat, eta ehuneko 22an irisgarritasuna mugatua da.
- Irisgarritasun egokiaren maila nahiko pozgarri hori, neurri handi batean, gizarte-zerbitzu espezializatuen egoera bikainaren ondoriozkoa da. Egin-eginean ere, panorama orokorra ez da hain ona, gizarte-zerbitzuak ematen dituzten egoitzak kontuan hartu barik, horiek laginean gehiegizko ordezkari izan eta sarritan irisgarritasun egokiaren maila hobea edukitzen baitute. Irisgarritasun egokiko eraikinen proportzioa, zerbitzu horiek albo batera utzita, 13 puntu txikiagoa da (% 49).
- Jarduera-eremuen arabera, irisgarritasun ia guztiak egokiak dira gizarte-zerbitzu espezializatuetan, baina kultura, kirol eta gazteriako zentroetan ez dira egokiak. % 60tik gorako egokitasuna duen arlo bakarra gizarte-zerbitzuena da.
- Nolabait ere, dirudienez egoera apur bat txarragoa da Gipuzkoako Lurralde Historikoan (egoitza guztien % 45ek soilik dute irisgarritasun egokirik), gainerako lurraldeetan baino. Hala eta guztiz ere, Gipuzkoan irisgarritasun ezegokiko egoitzen ehuneko txikia kontuan hartuta, pentsa daiteke egoera horren eragilea, gaiarekiko arduragabekeria baino gehiago, ebaluatzaileek irizpide zorrotzagoak erabiltzea eta oraindik burutu gabeko arkitektura-egokitzapenen politika mailakatua egotea dela.

VI. KAPITULUA

EUSKO JAURLARITZAKO SAILEN
IRISGARRITASUNA KONTROLATZEKO
ETA SUSTATZEKO POLITIKAK

1. SARRERA ETA METODOLOGIA

Toki- eta foru-eremuko administrazioen egoera erlatiboa aurreko kapituluetan aztertu ondoren, kapitulu honetan Eusko Jaurlaritzaren menpeko eraikinen irisgarritasunaren bermea aztertuko da, baita administrazio horrek irisgarritasuna bultzatzeko eta sustatzeko gauzatu dituen politikak ere.

Eusko Jaurlaritzako sailek arlo honetan duten erantzukizuna zalantzarik gabea da; izan ere, erabilera eta zerbitzu publikoko eraikin kopuru oso handiaren titularrak izateaz gain, gizarte-eragileek zenbait arlotan gauzaturiko ekintza sustatzeko eta erregulatzeko ardura ere badute, adibidez, ekonomian, justizian, enpleguan, kulturean, segurtasunean, ingurumenean edo gizarte-ongizatean. Hain zuzen ere, erabilera publikoko eraikinen, instalazioen eta zerbitzuen irisgarritasunari dagokionez, EAEko administrazio autonomikoak, indarreko legerian ezarritakoaren arabera, honako erantzukizun hauek ditu:

- Gainerako administrazioen kasuan bezala, Irisgarritasuna Sustatzeari buruzko 20/1997 Legean ezarritakoaren arabera, irisgarritasuna sustatzeko neurriak gauzatu behar ditu, titularitate, erabilera edo zerbitzu publikoa duten hiri-inguruetan, eremu publikoetan, eraikinetan, garraioetan eta informazio nahiz komunikazio sistemetan.
- Erabilera eta zerbitzu publikoa duen egoitza kopuru oso handiaren titulartzat, gainera, egoitza horietako irisgarritasunaren egokitasuna bermatu behar die biztanle guztiei.

Kapitulu honen helburua, bestalde, Eusko Jaurlaritzak bere egoitzetako irisgarritasunaren baldintza egokiak sustatzearen eta kontrolatzearen arloan gauzaturako politikak azaltzea eta aztertzea da, mugikortasun urria edota komunikazio arazoak dituzten pertsonen dagokienez. Gainera, politika horien emaitzak baloratzeko ahalegina egin da, Eusko Jaurlaritzaren zerbitzuak emateko eraikinetako irisgarritasunari dagokionez.

Administrazio bakarra izan arren Eusko Jaurlaritzak arlo honetan egiten duen lana ezin daiteke orokorrean aztertu, berori osatzen duten sailen jardura beharizan eta baldintza desberdinen araberakoa baita. Horrenbestez, sail bakoitzak arlo honetan egiten duen lana eta egoitza autonomiko desberdinen egoera (sail bati edo besteari atxikita egotearen araberakoa) bereiz aztertu dira. Informazioa biltzeko, bi bide erabili dira, eta, horien bitartez, ikuspegi kualitatiboa eta kuantitatiboa konbinatzen saiatu gara:

- Alde batetik, elkarrizketak egin ditugu sail bakoitzak izendaturiko arduradunekin, irisgarritasunaren sustapenari eta kontrolari buruzko informazioa jasotzeko. Informazio

hori osatzeko, gaiari buruzko dokumentazioa aztertu dugu (planak, memoriak, testu legalak, etab.).

- Bestalde, hiru hiriburu eta foru aldundietako udal-egoitzen kasuan egin den bezala, sail desberdinei lotuta egon eta jendeari arreta ematen dioten eraikinen lagina ikuskatu da, horien irisgarritasunaren egoera ebaluatzeko.

Kapitulu honen atalak, bestalde, informazioa biltzeko erabilitako bideen arabera banatuta daude. Horrela, lehenengo atalean, sail bakoitzak bere jarduera-eremuen barruan irisgarritasuna sustatzeko garatu dituen politikak azaldu eta aztertu dira, baita egoitzetarako irisgarritasun egokia bermatzeko sortu diren mekanismoak ere; bigarren atalean, berriz, eraikin horietara egindako kanpo-ikuskapen batean irisgarritasunean detektaturiko benetako egokitasun maila aztertu da.

2. EUSKO JAURLARITZAKO SAILEN IRISGARritASUNAREN SUSTAPENA ETA KONTROLA

2.1. Sarrera eta metodologia

Eusko Jaurlaritzak ez dauka eskumen zuzenik hirigintza-kontrolaren arloan, EAeko lurraldean altxatu diren eraikinei dagokienez. irisgarritasunaren arloan dituen eskumenak, funtsean, bi alderditan oinarritzen dira: a) bere egoitzetako irisgarritasunaren egokitasuna bermatzea; eta b) bere jarduera-eremuetan irisgarritasun egokia sustatzeko politikak garatzea. Halako politikak, Irisgarritasuna Sustatzeari buruzko 20/1997 Legean ezarritakoaren arabera, bi jarduera mota hauen bitartez gauzatzeko modukoak dira:

- Irisgarritasun egokia sustatzeko lau urterako programak egitea.
- Irisgarritasun egokia sustatzeko behar diren finantza-neurriak hartzea.

Kapitulu honen sarreran esanenez, irisgarritasun egokiaren sustapen- eta kontrol-politikak aztertzeko informazio-iturri nagusiak Eusko Jaurlaritzako sail desberdinetako teknikariei edota kargu publikoei egindako elkarrizketak izan dira. Kasu ia guztietan, elkarrizketa pertsonalak egin dira, baina kasuren batean kontaktuak telefonoz edo posta elektronikoz egin dira. Oro har, sail bakoitzeko elkarrizketa bat egin da. Hala eta guztiz ere, arau horrek baditu bere salbuespenak:

- Kultura Sailaren kasuan, bertako arduradunek egindako eskabidearen arabera. Informazioa biltzeko, sail hori osatzen duten zuzendaritza desberdinak bereiztu behar izan dira. Horrenbestez, arlo horren barruan informazio berezia emango da, Kultur Ondarea, Kultur Hedapena, Kirola eta Gazteria eta Ekintza Komunitarioa Zuzendaritzari buruz.
- Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Sailari dagokionez, unibertsitateko hezkuntzari buruzko azterketa berezia egin zen, Euskal Herriko Unibertsitateko teknikariei egindako elkarrizketaren bitartez. Gainerako hezkuntza-etapak batera aztertu ziren, Hezkuntza Saileko arduradunekin.

- Osasunaren arloan, elkarrizketak Osakidetzako arduradunekin egin ziren.
- Herrizaingo Sailaren kasuan, Segurtasuneko Sailburuordetzako zenbait ordezkari egin zitzairen elkarrizketa, sail honen barruan arlo horrek baitauka inplikaziorik handiena arlo honetan.
- Etxebizitza eta Gizarte Arazoak Sailaren kasuan, galdeketa bat bidali zitzaion berori osatzen duen sailburuordetza bakoitzari, eta informazio gehigarria eskaintzen da, Etxebizitza eta Gizarte Arazoak deritzen arloei buruz.
- Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Sailaren kasuan, jendearen arreta eskaintzeko eraikinik gehienak Justiziaren arlokoak direnez, arduradunek informazioa arlo horretan oinarritzea erabaki zuten. Sailburuordetza horren barruan, elkarrizketa Baliabide Materialen Zuzendaritzako arduradunekin egin zen.
- Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren barruan, elkarrizketa pertsonalarekin batera, bertako Baliabide Orokorren Zuzendaritzak txosten zabala bidali zuen, Eusko Jaurlaritzako sailen arteko eraikinetako irisgarritasunaren egokitasun mailari buruz, sail horrek kudeaturiko eraikinei zegokienez.
- Berezko egoitzarik ez edukitzean, administrazio hutsekoak kenduta eta txosten honen helburua garraibideen irisgarritasuna aztertzea ez denez, Garraio eta Herrilan Saileko arduraduneri ez zaie elkarrizketarik egin. Lehendakaritza eta Lehendakariordetza Sailen kasuan ere irizpide berari jarraitu zaio.

Nolanahi ere, Eusko Jaurlaritzak irisgarritasunaren egokitasuna sustatzeko eta kontrolatzeko egindako jarduketan ikuspegi ahalik eta osatuena edukitzeko, bibliografia-eta legegintza-mailako datu-baseak ere erabili dira (batez ere, Dokumentazio eta Ikerketa Zentrokoak, SIIS), sail bakoitzari buruzko informazioa osatzeko. Halako bilaketak, hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzako sail bakoitzak arauketaren eta diru-laguntzen arloan egindako lanetan oinarritu dira.

Elkarrizketen edukiarri dagokionez, solaskide bakoitzari gidioa bidali zitzaion aurretiaz, eta bertan, aztertu beharreko arloak zehaztu ziren. Hain zuzen ere, honako alderdi hauek aipatu ziren:

- Sail bakoitzaren oraingo egoera eta bertan dituzten ikerketak, erregistroak eta beste prozedura batzuk, euren lokaletako eta eraikinetako irisgarritasunean detektaturiko arazoen diagnostikoa eta azterketa egiteko.
- Sail bakoitzeko politika aktiboak: irisgarritasun egokia sustatzeko lau urterako plana, udalerrietarako edota irabazi asmorik gabeko erakundeetarako diru-laguntzen deialdia, udalrikiko edo beste erakunde batzuekiko hitzarmenak edo arauen promulgazioa (irisgarritasun egokiaren gaiaren berariazko aipamena egiten duten arauak).
- Sailetako irisgarritasuna kontrolatzeko eta hobetzeko politikak, eta irisgarritasuna hobetzeko 20/1997 Legea onetsi zenetik egindako ahalegin ekonomikoa.
- Sail bakoitzak irisgarritasuna hobetzeko aurreikusita dituen proiektuak.

Kapitulu hau, horrenbestez, arlo horien inguruan egituratuko da; izan ere, norabait ere, sail guztiak irisgarritasunaren egokitasuna kontrolatzeko eta sustatzeko egiten duten edo egin ahal duten lana egituratzen dute.

2.2. Egoeraren azterketa eta diagnostikorako nahiz planifikaziorako tresnak

Sarreran esan dugunez, sail desberdinetako arduradunei oraingo egoeraren balorazioa eskatu zaie, zerbitzuak emateko erabiltzen dituzten eraikinetako irisgarritasunari dagokionez, batez ere jendeari zerbitzuak emateko eraikinak kontuan hartuta.

Aztertutako sailei atxikitako egoitzen oraingo egoerari dagokionez, arduradunek emandako informazioa hurrengo koadroan laburbilduta dago:

10. koadroa. SAIL BAKOITZARI ATXIKITAKO EGOITZEN ORAINGO EGOERAREN BALORAZIOA

Kultur Ondarearen Zuzendaritza	Kultur Ondareko Zuzendaritzak jendeari arreta eskaintzeko zerbitzu bakarra dauka, Euskadiko Kultur Ondarearen Dokumentazio Zentroa, eta horrek bertara doazen pertsonen eskaturiko argitalpenak ematen ditu. Zerbitzu hau Kultura Sailaren eraikin berean eskaintzen da, Lakuako multzoan, eta irisgarritasun guztiz egokia dauka. Sailen arteko gainerako egoitzen kasuan bezala, Lakuan dauden bulegoen irisgarritasunaren ardura Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren eskumenekoa da.
Kultura Sortzeko eta Hedatzeko Zuzendaritza	Zuzendaritza honek ez dauka jendeak erabiltzeko egoitzarik.
Kirol Zuzendaritza	Eusko Jaurlaritzak bi kirol instalazio ditu: – Faturako Hobekuntza Teknikorako Zentroak irisgarritasun egokia dauka, araudian ezarritakoaren arabera, eta aldagela eta zerbitzu egokituak ditu. – Legutioko Estropada Eremu Olinpikoak irisgarritasun mugatua dauka; izan ere, eraikin nagusiko lehenengo solairura eskailetatik soilik sar daiteke, eta ezinezkoa da igogailua instalatzea. Eraikinak, gainera, ez dauka seinaleztapen egokirik, eta lehenengo solairuko zerbitzuetan eta dutxetan akats txiki batzuk ditu. Kirol Zuzendaritzak akats horiek zuzendu nahi ditu, aurrekontu zuzkidurek horretarako bidea ematen dutenean.
Gazteria eta Ekintza Komunitarioko Zuzendaritza	Zuzendaritza honek ez dauka jendeak erabiltzeko egoitzarik.
Etxebizitza Sailburuordetza	Etxebizitza Sailburuordetzak jendeak erabiltzeko bi lokal ditu : – Kalitatea Kontrolatzeko Laborategia: eraikuntza bermiko eraikin honen irisgarritasunaren egokitzapenari lotuta baldintza guztiak betetzen ditu. – VISESA deritzonaren egoitzak (Euskadiko Etxebizitza Babestuak eta Lurzoria Sustatzeko Sozietate Publikoa, S.A.). Irisgarritasunaren egokitasunari lotutako baldintza guztiak betetzen ditu.
Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Saila	Hezkuntza Sailaren eraikinetan, unibertsitateko zentroak eta fakultateak albo batera utzita, lehen hezkuntza, bigarren hezkuntza eta lanbide heziketa eskaintzen da. Orain arte ez dago ikuspegi orokorrik eraikin horien irisgarritasunari buruz, ez baita inolako ikerketarik egin, eta gainera, ez da informazio-bilketa orokorrik egin, bertako egoitzen oztupo arkitektonikoen eta komunikazio-oztupoen egoera jakiteko. Hala eta guztiz ere, Sailak elbarritasunen bat duten ikasle guztien eskolatzea bermatzen du, eta, beharrezkoa izanez gero, kasu bakoitzean planteaturiko beharrianak ere betetzen ditu. Horretarako, Sailak premiazko egoerarako aurrekontu-partida bat dauka, eta horren erabilera nagusietariko zentroak elbarritasuna duten pertsonen beharrianetara egokitzea da.

10. koadroa. SAIL BAKOITZARI ATXIKITAKO EGOITZEN ORAINGO EGOERAREN BALORAZIOA (Jarraipena)

<p>Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Saila</p>	<p>Hezkuntza-zentroek, irisgarritasunaren egokitasunari lotutako arazoak konpontzeko, komunikazio zuzena dute Hezkuntza Sailarekin, kasuan kasuko lurralde-ordezkaritzetara atxikitako teknikarien bitartez, eta horietariko bakoitzak jarraipen zuzena egiteko zentro kopuru jakina dauka esleitura. Profesional horiek eskabideak jasotzen dituzte irisgarritasunaren arloan, hezkuntza-zentroetako zuzendariak bideratuta, eta gainera, kasuan kasuko ordezkaritzen baliabideburuen bitartez, Sailera eskabide zehatzak bideratzen dituzte. Proiektua idazteko eta obra betearazteko kudeaketak, bestalde, Sailak egiten ditu; baina, bere langilerik ez duenez, obrak lehiaketa publikora ateratzen dira.</p> <p>2001ean, berrikuntza obrak egin ziren, 20 zentroko oztopo arkitektonikoak ezabatzeko eta horien batez besteko kostua 120.202 eurokoa izan zen zentro bakoitzeko. 2002an, 30 zentro egokitzeko aurreikuspena dago, eta horren kostu osoa 3.606.072 eurokoa da.</p> <p>Oinplano berriko eraikinen eraikuntzari dagokionez, 2001ean hiru zentrotan eraikuntza amaitu eta lau zentro berrien eraikuntza hasi zen. Sailak Adir enpresaren lankidetzara dauka, Irisgarritasuna Sustatzeari buruzko Legea eta berori garatzen duten arauak eraikuntza berrietan ondo aplikatzeko.</p> <p>Gaur egun, Saila Hezkuntza Zentrotan Erregistroa prestatzeko fasean dabil, eta horren diseinuan ez dago aurreikusita irisgarritasun egokiari buruzko irizpidea sartzerik.</p>
<p>Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>EHUren Integrazio Plana landu baino lehen, ikerketa bat egin zen, elbarritasuna duten pertsonen Unibertsitateak eskaintako zerbitzuetan sartzeko dituzten oztopo arkitektonikoen mota zehazteko. Detektaturiko arazoetariko batzuk honako hauek izan ziren:</p> <ul style="list-style-type: none"> - aparkalekurik eza, - sakatu ezineko ateak, - malda handiegiko arrapalak, - muletekin eta gurpildun aukiekin ibiltzeko lurzoru irristagarriak, - eragin ezin diren ateak dituzten igogailuak, - altuera handiegiko barrak eta erakusmahaiak, liburutegietan, idazkaritzetan, laborategietan, etab., eta altuera handiegian kokaturiko apalategiak, - Tarima ezegokiak gela arruntetan, aretoetan eta graduen getetan, - zabalera txikiko komunak. <p>Unibertsitate-eraikinetako eta ikasleen egoitzetako irisgarritasunari dagokionez, Integrazio Planean ezarritako neurriak gauzatu arte, arazoak detektatzeko eta konpontzeko prozedura dago; horren helburua, berriz, eraginpeko taldearen beharrianak betetzea da, eta eskari horiek, kasu guztietan, lehentasuna dute. Prozedura, bestalde, elbarritasuna duten ikasleen koordinadorak edo zentroak beharriaz detektatzean hasten da; beharriaz hori kasuan kasuko eraikineko administratzaileari jakinarazten zaio, eta horrek, aldi berean, EHUko Obren Zerbitzuari jakinarazten dio egoera. Zerbitzu honek arazoa ikertzeko eta konpontzeko ardura dauka.</p> <p>Une bakoitzerako konponbiderik eraginkorrena aurkitzeko ahalegina egiten da; Unibertsitateko zentro desberdinak dituzten eraikinen ezaugarriak kontuan hartuta (eraikuntza-data,...), konponbidea ez dator beti oztopo arkitektonikoa edo komunikazio-oztopoa ezabatzei; egin-eginean ere, batzuetan beste zenbait neurri hartzen dira, esate baterako, elbarritasuna duen pertsonaren ikasgelako kide guztiak irisgarritasun egokiko beste egoitza batera eramatea. Gogoratu beharra dago, hori dagokionez, eraikina zenbat eta zaharragoa izan, oztopoak orduan eta ugariagoak direla, eta horien ezabaketa hainbat eta konplexuagoa.</p>
<p>Herrizaingo Saila</p>	<p>Irisgarritasuna Sustatzeari buruzko 20/97 Legea indarrean sartu ondoren, Segurtasun Sailburuordetzak ikerketa zehatza egin zuen bere eraikin guztiei buruz, hau da, jendeari arreta eskaintzeko erabilitako eraikinei buruz: eraikin nagusi guztiak, komisariak, trafikoko unitaterik gehienak eta hiritarrei arreta eskaintzeko bulegoak. Ikerketa horrek agerian jarritakoaren arabera, lehendik zeuden zentroek eta eraikuntza- edo berrikuntza-fasean zeudenen akatsak zituzten, araudi berria betetzeari zegoikionez, eraikitzeo unean indarrean zegoen legeriak adierazitako jarraibideen arabera baitziren. Ikerketa horren ondorioz, irisgarritasunari buruzko plana egin da, eta horrela, hobekuntza aipagarriak sartu dira Herrizaingo Sailburuordetzaren menpeko egoitza ia guztietan, jendeari arreta eskaintzeko erabiltzen diren egoitzetan, hain zuzen ere.</p>

10. koadroa. SAIL BAKOITZARI ATXIKITAKO EGOITZEN ORAINGO EGOERAREN BALORAZIOA (Jarraipena)

<p>Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila</p>	<p>Sailak bost zerbitzu mota eskaintzen ditu. Hain zuzen ere, lurralde-ordezkaritzak, CEIDA izenekoak, Biosfera Erreserbaren Patronatua, IHOBE eta Ur Zerbitzua. Bakoitzaren egoera hauxe da:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza alokaturiko eraikin batean dago, eta horrek ez ditu irisgarritasun egokiari lotutako baldintzak betetzen; bertatik, Ur Zerbitzua ere ematen da. Bizkaiko eta Arabako ordezkaritzek Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak Lakuan dituen bulegoetan egiten dute lan; horien irisgarritasunaren eskumena, sailen arteko eraikina denez, Ogasun eta Herri Administrazio Sailak dauka. - CEIDA izenekoak (Ingurumen Hezkuntza eta Ikerketako Zentro Didaktikoak) ingurumen-arloko irakasleak prestatzeko zentroak dira. Halako zazpi zentro daude, Azpeitian, Irunen, Bilbon, Donostian, Gasteizen, Legazpin eta Urtuellan. Azken biek izan ezik, gainerako guztiak irisgarritasun egokia dute. Gehienek, gainera, egokituriko komun bat edo bi dituzte. - Urdaibai Biosfera Erreserbaren Patronatuko (Gernikan kokatua) irisgarritasuna egokia da, baina ez dauka egokituriko zerbitzurik - IHOBE deritzon Ingurumen Kudeaketako Sozietate Publikoaren bulegoak (jendeari arreta eskaintzeko bulegoak) Bilboko eraikin bateko zortzigarren solairuan kokaturik dago; ez dute irisgarritasun egokirik; izan ere, zerbitzuraino iristeko igogailu bakarrak ez dauka gutxieneko dimentsiorik, gurpildun aulkian doan pertsona batentzat. - Ur Zerbitzua, oraintsutik, Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailean integraturik dago. Lehen esan dugunez, Gipuzkoan Ur Zerbitzuak eta Lurralde Ordezkaritzak kokaleku berbera dute, eta horren lokalak alokairuan daude. Lokalok ez dute irisgarritasun egokirik, ezta egokituriko komunik ere. Bilboko Ur Zerbitzuaren ezaugarriak antzekoak dira: alokairuko lokalak dira, irisgarritasun egokirik gabeak eta egokituriko komunik ere ez dute. Gasteizen, zerbitzua Eusko Jaurlaritzako sail anitzeko eraikin batean eskaintzen da, eta beraz, horren irisgarritasunaren egokitasuna ez da Sailaren eskumenekoa.
<p>Osasun Saila</p>	<p>Irisgarritasunari buruzko araudia indarrean sartu denetik, oinplano berriko eraikin eta eraikuntza-obra guztiak bertan ezarritako baldintzak betetzen dituzte. Zerbitzuen irisgarritasunaren egokitasun mailaren ikuspegi orokorra eskaintzen duten ikerketarik ez dagoenez, oztopoak ezartzeko beharrianak sailaren eta zentroen arteko ahoko informazio-trukearen bitartez jakinarazten dira. Horretarako, "Beharrianen Planak" deritzonak ere erabiltzen dira; horiek direla bide, osasun-sare publikoaren barruko zentro bakoitzak plana prestatzen du urtero, eta bertan, lehenaren ordenaren arabera, kasuan kasuko beharrianak jasotzen dira. Planteaturiko beharrianak, bestalde, urteroko aurrekontuaren arabera betetzen dira; hala eta guztiz ere, sailak ez dauka partida berezirik jasota aurrekontuetan, irisgarritasunaren arloko beharrianei erantzun egokia emateko. Gainera, detektaturiko oztopo arkitektonikoak ezabatzeko obra batzuk ezin dira egin, zentroak hartzen dituzten eraikinen ezaugarri berezien ondorioz. Zerbitzu batzuetan ezinezkoa izan arren (horien dimentsioaren eraginez), beste zenbaitetan, adibidez, nekazaritza inguruetako osasun-konsultetan, halako egoerarik dagoenean, zerbitzuak emateko irisgarritasun egokiko instalazio berriak aurkitzeko ahalegina egiten dute. Nolanahi ere, pertsona guztiak (mugikortasun arazoak eduki arren) arreta bermatuta daukate osasun-sare publikoaren barruko zentro guztietan; izan ere:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Sailak lehenatasuna ematen die, urteko edozein unetan, zentroetako oztopo arkitektonikoak ezabatzeko eskabideei, hain zuzen ere, elbarritasunen bat edukitzearen ondorioz zerbitzuarekiko arazoren bat duten langile edo erabiltzaile berriek egindako eskabideei. - Elbarritasuna duen pertsona berarentzat ohikoa ez den zentro batera joan eta bertan irisgarritasuna zailtzen edo ekiditen oztopo arkitektonikoak edo komunikazio-oztopoak badaude, horri arreta emateko behin-behineko alternatibak bilatzen dira, esaterako, osasun-langileak irisgarritasun egokiko egoitzetara eramaten dira. <p>Gainera, osasun-zentroek jendeari zuzendutako iradokizunen postontzia dute. Zentro bakoitzeko pertsona arduradunek postontzi horietan jasota kexak nahiz iradokizunak aztertzen nahiz baloratzen dituzte, eta bidezkoa izanez gero, urteroko "Beharrianen Planean" sartzen dituzte.</p>

10. koadroa. SAIL BAKOITZARI ATXIKITAKO EGOITZEN ORAINGO EGOERAREN BALORAZIOA (Jarraipena)

Nekazaritza eta Arrantza Saila	Sail honen egoitza ia guztiak (Arrantzako, Hazien Zerbitzuko eta Pasaiako Arrantza Eskola Nautikoko ordezkariak izan ezik) Lakuako sailen arteko multzoaren barruan daude, eta horren irisgarritasuna ez da sail honen eskumenekoa.
Industria, Merkataritza eta Turismo Saila	<p>Saileko bulego nagusiak ez ezik (Lakuan kokatuak eta irisgarritasun egokikoak), Sailak hiru lurralde-ordezkaritza ditu.</p> <ul style="list-style-type: none"> – Gasteizko ordezkariak bi egoitza ditu: lehenengoak, Turismo bulegoa jasotzen duenak, eskailera-maila txikia dauka sarreran; hala eta guztiz ere, hori gainditu ondoren, zerbitzua irisgarritasun egokikoa da; bigarren egoitzako irisgarritasuna guztiz egokia da, baina kasu honetan, irisgarritasun egokiari buruz aipatutako irizpidea irisgarritasunera bertara mugatzen da, eta ez irisgarritasunari buruzko indarreko araudia betetzera. – Bilbon, ordezkariak etxebizitza-erakin bateko lehenengo solairuan dago, eta bertara, plataforma batetik igo daiteke (mugikortasun urriko pertsonen erabiltzeko instalaturiko plataforma) plataforma hori modu autonomoan erabil daiteke. Dispositibo hori eduki arren, eta eraikinaren sarrerako arrapalan instalatuta badago ere, zerbitzua ez da guztiz egokia, bertara iristeko nekez irekitzen den ate batetik igaro behar baita. Hala eta guztiz ere, ordezkariak txostena bidali zuen, beharrezko baldintza guztiak bete ezin izateari buruz. – Donostiako ordezkariak hartzen duen eraikina sail anitzekoa da eta, horrenbestez, horren irisgarritasunaren egokitasunaren eskumena Ogasun eta Herri Administrazio Sailak dauka. <p>Lurralde-ordezkaritzak ez ezik, bere partaidetza nagusia duten enpresa publikoetako egoitzen irisgarritasuna ere sail honen erantzukizuneko da.</p> <ul style="list-style-type: none"> – EVE eta CADEM egoitza berberetan kokaturik daude, eta horien irisgarritasuna mugatua da. – SPRI deritzon egoitzak Bilbon daude. Eraikinak sartzeko arrapala eduki arren, hori igaro eta batera pisu handiko burdinazko atea dago, eta gurgildun aukian doan pertsona batek ezin du hori ireki. Barruan, irekitzeko moduko atea duen igogailua dago, baina zerbitzuko ateari suteen aurkako segurtasun-baldintzak betez, suteen aurkakoak dira, eta beraz, zailagoa da horiek irekitzea.
Ogasun eta Herri Administrazio Saila	<p>Ogasun eta Herri Administrazio Saileko Baliabide Orokorren Zuzendaritzak, bere bulego teknikoaren bitartez, kudeaketa zentralizaturiko eraikinaren erantzukizuna dauka, Eusko Jaurlaritzaren barruan. Eraikinok honako hauek dira: Gasteizen, Laku 1 eta 2, M eta N eranskinak, O eraikina (laster egitekoa), baita Samaniego kaleko eraikina ere; Bilbon Gran Via 85 kaleko eraikina, General Concha kaleko eraikina eta Máximo Agirre kaleko eraikina; Donostian Easo kaleko eraikina, Andia kaleko eraikina eta Gasteiz kaleko HABA eraikina.</p> <p>Eraikin bakoitzak aurrekari oso desberdinak ditu, eta oraingo formulazioa, berriz, eraikuntzako, forma-eginkizuneko edo araudiko baldintzen arabera da. Eraikin bakoitzaren eraikuntza-data desberdina da, eta gainera, batzuk ez ziren oraingo eginkizunerako eraiki; halaber, barne-berregokitzapen handia egin behar izan da. Nolanahi ere, higiezin bakoitza garaiko araudi orokorraren eta bereziaren arabera da. Administrazioak lanpostu desberdinen kokalekuari dagokionez duen barne-antolaketa erantzukizun- eta bilakaera-beharrizanen ondorioz, eraikinak aldatu egiten dira eta, aldaketa horretan, araudi aplikagarri berriarekiko erantzukizun ahalik eta handiena bilatzen da.</p> <p>Eraikin bakoitzaren oraingo egoera hau da:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Laku 1 eta 2. Oinezkoen ibilbideak, zoladura, oinezkoen igarobideak, kanpoko arrapalak, aparkalekuak, kanpoko ateak, atondoak, barruko komunikazio horizontala, barruko arrapalak, igogailuak eta jendearantzako aretoak irisgarritasun egokikoak dira, 20-97 Legean ezarritakoaren arabera. Jendea areta eskaintzeko zonak ere irisgarritasun egokikoak dira, araudi horren arabera, eta komunak ere araudiaren arabera dira, eta egokituak daude, kasuan kasuko esku-hartzeak kontuan hartuta.

10. koadroa. SAIL BAKOITZARI ATXIKITAKO EGOITZEN ORAINGO EGOERAREN BALORAZIOA (Jarraipena)

Ogasun eta Herri Administrazioako Saila

- M eta N eranskinak. Ez dago arrapalarik, altxatzeko plataformarik, aparkalekurik eta kanpoko aterik (irisgarritasuna partekatzen du Lakua 1 eta 2 deritzenekin). Atondoak, barruko komunikazio horizontala eta igogailuak irisgarritasun egokikoak dira, 20/97 Legean ezarritakoaren arabera. Jendeari arreta eskaintzeko zonak eta jendearentzako aretoak irisgarritasun egokikoak dira, araudi horretan ezarritakoaren arabera. Komunak ere araudiaren arabekoak dira, eta kasuan kasuko esku-hartzeak kontuan hartuta egokitzen dira.
- O eraikina (laster egitekoa). Ez dauka kanpoko aterik, arrapalarik eta aparkalekurik. Atondoak, barruko komunikazio horizontala, igogailuak, jendeari arreta eskaintzeko zonak, jendearentzako aretoak eta komunak irisgarritasun egokikoak dira, 20/97 Legean ezarritakoaren arabera.
- Samaniego kaleko eraikina. Ez dauka arrapalarik eta aparkalekuri. Kanpoko ateak, atondoak, barruko komunikazio horizontala, igogailuak, altxatzeko plataformak eta jendearentzako aretoak irisgarritasun egokikoak dira, 20/97 Legean ezarritakoaren arabera. Jendeari arreta eskaintzeko zonak irisgarritasun egokikoak dira, araudi horren arabera, eta komunak ere araudiaren arabekoak dira, eta kasuan kasuko esku-hartzeak kontuan hartuta egokitzen dira.
- Gran Vía 85 eraikina. Ez dauka aparkalekurik. Kanpoko ateak, atondoak eta barruko komunikazio horizontala irisgarritasun egokikoak dira, 20/97 Legean ezarritakoaren arabera. Arrapalak, igogailuak, altxatzeko plataformak, jendeari arreta eskaintzeko zonak eta jendearentzako aretoak irisgarritasun egokikoak dira, araudi horren arabera. Komunak ere araudiaren arabekoak dira, eta kasuan kasuko esku-hartzeen arabera egokitzen dira.
- General Concha kaleko eraikina. Ez dauka aparkalekurik eta altxatzeko plataformarik. Kanpoko ateak, atondoak, barruko komunikazio horizontala eta arrapalak irisgarritasun egokikoak dira, 20/97 Legean ezarritakoaren arabera. Igogailuak jendeari arreta eskaintzeko zonak eta jendearentzako aretoak irisgarritasun egokikoak dira, araudi horren arabera. Komunak ere araudiaren arabekoak dira, eta kasuan kasuko esku-hartzeen arabera egokitzen dira.
- Máximo Agirre kaleko eraikina. Ez dauka aparkalekurik eta altxatzeko plataformarik. Kanpoko ateak eta jendearentzako aretoak irisgarritasun egokikoak dira, 20/97 Legean ezarritakoaren arabera. Atondoak, arrapalak, igogailuak eta barruko komunikazio horizontala irisgarritasun egokikoak dira araudi horren arabera. Jendeari arreta eskaintzeko zonak neurri batean dira irisgarritasun egokikoak araudi horren arabera, eta komunen irisgarritasuna ez da egokia, araudiaren arabera.
- Easo kaleko eraikina. Ez dauka arrapalarik, altxatzeko plataformarik eta aparkalekurik. Kanpoko ateak, atondoak, jendearentzako aretoak eta barruko komunikazio horizontala irisgarritasun egokikoak dira, 20/97 legean ezarritakoaren arabera. Igogailuak eta jendeari arreta eskaintzeko zonak irisgarritasun egokikoak dira, araudi horren arabera. Komunak ere araudiaren arabekoak dira, eta kasuan kasuko esku-hartzeak kontuan hartuta egokitzen dira.
- Andia kaleko eraikina. Ez dauka arrapalarik, altxatzeko plataformarik eta aparkalekurik. Kanpoko ateak, atondoak, igogailuak eta barruko komunikazio horizontala irisgarritasun egokikoak dira, 20/97 Legean ezarritakoaren arabera. Jendeari arreta eskaintzeko zonak eta jendearentzako aretoak irisgarritasun egokikoak dira, araudi horren arabera. Komunak ere araudiaren arabekoak dira, eta kasuan kasuko esku-hartzeak kontuan hartuta egokitzen dira.
- Gasteiz kaleko HABE eraikina. Ez dauka arrapalarik, altxatzeko plataformarik eta aparkalekurik. Kanpoko ateak, atondoak, jendearentzako aretoak eta barruko komunikazio horizontala irisgarritasun egokikoak dira, 20/97 Legean ezarritakoaren arabera. Jendeari arreta eskaintzeko zonak eta igogailuak irisgarritasun egokikoak dira, araudi horren arabera. Komunak ere araudiaren arabekoak dira, eta kasuan kasuko esku-hartzeak kontuan hartuta egokitzen dira.

10. koadroa. SAIL BAKOITZARI ATXIKITAKO EGOITZEN ORAINGO EGOERAREN BALORAZIOA (Jarraipena)

Gizarte Arazoen Sailburuordetza	Lakuako eta Saileko ordezkarietzako egoitzetan, araudia bete egiten da, eraikinaren irisgarritasun egokiari dagokionez, baina ez komunikazio-sistemen irisgarritasunari dagokionez.
Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila	<p>Lakuako egoitzak ez ezik, Justizia Sailburuordetzak bi zentro mota ditu: justizia jauregiak eta adin txikikoen urratzeetarako zentroak.</p> <ul style="list-style-type: none"> - EAEko hiru lurraldeetako justizia jauregi ia guztiak 1989tik aurrera eraikitako edo berrituriko eraikinak dira, Justiziaren arloan azpiegiturak sortzeko eta hobetzeko plan autonomikoaren barruan. Horri dagokionez, EAEko hamabost justizia jauregiak metro karratu erabilgarrien % 90 baino gehiago azken urteotan eraiki edo sakon berritu dira. Egoitzarik gehien antzinatean urria kontuan hartuta, eta eraikitzeko unean irisgarritasunaren arloko indarreko araudira egokitu direla aintzat hartuz, arduradunen iritzian, hiru justizia jauregi soilik ez dituzte betetzen irisgarritasunaren arloko baldintzak. Bergarako nahiz Azeptiko Epaitegiak eta Donostiako Audientzia Probintziala (San Martín kalean) dira. Lehenengo kasuan, eraikin berria sortzeko aukera aztertzen ari dira, eta horrek, jakina, irisgarritasun egokiari lotutako baldintzak betekota ditu; bigarren kasuan, berriz, arrapala bat eraiki nahi da, sarrerako eskailera-mailak gainditzeko (epaitegi honetan, elbarrien sarrera, orain dela hilabete gutxi batzuetara arte, Erregistro Zibileko sarreratik egiten zen, baina aukera hori ezabatu egin behar izan da, segurtasun-arrazoi ondorior. Donostiako audientzia ere berritu egingo dute laster. Gainera, azken urteotan, justizia jauregi batzuetako irisgarritasunari lotutako ekimenak egin dira, esate baterako, kartelak nahiz seinaleak braille sisteman egitea edo jendeari arreta eskaintzeko erakusmahaien altuera araudian ezarritakora egokitzea. - Adin txikikoen urratzeetarako zentroi dagokionez, ez dago horien ezaugarriei buruzko datu zehatzik, irisgarritasunaren egokitzapenaren aldetik; hala eta guztiz ere, kasu guztietan, egoitzak oraintsu eraikita daude, eta beste zenbait kasutan, egoitzak beheko solairuetan kokaturik daude. Nolanahi ere, Sailburuordetzako arduradunen ustez, halako zentroak haurrek edo mugikortasun urriko profesionalak erabiltzen ez dituztenez, mugikortasuna bermaturik ez duten zentroyen berrikuntza zorrotxa ez da beharrezkoa. <p>Nolanahi ere, ez dago egoitza bakoitzak irisgarritasunaren arloan duen egoera islatzen duen erregistro berezirik. Hala eta guztiz ere, Irisgarritasunari buruzko Legea promulgatu baino lehen, arlo honetako egoitza batzuen irisgarritasunaren baldintzei buruzko ikerketa egin zen. Beharrian zehatzak konpontzeko prozedurari dagokionez, Zuzendaritzak, obra txikiak eta premiazkoak egiteko aurrekontu-partida dauka, eta hori erabili egin daiteke, beharrezkoa izanez gero. Orain arte, hala ere, ez da horri buruzko errekamaziorik edo eskabiderik aurkeztu.</p>

Aurkeztutako datuen aniztasuna kontuan hartuta, zaila da eraikinetako irisgarritasunaren egoerari buruzko balorazioa egitea, informazio-bilketan kontuan hartu diren eraikinei dagokionez. Nolanahi ere, honako ohar hauek egin daitezke:

- Eusko Jaurlaritzaren jardueretariko zati handi bat Gasteizen, Donostian eta Bilbon kokaturiko sailen arteko eraikinen bitartez eskaintzen da. Irisgarritasunaren arloko kudeaketa, berriz, Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren eskumenekoa da; gainera, egoitza guztietan irisgarritasunaren egokitasuna erabatekoa izan ez arren, emandako informazioaren arabera, maila orokorra onargarria dela esan daiteke. Halaber, horri dagokionez, aipagarria da sail honek 4/1997 Legea promulgatu zenetik oztopoak egokitzeko eta ezabatzeko egin duen lana.
- Egoera oso desberdina da, gainerako administrazio-egoitzetan, eta horri dagokionez, irisgarritasunaren egokitasuna ez da pozgarria. Egin-eginean ere, informazioa eman

duten zentro eta egoitza guztien erdian baino gehiagotan, bertako arduradunek emandako iritziaren arabera, irisgarritasuna ezegokia edo, kasurik onenean, mugatua da.

- Erabilera publikorako zentro kopuru handia duten bi sailek arreta berezia merezi dute: Osasuna eta Hezkuntza. Horiek ez dute zentro bakoitzeko egoerari buruzko erregistrorik, irisgarritasunaren egokitasunari dagokionez, eta zoritxarrez, emandako azalpenak kontuan hartuta, badirudi irisgarritasunaren arloko arazoak konpontzeko prozedura beti ez dela arazo honek behar duen neurrikoa. Izan ere, hurrengo kapituluan ikusiko dugunez, banakako egoerei ematen zaizkien konponbideak albo batera utzita, irisgarritasun ezegokiko edo mugatuko hezkuntza- eta osasun-zentroen kopurua nahiko handia da. Hala eta guztiz ere, bi sail horiek ahalegin ekonomiko handia egin dute euren egoitzak egokitzeko, bai zentroei diru-laguntzak emanez eta bai egoitza berriak eraikita.

Eraikin bakoitzeko egoerari buruzko informazioa ez ezik, sailtako arduradunei honako hau egoteari buruzko informazioa ere eskatu zitzaien:

- Eraikinetarako irisgarritasunaren baldintzei buruzko ikerketak, azterketak edo ebaluazioak.
- Eraikinen erregistroa, bertan euren irisgarritasunaren baldintzei buruzko atala jasotzeko.
- Euren lokaletako eta eraikinetako irisgarritasunaren arazoak detektatzeko eta konpontzeko ezarritako prozedurak (adibidez, iradokizunen, kexen eta erreklamazioen prozedurak).

Halako tresnak ezinbestekoak dira, egoitzek irisgarritasunaren arloan duten egoera jakiteko eta horri lotutako jarduerak planifikatzeko; hori hurrengo taulan laburbilduta dago:

26. taula. IRISGARRITASUNAREN ARLOKO BEHARRIZANEN DIAGNOSTIKORAKO ETA AZTERKETARAKO TRESNAK

Saila	Ikerketak	Erregistroak	Beste prozedura batzuk
Etxebizitza Sailburuordetza	Ez	Ez	Ez
Euskal Herriko Unibertsitatea	Bai	Ez	Bai
Hezkuntza Saila	Ez	Ez	Bai
Segurtasuneko Sailburuordetza	Bai	Ez	Ez
Lurralde Antolamendu Saila	Ez	Ez	Ez
Osasun Saila	Ez	Ez	Bai
Nekazaritza eta Arrantza Saila	Ez	Bai	Ez
Industria, Merkataritza eta Turismo Saila	Ez	Ez	Ez
Kultur Ondareko Zuzendaritza	Ez	Ez	Ez
Kultur Hedapeneko Zuzendaritza	Ez	Ez	Ez
Kiroleko Zuzendaritza	Ez	Ez	Ez
Gazteriako Zuzendaritza	Ez	Ez	Ez
Gizarte Arazoetako Zuzendaritza	Ez	Ez	Ez
Justizia, Enplegu eta S. Segurantzako Zuzendaritza	Bai	Ez	Ez
Ogasuneko eta Herri Administrazioiko Zuzendaritza	Bai	Ez	Ez

Taulan ikusten denez, halako tresnen erabilera oso urria da:

- Ikerketei dagokienez, elkarrizketaturiko hamabost erakundetarik lauk soilik dute euren egoitzen irisgarritasunaren egokitasun mailaren azterketarik, eta hori beti ez da zehatza edo oraintsukoa.
- Erregistroei dagokienez, egoitzen zerrenda duen erakunde bakarra dago, eta bertan, besteak beste, bertako irisgarritasunaren egokitasun maila adierazten da. Gainera, euren eraikinen erregistro berriak lantzen ari diren erakunde guztiek ez dute halako informaziorik jasoko bertan. Nolanahi ere, esan behar da sail askok ez dutela euren zentrorik.
- Halaber, lokaletako eta eraikinetako irisgarritasunari lotutako arazoak detektatzeko eta konpontzeko beste prozedura batzuk kasu gutxitan aurkitu dugu. Hiruk soilik dute halako prozedurarik.
- Ez dago tresna hauetariko bat baino gehiago duen sailik eta zortzik ez dute inolako tresnarik.

2.3. Sail bakoitzak irisgarritasuna sustatzeko abiatu dituen politika aktiboak

Lehen esan dugunez, Irisgarritasuna Sustatzeari buruzko 20/1997 Legea dela bide, Eusko Jaurlaritzako sailen eginkizunen artean, gaienerako herri administrazioen kasuan gertatzen den bezala, euren jarduera-eremuetako irisgarritasunaren egokitasuna sustatzeko neurriak abiatzea sartzen da. Irisgarritasunari buruzko lau urterako planak oraingoz albo batera utzita (irisgarritasuna sustatzeko politika aktibotzat hartu ahal badira ere, gehienbat barruko planifikaziora orientaturik daude, sail bakoitzeko egoitzen irisgarritasunaren arloan), eta lege horretan ezarritakoaren arabera, atal honetan sail bakoitzak irisgarritasun egokia sustatzeko hartutako diru-laguntza-neurriak aztertuko ditugu batez ere, baita sail bakoitzak arlo horretan promulgaturiko araudia ere. Hain zuzen ere, honako jarduera hauek abiatzea aztertuko da:

- Udaletarako edo beste erakunde publiko batzuetarako diru-laguntzetarako deialdiak, irisgarritasun egokia sustatzeko planak lantzeko edo oztopo arkitektonikoak ezabatzeko obrak finantzatzeko.
- Erakunde pribatuetara edo irabazi asmorik gabeko elkarteetara bideraturiko diru-laguntzetarako deialdiak, irisgarritasunaren gaia berariaz aipatuta.
- Elbarritasunen bat duten pertsonen irisgarritasunaren egokitasun baldintzak hobetzeko banakako laguntzak, bai teknikoak edo bai etxebizitzaren egokitzapenari lotutakoak.
- Berezko araudia promulgatzea, irisgarritasunaren gaiari buruzko berariazko aipamena eginez.
- Irisgarritasunaren egokitasuna sustatzeari loturiko beste jarduera batzuk, sail bakoitzaren jarduera-eremuetan.

Sail bakoitzak irisgarritasun egokia sustatzeko gauzaturiko politika aktiboak hurrengo koadroan laburbilduta daude¹⁹:

¹⁹ Halako neurri buruzko informazio eman duten sailak soilik hartu dira aintzat.

11. koadroa. SAIL BAKOITZAK IRISGARRITASUNAREN SUSTAPENEAN EGINDAKO POLITIKA AKTIBOAK: LAGUNTZAK ETA ARAUDIA

Kultur Ondareko Zuzendaritza	<p><i>Laguntzak</i></p> <ul style="list-style-type: none"> - Eusko Jaurlaritzak, 2000. urtetik hona, urteroko dirulaguntza-deialdia egiten du, udalei eta mankomunitateei begira, euren liburutegietako azpiegiturak sortzeko eta berritzeko. Berritzea, kasu honetan, bai eraikinen eta lokalen handitzea, berrikuntza edo egokitzapena, bai altzariak eta seinaleztapenerako errotuluak lortzea da. Dirulaguntza horiek, bestalde, jendearentzat irekita dauden liburutegiek eskuratu ahal dituzte, baldin eta Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionalaren barruan egon eta kasuan kasuko herriak gutxienez 3.000 biztanleko biztanleria badauka. 2002an argitaraturiko araudian helburu horretarako finkaturiko zenbatekoa 192.324 eurokoa zen. Hala eta guztiz ere, zenbateko hori handiagoa izan daiteke, eskatutako laguntza-kopurua eta urte amaierako aurrekontu-erabilgarritasuna aintzat hartuta. Aurrekizutako proiektuak baloratzeko ezarri diren hautapen-irizpideek puntuazioaren % 30 erreserbatzen dute, Liburutegien Zerbitzuak eskainitako gomendio teknikoak betetzeko. Liburutegi publikoak diseinatzeko eta proiektatzeko gomendio horiek, berriz, Liburutegien eta Liburuzainen Nazioarteko Elkarteen Federazioak (LLNEF) adierazitako jarraibideetan oinarrituta daude, eta, besteak beste, oztopo arkitektonikorik eta dokumentazio mailakorik ez edukitzeko baldintza eskaintzen da.
Kirol Zuzendaritza	<p><i>Araudia</i></p> <ul style="list-style-type: none"> - Kirolari buruzko ekainaren 11ko 14/1998 Legean ezarritakoaren arabera, "kirol-ekipamenduak irisgarritasun egokikoak eta oztoporik gabeak izango dira, elbarritasuna duten pertsonen zirkulazio askea ez ekidituko. Halaber, kirol-eremuak halako pertsonen erabiltzeko moduan hornituta egongo dira, eremu horien helburu diren kirolen ezaugarriek horretarako bidea ematen dutenean". Gainera: "Erabilera publikoa duten hornidura publikoek edo pribatuek araudi hori bete beharko dute. Udalek araudi horren betetzea bermatuko dute, kasuan kasuko udal mugartean kokaturiko kirol-instalazio guztietan". - Lurralde eta autonomia-eremuko kirol-federazioak erabilera publikoko erakundeak dira, eta euren eginkizuna, kirolari buruzko Legean ezarritakoaren arabera, kiroleko jarduera eta lehiaketa ofizialak sustatzea, kalifikatzea, baimentzea eta agintzea da, kasuan kasuko modalitatearen barruan. Legeak euskal federazioa eta hiru lurralde-federazio egotea ezartzen du, eta horien barruan, elbarritasun fisikoa, psikikoa, sentsoriala edo mistoa duten kirolariak bilduko dira. Federazio horiek oraindik sortu ez diren arren, Kultura Sailak dekretu bat onetsi nahi du, eta bertan, irabazi asmorik gabeko elkarteei buruzko beste gai batzuekin batera, elbarritasuna duten pertsonen Euskadiko Federazioa sortzea dago aurreikusita. Erakunde hori sortuta, hobetu egingo dira, besteak beste, kirol-instalazioetako irisgarritasunaren baldintzak, federazioek lehiaketa ofizialei dagokienez dituzten homologazio-eginkizuna dela bide. Gainera, federazio horiek jolaseko irizpideak ezarri eta gainera, txapelketa ofizialak baloratu nahiz homologatuko dituzte, hau da, elbarritasuna duten pertsonen partaidetza duten txapelketak, jokorako instalazioek bete beharreko baldintzak ere barne. - Beste alde batetik, Eusko Jaurlaritzak irizpide komunak onetsi behar ditu, herri administrazioen menpeko kirol-horniduren zentsuak diseinatzeko. Irizpide hauek orain ari dira lantzen, eta horien barruan, segurutik, zentroen irisgarritasunaren egokitasunari buruzko informazioa sartuko da.
Gazteriako eta Ekintza Komunitarioko Zuzendaritza	<p><i>Arautegia</i></p> <ul style="list-style-type: none"> - Kultura Sailak orain 10 urte promulgaturiko 211/1993 Dekretua gazteen informazio-zerbitzuen onarpen ofiziala arautzen duen araudia da. Zentro edo informazio-gune horiek udalen, foru aldundien eta halako zerbitzuen ematea Administrazioarekin hitzartzen duten erakunde pribatuen menpe daude. Gaur egun, modu ofizialean onarturiko 48 zerbitzu daude (3 Araban, 20 Bizkaian eta 25 Gipuzkoan). Gainera, lurralde horietariko bakoitzean, Gazteen Informaziorako Lurralde Zentro bat dago, eta horrek kasuan kasuko lurraldean kokaturiko zerbitzuak koordinatzen ditu. Onarpen ofizialerako, zerbitzu horiek gutxieneko baldintza batzuk bete behar dituzte, besteak beste, erabiltzaileei arreta eskaintzeko egoitzen baldintza fisikoak. Horri dagokionez, araudian ezarritakoaren arabera, lokalek "irisgarritasun zuzena ahalbidetuko dute, beste egoitza batzuetatik igaro beharrik gabe, eta ez dute irisgarritasun hori zailtzeko oztopo arkitektonikorik edukiko; horretarako, beheko solairuan edo solairu artean kokatuta egongo dira".

11. koadroa. SAIL BAKOITZAK IRISGARRITASUNAREN SUSTAPENEAN EGINDAKO POLITIKA AKTIBOAK: LAGUNTZAK ETA ARAUDIA (Jarraipena)

Gazteriako eta Ekintza Komunitarioko Zuzendaritza	<ul style="list-style-type: none"> - Bestalde, Kultura Sailak , zuzendaritza honen bitartez, haurren eta gazteen taldeak egoteko aterpetxeen eta instalazioen onarpenerako nahiz funtzionamendurako baldintzak arautu behar ditu. Baldintza horiek urriaren 18ko 406/1994 Dekretuan jasota daude. Irisgarritasunaren baldintzei dagokienez, bertako 6. artikuluan ezarritakoaren arabera, "elbarritasuna duten pertsonak sartzeko oztopo arkitektonikoak ezabatzeari buruzko beste edozein araudiren kalterik gabe", instalazio guztietan honako baldintza hauek bete beharko dira: a) kanpoaldetik behe solairurako irisgarritasuna, arrapalen bitartez eta ateen zabalera nahikoaren bidez; b) zerbitzu higienikoen eta dutxen kopuru nahikoa, bai beheko solairuan eta bai logeletatik hurbil, eta horiek elbarrien beharizanetara egokituta egongo dira; c) aurreko bi paragrafoetan adierazitakoak zuzenak ez diren konponbideak sortzen dituzte, edo neurritz kanpoko baliabide ekonomikoak behar dituzte, konponbide bereziak onartzeko organo eskudunak hartuko ditu, eta hartutako konponbide horien egokitasuna justifikatu beharko da, baita goian aipatutako puntuak betetzeko ezintasuna edo ezegokitasuna ere". - 1997ko Aginduak, aipatutako dekretua garatu duenak, hauxe ezartzen du bertako 12. artikuluan: "eraikuntza berriko instalazioak direnez, araudian jasotako baldintza teknikoak beteko dira, oztopo arkitektonikoak ezabatzeari buruz, eta gainerako arau aplikagarriak ere beteko dira".
Etxebizitzako Sailburuordetza	<p><i>Laguntzak</i></p> <ul style="list-style-type: none"> - Etxebizitza eta Gizarte Arazoetarako Sailak (lehen Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Saila), azken hiru urteotan, udaletarako eta toki erakundeetarako dirulaguntza-multzoa argitaratu du, irisgarritasun egokia sustatzeko, eta azken deialdia 2002ko abenduaren 30eko Aginduaren bitartez promulgatu zen. Laguntzak jasotzen dituzten jarduerak honako hauek dira: Irisgarritasuna Sustatzeko Legean ezarritako irisgarritasun-planak egitea, hobekuntza-obrak betearaztea eta hornidura egokia eskuratzea, hiri-inguruko eta eraikinetako irisgarritasunaren egokitasuna bermatzeko. Laguntzek planak egiteko kostuaren % 80 finantzatu ahal dituzte, baita obrak betearaztearen edo hornidurak eskuratzearen % 50 ere. Halako laguntzen azken deialdian, lau milioi euro bideratu ziren bertara; horietatik 1,7 2002koak eta 2,3 2003koak ziren. Laguntzen zenbateko osotik, 198.902 euro (% 6,5) udalerrietan lau urterako planak egitera bideratu ziren; 2.857.020 euro (% 93,1), berriz, obretarako dirulaguntzetara bideratu ziren. Dirulaguntza jaso zuten 63 udalerrietatik, 15ek baino ez zuten eskatu planak idazteko laguntzarik (hiru Araban, lau Bizkaian eta zortzi Gipuzkoan). Lurraldeka, dirulaguntzen % 11 Arabako 7 udalerrietara bideratu zen, % 42 Bizkaiko 25 udalerrietara eta % 46 Gipuzkoako 31 udalerrietara. Urteen arabera, 2002an 325.482 euroko dirulaguntzak eman ziren, eta 2003an 2.730.440 euroko dirulaguntzak. Bi ekitaldi horietan, horrenbestez, 3.055.923 euroko dirulaguntzak eman ziren, eta, eskabiderik ez egotearen ondorioz, 944.076 euro gelditu ziren adjudikatu gabe. - Banakako dirulaguntzei dagokienez, etxebizitza birgaitzeko finantza-neurriei buruzko 2002ko abenduaren 30eko Aginduan baldintza berezi batzuk ezartzen dira, eta horiek mesede egiten die mugikortasun arazo iraunkorren ondorioz etxebizitza birgaitu behar duten pertsonen. Horrela, esate baterako, elbarritasuna duten pertsonen kasuan, laguntzak etxebizitzaren antzinasuna kontuan hartu gabe eman daitezke (gainerako kasuetan, hamar urteko gutxieneko antzinasuna behar da). Laguntzak, birgaitze motaren arabera, obren kostu osoaren % 20-45 bitartekoak izan daitezke, 5.400 euroko mugarekin. <p><i>Arautegia</i></p> <ul style="list-style-type: none"> - Babes Ofizialeko etxebizitzaren araubideari eta etxebizitzaren nahiz lurzoruen arloko finantza-neurriei buruzko abenduaren 30eko 315/2002 Dekretuan ezarritakoaren arabera, lehendik ere etxebizitzaren bat eduki arren, mugikortasun arazoren bat duen pertsona bat edo gehiago duten familiek babes ofizialeko etxebizitzak eskuratu ahal izango dituzte, baldin eta irisgarritasunaren egokitasunari lotutako baldintzak betetzen ez dituzten etxebizitzetan bizi badira. Halako kasuetan, babes ofizialeko etxebizitzaren pertsona onuradunek kasuan kasuko sailaren esku utzi beharko dute lehengo etxebizitza. Gainera, Dekretuko 18. artikuluan ezartzen den bezala, mugikortasun urriko pertsonen kasuan, babes ofizialeko etxebizitzak alokatzeko ez da gutxieneko diru-sarrerarik egiaztatzea beharko; jabetza osoko etxebizitzak lortzeko, berriz, 3.000 euroko gutxieneko diru-sarrerak egiaztatzea nahikoa izango da. - 2002ko abenduaren 30eko Aginduan (Babes Ofizialeko Etxebizitzak Diseinatzeko Ordenantzak onetsi dituen Agindua), baldintza batzuk ezartzen dira halako etxebizitzetako irisgarritasunari eta oztopo arkitektonikoak ezabatzeari buruz.

11. koadroa. SAIL BAKOITZAK IRISGARRITASUNAREN SUSTAPENEAN EGINDAKO POLITIKA AKTIBOAK: LAGUNTZAK ETA ARAUDIA (Jarraipena)

Etxebizitzako Sailburuordetza	<ul style="list-style-type: none"> - Mugikortasun arazoak dituzten pertsonen babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzeari dagokionez, babes ofizialeko etxebizitzak adjudikatzeko prozedurei buruzko 2002ko ekainaren 14ko Aginduan ezartzen denez, sustapen bakoitzean adjudikatu beharreko etxebizitza guztietatik, egokituriko etxebizitzaren gutxieneko kupo (eraikitako 25 etxebizitzatik bat) erreserbatuko da, mugikortasun urriari lotutako elbarritasun iraunkorra duten pertsonentzat 20/1997 Legeko 4. artikuluan ezarritakoaren arabera.
Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Saila	<p><i>Laguntzak</i></p> <ul style="list-style-type: none"> - Udal-titularitateko ikastetxeek bi iturri desberdinetatik lortzen dute finantziarioa: Eusko Jaurlaritzatik (inbertsio-gastuen ardura dauka) eta kasuan kasuko udaletatik (mantenamenduaren kostua berenganatzen dute). 2001ean Eusko Jaurlaritzak udaletako ikastetxeetan egindako obraren % 55 finantzatu zuen, eta gainerako % 45aren finantziarioa udalen euren kontura izan zen. Nolanahi ere, kasu guztietan, oztupoak ezabatzeko obrak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak finantzatu behar ditu. Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Sailak, urtero, oztupo arkitektonikoak ezabatzeko eta eremuak hezkuntza-beharrizan bereziak dituzten ikasleei egokitzeko (hitzarturiko ikastetxeetan) dirulaguntzarako deialdia egiten du; horrela, egin beharreko berrikuntza-obren % 50 finantzatu du. 2001ean, dirulaguntza hori 11 ikastetxek jaso zuten (guztira 17 ikastetxek egin zuten eskabidea). Gainerako 6 ikastetxeetatik hiruk ez zituzten betetzen arauan ezarritako baldintzak, eta beste hiru aurrekonturik ez edukitzearen ondorioz gelditu ziren kanpoan. Adjudikaziorako erabilitako irizpideek kontuan hartzen zuten ikastetxean matrikularik zeuden mugikortasun arazoko ikasle kopurua, baita egoiztako irisgarritasunaren zailtasun maila ere. Azken dealdian esleituriko aurrekontua 90.633 eurokoa da 2002rako, eta 90.452 eurokoa 2003rako.
Osasun Saila	<p><i>Laguntzak</i></p> <ul style="list-style-type: none"> - Udalerrri batzuetan, osasun-kontsultetako eta osasun-zentroetako instalazioak udalaren titularitatekoak dira. Urtero, Osasun Sailak dirulaguntza-multzoa bideratzen du, zentro berriak berritzeko nahiz hornitzeko edo eraikitzeo obrak neurri batean edo guztiz finantzatzeko. Dirulaguntza horien barruan, irisgarritasuna hobetzeko obrak ere sartzen dira. Halako laguntzak lortu nahi dituzten toki korporazioek, berrikuntza obrak egiteko eskabideekin batera, zentroaren oraingo egoeraren eta planteaturiko berrikuntzaren planoak ere aurkeztu behar dituzte; gainera, laguntzak emateko orduan, kontuan hartuko da oztupo arkitektonikoak ezabatzeari eta irisgarritasuna egokitzeari buruzko araudia. Baldintza hori 2000n sartu zen, hau da, Irisgarritasuna Sustatzeari buruzko Legea garatzeko 68/2000 Dekretua indarrean sartzeko urtean. 2002rako aurreikusitako dirulaguntzen zenbateko osoa 500.000 eurokoa da. Nolanahi ere, gutxi gorabeherako zifra da; izan ere, adibidez, aurreikusitako zenbatekoa 4.000eurotan gainditu zen. 1998tik, halako laguntzei esleitutako aurrekontuak gorakada handia izan du, eta 2000. urtean gorakada itzela egon da, 480.809 euroko aurrekontua erreserbatu baitzen, hau da, aurreko urtekoa baino hiru aldiz handiagoa (180.303 euro). - Hala eta guztiz ere, iaz adjudikaturiko dirulaguntzetatik bat baino ez zegoen oztupoak ezabatzera bideratuta; hain zuzen ere, osasun-kontsulta batera sartzeko arropala instalatzera bideratu zen, eta horretarako, 24.040 euro eman ziren. Gainerako 20 laguntzetatik, 15 (466.385 euro) irisgarritasunean hobekuntzaren bat egiteko izan ziren; egin-eginean ere, oinplano berriko lokalak berritzeko edo eraikitzeo obrak ziren, eta horietan, derrigorrezkoa zen irisgarritasunaren arloko araudia betetzea. - Beste alde batetik, 1997an, Osasun Sailak banakako laguntzei buruzko dekretu bat argitaratu zuen, eta horren bidez, beste laguntza tekniko batzuen artean, kanpoko protesien, gurgildun aukien, ortesien eta protesi berezien lorpena ahalbidetzen da. Era berean, kabinete ortopedikoen funtzionamenduaren baldintzak eta horien artean ezarritako lankidetzak-hitzarmenaren baldintzak zehazteko orduan, irisgarritasunaren arloko gutxieneko baldintza batzuk ezarri dira.
Nekazaritza eta Arrantza Saila	<p><i>Laguntzak</i></p> <ul style="list-style-type: none"> - Nekazaritza eta Arrantza Sailak, Nekazaritza Garapen Jasangarrirako Planaren eremuan egindako jarduketaren barruan, "Erein Programa" sustatu du; horren bitartez, dirulaguntzak ematen zaizkie bai toki administrazioei eta bai pertsona fisikoiei edo irabazi asmorik gabeko edo irabazi asmoko elkarte pribatuei, baldin eta nekazaritza ingurutako egitura ekonomikoetan parte hartzen badute (100/2002 Dekretuan araututako egiturak). Dirulaguntza jaso eta programan berariaz aipatutako jarduketetariko bat, izan ere, inguru horietako biztanleei zuzendutako zerbitzuetan oztupo arkitektonikoak ezabatzea da. Jarduera horren finantziarioaren

11. koadroa. SAIL BAKOITZAK IRISGARRITASUNAREN SUSTAPENEAN EGINDAKO POLITIKA AKTIBOAK: LAGUNTZAK ETA ARAUDIA (Jarraipena)

Nekazaritza eta Arrantza Saila	<p>zati bat FEOGA deritzonak egiten du (Nekazaritza Orientazioko eta Bermeko Europako Fonda). Laguntza horien bidez finantzaturiko jardueraren kostuaren ehunekoak, berriz, eskatzailearen ezaugarri juridikoen arabera da; horrela, Pymetako produkzio-inbertsioak % 25ean finantzatzen dira, eta ehuneko hori % 35ekoa izan daiteke, gainbeheran doazen nekazaritza-zonetan; norbanakoek produkziokoak ez diren jarduketan inbertsioaren % 80 jasoko dute; toki erakundeek edo irabazi asmorik gabeko erakunde publikoek, azkenik, lagundu beharreko jardueraren kostu osoa finantza dezakete. Eusko Jaurilaritzak Erein programan 2002rako jasotako jarduera-lerroei esleituriko aurrekontu osoa 1.395.360 eurokoa da, baina jakina, hori ez da oso-osorik bideratu oztopo arkitektonikoak ezabatzen.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Beste dirulaguntza batzuk ere badira, landa turismoa establezimenduen edo arrantzari lotutako eremuetako enpresa berrien egokitzapena finantzatzeko, eta horiek irisgarritasunari buruzko araudirako egokitzapen-lanak finantzatzeko erabil daitezke. Halako laguntzetan, hala eta guztiz ere, irisgarritasunaren gaia ez da berriaz aipatzen, eta gainera, gai hori ez da aintzat hartzen laguntzak emateko irizpide zehatzak ezartzeko orduan.
Industria, Merkataritza eta Turismo Saila	<p><i>Laguntzak</i></p> <ul style="list-style-type: none"> - Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak, bere aurrekontuetan, hiritar guztiek Euskadiko turismo-eskaintza eskuratzeko sustatzeko neurrietarako dirulaguntzak emateko partida bat dauka, eta bertan, berriaz aipatuta daude irisgarritasun egokia sustatzeko neurriak. Laguntza horien onuradunak, beste alde batetik, irabazi asmorik gabeko enpresak nahiz erakundeak eta erakunde publikoak izan daitezke. Dirulaguntzak, berriz, oztopo arkitektonikoak, hirigintzakoak edo komunikaziokoak ezabatzeko jarduera guztiak jaso ditzakete, EAEko turismo-establezimenduei dagokienez, horien irisgarritasunaren baldintzak hobetzeko. Dirulaguntza, gehienez jota, eskatzaileak egin beharreko inbertsioaren % 50ekoa izan daiteke; nolana ere, laguntza bakoitzeko eman beharreko gehieneko zenbatekoa ez da 24.040 eurotik gorakoa izango. Halako laguntzetarako zenbateko orokor erabilgarria 90.152 eurokoa izan da 2002an, aurreko urteko zenbateko berbera. Zenbateko horretatik, 65.428 euro eman ziren. <p><i>Arautegia</i></p> <ul style="list-style-type: none"> - Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak 2000ko maiatzean promulgaturiko dekretu baten bitartez, hotel-establezimenduen antolamendua egin da; bertan ezartzen denez, hotel-establezimendu guztiek 50 ostatuko bat erreserbatuko dute mugikortasun urriko pertsonen lehenetsuzko erabilerrako. Gainera, hamar plazatik batean, beharrezko laguntza teknikoak ezarriko dira, komunikazio-arazoak dituzten pertsonen ostatu modu autonomoan okupatzeko.
Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila	<p><i>Arautegia</i>²⁰</p> <ul style="list-style-type: none"> - Hirugarren adinerako egoitzako gizarte zerbitzuei buruzko martxoaren 10eko 41/1988 Dekretuko 2. puntuan ezartzen denez, egoitza guztiek Euskal Autonomia Erkidegoko indarreko araudia bete beharko dute, oztopo arkitektonikoei eta hirigintzakoiei dagokienez, eta gainera, beharrezko berrikuntza-obra guztiak egin beharko dituzte, bertan jasotako baldintzak betetzeko. - Menpekotasuna duten adineko pertsonentzako zentzoei buruzko urriaren 17ko 2002/2000 Dekretuan ezarritakoaren arabera, halako zentroek 4/1997 Legean ezarritako arauak bete beharko dituzte - Enplegurako orientazio-jarduerak garatzeko laguntzak egituratzeari buruzko 76/2000 Dekretuan ezartzen denez, zerbitzuak adjudikatzeko orduan, oztopo arkitektonikorik ez egotea eta 4/1997 Legeko baldintzetara egokitzea baloratuko da. - Auzolan programa egituratzeari buruzko uztailaren 30eko 1999/2002 Dekretuan adierazitakoaren arabera, dirulaguntza jaso duten proiektuek ekintza positiboko neurriak jaso beharko dituzte, pertsona guztiak programan sartu ahal izateko, Irisgarritasuna Sustatzeari buruzko abenduaren 4ko 20/1997 Legea betez. <p><i>Laguntzak</i></p> <ul style="list-style-type: none"> - 1997an eta 1999an, sailak dirulaguntza-multzoa bideratu zuen, Euskal Autonomia Erkidegoko toki erakundeetara, oinarrizko gizarte zerbitzuen baldintza fisikoak hobetzeko berrikuntza-obra egiteko.

20 Kasu guztietan, Etxebizitza eta Gizarte Arazoetarako Sailari Gizarte Ongizatearen arloko eskumenak esleitu baino lehen promulgaturiko neurriak dira.

11. koadroa. SAIL BAKOITZAK IRISGARRITASUNAREN SUSTAPENEAN EGINDAKO POLITIKA AKTIBOAK: LAGUNTZAK ETA ARAUDIA (Jarraipena)

Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila	<p>Eusko Jauriaritza azken aldiz aldatu zenean (2001eko iraila), sailen egituratze berria egon zen; horren bitartez, etxebizitzaren eta irisgarritasunaren arloko eskumenak sail honetatik Etxebizitza eta Gizarte Arazoetarako Sail sortu berrira igaro ziren. Horrenbestez, bai Iriagarritasuna Sustatzeari buruzko 20/97 Legea, bai Hiri Inguruetako, Eremu Publikoetako, Eraikinetako eta Informazio nahiz Komunikazio Sistemetakoa Iriagarritasunaren Baldintzei buruzko Arau Teknikoak onetsi dituen 68/2000 Dekretua idazteko prozesuan, Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saileko Lurralde Antolamenduko Zuzendaritzak esku-hartze zuzena izan zuen; hala eta guztiz ere, Arkitektura Zuzendaritzatik berezita gelditzean (gaur egun, Etxebizitza eta Gizarte Arazoetarako Sailera atxikita), arlo honetan ez da jarduera berririk egin.</p>
Gizarte Arazoetarako Zuzendaritza	<p>Etxebizitza eta Gizarte Arauetarako Sailak irisgarritasunaren arloan dituen eskumenik gehienak Etxebizitza Sailburuordetzaren esku daude, eta Gizarte Arazoetarako Sailburuordetzak ez dauka eskumenik arlo horretan. Hori dela eta, ez da dirulaguntza-deialdirik promulgatu udaletarako, erakunde publikoetarako edo irabazi asmoko nahiz halakorik gabeko elkarteetarako, nahiz eta horiek eraikitako inguruko irisgarritasun egokiaren gaia aipatu. Hala ere, komunikazioko irisgarritasunari lotutako jarduketetarako dirulaguntzak eman dira.</p> <p>Araudiari dagokionez, dekretu-zirriborro bat dago, udal eskumeneko oinarriko gizarte-zerbitzuak arautzeko, eta bertan irisgarritasunari lotutako baldintza batzuk jasotzen dira.</p>

Arauk promulgatzea edota laguntzak nahiz diru-laguntzak ematea albo batera utzita, Eusko Jauriaritzako sailek jarduera gutxi abiatu dituzte, irisgarritasuna sustatzearen arloan. Ondoren adierazitako jarduera ia guztiak Etxebizitza eta Arkitektura Zuzendaritzak sustatu ditu, eta hori, 2001era arte, Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Sailean sartuta zegoen, eta ordutik, Etxebizitza eta Gizarte Arazoetarako Sailean sartuta gelditu da²¹:

21 Lehen esan dugunez, dokumentazio-iturrietatik bildutako informazioa da.

12. koadroa. IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO BESTE JARDUERA BATZUK

Irisgarritasuna Sustatzeko Euskadiko Kontseilua	<p>Irisgarritasuna Sustatzeari buruzko Legeko V. tituluan, Irisgarritasuna Sustatzeko Euskadiko Kontseiluaren sorrera ezartzen da, kontsultarako eta partaidetzarako organotzat; bertan, Euskadiko herri administrazioen ordezkaritza egongo da, baita irabazi asmorik gabeko erakundeak, kontsumitzaileen nahiz erabiltzaileen elkarteak eta arkitektoen, aparejadoreen zein injinieruen elkargo ofizialak ere. 1998ko urriaren 1ean sortuta, gaur egun Kontseilua Etxebizitza eta Gizarte Arazoetarako Saileko Etxebizitza eta Arkitektura Zuzendaritzara atxikita dago.</p> <p>2001eko memorian jasotzen denez, urte horretan Kontseiluko Osoko Bilkura behin bildu zen, eta bertako Batzorde Iraunkorra bitan. Kontseiluak, gainera, 2001ean, 48 txosten- eta kontsulteskabide jaso zituen, udalek, enpresek, epaitegiek eta norbanakoek eginda, irisgarritasunari lotutako zenbait alderdiri buruz. Beste alde batetik, 2001ean, Kontseiluari 47 espediente jakinaziti zitzaizkion, irisgarritasunari buruzko araudiaren aplikazioan salbuespena aplikaturik zuten espedienteak.</p>
Irisgarritasunari buruzko Aholkularitza Zerbitzua	<p>2000ko urrian sortuta, irisgarritasunaren arloko aholkularitza-zerbitzua doakoa da, erakunde pribatu batek ematen du, eta Etxebizitza eta Gizarte Arazoetarako Sailak finantzatuta dago, irisgarritasunari lotutako kontsultei erantzuteko eta oztopo arkitektonikoak nahiz komunikaziokoak gainditzeko. Herri administrazioei, norbanakoei eta irabazi asmorik gabeko erakundeei zuzenduta dago, eta 900 telefono baten bitartez eta posta elektronikoko helbide baten bidez erantzuten die kontsultei. 2001ean, zerbitzuak 507 kontsultari eskaini zien arreta, eta horietatik gehienak telefonoz ebatzi ziren. 2002an 560 kontsultari eskaini zitzaizen arreta.</p>
Jardunaldien antolaketa	<p>Irisgarritasuna sustatzeko Euskadiko Kontseiluak, 2001eko otsailean eta martxoan, heziketa-jardunaldiak antolatu zituen, irisgarritasunaren egokitasunari lotutako alderdiei buruz.</p>
Argitalpenak	<p>2000n, 20/1997 Legea eta berori garatu duen 68/2000 Dekretua jasotzen duen argitalpena editatu zen.</p>
Zabalkunde-kanpaina	<p>20/1997 Legea onetsi ondoren, Eusko Jaurlaritzak sustapen-kanpaina bat egin zuen, eta bertan, 28 milioi pezeta inbertitu zuen.</p>
Irisgarritasun sariak	<p>Era berean, Legea onetsi ondoren, irisgarritasun egokirako sarien deialdia egin zen, eta horien zenbatekoa 1,5 milioi pezetakoa izan zen.</p>
Itsu-txakurren zerbitzuen arauketa	<p>1997an, Lehendakaritza Sailak ikusmen gabezia osoa edo partziala zuten pertsonen (itsu-txakurrak lagundutako pertsonak) irisgarritasun askea arautu zuen, leku publiko edo erabilera publikoko guztiei dagokienez, halako gabeziarik ez duten pertsonetikiko aukera-berdintasunean.</p>
web orrialdea	<p>Nekazaritza eta Arrantza Sailak web-orrialde bat diseinatu eta kudeatzen du, eta bertan, landa turismoko establezimenduei buruzko informazioa ematen da; besteak beste, EAeko landetxe guztien irisgarritasunaren egokitasun mailari buruzko informazio ematen da. Orrialde hori erakunde honek, foru aldundiek eta Nekazalturismoa izeneko elkarteak sustatu dute.</p>

Kontsultaturiko erakunde bakoitzak arlo hauetan egin dituzten jarduerak hurrengo taulan laburbilduta daude:

**27. taula. IRISGARITASUN EGOKIA SUSTATZEKO POLITIKA AKTIBOAK,
SAILEN ARABERA²²**

Saila	1	2	3	4	5
Etxebizitza Sailburuordetza	Bai	Ez	Bai	Bai	Bai
Gizarte Arazoetarako Sailburuordetza	Ez	Bai	Ez	Bai	Bai
Euskal Herriko Unibertsitatea	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez
Hezkuntza Saila	Bai	Bai	Ez	Ez	Ez
Segurtasun Sailburuordetza	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez
Lurralde Antolamendu Saila	Ez	Ez	Ez	Ez ²³	Ez
Osasun Saila	Bai	Ez	Bai	Bai	Ez
Nekazaritza eta Arrantza Saila	Bai	Bai	Bai	Ez	Bai
Industria, Merkataritza eta Turismo Saila	Bai	Bai	Ez	Bai	Ez
Kultur Ondareko Zuzendaritza	Bai	Bai	Ez	Ez	Ez
Kultur Zabalkundeko Zuzendaritza	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez
Kiroleko Zuzendaritza	Ez	Ez	Ez	Bai	Ez
Gazteriako Zuzendaritza	Ez	Ez	Ez	Bai	Ez
Ogasun eta Herri Administrazio Saila	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez
Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila	Ez	Ez	Ez	Bai	Ez

1. Udaletarako dirulaguntza-deialdiak, irisgarritasun egokia sustatzeko planak egiteko edo udalerrietako oztopo arkitektonikoak ezabatzeko obrak finantzatzeko.
2. Irabazi asmoko edo halakorik gabeko elkarteei zuzendutako dirulaguntza-deialdia, eta bertan irisgarritasunaren gaia berariaz aipatuta dago.
3. Banakako laguntzak, bai laguntza teknikoak edo bai etxebizitza egokitzeko laguntzak, elbarritasunen bat duten personoen irisgarritasun-baldintzak hobetzeko.
4. Araudi berezia promulgatzea eta, bertan, irisgarritasunaren gaia berariaz aipatzea.
5. Irisgarritasun egokia sustatzeari lotutako beste jarduera batzuk, sail bakoitzeko jarduera-eremuen barruan.

Zer ondorio atera daiteke taula honek irisgarritasun egokia sustatzearen arloan adierazitako jarduketetatik? Horri buruz atera daitezkeen ondorio nagusiak honako hauek dira:

- Agerikoa da sail askok (aztertutako hamabostetatik zortzik) ez dituztela erabiltzen erabilera publikoko eraikinetako eta instalazioetako irisgarritasunaren arauketan dituzten eskumenak, euren jarduera eremuaren barrukoak.
- Azken bost urteotan promulgaturiko arauketa askotan, 20/1997 Legeak ezarritako baldintzak bete beharra gogoratu baino ez da egiten eta hori ez da irisgarritasuna sustatzeko neurri arautzailea.
- Beste kasu batzuetan, hala eta guztiz ere, foru aldundiei buruzko atalean esanenez, arlo honetan arau gehigarriak promulgatzea baliozkoa da irisgarritasunari buruzko legeria autonomikoa indartzeko, batez ere erabilera publikoa duten antzinako eraikinei dagokienez; izan ere, berrikuntzarik edo handitzerik egiten ez den bitartean, horiek

22 Kasu batzuetan, halako politikarik ez egotearen zergatia sailek arlo horretan eskumenik ez edukitzea da. Beste zenbait kasutan, berriz, halako neurriak garatzea bidezkotzat edo beharrezkotzat ez hartzea. Bi kasuok nekez bereizteko modukoak direnez, kasu guztietan “Ez” jarri dugu.

23 20/97 Legea eta 68/2000 Dekretua promulgatuta (Lurralde Antolamenduko Zuzendaritza eta Etxebizitzako Zuzendaritza Sail berean zeudenean), denbora apur bat behar da araudi horren jokabidea aztertzeko eta, une egokia iristen denean, araudi berriak promulgatu behar ote den ebaluatzeko, Lurralde Antolamenduko Zuzendaritzaren eskumen-alderdian.

ez daude gainerako instalazioei buruzko araudiaren eraginpean. Ikuspegi horretatik begiratuta, hirugarren adinerako zentroen kasuan egin den bezala, araudi gehigarri autonomikoa promulgatzea (osasunaren, hezkuntzaren, enpleguko zentroen edo gainerako gizarte-zerbitzuen kasuan) ona izango litzateke, halako zentroetako irisgarritasunaren baldintzetarako.

- Halaber, aipagarria da kontroleko mekanismorik ez egotea, araudian ezarritakoa betetzeko, irisgarritasunari loturiko baldintzei dagokienez, horiek sarritan arlo honetan eskumenak dituzten beste erakunde batzuen esku uzten baitira.
- Azterturiko hamabost sailtako zazpi, bestalde, diru-laguntza-programak egituratu dituzte, Irisgarritasuna Sustatzeari buruzko 29/1997 Legean ezarritakoaren arabera, eta, horien bidez, arlo horretako neurriak finantzatzen dituzte. Hala eta guztiz ere, diruz lagundutako zazpi programetatik hiru baino ez daude diseinatuta halako eraikinak irisgarritasunari loturiko baldintzetara egokitzeko. Gainera, horietako bi (Hezkuntza eta Turismo Sailtakoak) garrantzi txikikotzat har daitezke, horien zenbatekoa txikia baita (90.000 euro urtero).
- Aipagarria da, gainera, diru-laguntza jaso dezaketen programetariko batek, Etxebizitza Sailburuordetzak irisgarritasunari buruzko planen idazketa edo udalerrietako obrak diruz laguntzera bideratzen duenak, aurrekontu-partida erabilgarria agortu zuela azken deialdian; era berean, jarduera horiek gutxienez bi foru aldundik ere diruz laguntzen dituzte. Horren guztiaren eraginez, gutxienez, eremu zehatz honetan abiatutako diru-laguntza-politikak berriro planteatu behar dira, laguntzak ezkutatu barik eta, ahal den neurrian, lau urterako planak sustatuz halakorik ez duten udalerrietan.
- Foru aldundiek irisgarritasunari lotutako banakako diru-laguntzak ematearen ardura eduki arren, hiru sailek (Osasuna, Etxebizitza eta Nekazaritza) banakako diru-laguntzen berezko lerroa dute, laguntza teknikoak eskuratzeko edo etxebizitzak egokitzeko. Alderdi honetan, horrenbestez, beharrezkoa da koordinazio-ahalegina egitea, egon daitezkeen ezkututzeak ekiditeko.
- Etxebizitza eta Gizarte Arazoetarako Sailak biltzen du irisgarritasuna sustatzearen arloko gainerako jarduketaren zatirik handiena. Esan daiteke, gainera, gabezia dagoela, praktika oneko eskuliburuen, ebaluazioen, prozedura-giden, zabalkundeko jardueren, heziketa-jardueren eta abarren aldetik; horiek guztiak, berriz, Eusko Jaurlaritzako sail desberdinetatik egin daiteke, mugikortasun urriko pertsonen irisgarritasun egokia edukitzeko duten eskubidea sustatzeko.

2.4. Sail bakoitzeko egoitzetako irisgarritasunaren antolaketa, ikuskapena eta kontrola

Txosten honetan lehenago ere esan dugunez, Irisgarritasuna Sustatzeari buruzko legeak ezarritakoaren arabera, erakunde guztiek Irisgarritasuna Sustatzeko Lau Urterako Plana egin behar dute, besteak beste, erabilera edo zerbitzu publikoa duten eraikinak Legean irisgarritasunari buruz ezarritako baldintzetara egokitzeko. Xedapen honen eraginpeko erakunde bakoitzeko lehenengo plana, berriz, araua EHAA-n argitaratu eta hurrengo bi urteetan landuta egon behar da, hau da, 1999aren amaieran. Legezko manuzkoa izan arren, Irisgarritasunari buruzko Lau Urterako planik egin ez denez (20/1997 Legean ezarritakoaren arabera), Eusko jaurlaritzako sailen multzoa barruan hartzen duen planik, alegia, aztertutako sail autonomikoek halako planik edo antzekorik sortu ote duten egiaztatuta behar da.

Gainera, atal honetan sail bakoitzak arloan egindako ahalegin ekonomikoa aztertuko da, baita sail bakoitzak bere egoitzetan aplikaturiko ikuskapen- eta kontrol-neurriak ere. Hain zuzen ere, horrenbestez, atal honetan honako alderdi hauek aztertuko dira:

- Irisgarritasuna sustatzeko lau urterako programarik edo indarreko beste planik ote dagoen.
- Programa finantzatzeko aurrekontu-partida berezirik ote dagoen.
- 20/1997 Legea onetsi denetik irisgarritasuna eta gastuaren norakoa hobetzeko egindako ahalegin ekonomikoa.
- Sailera atxikitako egoitzetako edo sail bakoitzak finantzaturiko instalazioetako nahiz zerbitzuetako ikuskapen- eta kontrol-neurri bereziak.

Sail bakoitzak horretaz onarturiko neurriak, egindako elkarrizketen eta dokumentazio-iturrietatik ateratako datuen arabera, honako hauek dira:

13. koadroa. LAU URTERAKO PLANAK, AHALEGIN EKONOMIKOA ETA IKUSKAPEN- NAHIZ KONTROL-NEURRIAK²⁴

Kultur Ondareko Zuzendaritza	Zuzendaritzak ikuskapen- eta kontrol-sistema bat dauka ezarrita, lehen adierazitako laguntzen bidez finantzaturiko obrak eta lorpenak irisgarritasunaren arloko baldintza teknikoetara (besteak beste) egokitzen direla segurtatzeko.
Gazteriako eta Ekintza Komunitarioko Zuzendaritza	Ireki ahal izateko, informazio-zerbitzu guztiek bidezko dokumentazioa aurkeztu behar dute, eskaturiko baldintzak bete egiten direla egiaztatzeko. Instalazioetako irisgarritasunaren egokitasuna egiaztatzeko, zerbitzuek kasuan kasuko sailari eman beharreko txostena erabiltzen da, eta horren barruan, azalpen zehatza jaso behar da. Zentro batek irisgarritasunerako eskaturiko baldintzak bete ezean, ez da zerbitzu ofizialtzat hartuko. Aterpetxeetako kontrola eta jarraipena egiteko neurritzat, ireki orduko bidezko dokumentazioa aurkezteaz gain, araudian ezartzen denez, aldundi bakoitzean eskumenak dituzten sailek ikuskapenak egin behar dituzte, zentroa inauguratu baino lehen, eta beste ikuskapen bat ere bai urtean behin.
Etxebizitza Sailburuordetza	Etxebizitza Sailburuordetzak ez du Irisgarritasuna Sustatzeko Lau Urterako Planik argitaratu, besteak beste, egoitzarik gehienak Lakuako sailen arteko multzoan kokaturik daudelako, eta bertan, irisgarritasunaren arloko kudeaketa beste sail batzuek egiten dutelako. Etxebizitari buruzko plan zuzentzaileetan, hala eta guztiz ere, ohar garrantzitsuak jasotzen dira, mugikortasun arazoak dituzten pertsonak etxebizitzetan errazago sartu ahal izateko. Ikuspegi horretatik, 2002-2005eko etxebizitza Plan Zuzentzailea planifikazioko tresna da, irisgarritasun egokia sustatzeko. Horri dagokionez, planean ezartzen denez, diskriminazio positiboko neurriak hartu behar dira, elbarritasuna duten pertsonak etxebizitzan sartu ahal izatea bermatzeko; gainera, irisgarritasunari buruzko programa ere jasota dago, eta bertan, irisgarritasunari buruzko planak egiteko eta hobekuntza lanetarako dirulaguntzak (udalei eta erakunde sozialei eman beharrekoak) ere adierazten dira; horien aurrekontu osoa, berriz, hamaika milioi eurokoa da 2002-2005 bitartean. Planaren barruan, halaber, legerian oraintsu jasotako neurri batzuk ere sartzen dira, elbarritasuna duten pertsonen irisgarritasuna errazteko, nahiz eta horiek etxebizitzaren baten jabe izan, babes ofizialeko etxebizitzetara dagokienez; izan ere, halako etxebizitzak elbarritasuna duten pertsonen erreserbatuko zaizkie, Etxebideren sustapenetan, eta birgaitzearen arloan ere lehentasuna izango dute laguntzak jasotzeko.

24 Gaiei buruzko berariazko informazioa eman duten sailak baino ez dira aipatuko.

13. koadroa. LAU URTERAKO PLANAK, AHALEGIN EKONOMIKOA ETA IKUSKAPEN- NAHIZ KONTROL-NEURRIAK (Jarraipena)

<p>Euskal Herriko Unibertsitatea</p>	<p>Euskal Herriko Unibertsitateko Ikasleen Errektoreordetzako Unibertsitate Orientazioko Zerbitzuak "Elbarritasunen Unibertsitate Komunitatea EHUn Sartzeko Plana" egin zuen, eta hori Gobernu Batzordeak 2001eko irailaren 18an egindako bileran onartu zen; horren helburua, elbarritasuna duten administrazioei eta zerbitzuetako ikasleak, irakasleak eta langileak unibertsitate-inguruan integratzea zen. Horretarako, esku-hartze programa batzuk finantzatu dira, besteak beste, oztipo arkitektonikoa ezabatzeko programa. Programa horren barruan, irisgarritasunari loturiko alderdi guztiak sartzen dira, hau da, egoitzetarako irisgarritasuna, horien egokitzapena eta eremuen erreserba, elbarritasunen bat duten pertsonentzat. Horren jardueraren emaria ez da mugatzen kasuan kasuko campusetako eraikinetara: sailaren menpekoak izan eta Gasteizen nahiz Bilbon kokaturiko unibertsitate-egoitzak ere kontuan hartzen ditu.</p> <p>Programaren ezarritako helburuak honako hauek dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Oztipo arkitektonikoak ezabatzeko beharrezkoak detektatzea eta unibertsitateko ikasketanahiz egoitza-plazak egokitzea. - Irisgarritasuna eta plazak errazteko obrak apurka-apurka egitea. - Elbarritasuna duten ikasleentzat, irakasleentzat eta PAS deritzonarentzat eremuak erreserbatzea. - Behar duten pertsona guztiei, hornidura berezietako giltzak ematea (komunak, igogailuak, garajeak,...). <p>Goian azaldutako helburuak betetzeko aurreikusita dauden jarduerak honako hauek dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Unibertsitateko oztipo arkitektonikoak ezabatzeko gida egitea, arlo horretan lan egiten duten erakundeekin koordinazioan. - Unibertsitateko edo bertatik kanpoko zerbitzuei, gaiari buruzko kexak jakinaraztea, elbarritasuna duten ikasleen koordinadorak jakinarazitakoak. - Arlo honetako jarduketan jarraipena egiten duen batzordea sortzea. - Banakako arreta eskaintzea, elbarritasunen bat duten ikasleei, oztipo arkitektonikoak gaintzeko beharrezkoak dagokienez. Behar dituzten giltzak eta gainerako elementu guztiak ematea. - Oztipoak apurka-apurka kentzen joatea (zerbitzuak esku har dezakeen neurrian). <p>Planak irekita uzten du oztipoak ezabatzeko partida berezi bat sortzeko aukera; hala ere, halakorik egon arte, aurrekontu arruntak berehalako jardura behar duten gorabehera erantzuna emateko erabiliko direla bermatzen du. Gaur egun, oraindik ere ez dago aurrekontu-zuzkidurarik, irisgarritasunari loturiko arazoak konpontzeko; horrenbestez, lehenasunezko arazoak konpontzeko, aurrekontu orokorrak erabiltzen dira.</p> <p>2001ean indarrean sarturiko programa honek 2001-2002ko ikasturteko bigarren lauhilekorako finkatzen du egituratzeko epearen hasiera.</p>
<p>Herrizaingo Saila</p>	<p>Egoeraren aurretiazko balorazioan oinarrituz, Baliabide Orokorren Zuzendaritzak lau urterako plana egin zuen 1999an, lau urteko epean aurkituriko akatsak zuzentzeko eta, horrela, Seguratsun Sailburuordetzak jendeari arreta eskaintzeko eremu guztiak irisgarritasuna egokia izatea bermatzeko, 20/1997 Legean ezarritakoaren arabera, 2003. urte amaierarako. Planak honako jardura-fase hauek ezartzen ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Datuak hartzea eta oraingo egoeraren planoak egitea (00-01-15etik 01-01-15era). - Kanpoko aholkularitzak kontratatzea, egokitzapen-proiektuak egiteko (00-06-01etik 02-06-31ra). - Proiektuak egitea (00-10-02tik 02-12-31ra). - Obrak egitea (01-05-01etik 03-12-31ra). <p>Saileko aurrekontuetan ez dago partida berezirik, oztipoak ezabatzeko berariaz aipatzen duen partidarik; hala ere, Sailburuordetzaren barne-kontabilitatean erakunde horrek egindako jarduerak berariaz jasota daude. Informazio horren arabera, 2002ko martxora arte 17 berrikuntza-lan egin ziren bederatzi komisariatari, bi trafikoko-basetan eta sei arreta-bulegotan; gainera, zentral bat eta komisaria bat ere eraiki ziren. 2002rako 14 berrikuntza-obra egin nahi ziren bederatzi komisariatari eta bost arreta-zentrotan, eta 2003rako bederatzi berrikuntza-obra daude aurreikusita, zazpi komisariatari, hiru arreta-bulegotan eta zentral batean. Obren multzo osoaren aurrekontua 3,9 milioi eurokoa da.</p> <p>Lau urterako planak aurreikusitako lan-taldea, batetik, proiektuak egiteko eta obrak betearazteko ardura duen kanpoko aholkularitzak osatzen du, eta bestetik, barrualdean, proiektuaren zuzendaritzak, proiektuburuak eta talde teknikoak, eta azken horrek, proiektuburuarekin batera, proiektuen ikuskapena egingo du, horiek amaitu ondoren, baita obren jarraipena ere, egiten diren bitartean.</p>

13. koadroa. LAU URTERAKO PLANAK, AHALEGIN EKONOMIKOA ETA IKUSKAPEN- NAHIZ KONTROL-NEURRIAK (Jarraipena)

Herrizaingo Saila	Prozesuaren jarraipena eta kontrola, bestalde, asteroko bileretan gauzatzen da, eta bilerok proiektuburuak eta zuzendariek egiten dituzte. Proiektuak egiteko fasean, jarraipen batzordeari berariaz kontrataturiko Kanpoko Aholkularitza gehitzen zaio. Komite horiei esleituriko eginkizunak honako hauek dira: erabakiak hartzea, proiektuaren garapenaren jarraipena egitea, ezarritako etapen epeak bete egiten direla bermatzea eta emaitzak onestea. Aipaturiko bilerak ez ezik, proiektuburuak aurrerakuntzari buruzko txostena lantzen du hiruhileko bakoitzean, eta hori zuzendaritzari ematen dio, berorrek balioztatzeko.
Osasun Saila	Orain arte, Sailak ez du lau urterako planik edo beste programa berezirik landu, indarreko araudia indarrean sartu baino lehenagoko eraikinetan edo lokaletan oztopo arkitektonikoak eta komunikazio mailakoak apurka-apurka ezabatzeko. Etorbizun hurbilean ere ez dauka halakorik egiteko asmorik. Oinplano berriko eraikinen berrikuntza- eta eraikuntza-obra, bestalde, Saileko Lau Urterako Aurrekontuan planifikatzen dira; horiek, elkarriketatuturiko profesionalen iritzi, 100eko 70ean onak dira irisgarritasunaren baldintzak hobetzeko eta indarreko araudia betetzeko. Sailaren titularitatekoak diren berrikuntza-obra eta oinplano berriko eraikinen eraikuntza, beste alde batetik, Osakidetzako Arkitektura eta Injinerutza Zuzendaritzak kontrolatzen eta ikuskatzen ditu: proiektua egin ondoren (horren onespenerik gabe ezin baitira burutu), obra betearazi bitartean eta horiek amaitu ondoren. Gainera, Osasun Sailak ikuskapenak egiten ditu, bai zentro publikoetan eta bai hitzarturiko zentro pribatuetan. Ikuskapenaren ostean, txostena eman eta, bertan, indarreko araudia betetzeko maila aurkezten da, irisgarritasuna ere kontuan hartuta, eta, akatsik egonez gero, zentroari idatziz jakinarazten zaio, eta horrek kasuan kasuko akatsa zuzendu behar du. Osakidetzaren dirulaguntza duten udal-kontsultetan egindako berrikuntza-obra edo eraikuntza berriko obra kasuan, egoera batzorde batek baloratzen du; horrek, besteak beste, planoak irisgarritasunari buruzko indarreko araudiarekiko duten egokitzapena segurtatzen du. Bestalde, lana amaitu ondoren, Arkitektura Zuzendaritzak emandako dirulaguntzak erabilera egokia duela ikuskatzeko eta egiaztatzeko ardura dauka.
Ogasun eta Herri Administrazio Saila	Berrikuntza- edo handitze-lan guztiak egiteko irizpidea, berriz, irisgarritasunari buruzko baldintzetara ahalik eta gehien egokitzea da, eta Baliabide Orokorren Zuzendaritzako Bulego Teknikoko langileek jarraipena eta kontrola egiten dute. Zentro sorberrietarako proiektuei dagokionez, araudi aplikagarria guztiz betetzen da. Proiektua lehiaketa atera eta Eusko Jaurlaritzaren zerbitzutik kanpoko profesionalak betetzen badute, obra jarraipena egiten da, betearaztea proiektuaren arabera dela egiaztatzeko, kasuan kasuko erakundeek onetsi ondoren.
Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila	Justiziaren arloko egoitza ia guztiak eraikuntza oso berrikoak dira eta, horrenbestez, irisgarritasunaren arazo ondo konponduta dago; horrenbestez, Justizia Sailburuordetzako arduradunek ez dute beharrezkotzat jo irisgarritasunari buruzko lau urterako plana idazterik. Nolanahi ere, Sailak agindutako eraikuntza- edota berrikuntza-proiektuek, udal-ikuskapenak ez ezik, Saileko teknikarien ikuskapena ere izaten dute, eta horiek obra-proiektuak eta horien gauzatzea aztertzen dituzte, indarreko araudira egokitzen direla segurtatuz.
Gizarte Gaietarako Sailburuordetza	Bere zentrorik ez edukitzean, Gizarte Arazoetarako Sailburuordetzak ez du irisgarritasunari buruzko lau urterako planik egin; izan ere, Ogasun eta Herri Administrazio Sailak dauka eskumena, Eusko jaurlaritzako egoitzetan egin beharreko obra diseinuari eta kalitateari loturiko jardura guztietarako.

Lehen ere esan dugunez, arazoak daude erakundeek irisgarritasunaren gaira bideraturiko ahalegin ekonomikoa zehazteko, batez ere gastu horiek aurrekontu-partida berezietan leporatu ezin zaizkielako. Kontuan hartu behar da, horri dagokionez, irisgarritasunaren arloko jardura asko (bai berrikuntza-obra, bai eraikuntzakoak edo bai laguntza-programak), sarritan, jardura eta aurrekontu-partida orokorragoetan sartzen direla eta praktikan ezinezkoa dela bakoitzaren edukia zehaztea. Halaber, ageri-agerikoa da,

horrenbestez, berrikuntzako eta eraikuntza berriko obra askok (berez irisgarritasuna hobetzera bideraturik ez daudenak) eragina dutela helburu hori lortzeko orduan, obrak indarreko legeriaren arabera egiten direnean.

Nolanahi ere, hurrengo koadroan jarduketan (horiei buruzko informazio ekonomikoa lortu dugunean) zenbateko ekonomikoa adierazi dugu:

14. koadroa. AZKEN IKASTURTEETAKO AHALEGIN EKONOMIKOA²⁵

Hezkuntza Saila	Hezkuntza Sailak, 2002an, 3,6 milioi euro bideratu nahi izan ditu, oztopo arkitektonikoak ezabatzeko obrak egitera, 30 ikastetxetan. Bestalde, Hezkuntza Sailak kontzertaturiko ikastetxeetako oztopo arkitektonikoak ezabatzera bideraturiko aurrekontua 90.452 eurokoa da 2003an.
Industria, Merkataritza eta Turismo Saila	Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak Euskadiko eskaintza turistikorako irisgarritasun unibertsala sustatzera bideraturiko zenbateko orokorra 90.152 eurokoa da 2002an, aurreko urteko zenbateko berbera. Zenbateko horretatik, guztira 65.428 euro eman dira.
Etxebizitza Sailburuordetza	Etxebizitza Sailburuordetzak, 2001ean eta 2002an, 4.515.762 euroko diru-laguntza eman die 94 udalerriri, lau urterako planak eta hobekuntza-obrak egiteko, irisgarritasunaren arloan. 2003rako, Euskadiko udalerriei 2,7 milioi euroko diru-laguntzak eman zitzaizkien. Etxebizitzako Plan Zuzentzaileak 11,5 milioi euroko laguntzak eman nahi ditu 2002 eta 2005 bitartean. Diru-laguntzen kudeaketarako, 168.000 euroko gastua egin da. Irisgarritasunaren arloko Aholkularitza Zerbitzuaren urteroko kostua, berriz, 60.000 euro ingurukoa da.
Herrizaingo Saila	Egindako obren eta Herrizaingo Sailburuordetzaren Lau Urterako Planaren eremuan egiteko dauden aurrekontua 3,9 milioi eurokoa da.
Osasun Saila	Osasun Sailak, 2002an, 500.000 euroko partida zeukan, Udaletxeak eta udal-titularitateko osasun-zentroak egokitzeko obrei diru-laguntzak emateko.

Aipagarria da, azkenik, sail bakoitzak etorkizunean irisgarritasunaren arloan egin nahi dituen jarduerak honako hauek direla:

- Ogasun eta Herri Administrazio Sailak, orokorrean, irisgarritasunaren egokitasun mailari buruzko ikerketak egiten jarraitu nahi du, bere eskumeneko eraikinetan egiten diren jarduketetan. Arlo honetako jarduera zehaztat, laster Bilboko Gran Vía 85 kalean dagoen eraikineko irisgarritasuna egokitzeko obrak egin nahi dira, elbarritasunen bat duten pertsona guztiak bertara sartu ahal izateko.
- Osasun Saileko arduradunek, etorkizuneko proiektutzat, osasun-zentroak egokitzen jarraitzea aipatu zuten, zentro horietako profesional arduradunek eskabidea egin ahala.
- Oraintsu eraikitako eraikinak direnez, euren irisgarritasuna egokia dela jotzen da; hala ere, Justizia Sailburuordetzako Baliabide Materialen Zuzendaritzako arduradunek diotenez, irisgarritasunari buruzko oraingo araudiarekiko egokitzapena aztertuko da, Sailak araudi hori promulgatu baino lehen eraikitako edo berrituriko egoitza guztiei dagokienez.

²⁵ Gaiei buruzko informazioa eman duten sailak baino ez dira aipatu.

- Kultur Ondareko Zuzendaritzaren arduradunek esandakoaren arabera, udal-iburutegien sarearen funtzionamendua sustatzeko diru-laguntzen lerroarekin jarraitzeko asmoa dute.
- Gizarte Arazoetarako Sailburuordetzak ikerketa bat egin du irisgarritasunaren egokitasunari eta elbarritasunari buruz, eta, 2003an, gorrentzako zeinuen hizkuntzako interprete-zerbitzua jarri nahi du martxan.
- 68/2000 Dekretuak hirigintzaren arloan sarturiko aldaketa nagusia oinezkoen ibilbideen edo oinezkoen nahiz ibilgailuen ibilbide mistoen luzetarako maldarik handienari buruzkoa da (bide publikoak, parkeak, plazak, hornidura komunitarioetarako nahiz zerbitzu publikoetarako irisgarritasuna...). Ordura arte, Hirigintza Oztopoak Ezabatzeko Araudiari buruzko 59/1981 Dekretu indargabetuan ezarritako parametroa % 8,33koa zen, eta orain % 6koa da. Hala eta guztiz ere, lehengo nahiz oraingo dekretuetan ezarritakoaren arabera, baldintza horiek betetzeko ezintasuna justifikatzen denean, malda handiagoak egon daitezke, baina irisgarritasuna bermatzeko neurri egokiak hartuta. Dekretua betetzeko eskumena gehienbat udalerriek dutela kontuan hartuta, hirigintza garapeneko eremu berrien plan partzialak idazteko orduan udalerriek izango dute malda horiek errespetatzearen erantzukizuna. Hala eta guztiz ere, zentzuzko denbora igarotakoan, araudi berri horren aplikazioaren emaitzaren jarraipena egiteko ardura Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailak edukiko du.
- Etorkizuneko proiektutzat, elkarrizketetan beti halakotzat aurkeztu ez arren, aipagarriak dira honako hauetan ezarritako eta betearazi gabeko neurriak: Etxebizitzaren Plan Zuzentzailea, EHU integratzeko Plana eta Herrizaingo Sailaren Irisgarritasuna Sustatzeko Lau Urterako Plana.

Kontsultaturiko erakunde bakoitzak aztertutako arloetan egindako jarduerak honako taula honetan daude laburbilduta:

28. taula. LAU URTERAKO PLANAK, AHALEGIN EKONOMIKOA, IKUSKAPEN-NEURRIAK ETA PROIEKTUAK, SAILEK AURREIKUSITAKOAK

Saila	1	2	3	4	5
Etxebizitza Sailburuordetza	Bai	Bai	Bai	Ez	Bai
Gizarte Arazoetarako Sailburuordetza	Ez	Ez	Ez	Ez	Bai
Euskal Herriko Unibertsitatea	Bai	Ez	Ez	Bai	Bai
Hezkuntza Saila	Ez	Bai	Bai	Bai	Ez
Segurtasun Sailburuordetza	Bai	Ez	Bai	Bai	Bai
Lurralde Antolamendu Saila	Ez	Ez	Ez	Ez	Bai
Osasun Saila	Ez	Ez	Bai	Bai	Bai
Nekazaritza eta Arrantza Saila	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez
Industria, Merkataritza eta Turismo Saila	Ez	Bai	Bai	Bai	Ez
Kultur Ondareko Zuzendaritza	Ez	Ez	Ez	Bai	Bai
Kultur Zabalkundeko Zuzendaritza	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez
Kiroleko Zuzendaritza	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez
Gazteriako Zuzendaritza	Ez	Ez	Ez	Bai	Ez
Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzza Saila	Ez	Ez	Ez	Bai	Bai
Ogasun eta Herri Administrazio Saila	Ez	Ez	Ez	Bai	Bai

1. Irisgarritasuna sustatzeko lau urterako plana edo antzeko beste planen bat egotea.

2. Programa finantzatzeko aurrekontu-partida berezia egotea.

3. Irisgarritasuna hobetzeko egindako ahalegin ekonomikoaren zehaztapena.

4. Sailera atxikitako egoitzen ikuskapena eta kontrola egiteko neurri bereziak.

5. Sailak ekitaldi honetarako eta hurrengoetarako aurreikusitako proiektuak, irisgarritasuna sustatzeari lotutakoak.

Taulatik atera daitezkeen ondorioak honako hauek dira:

- Irisgarritasuna Sustatzeari buruzko Legeak erakunde guztiei ezarritako baldintza izan arren, lege hori onetsi denetik bost urte igarotakoan, Eusko Jaurlaritzak ez dauka Irisgarritasuna Sustatzeko Lau Urterako Planik, bere sail guztiak barruan hartzen dituenik.
- Egoera sail desberdinen arabera aztertuta ikusten denez, azterturiko hiru erakundek Irisgarritasuna Sustatzeko Lau urterako Plana dute. Bi kasutan, gainera, ez da halako plan bat, jarduera-plan zabalagoak baizik, eta horietan zehatz jasota daude irisgarritasunari loturiko alderdiak.
- Beste alde batetik, Irisgarritasunari buruzko Planik eduki ez arren, Ogasun eta Herri Administrazio Sailak (Eusko Jaurlaritzako sailen arteko eraikinen kudeaketaren arduraduen saila) egoeraren jarraipen osoa egin du bere eraikin guztietan, eta horietariko gehienak 20/1997 Legean ezarritako baldintzetara egokitu ditu.
- Guztiarekin ere, Herrizaingo Sailak egindakoa eta diseinatua da Eusko Jaurlaritzak Irisgarritasuna Sustatzeko duen Lau Urterako Plan bakarra.
- Zenbateko ekonomikoei dagokienez, ageri-agerikoak dira arlo horretan egindako gastuaren kalkulua egiteko arazoak. Azpimarratzeko modukoa da, hala eta guztiz ere, azken bi urteotan gutxienez hamaika milioi euro bideratu direla (1.800 milioi pezeta), irisgarritasunari loturiko jarduerak egiteko; ia-ia horren erdia, izan ere, Etxebizitza eta Gizarte Arazoetarako Sailak udalerrietako lau urterako planei eta irisgarritasuna hobetzeko obrei emandako diru-laguntzek osatzen dute.

3. EAEko ADMINISTRAZIO AUTONOMIKOAREN EGOITZEN IRISGARRITASUNA

3.1. Sarrera eta metodologia

Gainerako erakundeen kasuan bezala, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioa osatzen duten erakundeek (erabilera publikoko eraikin eta egoitza askoren titulartzat), euren instalazioetan eta, batez ere, hiritarrei zerbitzuak emateko erabiltzen direnetan, bete egin behar dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko indarreko araudiak irisgarritasunaren arloan ezarritako baldintzak. Erantzukizun hori erakunde guztiek duten arren, administrazio autonomikoak bermatu behar du gehienbat irisgarritasuna, kontuan hartuta EAEko lurralde historikoetan arlo horietako zerbitzuak (osasunean, hiri-segurtasunean, hezkuntzan, enpleguan, kulturean edo justizian) kasuan kasuko erakundeek ematen dituztela.

Udal- eta foru-egoitzen irisgarritasunaren egokitasun maila aztertzean esan dugun bezala, arlo honen diagnostiko orokorra egin nahi duen edozein ikerketatik kanpo gelditzen da, gelditu ere, oraingo araudiak ezarritako baldintza guztiak egoitza autonomiko guztietan zein neurritan betetzen diren aztertzea. Hori dela eta, aurreko kapituluetan bezala, egoitzen lagin jakina aztertu dugu, baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren barruko erakundeek jendeari zerbitzua emateko erabiltzen dituzten eraikinak ere.

Azterturiko eraikinak aukeratzeko orduan, hauxe hartu da aintzat:

- Administrazio-lanak egiteko egoitzei dagokienez, azterketan honetan lehentasuna eman zaie jendeari zerbitzuak emateko eta biztanleen oinarrizko beharrianak betetzeko eraikinei. Ikuspegi horretatik begiratuta, lehentasuna eman zaio osasun-zentroen, ospitaleen, eskolen, bigarren hezkuntzako ikastetxeen, unibertsitate-fakultateen, Ertzaintzaren komisariari eta justizia-jauregien azterketari.
- Hala eta guztiz ere, administrazio-egoitzen egoera ere ikertu da, batez ere hiritarrek sarrien erabiltzen dituzten sailetako lurralde ordezkartzen eta Lakuako multzoaren egoera.
- Geografiaren ikuspegitik begiratuta, informazioa errazago biltzeko, eta egoitza autonomiko guztien lagin adierazgarria lortu nahi ez dela kontuan hartuta, lehentasuna eman zaie hiru hiriburu-tako eta horien eragin-aldeko egoitzei.

Azterketa hau egiteko orduan, foru-egoitzen eta hiru hiriburu-tako egoitzen egoera ikuskatzeko egin den bezala, lurralde historiko bakoitzean irisgarritasunaren arloan lan egiten duten irabazi asmorik gabeko zenbait elkarteren lankidetzak eskatu da²⁶.

Gainerako kasu guztietan bezala, eraikin bakoitzaren balorazioa errazteko (helburu nagusia Erkidegoko egoitzen irisgarritasunaren egokitasun mailaren ikuspegi panoramikoa edukitzea zela kontuan hartuta, eta ez lokal guztietako oztupoen azterketa zehatza egitea), aurreko kapituluari aipaturiko sailkapena aukeratu da.

Egoitza autonomikoetan ere irisgarritasuna baino ez da aztertu, eta albo batera utzi dira zerbitzuen erabilerari berari loturiko beste gai batzuk. Nolanahi ere, kasuan kasuko ikuskapenak egiteko orduan, kontuan hartu da azterturiko eraikin askoren konplexutasun handia; izan ere, horietariko batzuek, esate baterako, ospitaleek, solairu asko eta milaka metro karratu betetzen dituzte. Horrela, eraikin mota bakoitzeko leku zehatzetarako irisgarritasuna aztertzea erabaki da²⁷, eta, oro har, eraikinak gurgildun aulkian edo muletekin dabilen pertsona bati lokalean ohiko arreta jasotzeko edo tramite egokia egiteko aukerarik ematen ote dion aztertu da.

3.2. Azterturiko egoitzak

Guztira, 273 egoitza autonomiko aztertu dira EAE osoan: 71 Araban, 71 Gipuzkoan eta 131 Bizkaian. Egoitza-kopurua Bizkaian handiagoa izatea, batez ere, Bilboko eremuan biztanle kopururik handiena pilatuta egotearen eraginezkoa da, baita zona horretan ospitaleak, osasun-etxeak, komisariak, fakultateak eta institutuak ugariagoak izatearen eraginezkoak ere.

26 Kasu honetan, honako hauen lankidetzak eskatu da: Eginaren Eginez, Araban; Gipuzkoako Ezindu Fisikoen Federazio Koordinatzailea, Gipuzkoan; eta Bizkaiko Ezindu Fisikoen Federazio Koordinatzailea, Bizkaian. Lehen esan dugunez, hiru erakunde horietariko bakoitzak erreferentziako pertsona edo taldea proposatu zuen, ikuskapenaren ardura edukitzeko; horrek, lehen esan dugunez, ez du esan nahi erakunde horiek azterketaren emaitza edo metodologia berenganatzen dutenik.

27 Adibide batzuk aipatzeagatik, ospitaleetan, anbulatorioetan eta osasun-etxeetan harrerako erakusmahairako irisgarritasuna eta gutxienez gelen edota kontsulta-gelen solairu baterako irisgarritasuna; fakultateen eta institutuaren kasuan, atezaintzarako irisgarritasuna eta gutxienez gela baterakoa nahiz kafetegirakoa; justizia-jauregietan, informazio-mahairako irisgarritasuna eta gutxienez auzien sala baterako irisgarritasuna, eta administrazio-bulegoetan, azkenik, harrerako mahairako irisgarritasuna.

29. taula. LURRALDE BAKOITZEAN AZTERTURIKO EGOITZAK

Lurraldea	Egoitza kopurua	%
Araba	71	25
Bizkaia	131	49
Gipuzkoa	71	26
GUZTIRA	273	100

Emaitzak aztertzeko eta aurkezteko orduan, ebaluaturiko eraikinak euren erabileraren edota horren administrazioaren ardura duen erakundearen arabera bildu dira. Eraikinen multzoa zazpi taldetan banatu da:

- **Osasuna.** *Osakidetzaren menpeko osasun-zerbitzu guztiak (osasun-zentroak, ambulatorioak eta ospitaleak).*
- **Segurtasuna.** Ertzaintzaren komisariak.
- **Unibertsitateko hezkuntza.** Euskal Herriko Unibertsitatearen menpeko zentroak eta fakultateak.
- **Bigarren hezkuntza.** Bigarren hezkuntzako ikastetxeak (DBH eta LH), Hezkuntza Sailaren menpekoak. Lehen hezkuntzako ikastetxeak udalerrien kapituluan azertu dira.
- **Justizia.** Instrukzio epaitegiak, lehen auziko epaitegiak, zigor- nahiz gizarte-epaitegiak, epaitegiko sendagileen klinikak, atxilotuari eman beharreko orientazio sozialerako zerbitzuak, biktimari laguntzeko zentroak, dekanotzak, fiskaltzak, erregistro zibilak eta Justizia Sailaren menpeko beste zerbitzu batzuk.
- **Administrazio egoitzak.** Hemen sailburuordetza batzuen lurralde-ordezkaritzak sartu dira (Hezkuntza, Kultura, Etxebizitza, Trafikoa, Industria, Lana eta Osasuna), baita elkarteen erregistroak, Osasun Saileko administrazio-egoitza batzuk eta Lakuako sailen arteko multzoa ere (egoitza bakartzat hartu den multzoa).
- **Beste batzuk.** Kategoria honen barruan, era askotako arlotan diharduten erakunde autonomiko batzuk sartu dira. Hain zuzen ere, Langaiko eta Arartekoaren egoitzak, hiru hiriburuetan, eta Emakunderen, HAEE, Legebiltzarra, Eustat, Lehendakaritza eta Ertzaintzaren akademia Arkauten.

Arloka, azterturiako eraikinak ondoren adierazitakoaren arabera banaturik daude:

30. taula. AZTERTURIKO EGOITZAK, ZERBITZU MOTAREN ARABERA

Zerbitzua	Egoitza kopurua	%
Osasuna	78	29
Segurtasuna	17	6
Unibertsitate-hezkuntza	38	15
Bigarren hezkuntza	26	9
Justizia	73	26
Administrazio-egoitzak	29	10
Beste batzuk	12	5
GUZTIRA	273	100

la laginaren erdia bi arlo arlotan sarturiko egoitzek osatzen dute: osasunaren eta justizia-administrazioari loturiko zerbitzuen arloak. Lehenengoen kasuan, era askotako ospitaleak eta osasun-etxeak daude lurralde osoan, eta horrek justifikatu egiten du azterturiko egoitza guztien artean ordezkari-tza hain handia edukitzea. Justiziari loturiko egoitzen kasuan, horren kopuru handia justizia-jauregi bakoitzaren barruko zerbitzu independenteen kopuru handiaren eraginezkoa da; hori, hiritarrek gehien erabiltzen dituzten egoitzak izan ez arren, aztertu beharreko eraikinen zerrendan islatzen da.

3.3. Egoitza autonomikoen irisgarritasunaren balorazioa

Ikuspegi orokorretik begiratuta, egoitza autonomikoen irisgarritasunaren balorazioa positiboa da: lehen adierazitako irizpideen arabera, 295 lokal (azterturiko guztien % 71,6) irisgarritasun egokikoak dira, 50 lokal (% 18,3) irisgarritasun mugatukoak dira eta 28 (% 9,9) irisgarritasun ezegokikoak. Ikuspegi horretatik begiratuta, egoitza autonomikoetako irisgarritasunaren egokitasun maila nahiko hobea da, udal- eta foru-egoitzetako irisgarritasunarena baino.

Orain esan dugunez, hala eta guztiz ere, azterturiko eraikinen zerrendan Justizia Administrazioari loturiko egoitzen ordezkari-tza handiagoa egon daiteke, eta horiek, gero ikusiko dugunez, irisgarritasunaren egokitasun maila oso handia dute. Horren eraginez, halako eraikinetako irisgarritasunaren egokitasunak irudi orokor positiboagoa dauka. Hala ere, justizia-jauregi-tako egoitzen multzoa murriztuz gero, azterturiko 73 zerbitzuak horiek hartzen dituzten hamabi eraikinetan bilduta, emaitzak aldatu egiten dira, baina ez asko: irisgarritasun egokiko egoitzen kopurua % 71tik % 64ra, irisgarritasun mugatuko egoitzen kopurua % 18tik % 23ra eta irisgarritasun ezegokiko egoitzen kopurua % 9tik % 11ra igarotzen da.

Nolanahi ere, lurralde historikoen eta jarduera-eremuen araberrako azterketa zehatzago batek agerian jartzen duenez, desberdintasun handiak daude egoitza autonomikoen irisgarritasunaren egokitasun mailari dagokionez.

3.3.1. Irisgarritasunaren egokitasuna lurraldeen arabera

Irisgarritasunaren egokitasun maila lurraldeka aztertuta ikusten denez, Bizkaian eta Araban egoera pozgarria lortu da, eta bertan azterturiko eraikin guztien % 76 eta % 80 irisgarritasun egokikoak dira, hurrenez hurren. Aldiz, Gipuzkoako Lurralde Historikoan egoera ez da hain ona, eta azterturiko 71 egoitzetatik % 55ek soilik dute irisgarritasun egokia. Detektaturiko irisgarritasun ezegokien mailari dagokionez, egoerarik onena Araban dago, eta bertan azterturiko eraikin guztien % 4k soilik dute irisgarritasun ezegokia (hiru eraikin). Bizkaian eta Gipuzkoan, bestalde, egoera antzekoa da, % 11rekin eta % 12rekin, hurrenez hurren, irisgarritasun ezegokia duten eraikinei dagokienez. Azkenik, irisgarritasun mugatuaren aldetik, aipagarria da Gipuzkoan kalifikazio hori jaso duten eraikinen kopuru handia (ia azterturiko guztien herena).

Horrenbestez, oro har, hiru lurralde historikoen balorazio orokorra oso positiboa izan arren, egoera nahiko desberdina da lurralde batetik bestera: Araban irisgarritasun egokiko eraikin kopurua oso altua eta irisgarritasun ezegokiko eraikin kopurua oso baxua; Bizkaian, irisgarritasun egokiko eraikinak ere oso ugariak dira, baina irisgarritasun

ezegokikoak ere asko dira (hamabost eraikin, % 11). Gipuzkoan, bestalde, irisgarritasun ezegokiko eraikinen kopurua Bizkaikoaren antzekoa da; hala ere, irisgarritasun egokiko eraikinen kopurua oso txikia da, beste bi lurraldeei dagokienez.

Lurralde bakoitzeko eremu bakoitzari buruzko datuak aztertuta ikusten denez, desberdintasun nagusiak Osasunean eta Hezkuntzan daude. Izan ere, Gipuzkoako osasun-zerbitzu guztien irisgarritasunaren egokitasuna % 42ra baino ez da iristen, eta beste bi lurraldeetan % 75 ingurukoa da: osasun-zentro batzuen eta buruko osasun-zentro batzuen irisgarritasun mugatuak edo ezegokiak azaltzen du hori, batez ere Gipuzkoako Ospitale Multzoa kontuan hartuta.

31. taula. IRISGARRITASUNAREN EGOKITASUNAREN BALORAZIOA, LURRALDEKA (%)

Lurraldea	Irisgarritasun egokikoak	Irisgarritasun mugatukoak	Irisgarritasun ezegokikoak
Araba	80,0	15,7	4,2
Bizkaia	76,3	12,2	11,5
Gipuzkoa	54,9	32,4	12,7
GUZTIRA	71,6	18,3	9,9

3.3.2. Irisgarritasunaren egokitasuna arloka

Irisgarritasunaren egokitasuna hiritarrek eraikin bakoitzean jasotako zerbitzu motaren arabera aztertuta ikusten denez, desberdintasun handiak daude egoitza batzuetatik besteetara. Horrela, arlo batzuetan, adibidez, Justizian, irisgarritasun egokiko eraikinen ehunekoa ia % 95ekoa da; beste batzuetan (esaterako, bigarren hezkuntzako zentroen kasuan), ostera, % 42ra ere ez da iristen. Lorturiko emaitzak hurrengo taulan adierazita daude:

32. taula. IRISGARRITASUNAREN EGOKITASUNAREN BALORAZIOA, ARLOKA (%)

Zerbitzuak	Irisgarritasun egokikoak	Irisgarritasun mugatukoak	Irisgarritasun ezegokikoak
Osasuna	67,9	24,4	7,7
Segurtasuna	76,5	11,8	11,8
Unibertsitate-hezkuntza	55,2	31,5	13,1
Bigarren hezkuntza	41,9	26,9	30,7
Justizia	94,5	1,4	4,1
Administrazio-egoitzak	75,9	20,7	3,4
Beste batzuk	50,0	25,0	25,0
GUZTIRA	71,6	18,3	9,9

Taulan adierazitako datuetatik, honako ohar hauek egin daitezke:

- Irisgarritasunaren egokitasuna bermatzeari lotutako egoerarik akasunena bigarren hezkuntzako eta lanbide heziketako zentroetan gertatzen da, hiru hiriburuetan. Halako

hiru zentrotik ia batek irisgarritasun ezegokia dauka, eta, alderdi honetan, lurralde historikoen artean ez dago desberdintasun handirik. Irisgarritasun egokia neurri txikiagoan bermatzen dutenak ere halako zentroak dira. Gainera, gogoratu beharra dago, udal-egoitzei buruzko kapituluaren lehen hezkuntzako zentroak aztertu direnean, egoerarik txarrena eurok zutela (horien kudeaketa, neurri batean, Hezkuntza Sailak egiten du).

- Unibertsitate-hezkuntzako zetroetan ere, egoera ez da ona: aztertutako 38 zetroetatik, % 55ek irisgarritasun egokia dauka; % 31k irisgarritasun mugatua, eta % 13k irisgarritasun ezegokia. Lurraldeka, aldiz, egoera oso anitza da: Arabako campusean, aztertutako zentro guztiak irisgarritasun egokia dute; Bizkaian % 55ek soilik dute irisgarritasun egokia, eta Gipuzkoan % 33k. Lurralde horretan, unibertsitateko hiru fakultatek edo zentrok soilik dute irisgarritasun mugatua.
- Beste muturrean, justizia Administrazioari lotutako egoitzek dute egokitasun mailarik handiena irisgarritasunean. Aztertutako 73 egoitzetatik, 69 irisgarritasun egokikoak dira, hiru irisgarritasun ezegokikoak eta bat irisgarritasun mugatukoa. Hemen ere lurralde batetik bestera ez dago desberdintasun handirik.
- Ertzaintzaren egoitzek ere irisgarritasun egokiaren maila handia dute. Aztertutako 17 komisariatetik, hamahiruk irisgarritasun egokia dute, bik irisgarritasun ezegokia eta beste bik irisgarritasun mugatua.
- Osasun-zerbitzuen irisgarritasuna nahiko egokia dela esan daiteke, nahiz eta Justiziako eta Segurutasuneko zerbitzuen mailetara ez iritsi: Osakidetzako osasun-zentroen bi herenak irisgarritasun egokikoak dira eta % 7,7 irisgarritasun ezegokikoak.
- Hala eta guztiz ere, lurralde batetik bestera egoera oso desberdina da; izan ere, Gipuzkoan, osasun-zerbitzuetako irisgarritasunaren egokitasuna Araban eta Bizkaian baino nahiko txikiagoa da. Egin-eginean ere, lurralde horretan, aztertutako 21 egoitzen % 42k soilik dute irisgarritasun egokia, eta irisgarritasun ezegokiaren ehunekoa ere beste lurraldeetan baino handiagoa da (% 14,3, eta batez bestekoa % 7,7 da).
- Lurralde-ordezkaritzetako administrazio-egoitzetan ere, irisgarritasunaren egokitasuna handia da, hau da, lokal guztien % 75 irisgarritasun egokikoak dira eta % 3,4 irisgarritasun ezegokikoak. Dirudienez, ez dago sail bakoitzerako jarduera-jarraibide berezirik, eta aztertutako guztien arteko bitan soilik (kultura eta hezkuntza) baloratu dira egokitzat, hiru lurralde-ordezkaritzetan.
- Gainerako eraikinei dagokienez, horietariko batzuetan, esate baterako, Eusko Legebiltzarrean, egoera anitza da. Jakina, erakunde oso desberdinak edo banaketa guztiz desberdinekoak direnez, ezin daiteke ondorio orokorrik atera: aztertutako hamaika egoitzetatik seik irisgarritasun egokia dute, hiruk irisgarritasun mugatua eta beste hiruk irisgarritasun ezegokia. Irisgarritasun ezegokiko egoitzetatik bi Langairenak eta beste bat Eusko Jaurlaritzarena dira.

3.4. Ondorioak

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari lotutako 272 eraikin hauetako irisgarritasunaren egokitasuna aztertu ondoren, honako ondorio hauek atera daitezke:

- Oro har, irisgarritasun egokiaren maila handia dago; hain zuzen ere, aztertutako egoitza guztien artean, % 71 irisgarritasun egokikoak dira, eta % 9,9 irisgarritasun ezegokikoak.

- Lurralde batetik bestera desberdintasun nabaria dago; hori, neurri batean, lurralde bakoitzean balorazioa talde desberdinak egin eta balorazio-irizpideak berdin-berdinak ez izatearen ondoriozkoa da. Datuek agerian jartzen dutenez, nolahi ere, Gipuzkoako egoera beste bi lurraldeetan baino txarragoa da, eta egoerarik onena Araban dago.
- Halaber, eraikin bakoitzeko erabileraren eta administrazio-egoitzaren arabera desberdintasun handiak daude: justizia Administrazioako eta Ertzaintzaren komisariatako lokaletan irisgarritasun ia guztiak dira egokiak; bigarren hezkuntzako eta lanbide heziketako zentroetan, aldiz, egoera askoz ere txarragoa da.

Sail desberdinek irisgarritasunaren egokitasunaren gaiarekin duten konpromiso maila (arloan honetan jardura orokorrak eta planifikatuak egotearen ala ez egotearen arabera neurturiko konpromisoa), dirudienez, faktore garrantzitsua da egoitzen arteko desberdintasunak ulertzeko. Izan ere, Irisgarritasunari buruzko Lau Urterako Plana aplikazio-fasean duen sail bakarrak, Segurtasun Sailburuordetzak, batez bestekotik gorako emaitzak ditu.

Irisgarritasunaren egokitasun maila handia duen beste saila Justiziarena da, eta horrek, azken urteotan, zentro berriak eraikitze politikak aktiboak eduki du. Bigarren faktore garrantzitsua, horrenbestez, zentroen eraikuntza-politika dela dirudi, sail bakoitzak azken urteotan jarraituriko politika. Egin-eginean ere, irisgarritasun egokiaren mailarik handiena azken urteotan eraikin berriak eraikitze politikak garatu duten sailetan dago, eta horietan, gainera, sailen arteko sakabanatzea txikia da: egoeraren adibiderik onena justizia-jauregiek eta Ertzaintzaren komisarietateak eskaintzen dute; izan ere, sail horietan, jendeari sarritan oinplano berrikoak diren eraikinetan eskaintzen zaio arreta, oraintsu eraikitako eraikinetan, eta eraikinon eginkizun bakarra horixe da, horrexetarako diseinaturik baitaude, eta gainera, ez dute sakabanatze handirik lurraldearen barruan. Irisgarritasunaren egokitasunaren kontrola, kasu hauetan, onartzeko moduko erantzukizuna da.

Aldiz, bigarren hezkuntzako sarea eta, neurri txikiagoan, Osakidetzaren sarea eraikin zaharren inguruan egituraturik dago (Autonomia Erkidegoa sortu aurreko eraikinak, Estatuko Administrazioetik transferituak); eraikin horien jatorrizko erabilera beste bat zen, eta lurralde osoan sakabanatuta daude. Halako kasuetan, jasotako jaraunspena (konplexua, lurralde mailako sakabanatzearen eta neurri txikiko zentroak ugaritzearen ondorioz) ez da behar bezala konpentsatu, arkitektura araudiaren eskakizunetara egokitzeko beharrezko ahalegina eginez.

Ageri-agerikoa da, nolahi ere, hipotesi horrek egoera neurri batean baino ez duela azaltzen; izan ere, oinplano berriko eraikin askok ez dituzte baldintzak betetzen, irisgarritasun egokikoak direla jotzeko, eta oraindik, horietan egindako egokitzapenak eta zuzentze-neurriak ez dira nahikoak.

ONDORIOAK

- Hiri inguruaren, eremu publikoen, eraikinen, garraiobideen eta komunikazioko bideen irisgarritasuna funtsezko elementua da, hiritar guztiek oinarrizko eskubideak erabili ahal izateko, Irisgarritasunaren eremu honetan, erreferentziako elementutzat hartu behar da **diseinu unibertsalaren kontzeptua**; horrenbestez, **gizartea bera bertako kideen aniztasunera egokitu behar da**, eta, horretarako, beharrezko aldaketak sartu beharko ditu, pertsona guztiek bizitzaren arlo den-denetan erabateko partaidetza eduki dezaten. Aintzat hartu behar da gizartearen egokitzapen hori bide eraginkor bakarra dela, pertsonen berdintasuna eta euren eskubideen errespetua lortzeko.
- **Euskal Autonomia Erkidegoko legeriak nahikotasun-printzipioa bermatzen eta babesten du.** Horrela, erabilera publikoa duten eraikinen irisgarritasunari dagokionez, berori baita txosten honen helburua, Euskal Autonomia Erkidegoak irisgarritasuna bermatzeko neurriak arautzen dituen arau-multzoa dauka.
- EAEn irisgarritasunaren arloan **indarrean dagoen araudia** jarduketa-eremu orokor batean egituratzen da, Irisgarritasuna Sustatzeari buruzko abenduaren 4ko 20/1997 Legeak zehaztutakoa; halaber, esku-hartze eremu desberdinetan aplikatzeko moduko baldintza teknikoetan ere egituratzen da, eta baldintza horiek lege hori garatzen duten bi dekretuetan jasota daude, hau da, apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuan (hiri inguruen, eremu publikoen, eraikinen eta informazioko nahiz komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onetsi dituen) eta uztailaren 10eko 126/2001 Dekretuan (garraioaren arloko irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onetsi dituen).
- **Legea ezinbesteko elementua eta aurrerapauso handia izan da**, lehengo egoerari dagokionez; izan ere, horri esker, zehapen-araubideko arauak sartu dirua, eta horiek funtsezko zutabea osatzen dute araua ondo aplikatzea eta betetzea kontrolatzeko. **Hala eta guztiz ere, gogoratu behar da horren arauketaren alderdi batzuek zalantzak sortzen dituztela.** Hain zuzen ere, 5.000.000 pezetarainoko (30.051 euro) zehapen larriak eta arinak ezartzeko eskumena duten organoak zehazteari lotutako interpretazio-zalantzak, legeko 21 b) artikuluan ezarritakoaren arabera.
- Legeak hiri inguruen, eremu publikoen, eraikinen, garraioen eta informazioko nahiz komunikazioko sistemen (erabilera eta zerbitzu publikoa dutenak) irisgarritasuna bermatzeko eta sustatzeko diseinatu duen **oinarrizko tresna**, bestalde, **irisgarritasuna sustatzeko lau urterako plana da.** Programa horren bitartez, administrazioek eta gainerako erakunde publiko guztiek hauxe egin behar dute:

egoeraren diagnostikoa eta egokitu beharreko kanpoko eremuen, eraikinen eta komunikazioen inbentarioa; lehenetasun-ordenaren finkapena, eta horretan kontuan hartuko da eraginkortasun handiagoa eta pertsonen erabilera; eta finantzako programa ekonomikoaren eta egokitzapenak betearazteko egutegiaren onespena.

- Hala eta guztiz ere, legean administrazioek eta gainerako erakunde publikoek lau urterako **lehenengo plana prestatzeko finkatutako epea aspaldi igaro ondoren**, eta txosten hau egiteko datu-bilketa itxeko unean, **legearen agindua 7 udalek soilik zuten beteta**: Amurrio, Azpeitia, Eskoriatza, Getaria, Gueñes, Orio eta Urretxu.
- **Betetze eza orokor hori era askotako zergatiek eta arrazoiek azaltzen dute**, txostenean adierazitakoaren arabera: hiri inguru nahiz eremu publiko ugariko udalerrri ertainetan eta handietan halako programak prestatzearen konplexutasuna, udalerrri txikien arazo ekonomikoak eta teknikoak, egoeren aniztasuna (aldundien eta Eusko Jaurlaritzako sailen eskumen-eremuei dagokionez), etab.
- Nolanahi ere, **legeak agindutakoa bete beharrekoa da eta lau urterako programak egin behar dira**, ezinbestekoak baitira pertsona guztien irisgarritasuna bermatzeko eta sustatzeko.
- Beste alde batetik, **programa horiek prestatuta egon ez arren, administrazio eta herri-erakunde asko era guztietako jarduketak egiten ari dira**, euren eskumeneko eremuetan irisgarritasuna bermatzeko eta sustatzeko, baina horren emaitzak desberdinak dira, bai lurralde batetik bestera eta bai sektore batetik bestera.
- **Udal-eraikinen irisgarritasunari dagokionez, egoera ez da inondik inora ere pozgarria**; horrenbestez, nekez uler daiteke abenduaren 4ko 20/1997 Legean irisgarritasuna sustatzeko aurreikusitako programen prestakuntza hasi duen udalerrri kopuru txikia.
- **Foru aldundien zerbitzu publikoko eraikinen irisgarritasun maila** apur bat hobea da, neurri batean gizarte-zerbitzu espezializatuen egoera bikainari esker. Kulturako, kiroleko eta gazteentzako zentroyen egoera, aldiz, nabarmen hobetzeko modukoa da.
- **Egoitza autonomikoen irisgarritasun mailari dagokionez**, egindako azterketatik ateratzen denez, Lakuan zentralizaturiko zerbitzuen egoera udal- eta foru-egoitzena baino askoz ere hobea da.
